

Don Bildur



FELIX ZUBIAGA

Euskal Herria
milagarreneko azken ihauterian
parte hartu nahi badozu,
jantzi eizu Don Bildurren marroa
eta zoaz Arabatik Cordovara
eta Alakanen alargun,
Sobeia, Kalifesia
Don Bela euskaldun errefuxiatuagaz
xake-jokuan
ikusi ahal izango dozu
une batean,
gero Don Abarka,
Iruinea eta Nafarroako erregea,
kristau eta mairuen tirabirea
orekan zaindu-ahaleginetan,
Santxuelo lobeia
Al Zaharan besarkatzen.
Gudu Santuaren burundan
zatorkez ostera Arabarantz
eta Don Munio
Armendiko gotzainak,
Gormaz aldeko guda-mugan
gudariei azken igorotza
emoten dagola,
heriotza jasan ebanekoa
eta Almantzurren
su ta garreko erasotan
azken juizioko profeten deia
entzun ahal izango dozu
lau hariko kontrapuntu honetan.

Don Bildur

Eusko Jaurlaritzako
beka-laguntza jaso eban
(1993)

Felix Zubiaga

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

Don Bildur lo lievaba par la cabeça mia

(G. de Berceo)

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994
ISBN: 84-7992-563-9
Legezko Gordailua: BI-2390-94
Inprimategia: Salingraf S.A.L.

*Haec est gens barbara,
omnibus gentibus dissimilis
ritibus et essentia.*

(Lib. IV, S. Jacobi Aпти.)

JAUN INKO JAUNAREN ETA ANDRE MARIAREN IZENEAN nik, Martin Belasko, Jaunaren errukiari esker, Jaun Done Miliako abateak, Don Munio Armendiko Episkopu agurgarriari, goraintzia eta dedua Jesukristo gure Jaunaren izenean. Aurrez aurre eta ahoz emon gura neuntsuzan, ene jaun, eskatzen zeunstazunon barri, baina hortik igaroteko zoria izan neban harakoan zeu etxetik ate Artzain Onaren lanetan suertatu izan zintzazanez, eta orain barriz, neu monastegiko arazoei lotuago nagonez, arazoon barri gutunez emotea erabagi dautsut eta ez bakarrik zeure agin-duei amore egitearren, bai ta aspalditxotik bihotzean sartuta daukadan arantze hau ateratearren ere.

Albeldatik jakin izan dodanez, Gaztelako monastegiak, eta ez Gaztelakoak bakarrik, zelokortsu ei dagoz Jaun Done Miliakooi zuk bereberki egin dauskuzun misino-deia dela-ta. “Zeren zeloak? —dinotset nik—. Bizkaia misionatu edo hango itxas-ertzean arrandegiren bat sortzeko asmotan bazagoze, zergaitik gixtiesten dozue hango berbetea? Edo Ebangelioak latinez irakurri eta erromantzean azaldu eta beste barik, Espiritu Santuaren eraginez ulertuko dautsuela uste dozue? Edo misionatzea barik, arrandegiak sortzea ete da zuen asmoa?”

Oraindino argiago esan neinkie Okinako anaikideei batez ere: "Zein errege edo kuntiren mezua daroazue haren zaldi eta mandoetan, Jesukristo gure Jaunaren Ebangelioaz landa?"

Gaztelarrok, lehenago Leondarraren garaietan bezala, orain euren kontearen esanera, Belostako Apezgoaren mugak gitxietsiz, Argantxonaraino luzatzen bai-dautsuez erdera eta guztiko aldaskak. Oi, animen zeloaren ederra, munduko printzeen beste interesik ez balego artean!

Egia dinozu, ene jaun, *charitas Christi urget nos* Apostoluaren harakoak inoiz baino larriago behartzen gaitula eta ez milenarismoz kutsuturiko igarle-ustezko batzuren Azken Juizioaren hurtasunak-edo asko larritzen nauelako, Kristo gure Jaun berberak *vigilate* harakoaz ernaitasunera deitzen gaituelako baino. Lotsagarria litzake bestela guretzat, Bera, opari salbagarri, guztiokaitik hil zeneko milagarrena ateetan dogula, oraindino asko gure artean, eta ez dinot mairuskoetan bakarrik, geure euskal anai-arreben artean, betiko salbazinoaren ezjakitun edo salbabi-dearen entzungor egotea. Horrek bultzatzen nau, bultzatzen gaitu, ene jaun, agindu dauskuzun misinora.

Hortik dakusdaz bestalde, zure artzain-ardurak ere, hortik zure ohiko eta betiko Jaun Done Miliako anaikideei egin dauskuzun misino-deia, batez ere Bizkaiko gure anai urrunduen ardurak gaitezen eta hango abade eta burujabe diren abategiekazko lan bateratsuz, artaldearen batasuna erakutsi eta Kristo gure Jaunaren usain ona non-nahira zabaldu ahal daigun.

Jaun Inko-zeloak daukanak poztu egin behar litzake zuk egin dei-hotsaz eta ez erre, erresuminok nabari dinoenez. Ba dakitsut Jaun Inko Jaunaren mahastian denontzako lain zeregin dagoena, baina euskerari dagokionez, ez daukee denek misino horretarako guk daukagun prestakizuna. Apostoluaren ganoraz, dena denontzat izan baino, gurago dautsue oraintxe ere, bada-ezpadako esamesez Done Miliakoon jokera itxurgatzea, *menos*

Jaun Inko Jauna y más Dios Rodilatik honako monxeak esan eustanez. Ba dakizu, ene jaun? Ezin amoremon guk, euskaldunok, Jaunari *Jaun Inko Jauna* hiru izenoz deitzea. Ez ete dakie kristinauontzat gure Jaun Inko Jauna Hirukotxa dena? Ze arrianismoz-edo diatortzuz bada guri lotsak emoten? Edo muga-muga latzetik gu baino hurrago bizi direnez, *Ala-u-akbar* esaten entzun ete dautsue? Zelan igarten jaken, oraindino asko ez dela, euren gurasoek mahometen menpean egonak direna, edo eta gaur bertan Kalifagoari zergak ordaintzen dautsoezena!

Eskolatu egin izan behar neuntsun lotsak emoten etordan hako erdalduna eta lotsaazo egin neban: "Uste dok Jesukristo gure Jaunaren Apostolauek Grezian edo Erroman ebangelizatu ebenean, Jaun Inkoari *Zeus* edo *Deus* barik, *Yave* deitu behar dautsazue hemendik aurrera" esaten hasi jakezela? Ez holakorik, anaikide, ezipabe eurak hasi jaazan zeruko Jaunari Grezian *Zeus* eta Erroman *Deus* izenak ikasi eta erabilten, zeuok hemen egi-ten ez dozuena, hain zuzen"

Ezin eskutau barbaro-burua, bada euren arbasoek, kristautzean, ahaztu egin eutsuen zeruko Jauna deitzeko erabilen izen jatorra eta kristinauena *Deus* zela uste eutsuen eta ez Jesukristo gure Jaunaren Aita.

Orain bada, ene jaun, ze erru daukagu guk euren lurreko susterrak galtzeaz? Eurak kristautzean eurena galdu ebela-ta, geuk ere geureaz bilustu egin behar ete, dagoneko lau gizaldi ba direla euskaldunok kristinauen Jaunari 'Jaun Inko Jauna' deitzen dautsogula? Edo eta Jesukristo gure Jauna gugaitik hil eta biztu zeneko milagarrena ateetan dogularik, zuk, ene jaun, haren karidadeak eraginda, deitzen dauskuzun Bizkaiko misino honetan latina eta haren alaba den erromantzearen espilua erakutsi behar ete dautsegu euskaldunei, Jaunaren Berbea iragarri eta arimen garbitasuna egiztatzean?

Dakianak daki euskera ere, ene jaun, eta euskaldun jaio garenok hatan ere euskeraren balioa, ez euskaldunak ebangelizatze kotan bakarrik, bai eta euregazko gure anaitasuna adierazteko... Bada Kristo gure Jaunaren Espirituak hizkuntzen eta arrazen gaintetik anaikide egin bagaitu, bizkaitarrokaz alkarrean dogun euskaltasunak bidea erraztu baino ez dausku egiten. Eta, izan ere, Jaun Done Miliako monxe gehienok euskaldunak garen ez, aldea daroatsegu horretan Otxerri eta Burebako beste monastegiei, aldea Nafarrokoei eurei, euskalkiaren akatza dagonek. Jaun Inko gure Jaunak gura izango eutsun Otxerriko euskerrea, Arandio mendietako artzainena berere, Arabatik zehar Bizkairaino doan altxubideko ber-bera izatea, bere Seme Jesukristo gure Jaunaren artzaintzan horren egoki etor dakigun. Hagaitik, oraintxe ere, nahiz ta Apezgoz Naiarakoak garen askok armenditartzat daukaguz geure burua eta ebangelizatze ganorea eta hagaitik Arandio mendietako artzainak urtero Ebro ibaia igarotera daroazan senak berak garoaz geure misinoan beheko mendiak goikoekin eta lehorrak itxasoakin lotzera.

Neu ere birritan, gaztaroen oinez eta heltzaroen mandoz, ibilia nauzu, ene jaun, zuk zure makila zuzenaz jaurritzen dozun Apezgoko lurak ikusten eta ebangelizatzen, Deba ibarraldetik Nevioraino eta Iberotik itxasoraino esateko. Eta Armendiko Apezgoaren mugak aztertu ondoren, sarritan gogoratu ere, Eleiza Ama ala herria bera izan eiteken Jaunaren arloko suinok hain egoki jaurti dauzana. Eta egia esan, mila bidarrez poztu ere egin nauzu, munduko errege eta denagurako konteek burua jaso orduko, Eleiza Amaren ardura herriaren ona bilatzen egoki baten aurreratu zela konturatzean.

Apezgoaren mugako mendi-errekak gaurdaino iraun datusue, ene jaun, arerio guztien aurka, Okamendietako eta Kalagurrikoek ez bezala. Eta honetan bai esan geinkela gure Jaun Inko Jaunak aparteko begiramenez zaindu eta hesitu gaitula gizaldietan zehar, alboko beste batzuk ahienatzen zirelarik, zure eskuko

eta gure bihotzeko Armendiko horrek aurrez urten bai-dautsu. Ez datsut esan gura, ene jaun, gureek, Armendiko Apezgoa zaintzeko, ez eutsuela egin behar izan eguno burrukarik, gure mendiak eurak izan zirela gure gordailu berezi baino. Oraindino denon gogotan dago ostera, Naiara mahometen zamapetik askatzeko ixuri-odola. Kalagurriko Apezgo-ohiaren hasikintzat hartu eutsuen eta Naiara-Bakirako erregetzaz batera eraiki Apezgo barria, hanartean armenditar gintzazanok ere hari lotzen ginduezela.

Beraz, ene jaun, mendi eta ibaien mugak hor dagozanarren, maiz gizakien gurariet aldakor egiten datusuez mugok, gu euskaldun eta kristinau zahar ginduzuzala, kristinau barri eta erromantzartuen partekide egiten ginduezanean bezala. Balinba gu Kristoren argi eta gatz izatea Ebangeliora itzuli-barrien artean!

Argi eta gatz denari ez dagokio, halan ere, berezko argizaria edo gazitasuna galtzea. Hain zuzen ere, guk gurago dogula falta diren gure anaia euskaldunak Kristo gure Jaunaren artaldera erakarten ahalegintzea, euskera ez dakien ardura Okina, Belosta, Naiara eta Albeldako monxei itziaz. Balinba, hori dela-ta, nigaitik Jaun Done Miliako monastegi eta indar hau Arangio barreneko Kukulia honetan barik, Kantauri mendi-katearen bestaldean edo harantzago, Barrasate aldean egotea! Eta horretan txalogarri deritsot benetan zuk, ene jaun, bai Araban eta bai Bizkaian monastegi barriak sortzeko dozun ardureari. Hobe baino ez, gure laguntza-beharrik gabe, dagoneko eurak burunahiko izatea.

Hanartean hemen gozuz, ene jaun, Otxerriko artzain-seme izanok Jaunaren altxubideetan ere ibilteko gertu, euskal-anaitasunari Kristo gure Jaunaren fedea azkeneraino jarrai ahal dation. Hagaitik gogoz baino gogotsuago erantzun datusogu egin daskuzun misino-deiari eta ezkertzekoa baino ez bestalde, guggan ipini dozun uste ona eta konfidantza. Jaun Inko gure Jauna

lekuko, ez dautsugu iruzurrik egingo. Ondo ere ondo dakizu, ene jaun, ez daroaguna horrantz ez Leongo, ez Iruinako, ez Naiara-Bakirako erregearen mandaturik eta gitxiago Gaztelako kontearen gorantzirik, euskal anai-arrebegazko maitasunak eta *ite et baptizate* Kristo gure Jaunaren ardura eta karitateak bultzatzen gaituna baino...”

“DON BELAK, KALIFAREN BABESPEKOAK, KORDOBATIK Don Martin lehengusuari, agur. Ez diakiat, egia esan, zer egiten diharduen kristinauen Jaun Inko Jaunak, bada kristinaua nazela eta berari otoitz dagitsodala, esan leikek urteotan neure kontra eta neure jasartzaileen alde datozela eraso guztiak, nire arerioak bizirik eta indartsu dirauen artean, nire babesleak gaisotu eta hil egiten bai-dozak, nire asmoek ames hutsean gelditzen direla.

Izan be, ez joat aurrerapen handirik egin, Kalifa zaharrak babespean hartu nindunetik eta honagino. Lehenengo bere zahartzaroan bakezale biurtzen zala eta gero haren seme Alakanen ahuleria gordintzen zalarik, ez dok ezpararik mogidu Kalifagoan, ohiko jai arranditsuetan edo kristau-erreinuetako diplomatikoen omenerako izan ezik.

Kalifagoaren halako herio-ilunteak halan be, ba diaukak oraingoan *egunsentirik* Sobeia, Alakan Kalifa zanaren alargunagan. *Egunsentia* dinoat, bada horixe esan gura jok arabieraz ‘Sobeia’ izenak. Erdi kristinau eta erdi euskaldun, Iruineako Toda printzeziaren aialdeko etorri zozan Tuterako gortetik hona. Izena aldatu orduko, Kalifearen emazte egin zozan, orain haren ondorengo, Kalifa-kumearen ama eta Ordezkari dala.

Alakan Kalifa zanaren garaian emakume horregaz xake-partida batzuk egin nauk, bai eta galdu be. Esan be egiten nio-tsan nik nire burrukea ez zala damero gainekoa. Nik benetako zaldia eta benetako gudamutilak laguntzat eta Gaztela osoa behar nebazala damero-zelaitzat eta ez gero inongo errege edo



erreginarik azpiratzekotan, geure asaben gazteluen jabetasuna lortzearren baino. “Ze alde diagok gaztelar edo euskaldunen artean?” —itaundu jostan halako baten berak.

“— Ze alde dagoen, ene andere, euskaldunen eta erdaldunen artean? Ze alde dagoela uste dozu —erantzun niotsan nik— ohiko euskaldunen eta zuen aurretikoez menperatu ebezen bisigotarren artean?”

“— Hareek, bisigotarrek, ahienatu egin zirela eta zuok, euskaldunok bizirik zagozela —erantzun jostan.

“— Ez, ene andere —nik orduan—, bisigotar hareek bizi jatzuz, bizi, beste izengoiti bategaz bada be. Ez al dozu entzun, azagariak narrua aldatuarren, amarru-jokerak ez dauzela ahazten? Bada horixe jazo ohi jake Gaztelako azagariei... —Dorrea ezarri niotsan erreginarean aurka—. Jakin egin behar dozu, ene andere, Tarik zuen buruzagia eta oraingo Kalifaren aurretikoak ez zirela euskaldunen aurka etorri itxasoaren bestaldetik, bisigotarren aurka baino. Euskaldunok geure itxasoa daukagu eta geure mendiak. Gu ez gatoz goikoak itzi eta beheko itxaso eta mendion bila, bai horregaitino Kalifagoko mugak behin eta barriro igaro dauezen bisigodo barriok.

Burua bizirik ateratearren, horreek bai zergak ordaindu, baina ahal dauenero, bai huts emon. Huts emon ezeze, Kalifagoko lurak jan —Harakoan zaldi-kalkolaz alfila jan nieuntsoan Sobeiari—; eta lurak janala, eurentzat daukeen itxasoraino etorri gura dautsue Kordobatik zehar. Horixe dozu, izan be, euskaldunen eta gaztelarren, edo bisigotar barrien aldea”.

“— Eta hori holan dala —Irri gaiztoa egin jeustaan Kalifesiak—, zelan bateatu dok ‘Errodrigo’ izenaz heure lehen-semea?”

Neure dorre biak porrokatu eta porrok egin ainean itxi ninduan emakumeak. Arnasea hartu eta bide barriak asmatu behar izan najoazan, lehengusu.

“— Bai, *Errodrigo* dinonak bisigotarren harako azken erregea gogoratzen dautsu, ‘Eneko’ dinonak Iruineko lehen erregea gogoratzen dautsunez —apal erantzun nieuntsoan—. Galtzaileen izenik nekez hartuko dautsu inork, baina arabarrok, galtzaile eta irabasleen artean bizi garenez gero, daneri egin behar dautsegu ohore.”

“— Hori dok-eta orain arte entzun dauadan gauzarik bitxiena —amore egin jostan Kalifesiak— eta horregaitik bakarrik Kalifagoko aholkulari izendatu beharko hinduket...” —gaineratu.

Hori bere senar Alakan bizi zelarik izan zolan. Gero ba dakik alarguntzaren baimenik ezak eta Kordobarren susmoak Kalifesiaganako xake-jokuetatik urrundu egin ninduana. Agur Al Zahara mendiko ehizaketak eta agur jauregiko zaraoak. Zer egikeen bestalde kristinau batek eta erdik Kordobako jauntxoaren susmoak gorbiztu baino? Sobeiak orduan Abu Amid Mohamed gudalburu gazteari deitu jeutsoan idazkaritzara. Bai zuhur jokatu Tuterako alabeak! Gudarostea linburtu egin joan alde batetik eta Hixen bere semetxoaren Kalifa-eskubideak goitik erakutsi jeutsoazan herriari-bestetik, “Eguntsentiak Bake-Eguzkia dakarsku” herriak Sobeia lausengatzeraino.

Neuk, egia esan, gurago neunkean *bake-eguzkia* baino, *ire-targi erdia* deitzea, hau da, mahometen guda-ikurrinaren seinua, baina hori Abu Amid Mohamed gudalburu gazte horren zera izan daitekek eta nork jakin, Ala guztijakitunak izan ezik, bien artean zer egosten dan? Ondo konpontzen ei dozak, ondotoxoei batzuren ustetan, baina bere erdi-kristinau-sundatxoa dala-ta, aholku-laguntzarik-edo beharko baleu, han nengokek osteria be, Al Zaharako jauregian “ene, andere —xurxulatzen—, mahomet-herri honetan ezelako susmorik gelditzen bada, ba dakizu zer egin eta ni gertu naukazu.” Behingoan Liburua idegi eta “Zergaukatzaileen sura” irakurri neinkiok astiro-astiro Mezkitako imanaren antzera. Gero Liburua itzi eta ohar egingo: “Gaztelako etoi

hori hemen aginduko zigorrez astintzea baino ez dozu mujaidinek Alaren zale eta mahometen ohitura-jarraitzaletzat har zagiezan. Orduan ikusiko daue ez dozula kristinauekin ezelako begiramenik, Alaren zela eta mahometen ohorea zaindu behar da-nean.”

Zera be esan neinkio hitz erdiak bada be: ”Abu Amid Mahomed sekretariak ausaz ondo ikusiko gaitu ni eta beste gudalbururen bat jauregi honetatik urrun... Zer deritxozu, ene andere?”

USTEZ, BADAEPADAKO ESAMESETAN HASI NAIAZTUNEZ, ene jaun, ez dot hutsean itzi nahi, zuk Bizkaiko misinora deitu eta laster entzun dogun beste hau. Izan ere, *Liber scriptus profferetur* Jaun Inko Jaunaren Azken Juizioko harakoa aitzakitizat hartzen dautsuela, ez dautsue, ba, harako Braulio eta beste sasi-maisuen euskaldunogazko ustekeriak Naiaran eta Albeldan bertan berkopiatzera emon? Jaun Inko Jaunaren epai zuzena barik, barbaro suminduen iraina egin gura dauskue horrelan Jesukristo gure Jaunaren milagarrenean. *Haec est gens barbara* —nork nori esan...— *hominibus gentibus dissimilis ritibus ete essentia...* eta holako bitxikeriak leiduten emon daustez. *Omnibus gentibus dissimilis* hori gogoko ere ba jat, baina hortik gu basatizat jotea euren buru-nastetik geu ikustea baino ez dozu, ene jaun. Zantarragoak ere ba dinotsuez jarraian, nonbait gu pagano eta anker zer izan garen kristinau jendeekin. Nik ez dakitsut gure aurretikoek ze harremon izan eikitsuen hako kristau-erexe edo erdikristinau harekin, baina erromantzatu ez diren euskaldunak ez-kristau eta barbarotzat jotea epai aizuna emotea baino ez dozu, ene jaun, eta ohiko arerioen sumin-salapenak barriztau gura honek, harako zorri hil-biztuarena emoten daust. Ez ete dira konturatzen, edo ez ete daue kontuan hartu gura, guri dagokigunez beheinipehin, gauzak aldatu egin direna ordutik hona? Ea eurek lehengo lepotik daukeen burua, edo Albeldako nire lehengusua Begilazi esan neuntsonetz: “Non dozuez ba orain, zuek santu

dinozuen Brauliok-eta konbertitu-kristinauak Zaragozan? Non zuen fedearen jatorrizko uri eta amatzat dozuen Kalagurriko kristau-taldea? Edo eta Albelda eta Bakirako zuen aurretiko erdaldunek gu euskal kristinauokin zein anker eta mahomet erexe izan diren aldarrikatzen hasiko ete gozak, halako liburuak eginez?...”

Begilazi lehengusua idazkari azkar eta historia zale dozu, bera ere, ene jaun, baina bere hidazkiak, *Liber scriptus profferetur* hako epai zahar-barrigileen zemari erantzuteko baino, areago direla munduko erregeen gogorantziko ekintzak txalotzeko asmoz eginak. Gitxi ardura, halan ere, munduko errege-auletan gutaz zer esangoak, erregeen Errege haren Juizioan garbi agertzekotan.

Zorri hil-biztuok ere Azken Juizio hako *in quo totum continetur* Liburuko erabagiez zerbait arduaruko balitzaz, ez litzakez halako alper salapenetan euren beste gaintik ikusten horren gozatuko, edo euren izenak Bizitzako Liburuan agertzeaz poztuko litzakizuz eta ez zuk, ene jaun, Jaun Done Miliako monxe euskaldunok Bizkaiko misino horretarako bereziki aukeratu gozuzala-ta beste barik, odol txarrekoak inoren kontra astintzen ihardungo. Horrela zehatu gurako dautsue gure euskaltasuna eta kristautasuna era batera. Euren eritsietan, izan ere, zelan izan gaitেকেz kristinau peto-peto eta euskaldun izaten jarrai, halako liburu zaharrak euren sumin barriak egizatzen diatorkezala ikustean?

Barbaroen eritsiok geure monastegiko ormeagino zipriztindu dautsue, ene jaun. Baten batek debozino faltsoalako erabili ere egin dautsuz inoiz-edo behin gure Aita Jaun Done Miliaren hako kantabroei egin-igarkizunak, ez dinot oraingo euskaldunon zentzabiderako, baina bai gogorantzirako behenipehin. Kantabrook gure Kantauri mendipeko euskaldunak ei zenduzan, Ibero ibarretik harakoak, gaur bertan ere zure zainpeko artalde,

zoriontsu bizi direnak. “*Zeuon sasijainkoetatik konbertitzen ez bazaree* —aldarrikatzen hasi ei jaken behin gure Aita Jaun Done Milia— *arerioen eskuetan jausiko zaree*”. Esan eta igarle urten ei eutsun. Euren paganokeria eta burugogokeriagaitik jausi ei zan Kantabria uri handia, bertako gizon eta emakume, txiki eta handi, ezpataz erasoak izan zirela. Hagaitik uri haren arrastorik ere ez ei da gelditzen, zigorraren handiz, harririk harri gainean gelditu ez zelako nonbait. Baina harririk harri gainean gelditu ez denarren, ipuin horri oinarri egin eta egizta daiken mendi izena, eurek *Kantabria* eta guk *Kantauri* deitzen dautsoguna, gelditzen ei dozu. Izan ere mendi-kate horrek eguno ez dautse geriza onik egin gure arerioei eta armaz atxiki ezin izan ebena, ipuinez itxurgatzea lortu dautsue.

Gure Aita Jaun Done Miliaren igarkizunak halakoak izan baziran (bada Jaun Inko gure Jaunak maite dauzanak zigortzen da-kitsu bereziki), ez zan luzaroko zigorra izan eta, batez ere, ez zenduzan Leovigildo bisigotar anker haren menpean jausi eta areago haren erexian. Ipuinaren-edo asmatzaileek guzti hau ez dautsue kontutan, ez eta esaten geroagoko bisigotarrak zelan eta zergaitik eurak ere jausi ziran mahometen ezpata makurraren pean. Hartuneko zigorrakaitik bada, beste askoren kristautasuna ere ez da oso malgu gelditzen, halan esate baterako, gure arten kristau zahar izenako, kalagurritarrena. Beste askori ere, isilik egotea hobeto letorkie, etorri, albeldarrei eta naiaratarrei eurentan. Esan dagiela gaztelarrak eurak zergaitik geure, edo geurea izaniko, Belosta bazterreraino aldatu behar izan eben Aukako Apezgoa eta zergaitik oraindino beheragoko mugetara aldatzera ausartzen ez diren. Esan dagiela aldameneko euskaldunekandik babesa baino beste zerik lortu izan dauen. Ala orain Gaztelako ordeka guztian bake santuan dagozala-ta, gure mendien babesik gabe polito konpontzen direla-ta, ostera ere gu pagano anker-tzat itxurgatzen hasi behar ete dautsue, gero nori erasoa eukiteko? Gure euskera eta euskaltasunari dautsoen gorrotoarren, ostera ere, *falademe vosa merçede en cristiano* esaten hasi behar

ete jatzuz, Okinatiko harako anaikidea bezala? Ez nenkitsun erdalduna zenik eta euskeraz egiten hasi nintxakon gurera heldu zenean eta halako handiputzaz edo begiramen barik bera, *falademe vosa merçede en cristiano* esaten. *En cristiano* beraz, bada halan egin izan behar neuntson, ene jaun, gure euskerea ere kristinauen berbetea zela adieraztearren. Zer ba? Mahomet edo judegu-usaina ete daukagu, haregazko bake-itunbenak doguzala-ta? Jakin beharko leukeen bake-itunbenak egin ahal izateko, nortasun ezbardineko onartzen gaituelako dana. Jakin beharko gure arten mahomet euskaldunik ez dagoena eta hor beheko ibarraldean gelditu diren mairusko denak ostera, erromantzea egiten dautsuen, eta gure artera datozen kordobar salerosle mahometek ere erromantzea egiten dautsuen. Jakin beharko leukeen beraz, latina edo erromantzea egitea ez dela berez kristinau izatea. Jakin dagiela euretariko asko oraintsu arte Alkoraneko hizkuntza ezetsi eta kristinauen erromantzera biurtu badira, euskaldunok hemen erromantzearen aurretik garena kristinau.

Kantauri aitatu dautsut lehen, ene jaun, eta Obarene eta Antaroneko mendiak gehitu daiketsudaz, baina ba dago mendi-hesiok baino erdaldunak musturrean hobeto aparatzen dauzan beste zerbaite eta geure euskeraren hesia dozu, geure berbetea. Mendi-hesiak Jaun Inko gure Jaunak ipini eutsuzan gure eta beste herrien artean, baina euskerea? Ez ete da hori, Jaun Inko gure Jaunak barik, geuk geure harrokeriaz, geure burua beste guztien gainetik bereiztearren ipini dogun hesia? Hori gurako leukee entzun, horixe xurxulatzen dautsue, eta ziur euren ahoko autzak geure mendietakoak baino estuagoak ez balitzaz, aurrez esatera ere ausartuko litzakizuz...”

“...AL ZAHARATIK NEU ALDENTZEARREN IZAN EZ BADOK be, zaldun izendatu najoek oraingoan, lehengusu, euren eratarra, kristinau-araura nazenaz landa. Zera esan gura jok: neure kristinau-saldoaren buruzagi ezeze, gugaz etorri gura dauen edozein

mairuskoren buru izan naitekela, beste barik. Beraz, egun gitxi barru, Al Zaharako oreinen ehizaketa itzi eta goiko ordeketako azagariei lakioa ezartera goazela Gaztelaraino. Bai, txo, Don Gartz Fernandezekin zaldiarekin probatuko dodala neurea. Hogetasak urte egon nok aukera horrexen begira eta hara nork, erdi kristinau eta erdi euskaldun, baina Kalifa oso-osoko dan emakume batek, jantzi daustan azkenez ezpata makurra: Sobeiak, Iretargi Erdiaren *egunsentiak* Kalifagoa emakume baten eskuetan eta Ala Guztiahaldun eta Guztijakitunak jakin ze kristauren asmokerietako marmarra mahometen ahotan eta Kalifa-Ordezkarierdi-kristinau kristinau osoko hau zaldun armatzen. Erakutsi Kordoba guztiari Kalifa ahaltsu eta bizartsuak bere zahartzaroan eta Kalifa gazteak bere ahulerian izan ez eben bularra daukala Alakanen alargun eta Hixen Kalifa-kumearen amak. "Irabasleekin galtzea ez jatala bat be gogoko —esan joan zaldun izentau nindunean— baina areago galtzaileekin galtzea". Galtzaileekin galtze hori, Kordobari zergak ukatzen dautsozenekaitik inoan. Neuretik, nere kristau-fedearren eta berak emoniko ezpatearen gainean zin eginez, Kordobako eskubideak jagongo nebazala agindu neutsoan, baina batez be, emakumearen nausitza gizon batena bezain aintzako hartuazoko neuntsela zerga-ukatzaileei. Abu Amid Mohamedek zirkinik be ez joan egin, baina nik agindua atsegin izan jakoan gehiengoari.

Sobeiak gudarostea armetan trebatzeko agindu jotsak Abu Amid Mohamed Buruzagi eta Idazkariari. 'Orduan' izeneko, mahomet gudalburua eta biok aurreratu gozak dagoneko. Armatan hasi orduko, Kalifa-Ordezkarisaren adorea txalotzen hasi dok herria eta "emakumearen eskutik itzuliko dautso Ala Errukiorrak Kordobari ohorea" esaten.

Ederto baten, lehengusu. Izan be, zer egiten joen kalean hainbeste gudarik alperkerian eta euren buruzagi, erlamando halakoak, barriz, emakiro zeinek baino zeinek seta koloretsuagoz eta usaingarriez apaindu, Al Zaharako jauregira begira? Eta,

batez be, zer egiten joan Kalifearen errefuxiatu honek Arabako Jaunerriari burujabetza, edo hobeto esan, Arabari bere jaun jatorra itzuli gabe? Esaiek Don Bela errefuxiatuaren babesa itzi eta bere ekintzara abian doala. Orain armatuta niagok. Esku batean mahometen hilgoraren makurdurako ezpatea eta bestean kristinauen gurutzaduna diaukat. Nortasun bikotxdun, ezpata-dantza bikotxera ahaleginduko nok, neurea baztertu barik, eurenaz be baliatuz. Guadalquivirreko ur epelak itzi eta Guadalaxaran gora, ibar-autzatik zehar, Ataide aldean ifarreko oskirria aurka hartzeko irrikaz niagok. Doro ibaia igaro eta, edozein kristinauk lez, Aitiaren egingo joat burrukan hasi orduko. Zaldiketa hauxe ospatuko joat zaldun-izenik be merezi ez dauen gaztelar horregaz, nahi dauen ezpatara. Sor daustana kristauki emon gura ez bajok, Kalifagoaren ezpata makurrera behartuko joagu.

Zalduntza barri hau dala-ta, ez hadi larritu. Ezpaten aldaketa hau guduko euren ohikunea jarraitzearen izan dok eta Kordobako kristinauon matxino-susmoak ahienatzearen. Ez jok erlegino-aldaketa edo holakorik esan gura eta gitxiago aita eta Arabako jaun zanaren zalduntzagoa ezetzi edo ukatzen dodanik. Ezin neinkean bestalde ezetsi hainbeste itxaron ondoren, Kalifa-Ordezkariek berak halako ospakizunean eta hain emeki eskeintzen eustana. Ezkerreko besoetan Hixen seme, Kalifa txikia eukala, ezarri jostan alfanjea, Kalifa-ama eta erabatera Kalifa-Ordezkarierdi danak. Herri-ordezkarierdi eta gudalburuak hanartean adurra dariola emakumearen ganora ikusiaz. Diplomaziaren atrikuluak eta zalduntasuna emakumetasunaz nastetan nork jakin Dona Todaren ohiko aialdekoak baino hobeto? Herria txalotzen, gudariak ezpatak zorrozten eta ni barriz, badakik... Esaiek ez noala kristinauen kontra, zerga-legea ukatzen dauenen kontra baino. Ba dakik nire gudari gehienak kristinauak direna eta gainera, neulez euskaldun eta arabarrak gehiengo, neuganako eta Arabako eskubideenganako fedearren, eta inoren menpekotza laidogarria ihestearren, neugaz batera atzerria aukeratu ebenak. Araba eskier diagok beraz eztabaida honetan. Dagola nasai Don

Munio gure Apezpikua. Gu Araba eta bere Apezgo guztia indartzera goazak. Orain arte geure burua gordeten jakin izan dogunok, geuk geuretara burujabe izatea lortu behar joagu.

Esaiak, heriotzarako bilatzen ebenen bila datorkiela hako Don Bildur eta amarruz kendu izan jakozan eskubideak armen indarrez lortzera Arabako jaun-ohia.

Neugaz diaroat Errodrigo, seme zaharrena, baina ez gudura dagoneko. Atxurio jaunaren alabeari zeozelan aginduta diaukat eta ezin joat euki kaleko gurikerian ia hogeitertara doan mutila. Ikasi daiala Obekoren guda-mutilekin kristinauen eratarako ezpata-dantzan eta oinez ibiliz eta begiz ikusiz, ezagutu daizala Otxerri eta Arabako gure mendi-bide eta mendi-autzen gudatokiak. Gure asaben lurraldea ezagutuala, ezarri dagizala begiak Atxurio jaunaren alabeagan. Horixe erabagi joagu Otxandak eta biok, baina, jakina, heure bitartekotasuna izatekotan. Zer dinok, lehengusu? Ba diakiagu Don Belaren semetzat ezagutzuz gero, zer egingo leukioen. Beragan gure hazkazia garbitzeko ez diautseguk horren eskura emongo. Hagaitik, zeuotariko monxe-lagun edo Obekoren artzain-mutil ganoran, doala zeuon morroi eta ez Don Belaren zalduntxo-gangarraz. Ondo erabagiko doala uste joat...”

“...LARRIAGOA DA ESATERA NOATSUNA, ENE JAUN, ARGI ikusiko dozunez. Belostako Apezgoa Aukara, jatorrizko bere Sedera itzultzeko ete diren, zurrumurrua dabiltsu Okinatik Albeldaraino. Gartz Fernandez jaun kuntiaren asmoa ei dozu eta monastegi bat baino gehiago horretan alderdikide dauzala. Konterriko lurrak dagoneko Doro mugarainokoak direnez gero, noizno Iberoz gaindiko mendietan uzkurto egon behar dauen kunterriko Apezgo bakarra, lurraldearen erdiko babesera erakurri barik. Guda-mugan aspaldidanik daroen bare aldiak ere horixe bera eskatzen ei dau-ta...”

Hor doatzu, ene jaun, esamesaren zatia. Hori bakarrik baltiz, poztu ere egingo nindukezu. Doazela eta itzuli dagioela Belosta berez dagokon Apezgoari, Beleiakoari lehen, eta orain barriz, zeuk ene jaun, horren egoki gidatzen dozun Armendiko Apezgoari. Ontzat emoten dautset Sede-aldaketa hori. Izan ere, Apezgoa etxeko denei argi egitekotan ezarri izan den Kristo gure Jaun eta Maisuaren argia bada, bego argimutilla ordeka zabalaren erdian, etxeko denek ikusteko eran eta ez Belostako imilaunpean, *non enim ponitur candelabrum sub modico...*

Bake alderdi horretatik, ene jaun. Surrumurrua baina, hortik hara doatzu, hako euskaldunogazko bekaitzak putz egiten dautsola. Zer eta Belostako aulki-dantza berean sartu gura dautsuela Armendikoa ere. Urruneko soinua jotzen diatortzuz hasiera baten, baina gero ataurrean eskeko dozuzan erromes-taldea bezala dozuz, han hots eta hemen koipea eskatzen. Ze dantza-soinu da hori? Ala euskaldun oinok geure soinura barik, eurerena eginak ete gagoz? “Zergaitik ez ba?”— erantzungo dautsue—. Kalagurri mahometen eskutik askatzen deneko, Naiarako Don Benedito ezeze, Armendiko Sede bera ere, Kalagurrira aldatzekoa ei dozu. “Armendiko Sede” dinotsue, ez “Armendiko Don Munio”, han “Naiarako Don Benedito” esan ohi dautsuenez, ene jaun. Hori dozu entzun dodan azken dantza-gonbitea. Ondo dagoztuz, neuk onartzea uste badaue. Kristo gure Jaunaren artzainari makilea kendu, aulkia aldatu Kristo Jaun berberaren izenean!...

Naiara-Bakirako errege jaun Don Ramiro Kalagurri askatzeko gertu ei dagotzu Iruinako aita erregearen laguntzaz, gudarostea prest, surrumuruok barriz, hego haizea baino sarkorrago. Kalagurri lehenbahilehen berreskuratzea gurako leukizue, zertarako eta orain bi gizaldi galduneko Sedeari ohorea itzultzearren. “Hara kristaudiaren eta erregearen beste asmo eder bat —dinotset nik—, baina itzulpena lapurreta barik egitekotan...” Galdutako Sedearen ohorea biribiltzearren ez dagiezela enparauak ere bildu. Belostakoaren aldaketa-soinua ez dagiela hemen gudu-dan-

tzarako erabili. Bada, han Doro-mugako bake aldia aitatzten da eta hemen gudu-irrintziak entzuten.

Soinu nastuegia deritsot haunexeri, ene jaun, eta ezarduratu askotxo, zurrunbiloak lez, hartuko dauzalakotan nagotzu. Lehenengo eta behin, zera adierazten diatortzuz: Belostako Sedea Aukatik harakoa denez, Armendiko gurea ere Kalagurritikoa dela. Eta egia ez bada, egia antzean soinutzen dautsue. Bada gauza bat dozu, ene jaun, Armendiko Sedea hainbatean eta gurean barbaroek sartu aurretikoa izatea eta beste bat Belostakoa lez, mahometengandiko ihesi larrian aldatua izatea. Eta neuk dinotsut, ene jaun, Armendiko Sedea kalagurritarrek euren ihesian aukeraturiko babesa izatekotan, Belostakoa bezain erdaldun izango litzakena. Ala orduko kristau lantinduek ez ete euren oraingo erromantzatuen euskaldunoganako begizkorik?

Nik zera dinotset, ene jaun: ondo deritxodala Naiarako Sedea eta bere jaurle Don Benedito Kalagurrira aldatzeari, nahiz eta Naiarako Sedea Kalagurritikoa barik, Iruinatikoa den. Bestalde Naiara eta Armendi Kalagurriko ohiko lurraldea izatekotan, Naiarako Apezgo barria sortzean, zergaitik ez eben zure aurretikoaren makulua eta eskua eskatu? Ala kristau-eleizen eskubidea munduko erregeen aukeretatik ete datoz? Eta horreri erantzuten ez dakitsue...

Itzi daigun oraingoz Sede-jatorrien eztabaidea eta azter daigun ohorea, 'ohorea' aipatu dautsuenaz gero. Ohorea Sedeari ala haren esangurako Kristo gure Jaunari ete diagoko? Eta Kristo gure Jaunari sor jakona bera haren jarraitzaileei, bada *quod uni de pusillis istis feceritis mihi fecistis...* berak dinoskunez. Onak legokez, ene jaun, gure Jaunari ohore eta argi egin gurean, euskaldunen Apezgoa ilunpean itziko baleue! Zelan dagikioe ohore besteen desohoreaz, zelan batari serbitzu besteganako ezardureaz? Ze eleiz-serbitzu itxaron daikee ezpaere, Araba, Bizkaia, Ordunia eta Aiarako gendeak gizaldietako guda-mugez landa,

mendi eta erreka-hesien gainetik oraindino hizkuntzaren banantasa daukeela? Ala nonbait, errekek ibitzen eta mendiak ibiltzen direnez, euren hizkuntzaren gainetik igarotzea uste dozue? Zera esan neinkie, ene jaun: "Guzti hori Kristo gure Jaunaren maite-erraiekin ala ezpata-hotsean egitekotan zagoze?"

Kristo gure Jaunaren serbitzua lurreko errege eta jaun konteen arma-ekintzaz nastatzen denean, bakarrik asma leitekez, ene jaun, halako soinu eta halako Sede-dantzak, "non Gortea, han Sedea"-edo bailitzan lege, eta lurrekoen asmoak zeruko Erregearen ber-bereak. Eta bardinak izatekotan, nork nor eta noren dotrinaz eskolatzeko? Nork nora misionetan bialtzeko? Nork izendatzen dauz Eleiz Artzainak, nork misino-deiak egin? Armendiko Don Muniok ala Kalagurriko izan gura dauen Don Beneditok? Edo euskaldunok, euskaldun garenez, Braulio-kumeontzat ez ete gara nahiko fidagarri, edo honako edo harako errege edo kontearen alderdikeria erein behar ete dogu Kristo gure Jaunaren dotrineaz batera? Zizania erein gariatz naste? Hala-koak Ebangelioak berak epaitzen dautsuz argiro.


Nahiko erokeria ere ba dozu, bestalde, ene jaun, Belostako erreka-zulo eta mendartea Armendiko ordeka zabalaren arteko aldea ez bereiztea. Mahometarren bildurrez Aukatik ihes egin eben kristinauek, larriaren larriaz ez zenduzan gelditu harik eta Belostako bazterrik eskutuena idoro arte. Hantxe antolatu eutsuen behinbehinezko Sedea, aldi eta uneen aldaketaz aldatu eitekena. Armendiko Sedea aukeratu eutsuenak osteraz, argia argimutilean ipintera etortzuzan, eta ez arerioen bildurrez, argia eskutatzeraz. Eta zer besterik dozuz Armendi edo Mendizorrotza ordekan erdian ibar-menditako bideen gurutzak eta menditik joan eta datozen artzainei edo ibarrez-ibar doazen erromesei argi egiteko une bereziak baino? "Uharitu eizuez halako argi-mutilak —esango neuskie, ene jaun—, Kristo gure Jaunaren argiak bazter guztiak argi daizan, baina ez egizue inor bilustu beste inor janztekotan..."

“...HI, LURREKO AUTZARIEN SEME, ASURI —DEI EGIN eustan zeruko abotsak—, itzi egizak lurreko ateen giltzak lurrekoentzat eta hator neugaz neuk aginduko dauadazan bideetako autzari izatera. Autzazainak gau eta egun gazteluko leihakumetik mendatea edo ibarratea barrandatzen dauen antzera, nik artaldekik deslaitu diren ardien artzain eta pekatarien akulu egingo haut, Jaunaren bideak gorde dagiezan...”

Sarrakioak hartu nindun zerutiko abotsera, eta bildurraren, ostaz heltzen jatan arnasea birietara, abotsak zer esan gura eustan asmatu ezinik. “Isildu bahendi —inostan abotsalako durundiak ostera be— eta heure erruz pekataria bere gaiztakerian galdu, heure gain haren odola, baina salbamen hitza iragarriaz, bat bera bide onera badakark, heure arimea salbatu dok...”

Abotsak ‘Asuri’ neure abotsaz deitu nindun, halan bateatu ninduen neure gurasoek. Asur, neure aitaren izenetik Asuri deitu bai-eusteen, neu ere haren gazteluko autzari-lanetan aurreratu neinten. Baina Jaun Inko Jaunak, bateoko uretan beretzat hartuta nindaukanez, izena aldatu barik, lurreko arazoetatik jaregin eta aitaren asmoetatik aldendurik, bere arlorra lotu nindun, lurreko barik, zeru-bideko autzari izendatuz. Asuri nozue beraz, baina Jaun Inko gure eta danon Aitaren erreinuko autzari.

“Lurreko autzaria ezpataz armatu, arerioen lorratzak jarraikitzen jozak —halan eragoion zeruko abotsak—, hik ostera, Jaun Inko Jaunaren aho biko ezpataz armatu, guzurraren bila urtengo dok eta artzain-makilaz ardi deslaituen bidera. Eta bidean aurkitu dagiaazan txiki eta handiei, gizon eta emakumeei, zintzo eta fedebakoei entzun doana iragarriko dautsek: *Emoiozue zuen ekintzetan aintza Jaun Inko Jaunari argia dozuen artean, ihuna datorkenean ezingo dozue-eta, ez otoitzerako aborik idegi, ez bihotzeko sorgorrraren, aditu haren salbamina...*”



Hagaitik aitaren gaztelua itzi eta areago, zeruko abotsaren ihesi, babesleku eta argigarri hartu neban monastegitik urt eginik, Jaun Inko Jaun-antzari nabiltzue hagandiko susmoak eta entzunak iragarten. Jaun Inko-Hitzaren ezpatak bihotzaren erdiraino sarturik, zindotasunean aztertuko gaitu: Jauna goratzen ete dozue zuen ekintzetan ala nasaikerian eta ezarduratan bizi ete zaree? Kontu ba orain barre dagizuenok, iluntzera orduko negarrik ez egin. Hara non dakusdan, dagoneko arratsbeherako itzala zuen oinetaraino luzatzen... Ausnar egizue une baten berere, zuek, nire abotsaren egia ez baitan jarten dozuenok, ea gaur jazo ohi direnalako kalamidaderik gaurdaino jazo izan den. Bada, lehenago hako *anaiak anaia erihotzera daroa* esan bazan, orain kristinauek alkarren kontrako gudutan ahuldurik, eta sinibakoei Ebangelioaren bake-ordez, ezpatea erakusten dautsela, Jaunaren argi baino areago bai-dirudie inpernuko ilinti. Gorrotoz ernaitu dautsuez euren erraiak eta heriotza daue ondore. Edo gure Jaun Inko Jaunak ez ete dauka guraso-errairik bere Seme Jesukristo gure Jaunagaren Haragian gizaldi honetako bidegabekeria eta lazkeriak zinki eta minki sentitzeko? Nondik diatorkozela uste dozue bada, Gurutzeko untzak eta burestuneko arantzak? Nondik haren esku-oinetako eta bularreko zauriak gizaldi honetako pekatueen untze eta aztamakiletatik izan ezik?

Entzun, aldien seinaleak ikusi eta egia iragarten dautsuenari. Jaun Inko gure Jaunaren kalizak gainezka egin dau eta menditik ibarrera orru baten datorren uriola da bere aserrea. Ez dau itziko ez abere eta ez landare zutunik. *Dies billa, dies irae* esango eta izango da, ondamendi eta lazkeriaren eguna. Jaun Inko gure Jaunak sinisbakoen indarrari kristinauok zigortzeko horrelako eskubidea emon dautsela, zer izango da berea zintzoen zintzotasuna, galbaian garia lez, aztertzeraz datorrenean?

Pikondoaren bipilak samurtzen ikusi orduko, *udabarria dator* dinozue. Aldien seinaleei igarri egiten dautsezue eta ez ete dozue Jaun Inko Jaunaren beste seinaleetatik Haren Egun Han-

dia ateetan ikusten? Horra bada, Kristo gure Jaunaren sinismena hartu zenduenean baino hurrago dozuen gaur salbamen-eguna, baina bai eta gaiztora lerratu zinenekoan baino gertuago haren zigorra... Jesukristo gure Jaunaren gurutzaren gerizpera hurbiltzen direnentzat halabaina, ideki dakusdaz salbamenaren ateak..."

*Liber scriptus profferetur
in quo totum continetur...*

(Dies irae kantagaia)

“...ITURTZATIK SARTU ETA AUTZARANTZ NOALA, HARKAITzetatik beherako bideari lotu eta Otxa-Kasturu aurreko estuntzara orduko, ba dinost emakume batek: “zu zara Jaun Done Miliatik etorteko zarena, jauna?” Nik baietz eta neure nortasuna emon neuntson. “A bai, Don Esteban jauna —berak orduan—, Obeko jaunarenean dozu ostatua”.

Emakumea neure bideari eta pausoei jarraiki etorren eguneko barri-andana jaulkitzen eustala:

“— Obeko jauna-ta Axako muga aldera joanak dozuz eta gauerako itzuliko dira.”

“— Artzaintzan orduan...” —zerbait esatearren, nik.

“— Ez, gudamutilekin baino” —zoli berak.

Arpegira begiratu neuntsan ea txantxetan ebilkidan, baina benaz emakumeak.

“— Obeko jaunaren mirabea nozu. Bart Gaztelako guda-zarraparren barri jakin geuntsun eta gaur goizetik han dira mugak barrandatzen.”

Hara nondik eta non jakin dodan, ene maisu, igazkotik hara, gudu-zarraparra barrion barri: emakume batengandik eta erromatarrek euren gudu-zaintzaperako troka honetan kastroa jaso eben inguruan.

Obeko jauna ikusteko gauera arteko astia neunkala-ta, hantxe gelditu nintzan, gudu-tokiko aztarrenak begiratzeko aitzakian. Montorrera igon eta ez neban harlandu modurik idoro. Ahienduak ziran edo erromatarrok ez eutsuen izan han erai-kintza handirik egin beharrik autzarte bera den babes-aurrean. Menditik erreka-zuloraino itxi-idegiten den atakari begira, euskaldunen berezko mendi-babesak neuntsuzan gogoan, eta gure artzainek une haretantxe, hain zuzen, Fernan Gontzalez, Gaztelako konteari aurre egin eutsonekoa, Don Gartzzi Iruneko erregea laguntzera etorri izan aurretik. Txilizarria aldera begiratu eta handik behera une hatantxe etorran artaldearen zantzua ohartzuz, “baina nor dator ostera ere, mendi-ibarron bakea apurtzera” ninon neure artean eta halako artzainak bake-gizon eta halako zaldunak lapur emoten neuntsuzan suminalako baten.

Gaztelak bake-itunbenak apurtu ebazana jakin neuntsun gau berean Obeko jaunaren ahotik.

“— Gaztelako konte urguri hori, ostera ere” —Antzi egin neban nik.

“— Eta errege jaun Don Santxo berari laguntzen joan dala entzun dogu —gehitu eban Obeko jaunak eta zurtu begiak eukazan esatean—, baina nik ez dot sinisten. Gaztelarren betiko nastu-kakastua izango dozue ziur...”

Lokametsen bat burutik astinduarena eginik, isilik gelditu zan une baten Obeko jauna, Amunartiako larretan gudu-zainekin-edo bailegon. Une bat lehenago zalditik jaisten eta guda-mutilei azken agindua emoten izarditan nabaritu jatan. Beste guda-mutiletatik bereziko ez neuntsuna, Errodrigo bera izan

zendun, ene maisu. Baina besteak etxera abiatzean eta bera etxekotzat gelditzean, susmotan gelditu nintxatzun. “Horixe dozu” xurxulatu eustan Obeko jaunaren emazteak. Nire begiak beragan eta bereak nigan disdiratu eben une baten. Eguneko guda-susmoei ekin geuntson ostera ere, ez dalakoa egitearren.

“— Zer dela-ta baina, egikean holakorik errege Don Santxok? —itaundu neban—. Kalifeagazko itunbenak apurtzerainoko larrian ikusi ete dautsue Gaztealako lehengusua?”

Nire itaunak ez eutsun erantzunik lortu, Obeko jaunak isilik jarraitun. Neure ogia neure ardaoaz nastau behar izan neuntsun, ostera ere.

“— Datorken gudea ez ete da gero askozaz larriagoa izango?”

“— Gudu hau ez da gurea —Burua astindu eta ukabila mahaian finkatu eban Obeko jaunak, berera etorririk—. Guk errege Don Gartzzi zenagandik daukagun agindua beteko dogu: Okako arerioengandik Otxa jagon, hemen esaten dogun lez.”

Auka Gaztelako Oka denetikoa dozu, antza, alkarren etzai-goia. Izenetik izanera, Oka ta Otxa alkarrenak zirela-ta, jabetasunerako ustezko eskubidea eukela-ta etorri ei ziran. Hortik erdal-dunek Oka eta euskaldunek barriz Otxa deitzeari, eta ‘Okatik Otxa jagon’ esakerea.

Arma-ekintzak entzutean, Errodrigo gero eta suhartuago, Gaztelaren aurka urten behar zela-ta, bera gertu egola esaten hasi zan.

“— Hi ez hoa inongo gudura, ez Gaztelakora eta ez Kordobakora —Gurasoaren benetasunaz agindu eutson Obeko jaunak—. Halako zarraparretan sartu orduko, oinak non tinkatzen doazan jakin behar dok...”

“— Oinak? —Harrotu zan mutila—. Aztamakilaz edo azko-
naz, ezpata txikira edo handira, ezpata arrunt edo makurrera eta
gezietan barriz, hemengo inork ez lez...”

“— Gezietan bai, baina gezitokira igoten ez haz Peru mo-
rroia beste, gaur argi erakutsi doanez” —Erronkadea ebegi eu-
tson Obeko jaunak.

Isildu egin zan mutila eta ogiagaz batera putsak irunzten
ekitson bere artean. Obeko jaunak esanak apur bat azaltzeko
unea uztiatu neuntsun nik orduan.

“— Oinak lurrean tinkatu behar dozaala, esan deuananean,
txo, heure gurasoen jaunerria ezagutu behar dokala esan gura
izan deuk Obeko jaunak. Bertara joan, lurra zapaldu, ibili, ikusi,
haztatu, mendiak igon, mendateak ezagutu, bertako jendeagaz
berba egin... Hori. —Mutilak ardura barriaz begiratu nindun,
abegi ona egin neuntson—. Hik neugaz etorri behar hendukek
Bizkaira. Arabatik zehar joango gozak, heure aitarena izan zoan
eta dan gaztelua ikusiko dok bide batez, Bizkaiko Atxurio jauna
bisitauko gero... Hori dok heure aitaren asmoa be...”

Gutuna erakutsi neuntson, agindua ezagutu eta onartu ere
bai, baina barrutik ez eutson guztiz amoremoten. Obekoren mo-
rroi, Erramel artzainagaz-eta joango gintzazala esan neuntsanean,
arnasea hartu eban mutilak eta gauzea egindakotzat onartzen.

“— Eta zaldia neugaz eroan daiket?” —begiak duda-mudaz
argitu ebazan behingoan mutilak.

“— Zer? —Aserre-burrundareaz Obeko jaunak—. Baitu egin-
go eunskiek lehenengo autzariek, gudurako dala-ta.”

“— Eta ezpatea?” —harek orduan.

“— Heu baituko hindukee orduan gudaritzarako.” —Obeko
jaunak idekiiala izten eutsozan atepak.

“— Artzain-morroiek edo, gurago izatekotan, abade-lagunek
ez joek zaldirik ez ezpatarik erooten —Eztabaidean sartu nintxa-
tsun—. Mandoa eta gurutzea bakarrik. Inork be ez jok susmatu
behar hire nortasunik, hako alogurako gaiztoek mahastizainaren
semeagaz egin ebena heugaz egin ez daien. Ez al dakik? Ba
gero kontauko dauat. Artzain-mutil edo, nahi badok, monago-
tzat eroan haiket...”

“— Otxako ezpatea Otxan gelditu behar jok —gaineratu
eban Obeko Jaunak—. Zin hori egin geuntsoan Iruineko errege
Don Gartzi zanari eta orain dagonak be ez jauskuk guzurtatu:
mugatik hara ez pausorik arerioen atzean, baina ez ta be muga-
tik hona arerioen aurrean... Otxako zaldiek be bardin, ez joek
jausi behar gaztelarren eskuetan —Obekok burua igurtzi eutson
mutilari—. Aukerako mandoa emongo deuat biderako.”

Hurrengo eguna domekea zan eta, une larrietan ohi den
bezala, herriko abadeek Otxatik Ezkarairako prozesinoa antolatu
eben. Bideko arrenetan hiru bidarrez errepikatu eutsuzan aba-
deak *A peste, fame et bello* harako eta egunotako izurriak. Hori
zendun, izan ere, arrenen arazo larriena, aurretiaz herriari adi-
tzen emon izan jakonez. Dagoneko herrian bilduta egozan ar-
tzain jendeak eta enparauak biziro unkitu, *Libera nos, Domine*
erantzuten eben gero eta indartsuago. *A peste, fame et bello*
arren bakoitzeko, Apokalipsiko hiru zaldiok, gorria, baltza eta
berdeska urteten nenkusan, baina itzuletarako txandan: gudate,
gosete eta izurrite-margoen lauoinkan. Laugarren zaldia falta ja-
tan irudimenean: garaipenaren zaldi zuria, zalduntzat gezilaria
eroana. Eta herriaren erantzun beroa entzutean, horduantxe
konturatu ninduzun, ene maisu, geure arrenak direla halakoetan
jaurtin geinkezen gezirik onenak, Kristo gure Jaunak, ostera ere,
gugan garaipena lortu dagian.

Artzain beketsuon prozesinoa Otxako aitz ebakien atetik ba-
rrenera joakezan, kalamidade guztien zaldi zemaikariak arrotzen

genduzan artean, Jaun Inko gure Jauna bedeinkatzen gendun hainbeste herri burrukarien artean, hain mendien babesean eskier gordetzen ginduzalako.

Prozesino haretan ez joan ezpatadunik, ez geure otoitzak baino beste gezirik. Bezperan Obeko jaunagaz Axagoko mugatara joanak eurak ere, artzain-tankera berean joazen arrenetan. Nork berezi eiketsun Errodrigo gurea euren artean? Otoitz-ordua zendun haxe eta otoitza denean, ez dozu beste armaren beharrik izaten.”

“KALAGURRI BERRESKURATU NAHI DAUENEK ALDE NAUKEE, Kristo gure Jaunaren salbamena hangoei eroatekotan, ene jaun, baina Sede hau berjaso aitzakiaz, zeure eta geure Armendikoa, ez dakit ze ohoretan, hara itzultzeko asmotan (nik ostutzekotan, dinotset) dabizenen kontra nago. Jaun Inko gure Jaunak ez dagiala bedeinkatu halako asmorik, ez eta hatarako gudurik. Done Milian, danok ez bada ere, asko behenipehin, kontra gaukeez.

Zeozergaitik, ene jaun, Eleizamaren ardurak eta zentzunak Jaun Done Milia honexetatik aukeratu izan dautsuz gaurdaino Armendi Sederako hautagaiak, beste monastegi askotakoak ez bezala, gureak euskaldun direlako eta gure arteko gehienon euskera Araban eta Bizkaian egiten denaren bardina edo bardintua, hatan ere.

Sedeon dantzagai horri belauntxaingoarenalako errena ikusten jako edonondik begiratzen dautsogula, behin esan neuntsien lez: “Zuen ustez, Armendiko Sedea Kalagurritikoa bada, zer dela eta eraiki eben bide erdian Naiarako beste Sede hau eta, ohorerako bera baino zaharragoari aholkua eskatu barik, zergaitik egin zenduen Iruineakoaren alaba?” Naiara-Bakira Iruineako erresumaren aldaska zela-ta, lur eskuratu-barriotan handiko kristau-talde barriak inguratu zirela-ta, esan eusteen. “Serbitzu ona deritsot halakoari —erantzun neuntsen, ene jaun—; ea gainera-

koetan ere aburu bardinaz ebasten dozuen, ez batean serbitzua aipatu eta bestean ohorea aitzakitu”.

Kalagurri berreskuratzean, Naiarako Sedea hara eroan gura badautzue, beroe mugonean, bada hainbeste denporan katepean egon direnei askatasuna eta ohorea dagokie, baina bata eta bestea zaintzeko berez lain izan direnenak hataz gabetu barik, hain zuzen. Izan ere, zure zaintzapeko lurak ez dautsue hatarako eguno inongo errege-ezpataren beharrianik izan. Askatasunerako nahiko izan dautsuez Arabako autzariak eta Jaun Inko gure Jaunak babesgarri emon dauskuzan ‘murale eta antemurale’ mendiak. Jaunak eraiki eta sendotua ez begie apaldu edo hautsi gizakiek eta Jaunak Arabako Jaunerriagaz ezkontzan loturiko Apezgoa ez begie askatu inongo ardura lurkoiek, *quos Deus conjunxit...*

Hasieratik politika-soinua susmo izan dautsat Sedeon dantza horri, ene jaun, eta Kristo gure Jaunaren Emazte den Eleizaren ohorea zaindu behar leukeen askotxok soinu berea txistukatzen eta oinak mugitzen hasi jatzuz. Itxurgatu egiten dautset halako jokera, ahal dodanero.

Esanda daukatsat Albeldako Don Beila gure lehengusuari ere: “Hik erregearen aularako idazten dok...” Berbetan hasi orduko, berea jaulki eustan:

“— Bai, ez nioak orain San Braliliok-eta esanen kontrako apologiarik egitera. Nik zer diakiat ordukoen barri? Ni orain oraingoan edo oraintsukoan barri emotera nioak.”

“— Baina herria eskolatzearen, ala erregearen belarria zuritzeko asmotan?” —nik ostera ere.

Ez jakon gustatu nire oharra. Hatarako herria bera alfabetatzen hasi beharko leukela-ta. Jakina, liburuak monastegirako edo erregearen aularako idazten dozuz, ene jaun. Herriak ez dakitsu letrarik eta hatarako astirik ere ez daukatsu. Letretarako

astirik eta modurik baleuka ere, hizkuntzaren eragozpena izango leuke. Hagaitik egitetik idatzira, egitetik esatera baino alde handiagoa dagotzu eta zer esanik ere ez halako herrien ekintzetatik halako liburuen esanetara. Herriak esana eta herriaren bihotzean gordeten dena barik, maiz haren kontra eta herriak ez dakian hizkuntzan, jaun ahaltsuen belarriak gozatzeko idazten bai-da.

Ba dakitsut, ene jaun, Don Beila gurearen idazkizunak halan ere, gure herriaren nortasuna inguruko beste errege-aula eta monastegietan goraiatzeko asmoa daroana haren batean eta bere einean txalotu ere egiten dot, baina ni neu zehatzago lotuko nintxatzun herriaren kondairari, batez ere, handikien belarriak-aztoratuko leukezela-ta, jazoriko latzenak isildu gabe. Beraz, *Liber scriptus profferetur*, baina ez ziur *in quo totum continetur*. Hagaitik dozu horren makurra muduko epaia. Hagaitik askok Azken Juizioa gurako leukee orain berton. Balinba epaileen Epaille den Kristo gure Jaunari lurreko jakintsu eta epailariek bildur apur bat izatea!

Hagaitik, ene jaun, errege-auletako estilotik ahalik urrundu eta herrikotik ahalik hurren natorkizu neureok zuri idaztera. Izan ere, Kristo gure Errege eta Jaunaren emazte den Eleizaren erastuna daroazun horren eskolarako idazterakoan, ez nenduke herriaren aho eta berbakeratik txintik ere aldendu nahi, artzain eta ardi artean ezulertza txikerrenik ere sor ez daiten.

Beila gure lehengusuak, esate baterako, azaletik baino ez daustu aipatzen Arabako jaun Don Bela Zaharrarena. Berak *Vigila comes* deitzen dautso, gure buruzagien ekintzak erromatarren garaian-edo jazo izan bailitzazan, edo gure Don Bela ospetsua egoki janztekotan, Kapitolioko antzarren lumak behar bailitzazan. *Vigila* edo *Vigilantius* deituez gero, gozo nonbait errege-auletan. Herriak ez daukatsu horren izenen luzea ahotan hartzeko

astirik, hagaitik *Vigila* edo *Beila* hortatik *Bela* laburtu eutsun, euskaldunon *gau-vigilia gaubela* egiten dogun araura.

“— Horixe be ba dok —esan neuntsan—, baserri inguruko bela baltza enperioko arrano egin gurea horregaitino. Hortik izango dok nonbait Beloradotarrak Arabarroi *kua-kua* iraingarria ozenkatzea. Berezko arranoa izan ez balitsok —esan neuntsan—, uste dok Azailoriko gailurrean habia egin eta inguruko areriok txikitzeko gauza izango zala?”

Izenei eta norbere eritsiei gara gitxiago eta herritasunaren oinarriko diren ekintzei gehiago emoteko esan neuntsan. Eskerrek bera ere Belatarra doguna, nahiz eta berak, arranoen goitizena zaintzearen, *Vigila* latindu, euskaldunok etxekotu-*Don Bela*, ostantzean aipatu ere ez eutsun egingo gure jaun Don Bela Zaharrarenik, errege-aulak Araba-jaunerriko jaunen ekintzen zurtz gelditzen zirela. Ez eutsuen uste izango, oraindino Iruina-ko erresuma ohialetan eta Leongoa Asturiasko mendietan bazertua egotsuzala, Arabako euskal buruzagi honek bere mugen aurreneko atakan arerio indartsuak horrelan txikitu egikezenik.

Arrano eta belen ipuinak alde batera itzi eta Armendiko Episkopuek gaurdaino zaintzen dauen goitizenetik sustar hobetik idoro eikitsun beretzako eta geure aurretikoen jaun Don Bela Zaharrarentzat. Zeu ere, ez zintzazala alperrik ‘Don Munio Beilaz’ esan neuntson,

Armendiko Apezgoaren aurretiko eta ama zen Iruinea-Beleia izengoitia zaintzearen baino. Belegia edo Beleia zaharra izan baizendun, ene jaun, Arabako lehen beila-toki eta gotortegia. Gizakiek erauskinetaraino eratxi egikeezan euren eraikuntzak, baina Jaun Inko gure Jaunak bere eskuz jasoriko *murale et antemurale* oraindino zutunik dirae gure arerioen bildurrerako. Mendateok eurak direlako gure gotortegirik onenak eta Armen-di, gure Episkopuaren Sederako unerik aukeratuena.

Arerioa ezaguna denean, mendateok iztea baino ez eutsuen gure autzariek, baina arerioa, ene jaun, adizkide-itxuran sartzen jatzunean, orduan arazoak, geurez dakigunez. Don Alvaro Harrameliz, Arabako hirugarren jauna ('komitea' esango leukizu Don Vigila, gure historigileak) Iruineko errege-alaba, Dona Santxagaz ezkondu zan. Don Alvaro hiltean, haren alarguna, Gaztelako konteagaz birrezkonduz, Arabako konterria, bere dotea bailuan, eroan eutsun Gaztelara, Araba hango konte gorrotogarriaren mende gelditzen zela. Araba, emazte bailitzan-edo, bere gogoko ez eban senarrari emona, hobeto esan, saldua izan zendun, Herriko Batzarraren gaintetik atzerriko eskontza-legeak hartzen zirela. Egia da gero, Fernan Gontzalezen ausarkeriak zirelata, Nafarroak Gaztelaren manutik askatu ginduzana, baina eskubidea ez euskun itzuli, halan ere. Arriagako Batzarrak deitu gaberik, Iruineako Don Santxok bere kontura izendatu bai-eutsun Don Alvaro Sarrazinez Arabako jauntzat. Hori jazo jakun, ene jaun, 'auzotik diatorkit jaurtin haikena etxetik' harakoa gungan bete eiten.

Hori dela-ta, Araba minduta dago eta ez da hutsagaitik, gaur bertan ere, askoren ahotan Kordobako errefuxiatua ibiltea. Batzuk irainerako eta besteak txalorako aitaturko dautsue, hatan ere. Nik esamesei baino jara gehiago egingo neuskie Arriagako Batzarrari. Hain zuzen ere, Batzarrik ez dela deitzen, Batzarrak jaun jatortzat Don Bela aukeratu ebanetik. Euren burua harena baino kristauagoa egiten dautsuenak heriotzarako bilatzen eutsuen. Alde egin beharra izan eutsun. Eta hara non, kristinauean eza, sinigabeenean lortu eutsun: bizia eta bizibidea. Horren bidegabekeria ete zendun, ene jaun, bere eskubideak eta Arabakoak zaindu-gurea? *Feriam pastorem et oves disperdam* profetearen harakoa dakust dagoneko beragan eta beste hainbeste susmo dot, ene jaun, Armendiko Apezgoa Sedeen dantzainuan entzuten dodanean..."

"GORMAZKO ZARRAPARRA ONURAGARRIA IZAN GENDUAN azken baten, esanak esan. Garaile sartun eta urte buruan, belarriak apal urten genduan, baina ez otsoari belarri biak ikusi gabe.

Osma aldetik igaro genduan Doro ibaia eta ostetik, harresia ahulagoa zan aldetik, su ta gar eraso genduan Gormaz. Gormaztarrak, arima euren Santuari gomendatu orduko, erre kara burua jaurtiz, alde egin ez ebenak geure eskuetan jausi zoazen txiki eta handi, gizon eta emakume. Milaka hatxilotu bidaldu genduzan Kordobara, gudarien zati bat ere eurekin joela. Gormaz inguruan ez zoan geuretzako lain bizitoki edo janaririk gelditu, azagari-kumeek halakoek gari-meta eta galsoro guztiak ketan itzi joezan euren ostean-eta.

Behingoan etxe erre ak jaso eta harresiak konpontzen hasi gintsoazen. Azagari nagusia ekarrazoteko oilotoki eta guztiko lakioa ezarriko geuntsoan Gormazen bertan. "Geu be kristinau eta batzuk erdikristinau gozak eta San Esteban alde izango joagu" esaten genduan harriak igaroala. Harresiaren motela indartzeko Kalifagoko Idazkariak laguntzarik bialdu izan baleuskun, baina Abu Amid Mohamed Al Zaharako xake-partidatan Kalifesia xarmatzen... eta zer esatea nahi dok. Bere ezinean, Abdelmelik edo besteren bat bidaldu izan baleuskun beheinipehin...

Zuhurrago ibili zoan gure aurkari eta azagari zaharra, jo Leonera eta jo Iruineara. Bai eta Iruineko lehengusuak erantzun, guzurra badirudi be. Kalifagoagaz bake-itunbenak daukazan, Don Santxo Gaztelako Gartz Fernandezi laguntzen eta ez gero Don Bela, Arabako konte ohiaren aurka, Kalifagoaren aurka baino. Ez zoan etorriko neu eta neure kristinauak oratu gurarik. Ez ete nok neu be Iruinekoaren lehengusu, nahiz eta ez maila bardinean? Ez jeukan behintzat nigazko bake-itunbenik, baina Gormazko gotortegiaz jabetze hori Kalifagazko itunbenak apurtzea ez badok, esango daustak...

Gu Kordobatiko laguntza noiz etorriko begira eta hara non otsoari belarri biak ikusten dautso guzan ifarreko ordekan behe-ra: Nafarroko ikurrinak Gaztelako seinuekin batean. Geure indar medartsuak euren hagineta itzi barik, hanka egin genduan. Ez zauri eta ez ohore, baina bizirik eta desohorea salatzen heldu gintsoazan Kalifagoaren uriburura. Gudalburuen batzarra Kalifa-Ordezkararen aurrera deitu eta galpena itxurgatzen euskuenari erantzun:

“— Hautsa jan dogu, nahi badozue, baina ez esan gudarien lorea galdu dogunik, gudarien lorea mugidu be ez dalako egin Kordobako atsedentokitik. Gudaritzaren lorea galdu dogula salatzen dautso gurek eurak bizi dira lore-apainetan, bada, Kalifa-Ordezkarria emakume izatea ohoregarri dogun bestean, Islamarentzat desohore da bere buruzagiek zaldun ez agertzea. Hori dela-eta, hain zuzen, lehengo banaka eta gero binaka ikusi doguz batean zerga-itunbenak eta bestean bakezkoak apurtzen. Zer dino gero holakoen kontra Liburuak?...”

Mujaidinek epaituogandik begiak kendu eta imanei begiratu jeutsoen. Imanek surak irakurri joezan eta auzia gure buruen gain barik, harago egoela konturatu zoazen: Doro ibai aldean, hain zuzen.

Ba dinoat, Sobeia, Kalifa-Ordezkarria, txundituta gelditu zoan Iruineko erregearen jokera jakitean. Kalifagoari baino areago bere andretasunari halako golpea, nondik eta Dona Todaren diplomazia-sorgutik, etorri behar! “Zer, bada —inostan banazean, eta esatean, lehen ixurak ohartu nioazan bere bekokian—, bere aurretikoek horren arduraz konpondu-ehuna horren zakarki apurtu behar ete joan Don Santxo horrek? Alde batetik, bake-antzean, bere alabea bidaldu, eta bestetik aiztoa sartu? Edo gizonen arteko erbak ez ete joek balio bost edo sei urteko Kalifearen aurrean? Edo Kalifa-amaren Ordezkaritza ume-jokutzat hartzen ete joek Iruinean?”

Ez dagiala ba uste, ene lehengusu, Iruineko Don Santxok, Kordoba emakume baten eskuetan dagoela-eta, Kalifagoa indarrean ez dagoenik. Gudea oraintxe hasiko dok, baina ez neuk gurako nebanez, neure eta Gaztelako azagariaren artekoa, handik eta harakoa baino. Neuk be neure parte izango joat neure kristinauekin ezpata makurraren alderdian. Makur jokatu daue-nak ezpatearen aurrean erantzun beharko jok...”

“...OTXATIK EZKARAI-UNEKO BAKE-ERROGATIBAN HAUTEMON neban Apokalipsia bera begitandu jatan Ezkauharte-koa, ene maisu, baina hemen otoitz-eraginezkoa barik, erdal kobla-kariak antolaturiko erakusketa izan zundun. Jo, ba nenkitsun lehendik ere, eurak *Ezkabarte* ahozkatzen dautso Ezkauharte hau kaltzada zaharrak Otxarriko lurak erdi-erditik ebagitzen dauzen unea dozuna, baina ez herriko plazan egin-erakusketak erdera hutsean egiterainoko erdaldun.

Artzainak herriko sarreran itzi eta Abadetxera jo geuntzun Errodrigo eta biok iluntzean eta suzien argitan plazea harrigarriro jendez beteta egotzula, eta hara non ikusten dogun zaldi baltzaren kalkola aldameneko atetik sartzen eta zaldi baltzaren gainean itzelezko tunturrodun mahomet buruzagia.

“— Zer egiten jok hemen Kordobako hire lagun horrek?”
—esan neuntson hagin artean Errodrigori.

Errodrigo mutu, izan be, ha ez zoan Kordoba-eta. Tunturro handidun zaldunaren ostetik zorogodun oinezkoak etozan gal-tza gorri eta gorontz baltzetan, ezpata makurrak gora goraka, txirimia, atanboire hots eta algara baten.

Laster jakin geuntsun ha mairu eta kristinauen arteko gudu-erakusketa zunduna. Azeretxoko jende eskolatuak nonbait. *Çere-zokoak* esan euskuen euren erderaz kutsaturiko batzuk.

Mahomet oinezkoen ostean kristinau jopuak etozen kataiak arrastan, ume-intziri eta nesken alauriak artean. Mahomet guda-ondakin tamalgarria nonbait. Zaldun harroak plaza erdiko oholtza gainean hartu eutsun atanta, haren oinezkoek eskena aurrean eta besteek gora igoten ebela. Igonala, gurruta-naka egiten eutsoen erdian eukeen Mahomet-idoloari. Hareek igonala barriz, katepeko kristinauak oholtza-mahaiaren azpira barreiatzen ebezan ostikoaz eta bebeskinaz buruan emoten. Goikoen ezpata-dantzak, azpikoen buru-gaineko ostiko-taukadak, dantzarien soinua eta zapalduen aienak nastatzen zirela eta poz-algarak negar-alauriak ezabatzeke ez zirelarik.

Ezin leiken luzaro iraun haren bezalako ainenino-dantzak. Okerrenean heldu jaken sinisgabe harei merezitako zigorra, hain zuen ere, kristinau-alabea oholtza-mahaira igonazo eta Mahomet idoloari gur eragiten hasi zirenean. Turut-hots zolia entzun zan orduan plazan eskumako atetik eta begiraleen larriak poz-oihu biurtu ziran behingoan, zaldun ausarta zaldi zuriaren gainean sartzen ikustean, *Sant Jago, sarra Espania! Sant Jago, sarra Espania!* oihukatzen ebela. “Jaun Doni Jakue ete da ba?” ninon neure artean, zaldunari begira. Erromesen kapela zabal eta ule luze eta jantzi luzeagoan etortzun, paparrean gurutze gorria eta eskumean suzko ezpatalakoa eroala. “Jesukristo gure Jaunaren Apostolu eta ezpatadun?” —ostera ere, nik neure artean ostoparritu.

— Ez, ez da Jaun Doni Jakue, errege jaun Don Santxo baino” —erantzun eustan bertatik euskaldun batek, ez dakitsut neure hagin arteko asaldura ala beste norbaiten itaunera.

— Zelan errege Don Santxo, buruan eta soinean ez diaroak errege-ezaugarririk-eta?” —eragotsun beste batek.

— Don Santxo bai, errege Don Santxo; geuk ikusi joagu Garinon, Gormaztik garaile etorrela-ta.”

Horrela hobeto ulertzen neuntsun, ene maisu, Azeretxotarren gudu-erakusketa ausarta eta ezkauhartetarren jai-giroa iluntze haretako suzien argitan: erderaren amarrua, ohi bezala, euskaldunei ziria sartzen, Gaztela Nafarroa gudu-alkartera erakarten. Orduan ulertu neuntsun Obeko jaunak, Axako mugetatik etorri-barri, inostana: “Gudu hau ez da gurea... Ez deiskula gero inork eskatu guri ez guduzaldi, ez bestetariko zergarik.”

Zaldi zuriaren gainean etorran buruzagiak Apokalipsiko zaldun garailea adierazten eutsun zelanbait, ene maisu, nahiz eta zaldun edo santuak eskuan gezia barik ezpatea ekarran. Hara, ba, nik Otxatik Ezkaraiko bidean indarra eta garaipena kristinauen otoitzari neritsona, Azeretxoko gudu-erakusleek Ezkauhartaren ezpatean ipinten eutsuen, ezpatean eta nonbait Jaun Done Jakue ezpatadunagan.

— Ez zoazen erregearen taiua erabilten ausartuko...” —esaten jarraitu eban harako Garinotarrak.

— Horixe be! Erregearena ez eta santuarena bai?...” —besteak erantzun.

Zaldi baltz eta eta zaldi zuridunen arteko burrukea ezpata hutsean izan zendun, ene maisu, zaldien dantzarako tokirik ostaz egotzula plazan. Zaldun-buru bien arteko burrukeaz batera han zan oinezkoen tira-bira eta ezpata-dantza: galtza gorriak soineko zuridunen aurka, babeski biribilak babeski luzenga gurutzatuen aurka, zorongodunak burdin oskoldunen kontra eta ezpata makurrak ezpata artezen kontra. Horixe zendun mairu eta kristinauen arteko burrukea. Kristinau batek gaztelu antzeko eskena haretara igoten ebaneko bakoitzean, mairu bat jausten zan goitik behera, turutak eta txirimiak alde banatatik, zilipurdikak eta saltoak laguntzen eutsela. Hirugarren zilipurdikan-edo, ezpateaz moztu, birinbolaka jausi zan Mahomet-idoloaren burua ere, mairuen hasierako algarak alauri bizi biurtzen zirelarik. Zaldun zuriak zaldun baltza eratxi eban lurrera eta kristinauek gaztelu-

eskenaz jabetuala, neska gatibua sinisgabeen eskuetatik askatu eutsuen. Ha zan txaloz eta zantzoiz mairuen kontrako garaipena ospatu beharra eta Gaztelako oihal moreak Nafarroako gorriekin naste astintzea. Ikusi ez baneutsu, ene maisu, ez nendun sinistuko.

Otxa eta Ezkaraiko surrumuruak horrela egia biurtu jakuzan Ezkauharteko iskibiduan eta harrigarriena, ene maisu, mendarteko euskaldunen arteko surrumurua otoitz zelarik, kaltzada inguruko erdal eta naparren arteko iskibidua turuts-soinu eta guztiko burruka-ospakizuna zendula...”

“...BATZUREN EZKONSARIA EZ LEUKEN INOIZ ERE IZAN behar, ene Jaun, besteentzako Judasen mosua, munduko politikan sarritan jazo ohi denez. Belaskotar garenok narrutik dakigu. Neuri dagokidanez, ez naz kexu halan eta guzti. Besteen bekaitzak lurreko neure ondasunetatik gabetu banindun, Jaun Inko gure Jaunak hainbat eta esku-zabalago emon daust zeruko aberastasunen hasikina eta itxaropena Jaun Done Miliako anaikidegoan. Alde batetiko zigorra oparotsuago ornidua izan jat zeruko Aitaren ondare dodan bestelako bizibide honetan, Arabako neure senide eta gainerako guztiei ahal bestean laguntzeko prestatzen naiakela, besterik ezinean, zeuk eskatzen dauskuzenez, ene jaun, aholkuz eta misino-ekintzaz. Gogotik lagatzen dodaz gainerako ondasun eta armen serbitsua, Ebangelioan, itxura baten apalago, baina bai fededunarentzat goitarrago emon izan jatan zoriagaitik. Ekin begitsoe besteek neuretzako gura ez dodan bestelako arloetan. Denok ere izango doguz geure buruaustek hemen eta han Kordoban euren jaun jatorragaz atzerriratu zirenek. Munduak itxuragaitik epaituko gaitu, itxuragaitik eta euren aurreritxietatik. Armagabetu eta heriotzaren bildurrez, ihes egin ebenei *Don Bildur* deituko dautse, harakoan lez, eta orain indarrean armatu itzul datozenean oster, *Don Juda*. Zertan gelditzen gara? Ezizenak egiten ete dautsu gizakia ala eskubide behi-



nenak ukatzen dautsoezenek? Ez ete dautsuez marrook aldatu, lehengo judakeria oraingo bildurkeriaz trukatu-edo dauenek? Besteei hau edo bestea deitzeak berak salatzen dau marroduna. Don Belak ez dautsu bera saltzaile denik uste, inorgandik hartu-neko saldukeria salatzen eta ordaintzen datorrela baino. Ez da zuzena, barregarri denari *Don Bildur* deitzea eta bildurgarri denari *Don Juda* eriste. Ez da zuzena, batez ere, inoren begiko samarra salatu eta norberena zeharkatzen dauen habeari ezikusia egitea. "Nori otu leikio, kristinau izan eta mahometekin bat eginda, gure kontra etortea" inostan atzo bertan bere erromantzean Naiaratiko anaikide erdaldun batek. Ezin asmatuko deabrukeria ikusten eutsun halako jokabidean.

Eta nik neure artean zera "bere erromantzea ala bere burua ete da kontraesanok uler ez dagikezana" esaten neuntsun, bada, Gaztelako eta hemengo erdaldunen erratua bardintsua dela ikusten dautsut, ene jaun. Eskubide osoz erantzun neinkion halakolari: "Eta ze kristauri otu leikion, dudamudazko eskubideak direla-ta, anaia heriotzera jasarritea?" Ez neuntson esan, bada, lehenengo eta behin neure eritsiok erdaldundu egin beharko neuntsozan eta halan ere ez eustan ulertuko, mahomet-zalekeria egotsi eikidan gainera Naiarako beste anaikideen aurrean. Bakarrik haren erderakadea entzun eta neure artean euskeraz nerauntson, euskerak eta euskaldunok erderak eta erdaldunek ez dakiezan arrazoiak daukaguzalako eta alperrik izaten da gehienetan tradutzitzen ibiltea. Hagaitik dautsoe horren iguina gure euskerari, euskera bera bailitzan-edo euskaldunon gazteluko begiratoki eta beraz ikuspuntu ezbardinon errudun.

Gure Jaun Inko Jaunak, Adan eta Ebarengan batera sortu baginduzan ere, geure harrokeriarren banandu egin ginduzan lurraldez eta hizkuntzaz eta bakoitzak bere etxeko jakintza eta ondasunen erantzule urtetean dago Haren borondateari men egitea eta ez jendeak beste Babel bateko eupadara bultzatzean. Lege hori gorde eutsuen gure aurretikoek "pausorik ere ez gure

mugetatik ate, ez aurrera, ez atzera" esan eta betete. Orain bada, Don Bela, kristinauak jasarrizera barik, ez ete dator, ene jaun, Arabako euskaldunok bereizten gauzan mugok zaintzearren? Bere asmoetan ba dager ausaz Gaztelako konte zenak berari eta beretarrei egin-irainen ordaina haren seme den oraingo konteagan apendu-gurea. Eta hori ez da 'joanak joan' edo 'kristinauei parkatzea dagokie' esanaz bakarrik osatzen, kristinauok alkarri parkatu eta joaneko bidegabekeriak begi-bihotzetatik kenduaz baino.

Don Bela, Alkoraneko legera gu behartzera barik, Araban Arriagako Batzarrak deitzera eta Armendiko Apezgoa besteen einera jasotera diatortsu, ene jaun. Ondo ere ondotoxo dakitsu berak, Armendiko eleiza bultzatzea Arabako jaunerria goratzea dena eta bestelaz. Beste batzuren politikak hondatu eta ahienazoz gura leukena haxe indartzeko gogoa dautsu. Bakoitzak bere opilari emoten dautso sua, 'non sua han opila', esan ohi da-ta. Orain bada, opila Araba dozu, labea Arriaga eta sua, argia den aldetik berere, Armendiko Apezgoa.

Hori dela ta, ez da harritzekoa Don Belagan asabek hasi ebena bere einera eroan gurea. Norbait arduratu behar zendun etxeko arazoez. Ala leondarrak sartu zirenean, ezer egin ete eutsuen Armendiko Apezgoaren alde? Ez, bere muga barruko mendartean Belostakoa jaso baino. Edo gaztelarrak nausitu zirenean, ezertan lagundu ete eutsoen Armendiri? Ez, Arriagako Batzarrak eragotzi eta erdal misinoak Argantxonaraino uharitu baino. Eta aldiotan gure anai naparrak sartu direnean, ezer egin ete dautsue gure Apezgoaren alde, teila bat berere eleizari inguratu? Ez ta! Lur barrien eskuratzeaz arazotuegi bai-dabilutzuz anaia naparrak eurak-eta, Armendi baizen gara gitxiko Apezgoak noiz Kalagurri ospetsura aldatuko.

Hanartean Don Bela, hako *Don Bildur* errefuxiatua, bakarrik Armendin oinarritik teilatuta eleiza eta monastegi barria egin

gurarik, bada 'besteak beste disdiratu behar jok gure Abategiak' dinost berak, ene jaun, bere eskutitzean. Horra bada, zenbat maitale (erdiak baino gehiago zuriak) daukazan Arabak eta zure esku dozun Armendiko Apezgoak. Euren egiteetatik ezagutu zeinkez..."

"...HONA GOIKO ATEZAINAREN ABOTSA, HONA AITAREN etxezaintzako ezpatea erantzi eta Goiko Hitzaren aho bikoa jantzi izan dauenaren deiarra. Erraza egin jatan garrikoa askatu eta burdinezko ezpatea ezestea, baina goiko beste horri bihoztzean toki egitea labearen suminalakoa egin jatan.

Aitaren etxea laga eta monastegiko bakean atotsi nintzan hasiera baten. Monastegian botoak emon eta munduari ateak itzi neuntsozanean, Liburu Santuetan buru-belarri murgildu nintxatzuen eta, labean sua lez, orduan eta suminagoa jatan barrenean Jaun Inko Jaunaren Hitzza. Haren garrak eta ohiko autzazainaren odolak irakin egisten zainetan. Irakinaren borborrak gainezka eragiten ninduneko baten, Jaun Done Miliaganako debozinoak Arandioko haren ermitara eroan nindun. Mendi gainera orduko, lainoa neban inguru eta ekaitza hurbil. Trumoiaren abarrots eta oinestuaren distiran Jaun Inko gure Jaunaren abotsa entzun neban esaten: "Zer ikasi dok, Asuri, Liburu Santuetan? Zertako atera hindudan, autzari-sume, aitaren gaztelutik, zertarako amaren etxetik? Monastegiko beste horretan anaikideen gozotasunean bizi heinten? 'Jaun Inkoaren bideetako beilari eta Haren aintzaren babesle' esan nenduan nik, ala ez al dok trumoian entzun nire aserreak orroa eta tximistean nire suminaren oinestua?..."

Belauniko nengontzuen, ezer erantzuteko ez nintzala. Behin-goan trumoia isildu, ekaitza baretu eta, Jaun Inkoaren iraduk hartzen nindula, mendian behera abiatu nintxatzuen, oraindino ezer ez nenkiala eta ostaz Goi-argiak gogoa pitin bat argitzen

eustala. *Nunc dies salutis* esan neban, Apostoluarena gogoratuz. Entzun belarririk daukanak Liburu Santuak dinona:" *Hur dago Jaun Inko Jaunaren Egun Handia... eta, ekaitza danean, oinestua mendebaletik sortaldera begien itxi-idegi baten doanez, balan agertuko da guztion Epailaria hodei gainean bere aintza eta indarrean. Ez dau inortxok haren begietatik eskutatu edo ihes egin abal izango... Ba dinotsuet: dagoneko igitaia uztari dautsola dago eta ugazaba garia galutsetik bereizteko artza eskuetan dakarrela dator.* Orain bada, ikara zaitetz, lur, Haren aurrean; poztu, ortziak, eta balaunika, ordekak, ba datorrelako; egin ijuti, mendi eta malkorrak, Jauna epaitzera datorrelako. Zuzenbidez epaituko dau lurbira eta lehialtasunez herriak. Zuetatik ez dozue batik be ihesiko Haren epaitik; zorrotza izango da gaizkileekin, bihotzbera zintzoekin, ongileei saria eta gaizkileei zigorra emongo dautse. *Judex ergo cum sedebit, quidquid latet apparebit, nihil inultum remanebit.* Bada Jaun Inko gure Jaunaren izenean emoneko baso bete ur sari gabe geldituko ez danez, halan bere txikietariko bateri egin-kalte ez da zigorrik gabe geldituko...

Ez esan zeuon artean "bihar edo etsi konbertituko naz, oraindino hamar edo hamabost urte edo gehiago falta dira Azken Juiziorako. "Nork erakutsi deut heuri urteen kopurua edo aldien kontua eroan eta seinaleak iragarten? Edo ez ete dakik Jaun Inkoarentzat ehun urte urte bete lez dana eta urte bete ehun urte lez? Ala guk dakusgun lez ikusten ete jok Berak, edo guk zenbatzen dogun bezala zenbatzen? Eta zuetatik, zuhurra izanik be, nor da bere hazkaiari arra bat edo bere biziari urte bete gehitzeko? Ezin zeinke beraz urteekin, ileekin, egunekin edo orduekin jolastu, umetan hatzamarrekin kontaktzen zendue-nean lez, ez eta, arpegiko azal guria haztatuz, "oraindino gordin nago, bizi luzea daukat aurretik" esan, gizakiaren bizia lurrean landaturiko lorearena baizen iragokor eta puztagarria bai-da eta ehunlariaren haria anezkan akitzen danez, halan gure bizia eten eta amaituko bai-da.

Zagoze ernai, gauean lapurra lez, ez dakizuen orduan etorriko bai-da; zagoze kurtzelua eskuetan, senargeiaren begira dagoen neskatil ziburra lez, ha datorrenerako, atea idegi eta eztegu-mabaian sar zagiezan. Ez zagiezela zabarkeriazko lotan edo kurtzelua olio gaberik dozula aurkitu, zeuon bihotzeko sorgorkeriarren, azken itxumustuan ez daizuen dana gal. Alperrik izango da orduan *Jauna, Jauna, ideki guri* —esatea—, kristinau zaharrak gozuz eta ez dogu izan eguno inondiko mairusko eta juduekin traturik”. Ez dozue horrelan bururik zurituko bihotzen eskutuena argitan dakusanaren aurrean. *Ez zaituet ezagutzen* —erantzungo dautsue barrutik ezetsi zenduen zenargeiak, maitagarritasuna bera salatzaile zorrotz bihurtzen jatzuela.

Emakume bi egongo dira etxe barruan josketan; bata auke-ratua eta bestea ezetsia izango da. Morroi bi egongo dira ar-tzaintzan mendian; bata saritua eta bestea zigortua izango dira. Gudari bi gaztelu-zaintzan, eta batari ondarea emon eta besteari kendu egingo jako. Belarririk daukanak entzun begi lurreko etxaguntza zerukoaz trukatu ebanaren abotsa. Ez ibili zeuon buruak alper zurikatzen, bada egun haretan mairusko eta judu askoren bihotzak zuenak baino zintzoagoak emonak izango dira eta zuei agindu-erreinua barriz, atzerritarrei emona.

Goratu eizue Jaun Inko gure Jauna argia dozueino, ilun-tzeko itzalak zuen begien parera igon ez daueino...

3

Eta zu, Alaren Igarle, leiba zaitetz zure zintzoekin Gudu Santura.

(Sura VIII, 66)

“...BIZKAIRAKO MISINORA DOAN GURE ANAI DON ESTEBA-negaz bidaltzen dautsut, ene jaun, zeuk eskaturiko eritsion gutuna. Done Milian azken urteotan altarerako serbitzan aurre-ratu eta burutu direnetan berarizko argiz eta Jaun Inko gure Jaunaren dohaietan jantzienetarikoa emoten dautsu berak. Jaterriz, gutariko gehienak bezala, Otxerrikoa eta artzain- seme dozu. Artzain-semeok Jesukristo gure Jaunaren arloan ere egoki erantzuten dautsue, ene jaun, Arandioko mendietatik barik, zeruko Aitaren aintzatic lur honetara Artzain Ona izatera etorri zen Haren graziaz.

Etxean aurkitzen ez bazaitu, ene jaun, nahiz eta apostoladutzako toki apartaduenetan egon, urratzez urratz zeu bilatu eta mezua eskura igorteko agindua emona dautsot, nire gutunak bere leihaltasuna baino beste sigilurik ez daukalako.

Don Esteban bera dozu Jaunaren Aparizioko ospakizun aurretik bai Bizkaira, bai Orduniara misinotzan doazenen aurrelari. Uzta uharia bada, Jaun Inko gure Jaunari esker, langileak ere ez dira urri, eta langintzan doazenen hutsuneak betetzeko lain alo-gereko barrien eskabideak sobera. Monastegia dogun baino birritan handiagoa beharko genduke, ate-joka diatorkuzan denei idekitzekotan. Hauxe Jaunak deitzen aukerea! Ez dakitsut gudu-

susmoakaitik ala munduaren azkena ateetan delako usteak horren mortxatu dakarzan. Nik euren benetako asmoak aztertzearen, zera esaten dautset: “Zer, ene seme? Horren nekeza egiten ete jak aitaren ardiei jarraitzea edo ez al dok lortu dote oneko andregairik edo horren urribizian bizi ete dozak hire gura-soak?...”

“— Zertarako ezkondu baina —erantzuten dauste askok—, bizi-epea horren labur dogunez gero?”

“— Zelan horren labur, hoge urtegaz bizitzako unerik edereanean hago-ta?” —nik eragon ostera ere.

“— Eta nork ziurtatzen daust niri, ene aita, beste hoge bizi-ko nazen?” —Fedea haztatu-asmoz bezala, arpegira begiratzen dauste.

“— Zer da, bada seme, —nik irribarrez—, Azken Juiziorako tronpetak entzun dozak ala?”

Tronpetarik ezarren ere, batzuk halako seinaleak zeruan, ez dakit nongo igarleren predikak eta beste batzuk guda-mugako zarraparrak aipatu daroez.

“— Nasaitu hadi, mutil —dinotset Azken Juizioko arrenkuz datozenei—, horrek esamesak dozak. Hori noiz izango den inortxok ere ez diakik, Jaun Inko gure Jaunak izan ezik.”

“— Horrexegaitik, hain zuzen be, ene aita —erantzun eustan hareratariko batek—, gaur ez bada, bihar izan daitekkelako.”

Igarkizunon predikaria ni baino gogo beroagoa izan behar zendun, ene jaun, arrenkuren baretzeko nire oharrok ez bai-ziran nahiko.

Gure anaikideei eta Araban eta Bizkaian eta zure Apezgoko beste alderdietan Done Miliako nausigoa ezagutzen dauen beste Abategiei eragotzi egin dautsegu, hagaitik, ene jaun, Azken

Juizioko igarkizunetan sartzea hako *non est vestrum sapere tempora et momenta* esandakoari jara eginaz.

Guda-iguinaz etorren Santurdeko gazte batek haxe inostan: “Gaztelari guda-laguntzen joan baino hobe monxe izan...” Zergaitia eskatu neuntsun eta berak: “Horrela inork be ez dautsu itaunduko: zergaitik ez dautsek lagundu gura gaztelarrei? Ala heu mahomet-kume edo mairuen alderditarra ete haz?” Garinko jendeak, antza, horrelakoez itxurgatzen ei dautsue, ene jaun, Otxa-gazturu eta beste inguruetan guduari uko egiteko asmoa.

Zehaztasunotan apur bat luzatu banaiatzu, ene jaun, Azken Juizioko igarleak ezeze, gurutzadaren predikariak ere oraintxe uharitzen doazelako da. Jaun Inko gure Jaunak libra gagizala euskaldunok Beloradotik zehar, gudura daroan kaltzada labanean jaustetik. Mugonean diatortzuz ohiko gure jasartzaileok, ene jaun, eurak baino barbaroago ustekoan kontra laguntza eske. Mahometekin behenipehin bisigotarrekin ez bezala, bake-itunbenak egitera iritxi zenduzan Arabako Don Belaren aurretikoak eta geroago Iruineko Erregeak Kalifei alabak ezkontzan emotera ere. Bake-itunbenak ez dausku eguno kalterik ekarri mendiotara eta zergaitik orain bere zuloan dagoen sugea zirikatzen hasi? Euskaldun peto batek erraz ulertuko dautsu, ene jaun, arrazoibide hau, baina erdaldunek ostera, ez dagotsuz ezergaitik amore emotekotan. Batzuk Kalifagoko utsunea uztiatu behar dela, bada zer dagike emakume batek Kalifaren Ordezkaritzan kristau errege alkartuen aurka? Besteak ostera, kristautasuna berak dakartsue gudu-bultzagarri, “kristinau bagara, kristaudiaren mugak zabaldu behar doguz” esanaz.

Egingo neunke, ene jaun, erdaldunek eurenagaz urtetearren, euskaldunok ere Kristo gure Jaunagan anaitzat hartuko ginduke ezela, barbaro-susmoko irainak beste aldi baterako itzirik. Inoiz berbaz euren erderara egokituarren, burua beti ere euskaldunlepotik daukagunez, eritsietan ez gatorkez batera, Euskaldunek

honela eta erdaldunek harela, ohi denez. Berbakera eta ohitura ezbardinetako herrietatik bilduko anaikideak gara. Pentzatea baino ez dozu, ene jaun, euren eskualde eta jaunerri askotan ez daukeela herri-batzarrik eta gizarteko erabakiak uneko errege eta kontearen aginduak baino ez direla. Beste herri batzuetan barriz, herriko batzarretan eleiz-gizonak ere parte artzen dautsuela, aginte biren nasteko egiten jatzuz. Beste era batera esanda, ene jaun, Otxa-Goitikook bakarrik ezagutzen dogula Arabatik dogun Herriko eta Eleizako Eskubidea banantzeko ohiturea. Zelan aditzen emon eurai Armendiko Apezgoan eleizgizonak ez daukela hitzik Herriko Batzarrean? Zelan adierazi heuroi han herri-hautatuak herriko arazoa erabagiteko, eleizgizonak Eleizako Batzarrean haren okerrak salatzeke bezain libreak direla? Bakoitza bere arloan ezeze, bere esparruan, bata bestearen eskukoetan sartu barik, eztabaidagarrietan bakoitza bere aburuko, baina Jaun Inko eta bere Seme Jesukristo gure Jaunaren legean bat gatozela? Bihurriak-edo ei gara Kristo gure Jaunaren Ebangelioa iragarri, pobreei lagundu, ezjakina eskolatu, zuzena eta egoki dena begiratu eta holakoak bakarrik Eleizaren esparruko egitean eta ez gizarte-legeak iragarri, herriko arerioei armaz aurre egin eta bestelakoetan. “Bihurria —dinotset nik— Zesari Zesarena eta Jaun Inko gure Jaunari berea emotea?” Ea Ebangelioa bera edo, bardin dena, Jesukristo gure Jaunaren gurutzea bihurritzat daukeen!... Nik neuk bihurritzat emoten dautset euren gudariak, gudu-babeskiak eta ezpatak gurutzaz seinatzeari. “Gurutze seinaleok zeuon pekatuen parkamenerako izatekotan, gaitzerdi —dinotset nik—, baina horrela zeuon ezpateaz Kristo gure Jaunaren gurutzea goraldtu gura izatekotan, gaitza eta erdi.”

Ezetz, ostera ere. Kristaudiaren lurrak berreskuratzeko asmo hori, *reconquista* deritxoena, Iruinean sortu zela.

“— A bai? —nik—. Bake-itunbenak ere handik sortu zeneduezan eta zeuok apurtzen lehiatu zaree...”

Ba dakitsut, ene jaun, Iruineko erresuma euskaldunen ohiko mugen berreskuratze-asmotan sortu zena, baina bai eta ere Naiara eta Bakirako mahometen aurka baino lehenago ekin eutsoena leondarrek eta gaztelarrek Otxerriko mendiotatik ezkitazten. Mairuekin Kalagurriko arazoa legoke oraindino eta bake-itunbenak artean. Orain bada, euskal mugak osatu eta gero bisigotarrek galduriko erreinua berreskuratzen laguntzeari eurek jan beharreko gaztainak sutatik ateratzen laguntzea deritsot. Kristinauen askatasuna, kristaudiaren ardura eta Kristo gure Jaunaren aintza aitauko daustez, baina niretzat bardin da. “Horra guk Bizkaira bidaltzen doguzan misiolariak kristaudiaren aurrelari eta Jesukristo gure Jaunaren benetako gurutzatuak” erantzungo dautset nik. Euren bai dela ezpata bako gurutzea. Berez aho biko ezpatea daroan Jaunaren Hitzak ez dautsu behar, izan ere, burdinezkorik...

Besterik da, ene jaun, Jaunaren Hitza moteltzat-edo hartuaz, Ebangelioa ezpataz lagundu gura hori. Ez dakit entzun dauen, Don Benedito, Naiarako Episkopuarena. Naiara eta Bakirako errege jaun Don Ramirogaz mairuen kontra Gaztelari laguntzen doazen gudarien tresnak bedeinkatu ei dautsuz berak. Hortik aitatu dautsudazan babeski eta ezpata gurutzatuak, hortik mahometen kontrako gudu horri *gurutzada* deitzea eta Naiarako Apezgoan, antza denez, gudu-ekintza bera ere ontzat emotea. Non eta gure erospen-seinua guda-tresna negargarriekin bat egin! Kristo gure Jaun eta Erregearen seinu bakarra munduko aginteari dautsola, batak bestearen beharrianik edo baileuan! Kristo gure Jauna ezpata-beharrean, judeguen eskuetan jausi aginean egotzula, *mite gladium tuum in vaginam* Pedrori esan eutsona? Besterik da, ene jaun, munduko handikiak eurak goiko Jaunaren garaitza-seinuaren beharrianetan egotea. Hartu dagiela, halan izatekotan, baina hartu dagiela gurutzak daukazan eskakizun guztiekin, bada *qui non bajulak mecum non est dignus me...*”

“...ESATEN NENDUAN NIK, LEHENGUSU, KALIFEAREN AGIN-te-makila Sobeiaren eskuetan egolarik, iretargia aldatu egingo zala. Egunak argitu jauskuek egizkoa zala nire susmoa. Emakumea sartzen dan arazoetan gauzak aldatu egiten dozak onerako edo txarrerako. Lapikoa aspaldion egosten egon dok-bai, eta suaren biziagaitik-edo, lurrinak tapea jaso jok. Galib, gure general zaharrak ezin izan jotsak amoremon, Kalifagoko andre-erreinuari, ez diakiat Kalifa-Ordezkarria emakumea dalako, ala haren Idazkari Abu Amid Mohamedek darabilzan eme-usaingarrietatik. Ez diakiat Alaren ala Sobeiaganako zeloak Hixen Kalifa kumea nausi-gurera eroan dauen. Behin baino gehiagotan etorri zoan general zaharra Hixen Kalifa kumeari men egitera, errespetoa erakustera, baina Ordezkarisa eta Idazkaria bat etorri jakozak, umea amaren eskuetan ondo dagola esaten eta Estaduko arazoak nogaz aztertu ba eukazala-ta, haize freskoa hartzera bialtzen joen. Umea sekuestratu gura izateraino heldu ei zoan bere iraultza-asmoa. Baina Kalifatxoa gorderik eukeenak be ez jegozaan lotan eta txakurra axatu jautset azagariari. Amarruez ezina, Galib zaharrak indarrez egitea erabagi jok azkenean. Bere jarraitzaileekin bat egin eta Gudalaxara bururantz alde egin jok han... (nogaz esango daustak?) Gaztelako azagari horregaz eta, harritu hadi, Naiara-Bakirako errege Don Ramirogaz alkartzera! Nonbait errege Don Santxori damutu egin jakok, Gormazko saldukeriaren osagarri, Oneka alabea enbasadatzat Kordobara bidaldu izana, bada, Kordoban baitutzat hartu joek enbasadea. Sobeiak ez jekiaan zer egin urrezko errege alabeagaz, bai oster Abu Amid Mohmet Idazkariak eta Galib, general zaharrak. Hixen mutikoagaz ezkondu? Jum! Oneka hazitxoegia Hixenentzat eta gaztetxoegia Galib general zahararentzat. Dona Toda amuma zanaren eskua beharko zoan halako konponketan.


Iruinean Galiben matxinadaren barri jakin daueneko, Don Santxo aitaren erraiak samurtu egin dozak, antza, eta Ramiro bialtzen ei jok edo arrebea baitutzatik askatzera prestatu ei dok. Horra, ba, Kalifagoaren kontrako hirukotx sendoa: Galib eta

bere gudarostea, Don Ramiro eta bere nafarrak eta danetan ziztrinen, Don Gartz Fernandez, Gaztelako azagaria, *Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean...*

General zaharrak horregaitino, ez joan ezagutzen amarruetan maisu mutildu dan Sobeiaren Idazkaria. Alkarren arteko gudu-erronka izan bailitzan ez bizkorrago, batzarra deitu jok. Entzungo zenduen honez gero, bada, sua ginarrean baino arinago egin jok barriaren garrak, hegoak ifarrera daroala. Joan mezkitarra, santutegia batu, euren Liburua idegi eta Gudu Santua ez jok ba aldarrikatu Galib saltzaile eta beste sinisgabeen aurka? Bai, txo, Gaztelako lapur eta Iruineko lehengusu-ohiaren aurka. Kordobako turutek, muhezinek, imanek, Kalifagoko postariak lau haizetara zabal diaroek mezu ikaragarria. Egun batetik bestera ikusiko dok Kalifagoko gudarien ezpata-dantza eta zaparradea, hasi Agunamendiko gailurretatik eta Galiziako itxasbazterraino. Doro guda-mugakoa ume-pupua izango dok datorrenaren ondoan. Kordoban ikusten dodanetik susmo joat, lehengusu.

Garizumalako aldi latz eta penitentzia darion predikazinoetan sartu gozak. Mezkitak nausia jendetzaren debozinoa kabidu ahal izateko ez dala eta ez nahiko Alakan, Kalifa zanak gehituriko behebarruak. Abu Amid Mohamedek beste hainbesteko zabalera gehituko dauela agindu diautset eleiz-gizonei, saltzaile eta sinigabeen kontrako gudea burutzen dauenerako. Hanartean ez dok isiltzen Mezkitako imanen hitzaldia: *Zuek zaree Alaren bideetan aurrerenak, zuek Alaren deiari jarraitzearen, guraso, emazte eta etxea itzi zenduenak, soin eta muin Alaren eta bere Profetaren bidea zabaltzen Kalifagoaren bihotzera etorri zareenok...*

Horrek dozak, lehengusu, Kordobakoen eredu, Abu Amid Mohamedek Afrikatik ekarrazo dauzan gudariak. Jantzkeran ezeze, arpegiko azaletik ezagutzen dozak eta haren begietako txingarrak aztoratu egiten joezak Kordobako emakumeak. Eurek



ostera, begiradarik itzuli be ez. Zeruko uriak joezak ames, Kordobako emakumeen irri-sinuak dinoenez. Laster isilduazo jozak pulpitotik imanak: “Zuen buruen gain zigorrik ikaragarriena —hots egin dauenean—, zuen amarru eta liluraz Alaren zaldun honetariko bat bera linburrazoko bazendue! Gorde zeinkeez egun hobeetarako apaingarri nabarmenok eta, ederragaitik tindatzera eroatea tamalgari bajatzue, hor dozuez linu, algodoi eta artulezko ehunak, zeuok be, guztion barrua ezagutzen dauen Alak zeruko urien eineko egin zeinkeez-ta”.

Otxanda gureak be ez diaustak sinistu gura izan emakumeen moda barria aitatu dautsodanean, amaitu zirela arpegiko gorriminak eta arpegia bera txador baltzagaz estaldu behar dauela-ta. Horrek baino handiagoak esan dauzela Alaren predikariek: *Ez ete dakizue dagoneko Alaren Egun Handia hurbil dagoena eta epai-eguna azken eguna izango dana zuentzat, apaindura-zale emazteontzat?* eta halakoak. Baina zeruko uriena entzun dauenean, samurtu egin dok eta Kordobako bakearren, ez dauela setarik, ez purpurarik jantziko, agindu jaustak. Kristinauok halako penitentziatik aske gagozanarren, edozein nabarmenkeria parka-ezina izango litzakela-ta, holakoetan.

Nik ez diakiat, lehengusu, Naiara eta Bakirako eta gitxiago Iruineko emaztekiak zelan janzten diren, baina ziur Don Ramiroren eta Don Santxoren gortekoak bakarrik bardinduko joek orain arteko kordobar emakumeen janzkera. Kordobako setagileak osterabean, Ikerako autzetatik hara ekin beharko joek euren ehun-negoziotan, hemengo ia ahitu egin jakeek-eta. Hemengo aurrezkiak euren kutxatarako barik, Gudu Santurako dozak danak. Hor diagok ba akatza eta imanen behin eta barriroko salaketa: “Zuok Kalifagoaren urian bizi izateko zoria izan eta sinistun-burua egiten dozuenok, zerk eragozten dautsue Alaren deiari amore egiten? Horren maitagarri ete dozue mundu honetako bizitza, Alaren geroko saria horren gitxiesteko?”

Pobreek, izan be, lehengusu, ez joek ezer galtzerik Gudu Santua gora-behera, baina eukiei eta judu salerosleei irabaspidea ezeze, irabasi en gozamina joakek eskutik. Fede barik eta ze Gudu Santuren izenean diru-kutxak idegi? Mezkitako mutilak emongo diautsezak arrazoiak: *Alaren bideetan aurrera pausoa emoten ez badozue, itzelezko zigorra diatortzue gainera eta dagoneko egizue negar zueon eta zueon semeen zoritxarragaitik. Sinisgabeak etorri eta zuen lurrar jabetuko bai-dira, zuok barriz, haren jopu izango zaree, horren maitagarri izan dozuen lurrean bizi izateko odolik zainetan baldin gelditzen bajatzue... Zatoze, bada, Alaren burrukan zeuon aberaztasun guztiekaz, haren zigorretik ibes egin gura badozue...*

Ez diakiat, lehengusu, Naiara-Bakirako errege Don Ramirok eta Gaztealako konteak beste hainbesteko serbitsua aterako dauen monxeon predikazinetik, baina Sobeiaren Idazkari honek, garrian ezpatea eta buruan eskola jantzi orduko, gudu-zorian ipini jozak bazterrak. Gudu Santurako zilarra eta urrea pilatzen hasi daneko, zaldun barriak be agertzen hasi dozak. Horra ba, andreagaz gogaitu bizi direnak eta gosekilak, Alaren deboto barriak, Afrikatik etorri-ereduen hurrengo. Urrearen indarra ez dok motela, baina ez eta Liburua eskuetan, Alaren deiadarra aldarrikatzen dauenena txikiagoa: *Alak Gudu Santua agintzen dauenean, zuetariko nork dauka atzera gelditzeko baimenik? Inosoak eta koldarrak benetan arriskuetatik jaregin gelditu gura leukeenak! Ezin danean, ezin da, zahartzaroan edo gaisoaldian jazo obi danez, baina zergaitik datoz beti be aberatz eta osasundunengandik atzean gelditu-gurako aitzakiak? Zuen sale-rosketak porrot egingo dauen bildur? Zuon ondasunak gitxitu egingo diralakoan? Neuk erakutsiko dautsuet zueri ondasun hobekak negoziatzen eta Alak bereentzat gertu daukazan sariak desiratzen erreka bizidun lorategian... etabar, lehengusu. Ez joat uste, monxeok, kristau-erreinuetako gudariak oldartzekoz, zeruko urien agintza egiteko izango zareen. Ala kristinauen zeruan ez ete diagok begi baltzingo neskarik?... Horrek dozak*

ba, edalontzia apain bete eskuetan, gudari nekatuak gozatzera lehiatzen diren uriak. “Fedearen tokian irudimena ipinten dauenen erratua” esango dok, baina honen fedea aldameneko aberatzaren jauregian ikusi dauen luxotik hasten dok. Haxe, baina zeruan eta burruka itzelaren ordain-zaritzat. Hemen ezina, han...

Neuri dagokidanez, Don Belak ez jok gudurako halako promesen beharizanik, ez Al Koraneko zerutar uri begi baltzeranik ez eta Kalifagoko gortean irrikagarriago ohi diren iruinear neska begi urdinenik. Orain arte be, gertu egon nok, golperen bat emon be bai, baina gaurtik izango dogun laguntzaz estrategia zabaldu beharrean aurkitzen nok, eskerrak Galib general zaharraren zeloari. Haren saldukeriak, izan be, nire zintzotasunari sakatu egin diautsot ezalakoan. Horra, Galib mahometa kristau errege eta konteekin Kalifagoaren aurka eta hona hemen ostera, Don Bela kristinaua, Kalifagoaren aldeko burrukan gertu. Ez dok ikusten, lehengusu, euretar baten saldukeriak, errefuxiatu honen jokera txalagarriagoa egiten dauela?...”

“EZKAUHARTE, ERRAMELURI ETA UZKURRETA ATZEAN ITZI eta ziurira heldu ginduzuzan eguerdirako. Done Ibaneko abateak abegi ona egin eta jatera gonbidatu ginduzan. Artaldeak Tirona ibarraldean bazkatzen eban artean, ordu pare bateko autualdia izan geuntsun, jaten hasi orduko, gudu-barriak ahotara etorkuzala. Azertxokoen gudu-erakusketatik atera neinkenez, kristinauen garaipenaz amaitu zela esan neuntson abadeari.

“— Amaitu? —berak, betagainak ahal bestean makotuz—. Hasi baino ez. Mugonean zoaze Azailoriko autzatic ate. Honek, garaipenaz hasten diren guduok izaten dozak gainera txarrenak, onenenean ere guduak txarrak direlarik. Baina gende gaztea behin harrotuez gero, umeak olgetara lez, joaten dozak zaldizkoak, oinezkoontzat gero elorria baino ez dakarrela...”

Errege jaun Don Santxorena ere esan neuntson, Gaztelako konteagazkoa, hain zuzen, eta Don Ibaneko abadeak irri gaitzoz inostan:

“— Ordekatarrok laguna behar aureskuan gero atzeskuan narrua non gorde euki ahal izateko.”

Gaztelagazko harremon ez tien seinalea Azailorikon izan geuntsun hurrengo goizean. Bertara horduko gau berandua egin jakun eta, mendatea igaroteko orduak hareek ez zirela-ta, euskaldunon ohiko gudamuga ezbaikor hareetan ahal izan gendun modura igaro geuntsun gaua ardi eta artzainok. Goizaldean Azailorikon ikuskizun harrigarria, eguzkiak harkaitzetan emoten eutsola. Hara non dakusdan, Bibliatik zuk, ene maisu, behin baino gehiagotan aipaturiko ‘harresi eta harresi-aurrekoa’. Gaztelarrak *Sant Jago y sarra Espania* oihukatzen eutsuen Ezkauhar-teko gudu-erakusketan, baina euskaldunoi, Otxarotik Pankorbora eta begiak hartu ahal leiken baino be harago, ondo harresituko lurraik norbaitek ipini euskuzala gogoratzen neuntsun.

“— Ikusten dok hori? —adierazi neuntson Errodrigori, mutilak begiko pisteak garbitzen ebazararik—. Horrexek dozak Don Bela, hako hire birraitona, famatu egin joen harkaitzak.”

“— Azailoriko?” —Dena begi zendun mutila.

Zaldira igon eta artaldeari aurea hartu gura eutsun. Baretu egin behar izan neuntsun, handik igaroteko baimena artzainak eta monxeek bakarrik daukala-ta, monxe barik monagoa ez zela aintzat hartua izango-ta.

“— Ikusten dok gaztelua? —eskolatu behar neuntsun—. Haxe zoan hire aitaren gaztelua ere, Kordobara ihes egin aurretik. Harresi-aurreko haretatik zaintzen joazan Arabako ateak.”

Gazteluko ormak besarkatu eta bere aurretikoak Jaun Done Miliari eraiki-eleizan otoitz egin gurako leukela azaldun eustan mutilak.

“— Zaindari barriek ezagutzen bahaue deskuidoan, ezagutu..., bertan garbituko hindukee, txotxo —Burutazinoa kentzen ahalegindu nintxakon—. Gainera hire gurasoen ohiko eleiza sinagoga bihurtu joek...”

“— Ez ete gagoz ba kristinauen herrian?” —Asaldatau zan mutila.

“— Kristinauen herrian bai, baina inguruko kristinauen artean ez zoan aurkitu Gaztelako kontearen konfidantzakorik eta juduei gomendatu jotsen gaztelu-zaintza.”

“— Jo! Arabako giltzak juduen eskuetan!” —ots egin eban Errodrigok.

Amorratzekoa zendun, ene maisu. Bisigodoen eta mairuen aurkako gudutan hainbeste bidarrez nausitu zen gotortegia, orain bake edo ustezko bake-aldian juduen eskuetan, Jaun Inko gure Jaunari eskerrak emoteko zen santutegia barriz, sinisgabeben pentzutun. “Hara Babiloniako zoria —ninon neure artean—, baina bestelaz...”

Azailoriko-autzara inguratu gintzazanean, azkonaz eta ezpatat armatuak hurreratu jakuzan, dozena erdi bat. Ez ekarren judu-seinurik janzkeran edo aldean. Otxerritarrak gintzazala esan geuntsen.

“— *Sodes de Ojacastro?* —eurak.

“— *No, de Ezkarai*” —nik.

Zurtz gelditu ziran une baten, gure ahozkeru ulertu ez bailen.

“— *Ha! De Ezkaria* —ulertu eutsuen—. *Da lo mesmo. Habedes paso franco.*”

Ezelako autzasaririk eskatu gabe eta irribartsu bide emon euskuen. Gaztela eta Iruinearen arteko alkarte-seinutzat hartu neuntsun bai irribarrea eta bai dohaneko sarrera.

Mendateko autzak igaro orduko, Otxerriri agur esateko, atzera begiratu gendun: Arandio mendi gaitzak urrunean, erpin edurtuaz hodeia joten ebela, beheko lautadan, euskaldunon arerioak hainbeste alditan zapalduriko Gaztelako ate eta kaltzadea, ostera ere gure begiak Arabako harresiaurrean, arerio ausartenak musturreko galantak hartu eta ezतिकatuak izan zireneko aitzetan josteko.

Mugea igaro eta autzan barrura ginoazela, bidearen malkorrek izten euskun ginoan albotara eta atzera adi, harresi miragarrien gerizeari begira, aurreratzen geuntsun.

“— Hantxe, harkaitz jasoenaren beheko koskan egiten ejoen gauzez sua —kontatzen neuntson mutilari—, Garinotik eta Argantxonatik guduseinuak ikusi egiezan. Horrela egunez keaz eta gauzez suaz mendi batera dei eginez, aurre egiteko prestatzen zoazen euskaldunak.”

“— Eta zergaitik esan dautsezu, ene aita, otxagazturutarrak barik, Ezkaraikoak garela?” —itaundu eustan mutilak.

“— Lehenego eta behin, ikusi dokanez, erdaldunek ez dakielako *Otxagazturu* ahozkatzen —barre egin neuntson—, hurren gaztelarrek otxagazturutarrak gorroto dauezelako. Ez ete dakik hango autzartean lurra jo joela? Horrezaz gainera, artzain semea nazenez, ni apur bat hortik-hemetikoa nok. Nire ama Ezkaraikoa zoan-eta”

Tokiez eta izenez azalpen gehiago egin neuntsozan Errodrigori, gaztelarrek euskal lurrez jabetzeko daukezan amarruak baitikbat, indarrez ezin daunean, zelako amarruak erabili ohi dauezan, herrien izenena, batez ere.

“— Horrela gure Otxagasturu, edo Ezkarai, edo Garino eurentzat *Ojacastro*, *Ezkaria* eta *Granon* dozak. Bardin egin joen Azeretxo eta Azailoriko *Cerezo* eta *Çellorigo* bihurtzean.”

“— Ez daustazu esan ba, erdaldunak gure eratara ahozkatu ezina daukelako dala?”

“— Ez dok ahozkatu ezina bakarrik, nahiz eta erderak berez horretan moldakaitz egiten dauezan —azaltzen neuntson—. Erderea sartu aurretik halan zoazen eta eurekaz batera diatork eurekotu gurea, herriak ber-bateatuz, hutsetik eurentzat jαιο izan bailitzaizan. Beste era batera esanda, gureak barik, eurenak direla eta izan direla adieraztearren. Izkribuz ere horrela egiztatzetan joezan, ahoak berbaz dinona bera narrukiak izkribuz proba dagian. Nork ukatuko jautset gero, esate baterako, *Çerezo* erdal izena denik? Eta horrela...”

Ba dakitsut, ene maisu, hau nere eritsia dena, baina ostera ere pausuz pausu noatzu neurean ziurtatzen. Gogoan dot, euskal izenok idazteko era zela-ta, behin zeuk Don Vigila histori-gileaz esan zenduna edo Arandioko Lekandaz behin Ezkaraiko artzain bateri entzun neuntsona: Otxerritar eta Beloradotarrek mendiok zeinenak ziren eztabaidatzen ei eben, alderdi bateko eta besteko artzainak euskaldunak zirelarik, ez ostera euren buruzagiek. Etorri ei ziran *juezok* eta mugea ezarriz, *vos Lekanda? Nos Demanda* esan ei eben, harrezkero mendi barrien jaiotza ezeze, jabetza lortzen ebela.

Arabako harresiaurrekoa, Azailoriko, atzean gelditzen zan eta gure artzainek oraindino aurre-urteetako azasariei ateratako koplak abesten ebezan:


*Azailorikok diaukak
azaçariko,
autza galantak jozak
gure axarikok...*

Errodrigori atsegin izan jakon kantua. Ez eutson estariari bakerik emoten Gardaurira arte, nahiz eta kantu-lilura horretan Erramelen alabeak ere zerikusia izan...”

“ZURTZ EGINIK GELDITU GINTXATZUZAN, ENE JAUN, DON Ramiro gure errege gazte eta osasuntsua bere sasoirik ederrenean eta halatan hil dela entzutean eta harago Naiarako hiletan bera hilotz eta ezelako edertasunik gabe ikustean. “Hau dozue Jainkoak Naiara eta Bakirako errege hautatu eta sagaratu eban? —ninon neure artean—. Hau, batzuren ustez, Kalagurriko Sedeari ohore galdua bihurtzeko zena? Non ziran, bada, bere aholkulariak, non bere eskutari eta gudari ausartak, garaipenarik ezean, beheinpehin bere gorputza sinisgabeen zaldi-apatxetatik askatu egien? Eta ez neuntsun Jaun Inko gure Jaunaren borondatea onartu baino beste erantzunik idoroten.

Naiarako samin-batzarre haretan ikusi neuntsuzan Albelda eta beste hainbat monastegitako anaikideak ere eta ez ekien zer esan. Don Bedito Episkopuak berak burutzen eutsun eleizkizuna, Irunako Episkopua aldamenean eukala. Eta zer esanik ez, errege Don Santxo eta erregina Dona Urraka, erregetza baina areago guraso-zurtzadura erakusten ebela eta negarrez gorritubegiak atabutetik kendu ezinik. Haxe nahigabea eta ezina, ene jaun, halakoetan lez, errege jaunagan jauntasunari gurasotasuna nausitzen jakonean eta sarrakioa maiestateari! *Dies irae* kanta-gaiarena ikusten neuntsun, abestuala. Monxeok abestu, eta errege Don Santxok ahapaldi bakoitzeho zizpuruz lagutzen eutsularik. *Lacrimosa* benetan haxe eguna!

Doro-buruko kristinauen galpena egintzat emon eiketsun, baina nondik, Nafarroako aurrelari, Naiara eta Bakirako errege izendatu-barri eban bere seme maitearen heriotza? Ha sinisgabeen gezi amorratuek, eta ez Lezako fronte hurbilean, Doroko muga latzean baino, eraso eta jausi bearra! Hori Gaztelako osa-



muga latzean baino, eraso eta jausi bearra! Hori Gaztelako osabeari laguntzen joan eta gudu-ekintzan bizia galduaren tamala!

Zutunik gengotsuzan kantariok gorpuaren inguru alderdi batera, jendetzaren handiagaitik ez egotzun tokirik, ez *Rex tremendae* harena baino beste maiestaterik, non kantua ziri-molak, haize bariko organua pot eginda bezala, ia arnasa gabe izten ginduzan bihozkerarren. Zer jazotzen jakun denoi? Edo zer ziran munduko errege denak maiestate itzalgarri haren ondoan? Salmoetan neunkatsun erantzuna: *zuek, handizki eta erregeok, beste edozeintzuk lez, jausiko zaree* dinonean. Berak, Jaun Inko Jaunak jaso eta erasoten bai-gaitu, berak arnasea emon eta kendu, eta behin arnasea kenduez gero, ez dago abesterik, ez zizpuru egiterik. Zortedunak gintxatzuzan, alan be, *salvame, fons pietatis* esatean, horren bestekoa emoten jakunez gero.

Gizarte honetan hilkorrok halako bereizketak egin doguz: batari *jaun* deritsogu, besteari *errege* edo *konte*, baina nik begien aurrean nenkusan, ene jaun, heriotzak ez dauzela zalduna eta oineskoa bereizten, ez eta erregea bere gudarien artean. Heriotzaren aurrean bizidunok ere ostaz dogu zertaz harrotu. Errege Don Santxoren jantzi urretzatu edo ezpata disdiratsuak ez egiketsuen ezaba haren begietako malkoen isila, ez hilotzaren luxozko jantzi urrindatuek haren gorpu-usteldura nabaria eskuta.

Dardarazinoz soinutzen geuntsun kantagaia ostera ere, *juxte judex ultionis* harakoa, alde batetik horren gogor eta bestetik horren bigun, *donum fac remissionis* otoiztean eta “zer da gizakia —niagon neure artean— heriotzaren horren bildur delarik ere, haren kalamidade eta lazkerien bila *ante diem rationis* bere oldez urten behar izateko? Zerk bultzatzen dautzuz halako bizi-arriskoetara? Noiz ez dakigularik ere, *Dies magna eta amara valde* aitortzen dogu, baina hori Jaunaren ordua aurreratzeko batzuk daukeen larria!... Alkarri armaz erasotea baino beste zereginik ez bailegon munduan!

Kantagaiaren zantzutan nengola oraindino, Don Beneditoren Ebangelio-azalpenek edo hilaren goralpenetako erroman-tzeak baitatik atera ninduen, *nosso amadisimo rey Don Ramiro, que el senior haya en gloria...* Bai, arma-ekintzetan baizen leinargi, adoretu izango zendun fede eta pietatezkoetan; Iregua eta Leza ibarraldeak Iretargi Erdiaren menpetik Gurutzearen oinetara erakarriko eutsuzan bere aita Don Santxoren laguntzaz..., baina horrezaz landa, zertan jo behar eutsun bere erresumatik ateko burruka barrietan?... Bai, Naiara eta Bakirako gudarien eta kristinauen eredu izango zendun errege Don Ramiro, ausaz bere bizia emoteraino zainduko eutsun bere gudarien bizia, “norbere bizia galtzen dauenak betiko bizia lortzeraino”, Jesukristo gure Jaunaren esaneko egiten zela, baina bestelakoak zenduzan, ene jaun, nire kristau ereduak. Errege Don Ramiro eta beragaz hil ziren gudariak ala Kristo gure Erregearen misinoa daroen gure monxeak ete dozuz haren esanekoagoak? Ez dinotsut *in hora mortis* epaian, bada ezin neinketsu ahaztu bestalde *qui salvandos salvos gratis* harakoa. Ez geure goralpen edo ustezko meritoen aipamenerako, Jaun Inko gure Jaunaren borondatea egite-rakoan baino. Nik ez neuntsun ezbairik horretan, ene jaun, baina *ela la espada de nosso amadisimo rei, por nos bendecida* Episkopuaren ahotik entzutean, mahometen Mezkitako Gudu Santu-burdin hotsa etordan burutara. Mahometek otoitzerako ere ez ei dautsue ezpatarik erantzten. Don Benedito Episkopuak ere tamalez ekusan errege Don Ramiro zenaren ezpatea eta eskutua uharrak jan aginean eta hagaitik hots egiskun: “Nork itziko dau uhartzen ezpata horren distira edo zabartzen eskutu horren babesa, harik eta eginkizuna osotu daino?...”

Horra ba, guda eta gorroto-ekintza guztiak urrunatu eta Jaun Inko gure Jaunari egindako okerren parkamena eta etorkizunerako bakea eskatzeko izan behar eutsun eleizkisuna, zeozelan gurutzada-deirako uztiatua. “Hori gure Episkopuak Kalagurriko Sedean jesarteko daukan amorrua!” —ninon neure artean— edo ‘bizia besteen alde emoten dakienek lortu egingo’ hako

gure Jaunaren oharra arma-ekintzetarako erabil-gurea..." Besteei bizia kentzeko arriskurik eta asmorik ezbaleroe, eroe-ustezko ekintza berean!...

Hileta ostean Albeldako lehengusu Don Vigila besarkatu ahal izan neuntsun, ene jaun.

"— Zer? Gurutzeaz ala ezpateaz ekin beharko ete diautso-guk?" —esan neuntson.

"— Niri ez diagokidak, anaikide, ezpatarik jasotea —erantzun eustan gizatasunez—. Ni lumaz niharduk, lumea dok nire arma eta liburuak egitea, nire iharduna..."

"— *Liber scriptus profferetur, in quo totum continetur...* orduan e?" —ohar nik.

Pentsakor gelditu zan gure lehengusua. Danok ikutu ginduzan apur bat errege Don Ramiroren herio lazgarriak. Berez negargarria dena goraltzeko berba politik idoroko ete dautsu historigileak?..."

"HONEZ GERO JAKINGO DOKANEZ, SOMOSERRAKO ATAI DEN, hango gazteluaren parean izan zolan Gudu Santuko epaia eta garaipenaren unea. Hantxe egon nintsoan ni, han ikusi najoan Don Bildur Gaztelakoa guduaren larrienean herioagandik ihesi, deabruak baileroan, Don Ramiro gudu-lagun zorigaitzekoa babes gabe izten ebala. Haxe patuaren bihurrikeria, bildotxak eroan bai-joan azagari zaharrak beharreko golpea. Bataren ihesa adina damu joat bestearen heriotza. Erruen gaintetik eroan jok dagoneko zuen errege gazteak, errudunena gaitzaren hazitarako jaregin dala. Goiz edo berandu helduko dok, halan be, gure lakiora.

Ustetsuegi etorran Naiara-Bakirako errege Don Ramiro bere zaldi zurian, Kordoban Gudu Santuak zorrotzuriko altzairuaren ez jakinean eta Alaren deiadarrera mahometen zalditeriak hartzen dauen tximist abiadaren ezustean. Hobeto joango litzakiozan Don Ramiro zanari amuna Dona Todaren diplomasi-erregelak eta bakezko itunbenak. Zelan gainbeheratu dauzan Iruineko Dona Usoaren asmoak Gaztelako Dona Urrakaren amarruak. Halako aholkulariak halako galmendiak.

Diplomazia erregaloeekin laguntzekoa dok berez, lehengusu, eta enbasadea Don Santxoren urrezko alabea izanez gero, hainbat hobe Kordoban. Erregalua baitukotzat hartu izan bajoen, Don Santxoren zalantza-balantzak bere puntura erakartearren izango zolan, ez Iruina eta Naiarako gorrea aztoratzekotan ziur. Horra zelo larregiaren kalteak! Galib, general zaharra, Alaren eta Kalifagoaren zelo larregiak galdua; Don Ramiro, errege gaztea, amaren esanekoegi eta Oneka arrebearen ohorearen tukuak jota. Neu be, lehengusu, mendeku-grinak erreta nengoan, baina hedeetatik eutsi niotsan nere zaldiari. Gudu Santua lehenengo eta gero gerokoak. Lehenengo eta behin Galib eta Abu Amid Mahomeden arteko errokea zolan. Hantxe egoan Kalifagoaren etorkizuna, eta ohorez urten joagu, hatarako negargarri hau kontau behar badauat be.

Galib, zaharra, Ataideko gazteluaren babesera egiten zolan, alboz albo Don Ramirok eta bere nafarrek laguntzen eutsoela erdigunetik. Don Ramiroren bestaldean barriz, zabalunerantz begira kokatu zolan Don Gartziz Fernandez bere gaztelarrekin, ihesirako amarruatan izan bailitzan, ez egokiago, arrantotan...

Geuk be, hiru sailetan banandu genduan gudarosteen mardo: ezkerrean Chagar Iben al-Andalusi, eskumean Markako gudarostea eta erdian Abu Amid Mohamed Kordobako gudutalde bereziagaz, neu eta nere arabarrak eta kristinau enparaduak lagun ginduzala. Ez egik uste, Abu Amid Mohamedek gu bera-

gaz lotze hori ezelako atzerikaraz izan eitekenik. Ondo ezaguna joan arabarron zintzotasuna eta gainerako kristinauek barriz, askatasuna eta non-nahi biziteko aukerea jeukeen saritzat, garaile urtetekotan. Kordoban bizi garenez, haregazkora eginak gagozelako izan zoen, batez be, eta halatan, Don Ramiro eta bere nafarren aurka buruz-burukoan jausi jakuan.

Indarren kokagunea ikusiaz batera, burrukearen sortea emona ikusten najoan. Tirabirea eta bekainak Abu Amid Mohamed eta Galiben artekoak izanarren, lehenego golpean haren indarrak erdibanatzea erabagi genduan. Gaztelako azagari zaharrek be ondotoxo jakin behar joan katea nondik apurtuko zan. Ez neinkion bestelaz aholkatu neuk ere Abu Amid Mohamedi une larri haretan edo “ikusten dok zerga-ukatzaile horren jokua? —ohar egin. Ikusten dok ostera be azagari zaharra alboko harritxilora begira?” Goitik diatorkek zortea, baina bakoitzak aukeratzten joagu ha jausten daneko unea.

Alaren deia entzun zaneko, gure gezilarien zaparradea jausten zoen zerutik. Hareek lehen zauria egiten ebeneko afrikar baltzeranen zalditeria nafartarren gainean zoen. “Zeuok aukeratu dozue” ninotsen neure artean aurreko anai euskaldunei”. Nafartarren zalditeri eta eskutuak gureak baino astunagoak zirenarren, ezin izan eben jasan gureen golpea, baina ez eta atzera egin be. Eurak Galiben alderdiari atsiki ziran beste, gaztelarrek nafarregana hurbildu izan baziran, ausaz Don Ramirok bizirik eta zentzatu urten leikean, baina erdigunea osorik inguratzen gendula, Don Gartzik arma-jokua amaitutzat jo eta hanka-jokuari emon jotsan.

Burrukearen ondorea ikusita, azagari zaharrek aurretiz dana kalkulauta eukala egingo neunkek. Ha ez zoen etorri Galiben lagun, Kordobako Kalifagoan Hixen Kalifa-kumea mutiltzera, Doroko mugak nondik zabaldu eta azagari-mozkina nondik jasoko baino. Ha ez zoen etorri errege Don Ramiroren lagun, ha-

ren arreba eta Don Santxoren alabea Kalifagoko aulkian jesarrazotera, Don Ramiroren heriotzeaz Iruinako erregea eta Nafarroako mardo guztia gudu-dantzara lerrazotearren baino. Lupuak, halakoak, Iruinea eta Kordobako ezkon-lokarriak behin betiko apurtu gura joazan, arreba Dona Urrakak eta berak hatarako bat egin izan baileuen.

Galib generalaren alderdiko hirukotzak ez jeukan batasunik, bakoitza bere arduren bila joezan. Guk, Abu Amid Mohameden alderdikook, askosaz hobeto beteten genduan kristinauen Trinidadea: hiru gudu-talde, baina asmo bakarra: Galiben jasargoa porrokatu eta gero gerokoak... Neuk be orduantxe gurako najoan azagariaren ehiza burutzea, behinagoko arazoa artean danean ostera, itzi egin behar izaten dozak banazeko ehizak eta grinak. Etorriko dozak aukera barriak Kalifagoa esku onetan dan artean. Aldarrikatu dan Gudu Santuak hatarako bideak zabaltzen jauskuzak, lehengusu, eta gure Kalifesiak, egin serbitzuen orde, ehizarako baimena ezeze, Arabako jauntza be emongo dauskulakoan niagok.

Zer esanik ez, horretan Gaztelako azagariaren politika bera dogula, eztalakoan be, biderik onena. Gudua nahi dauenak gudu eta erdi izango jok... Don Santxoren erantzuna itxaron behar ko. Naiara-Bakirako dorrè biak jausi direla, ze pigura mogiduko ete jauskuk erreginaren xakematea itzuritekotan? Zer egin behar ete jok urrezko alabeagaz? Edo beste batera esanda, zer dantzakizun egin behar jok Iruinako printzesiak berak Kordobako dameroaren erdian?...”

“HAU DA MENDATE-AUTZIBARRETAKO GILTZAK ESKUETAN euki eta zerukoen orde trukatu ebazanaren deiadarra: Zuek bizitzako bideetan, zaldun edo oinezko, alderrai zabiltzanok, ondo dakizue mendi eta ibarreko ate guztietatik sartu-urten ibili zaitekezela autzasari-ordez. Halanik be, bideko lapur eta beste

arriskuetatik zeuon zuhurtziaz edo ahaleginaz bakarrik onik urten daikeuz, sari beraren truke, onak eta gaiztoak aukera ezbardinetan dabizelako horko bideetan. Zeruko bideetan ostera, ez dautsue balioko zaldun agertzeak, ez urrek, ez beste autzasarik. Zeuon ustezko ekintza onak be ez-dautsue balio izango, autzarien Autzari dan Haren siludunak izan ezik. Urrea dozuena beraz, zuzenbide eta maitasunezko ekintza hobetan erosi beharko dozue zorionerako sarrera eta, dagoneko zuzenbidean zabiltzanok, zuen egiteak zeru-duin bihur dagikezanaren eskuetan itzi...

Zuok, artzainok, barriz, udabarrian emoten dan bildotx baten truke, altxubide eta autza guztietatik larratuala darabilzuez artaldeak, baina zuetariko bat bera be ez daiteke sartu Jaun Inko Jaunaren zorionean, Bildotx Errugabearen ordain-saritan izan ezik. Hara ba non gure altxubideen Artzain Ona, Jesukristo gure Jauna, bera autzari eta autzasari, bera ate eta bera larre, berak agintzen dauskunez: *nire atetik sartzen danak larre bigunak izango dauz, atetik nabinora sartu-urten, lapurren bildur barik, ibili abal izango dau...*

Ni neu be, Asuren seme Asuri nazenez, aitaren gazteluko giltzak itzi eta Artzain Onaren morroi egin nozue hagaitik, ez alogera ustelkorraren ordainetan, zeuotariko edonori lez, zeru-erreinuko oinordekotza agindu izan jatalako baino. Artzain Onaren arloan dabilenak dohan hartukoa dohan emoten dau. Urrearen irrikaz ibil baneinte, aitaren gazteluko autzasaritan ihardungo nintzakizue. Halabaina munduak apalagotzak daukan ardurea onartu dautsuet, *azkenak aurrenak eta aurrenak azkenak* izango diralakotan...

Autzari-seme eta gaztetan autzari izan nozuenez, ondo daitzuet ordeka edo troka-bide-arriskuen barri, askoren begietan ikusi izan dodaz auzmendi eta autzibarreko larriak... Orain bada, autsari-seme, zer ikusten dok ordeka handiko guda-mugan?



Danon belarrietan dabilz azken barriak: *Oi, zuek, haundizki eta errege- semeok, danok be edozein beste gizaki lez, jausiko zaree bizitzako bideetan...* Areago bide laua itzirik, troka-bidetan sartzen zareenez gero. Munduko aintza eta loria ba doa; munduko erregeak hil eta enperioak apurtu daitezanean, orduan emongo jako aginte guztia zeruko Erregeari. Haren erreinuak ez dautsue azkenik izango, ez inpernuko atea haren aurka gehiago bururik atera ahal izango.

Herri, hizkuntza eta erlegino guztiak, kristinau, judu edo mairu, beragan ezagutu ahal izango daue salbamera. Berak lau haizetatik Aitarentzat batuko dauz deslaitu ziren ardiak. Orduan artzainak ardiak akerrengandik banatzen dauzen lez, halan bananduko dauz egun handi haretan Epailari zuzen, onak gaizto- engandik: onak bere eskuman eta gaiztoak bere ezkerrean taldekatuz. *Inter oves locum praesta et ab haedis me secuestra, statuens in parte dextra.* Indazu toki, ene Jaun, zure eskumean, urrun ni akerrengandik...”

Zenbat artalde, gudutalde, gizatalde joan-etorten ikusi ete ebazan Atxurio gure aitona zanak eta Asur gure aitak. Danak igaro beharreko autza zenduen hako etxa-gaztelua. Bardin Gaztelatik Euskal Herrira edo Euskal Herritik Atxuriara igaro behar ebene. Batzuk negute epelaren bila, besteek larre mardulagoen gosez, harakoek askatasun bideetan edo barrandaritzan edo promeseko lur barrietan: artzain, zaldun, erromes edo lapurtzako... Orain bada, gose edo egarri zareenok ez dozue urruneko iturrietara joan beharrik, bera bizi-janari eta zorion-iturri dozueino, ez asagoko santutegietara penitentziatzeko erromes joan beharrik, bera parkamen dozueino, ez autzari karuak emon beharrik izango, bera Bildotx opari dozueino, ez alderrai edo legearen bildur ibilerik, bera Jaun eta Epailari zintzo dozueino, ez lur barrien konkistan, bera Errege eta Erreinu dozueino...”

Eraso azpikeriarik ager ez daingo, ez beste erleginorik Alarena baino.

(Sura VIII, 40)

“IRETARGIAREN ARPEGIAK EDONON BE EZBAIKORRAK izaten dozak, lehengusu, eta areago, Iretargi Erdiaren erreinu honetan. Ez diakiat hori dala-ta, hemengo emaztekiak arpegia estaltzera jo dauen, are gitxiago egunsentia eta iretargi osoa izan dan Sobeia arpegiko argi guztia galtzeraino jausi dan...”

Ba nengoan Abu Amid Mohamed horren izen luze eta hiru-koitzaren ostean Ala edo deabru-seme baten arimea eskutatzen zalakotan, eta hau nire lana, lehengusu, oraindino bai Abu, bai Amid edo Mohamed ezagutzeke neunkazala, ez diaustak ba, haren barruan eskutatzen zan, Almantzur horrek urten? Ala be-
rau zoan egiaz, nik Abu Amid Mohamed hirukoitzagan ezin antzemon neban arpegia?...

Gudu Santu honetan Kalifesiak barik, haren Idazkariak urten jok garaile, izan be. Galib, general zaharra, begien aurretik kendu orduko, Alak Kalifagoaren ordezkariatzara deitzen eutsola, konturatu dok eta areago, garaileari Kordobako herriak egin eutson harrera beroan, *al-mantzur, al-mantzur* gorakatu daue-
nean. Gizonak erronkea jaso joan bertan herriaren ahotik, eta Mezkitako mutilak bat etorkozala, Alaren seinaleztat hartu joek *mendezina* dalakoa eta aurrerantzean bere buruari *Almantzur* deitzea erabagi jok Alaren aintzarako.

Lehenago Kalifesia limurtu joan xake-jokurako eukan halako arteziaz, oraingoan Mezkitako mutilak ezeze, Kordoba guztia liluratu jok Alaren azken erabagiaz. Agur Kordobako emakumeen agintea. Arpegia eskutatu beharko joek zati baterako.

Iretargia bere bidean doala ezagutuko joaguz zehatzago Kalifa-Ordezkarri barriaren ilgora eta ilbeherak. Dagoneko, Almantzur danez gero, zertarako behar jok lehengo tituloa edo Idazkaritzara jaso ebanaren kerizpea? Arrazoiak kale-kalean diagozak. Hixen Kalifa-kumea dagoneko koskortu danez, titigetu daitekela, esaten hasi zoazen. Gero iretargi erdiaren beste erdia emea zalata, emazteki-arpegiak estalazoten. Liburuan dana idatzita ei diagok. Gauzea argiago dakusela orain Mezkitako mutilak, *eguzkia* gingan dagola, *egunsentiarenak* egin dauela-ta. Izan be, Gudu Santu honetan nork egin leikek Profetarena, Almantzur halako bizardun batek izan ezik? Nori erregutuko diautset Mezkitamutilek: *eta hi, Alaren Profeta, oldartu eizak jarraitzaileak gudura?* Oldartu ezeze, nork gidatu leikezak Alaren gudarosteak autza estuetatik mendian gora, mendian behera, Almantzurren zaldiak izan ezik?

Ez egik uste, halan eta be, iraultza guztia bizarretan danik, lehengusu. Orain eguzki lez agertzen dan horrek iretargi osoaren orduak be ondo uztiatzen joazan... Eta hauxe dok, hain zuzen be, xake-jokoan erreginea jake-matera eroan dauena. Ez dok ba goizetik gauera, gauetik goizera hobeto esan, eguzkia Iruineako Don Santxoren alaba Oneka, *Abda* izen maitagarriaz berbateatuaren ondoan distira dobletan agertu? Eta ez gero bartoko amesetaren edo atzoko Estadu-erabagiaren ondoretan, ez txo, lau urteko semea diaukek, euki-eta dagoneko Abdak eta Almantzurrek... Ni iretargi barriak edo eguzki-amandreak urten eta gero konturatu nok, baina beste batzuk, argitara urten orduko jeuken susmotan. Jo, gauak estaldu behar joan eguna Iretargi Erdiaren erreinu honetan be! Eguzki txiki bat dok umea, gure Otxandak dinonez, Iruinatarren kasku gorri eta begien

urdintasunagaz. Ab-al-Rahman dok, baina Kordobako emakumeek *Santxuelo* deitzen diautsoek Don Santxo erregearen ometetan. Beraz, hainbesteko argitasunaren eztandan zeru-lurrak bat egin dauela esan leikek, baina nik gurago joat "etxeak behar eta bideak ekarri" harakoa esatea: Kordobak behar eta Iruineak ekarri, Dona Todaren garai ospatsuenetan lez.

Hixen Kalifa-koskorak orain arteko tokia izango jok Al Zaharan, baina ez jok entzungo amaren agirikarik gehiago. Sobeiaren areto ederrak Abdarentzat izango dozak. Sobeiarentzat tokirik be ez Al Zaharan. Iruineako errege-alaba dagoen tokian ez bedi ager hari kerizpe egiteko beste emakumerik. "Neu edo bera" esango jeutsoan Dona Urrakaren alabeak Almantzurri eta Sobeia serorategira bidaldu joek, hain zuzen be, berak Gudu Santuan jausitakoen alarguentzat eraikitako aterpera. Lehen Al-Zahara jauregiaren begirune eta urrundugaitik, aintzatan ezagutu ez joenek orain apaltasunean hurragotik ikusi eta ezagutzen joek askok, gure Otxandak eurretan. Kalifa-Ordezkaritzatik baino, Hixen semearen ondotik urruntzeak geiago mintzen dauela esan diaustak Otxandak: Kordobak egitera ausartuko ez zana, Iruineak, hain zuzen, edo Iruinean erregina dan Dona Urraka gaztelar horren alabeak...

Ta niri zer, lehengusu? Sobeiarena bizi sentidu joat alde batetik, baina bestetik Alak ba diaukat nork ohoratu. *Ala den bortitza saldukeria zigortzen!* —errepikatu diaikeek orain Mezkitako mutilek—. *Eraso eta txikitu sinisgabeak, danen zentzabiderako.* Imanek pozarren diagozak Kalifa-Ordezkarri barriagaz. Orain erataro diakuset harako Profetak esanak: *Hogezi zintzo bazaree, berrehunen kontra jarkitu abal izango dozue eta ehun bazaree, mila sinisgabe porrokatzeko lain izango zaree...* Hor diagok ba Almantzurren erronkea, eta dagoneko politikaren heდეak eskutik diaroazak. Guduan bikaina bada, ez dok gitxiago Mezkiten ohoratzen. Alhakenek gehitutako behebarruei beste hainbeste eta gehiago erantsiko ei jautsozak, ospez eta zabaleraz

Damaskon dagoena baino handiagoa izan daiten. Ikusi eta ezagutu dagiela nor dan nagusi sortaldetik sartaldera. Mezkitako mutilak poz-bitsetan, Kordoba harro, gudurako ez direnak he eraikintza lanerako prestatzen dozak, Kordoba nahiko ez bada, zabalak dozak Alaren aginte eta ahalmenak. Datozela Afrikako gosekilak laguntzera. Horrek dozak ba gizenak barautan eta eguzkitan urtu eta burrukarako giharra zaildu dauenak. Horrek zaldiketarako samurrenak astunean, ezpatarako barriz, zaintsue-nak. Eguna burrukan emongo leukeek nekatu gabe. Gudu-larri zer diagozak gero, zeruko uriekin ahalbait arinen egotekotan...

“...ABENDUAN SARTU-BARRI GINTZAZALA, PROMESAKO Jordan barria lez, igaro geuntsun ibaien ibai, Ibero zaharra, mi-sino barriko lurretan sartzeko eta halan ninotson Errodrigori.” Arabako ataurre erdian gagozak eta hara non gure ibai nausiak berak, gure alde urtenik, ur-hesia sakondu dauskun honagino ausartu leitekezan arerioen aurrean.”


Erromatarren zubiarena kontatu neuntson, barbaroen ga-raian urak eroan edo, bisigotarrei bidea eragoztearren, geureek hondatu ebena. Erauskinak erakutsi neuntsozan. Zubi barria egin behar zela hantxe bertan, inostan mutilak. Harrizko zubiak egiten hasteko ez direla bizi doguzan egunok, nik. Ostaz han gorago, ibaia ibitzen den uneko zurubitorako. Neguko lehen uriolak eroan orduko, artzainak artaldea Iberoz honantzko larre-tara egin-ardurak egoten dozuz. Gero arriskutsua izaten ei da Algaroko ibigunea bera, uraren oldarragaitik.

Txikitan gurasoekin egineko autzabideak zenduzan, ene maisu, baina lur barri jatazan ene misino barrian. Lur barri eta erreka barri, Ibaias eta Zadorra lur barri eta herriska barri, Etxan-diana eta Etxagibel, gure aita zenak ahozkatzen ebazan eratan eta ez erdaldunen *Ezkanzana* eta *Estabiella*. Izenak eta tokiak aztertu, leondarren garaian Belostatik hara erdaldunek egin sa-

rrada, aserrerako biderik emon gabe, egiztatu... Iluntzean Argantxonara heldu gintzazan. Argantxona zendun eta halan dei-tzen dautsoe gaurdaino Otxarriko artzainek, bertoko erdaldunek *Arganzon* berbateatu dauskuenarren.

Hurrengo goizean, Abenduko lehen Domekea zenez, Au-tzako Andre Mariaren eleizara, (euren *Nossa Senyora de la Foz*, zureztat Otxako Andre Maria) meza entzutera joan gintzazan. Leongo erregearen sarradan-edo Belostako monxeek eraikia izan behar dautsu, izatez Armendiko Apezgoaren barrutikoa dena-rran. Bertako erdaldun multsoagaitik dinotsut eta eleizaren tituloagaitik, behar bada. Izan ere, susmo dodanez, Legaire eta Be-losta bezala, Andre Mariaren tituloko diren monastegiak, Done-miliakoak baino emonagoak dozuz Jaun Inko gure Jaunaren Amari ermita eta monastegiak eraikitzen. Bardin Naiara eta Albeldakoak. Nonbait bakoitzak daukanetik emon gura dautsu, ene maisu, eta guk Done Miliaren eta beste santuen izenak. Halan ere, Andre Mariaren tituloa lehen ebangelizatzerako dene-tan egokiena begitantzen jat. Andre Mariaren titulorik, edo berere hari eraiki-kaperatxorik ez daukezan eleizak eta eleizta-rrak umezurtz ikusten dautsudaz, ene maisu, beste santuak eta Jesukristo gure Jaunaren Apostoluak eurak, ez direla halako Amaren hutsunea betetzeko, ez eta Jaunaren Ebangelioa iragar-ten haren adineko. Bai, Apostoluetan batakerako giltzak, bes-teak Liburu Santua eta harakoak martirigailua erakusten dautsue, baina Andre Mariak Jesuskristo, Jaun Inko gure Jaun gizon egina bera, osoan erakusten dautsu, ama batek semea erakutsi dagi-ken arduraz hatan ere. Ikustekoa zendun herriaren debozinoa, euskaldunok eta erdaldunak bat egiten gendula *Alma Redempto-rik Mater* abestean.

Ostaz kabitzen gintzatzuzan zutunik barruan, nirea artzai-nen goizeko mezea zelarik. Ebangelioaren azalpenean Andre Maria bera nenkusan Abenduaren argizain eta eredu bizi, Ager-kundeko misterio taiutu, Jaun Inko-Semea altsoan daukala.



Otxerriko artzainek ez eutsoen begirik kentzen, nik Jaunaren berbea azaltzen neuntsen artean, eta Andre Maria goraiatzan neuntsunarren, bera zendun neu baino predikari bikainagoa zurezko bere iruditik.

Irudia bardingoa dozu, arra bi eta erdikoa, zurean landu eta margoztua, Okinatikoa behar bada. Ama erregina-aulkian jesarrita dager, koroia buruan eta Umea altsoaren erdian jesarrita daukala, berezko *Sedes Sapientiae* bailitzan, ez zoragarriago. Esku batuz Umeari oratzen dautso garritik eta eskumeaz bera adieraztekoa egiten dautsu. Orain arte bai gurean eta bai Naiaran ikusi dodazenetan eredu berezia dozu. Gureak, Bixenti Anaikideak taiutzen dauzenetan, Andre Maria, Eba Barriaren arauera agertzen dozu, Adan Barriari sagarra emoten bezala. Umeak berak ere, ezkerrean, liburua barik, narruzko bildumatxoa daukatsu Ebangelioa adierazoten. Guk Salvean *et Jesum benedictum fructus ventris tui post hoc exilium ostende* eskatzen dautsoguna bera, zeozelako zeru-gozotasun-zorian, aurreratzen dauskula.

Guzti honegaz zera esan gura dautsut, ene maisu: kristauherriak Andre Mariagana daukan jaiera ikusirik, bera misiolari ezeze, misinogintzan lagunik onena dogula, ez bakarrik Jaun Inko gure Jaun Bakar eta Hirukoitzaren misterioa herriari iragar-tean, bai ta ere Harek gizakiokaz bere Semeagan egin dauen maite-alkarte eta salbazino-lana ulertuazoterakoan. Esaiozu, neurre partez, Bixenti Anaikideari, Bizkaiara etorri barik ere, misiolari bikain izan daitekela Done Miliako arosteagian diharduan bezalako taiugintzan.

Argantxonako euskaldun eta gainerako kristinauei agur egin eta goizetik autzarantz abiatu gintzazan Errodrigo eta biok. Autza gaineko menditik Arabako harresi eta harresi aurrekoaren artean dagon atarte-unea erakutsi gura neuntson mutilari. Mandoak behean itzi eta oinezkoari ekin geuntson zati baten mendian gora, hamairu-hamalu urteko nintzala, aita zenaz egin

neban bide bera, artaldearen ardurea har negianeko, altxubi-deak nondik norakoak ziren erakutsi gura eustazan harakoan. Otxatik Orduniarakoa oinez egin gendulakoa dautsut gogoan, ene maisu. Zaldi-mandoak nonbait gudurako baitu euskuezan. Nork esango eutson orduan gure aitari artzaintzako semea Artzain Buruaren artaldeko zereginetan abade eta misiolari ekingo eutsola egunen baten bide beretan?

Autzarteko lehen muinora igon genduneko, ondo nabaritzen zendun Obarene mendi-katea, Otxaroko ebatunea ez baina, Azailoriko eta batez ere, Pankorbo eta Antaronekoak: igarten zirela.

“— Horra Don Bela hire asaba zaharraren strategi-unea” —esan neuntson Errodrigori, batetik bestera tokiak eta izenak adieraziaz.

Antarone eta Otxarokoak handik begituta, ez dautsue emoten Iberoren uharkaraino sakontzen direnik, baina horixe, “Arabako ataurrea sendotu eta gozatzearren egin joan sartu-urten hori” ninotson mutilari, Tentaldi-mendian Jesus gure Salbatzailea zirikatu eban espiritu gaiztoak-edo hartu izan baininduan. Eta lurraldearen edertasunaz halako liluratan gengozela, “zeren begira zeunden?” nafar kutsuko abotsak atera ginduzan baitatik. Autza gaineko gazteluzaina zendun, gudari jantzi igarrian. Done Miliako misinoa genkarrela esan neuntson. Done Milia entzun orduko, ustetsuago berba egin euskun.

“— Ze? Gudu-seinurik-edo ikusi al duzue Ebroz handik?”

Ezetz, Azailorikotik gentozala, eta ez gendula surik, ez kerik ikusi, ez eta gugaz etozen artzainek. Bestela esango euskuela. Neure aldetik ez nintxatzun ausartu ea zein jaunaren serbitzan ebiltzen-edo itauntzen. Argi egotzun bestalde Iruineako eskua. Euskaldunok auzotarrak lez, abotsean ezagutzen gozuz sobera. “Horra ba, Arabako gure harresi eta harresiaurrekoa, bata ju-

duen eta bestea nafarren eskuetan —ninotsun neure artean—. Don Bela harakoak baizen arduratsu zainduko ete daue gure jaunerria?” Isilian irunsten neuntsuzan neure ustekizunak eta zalantzak. Ez neuntson zirika-bide gehiagorik emon Errodrigori. Baina menditik jaiskeran ziur neunkatsun mendi haretako ikuskizunez beste batzuk ere, dana gurako deabruak astindu eze, ondo limurtu ebazana...”

“.. JESUKRISTO GURE JAUNAREN ESPIRITUA BARIK, MAKABE-otarren espiritua dozu hori, ene jaun, eta Lege Zaharretik Lege Barrira doan aldea dagotzu bien artean. Ebangelioak idegi eta gero Biblia aurrekoz atzera irakurriaz, *gudu santu* hitzak aurkitu eta Jesukristo gure Jaunaren gurutzaren ondoan Judas Makabeoren ezpatea ipintea, kristau izateari uko egin eta norbere burua makabeotar aitortzea litzake edo mahometek eurak dagoneko Bibliako hitzekin egin daroezan jokuak egitea. Nor eurak baino makabeotarrago holakoetan? Eurelakøentzat bereziki esana daukatsu Kristo gure Jaunak *goldea hartu eta atzera begiratzan dauena ez da nire duin* harakoa.

Makabeotarren gudu-deia aintzagarria izango zan bere garaian, Jerusalemgo tenploa grekoen paganokeriatik garbitu behar zeneko haretan, baina orain, Jesukristo gure Jauna bera dogula gurutzean eratsi eta bizkundean berreraiki-Tenploa ta bera gizaldi honetako arerioen porrokatzaile, guri ez dagokigu, berarena baino, beste opari eta abadegintzarik: beste odol-sakrifiziorik, argiago esateko. Bere gurutzaren bidetik aldenduz, ez daigula merezi izan Zebedeoren semei eginiko agirikea: *ez dakizue ze espirituko seme zareen...*

Kristo gure Jaunaren gurutzaz jantzita makabeotarren zaldira igon gura dauenek edo, zebedeotarrek lez, zerutiko sua eskatu, euren ezpaten eta asmoen neurriko zorbatza, eta ausaz makurra-

goa eta zorrotzagoa idoroko daue mahometen eskuetan, *nam qui in gladio feriet, in gladio ferietur* esanda dagonez.

Mahometek eurak dozuz, ene jaun, gudu-asmoetarako Biblia hartu eta Jesukristo gure Jaunaren Espiritua itto daroenak, gu euren bideetan sartzeko. Biblian behin edo behin Makabeotarren *gudu santua* agertzen dela? Eurak bostetan erabiliko dautsue hasieratik azkeneraino. Makabeotarrek Jaun Inko Jaunaren legea zaintzearen, odola emoteraino ekin eutsoela? Eurak, Alaren ohoretan ezeze, Alaren aginduz, kristinauak erasotera ekingo dautsue. Hareek guduan hileko arimen alde opariak agindu baebezan, honeek, odol-ixurtzeaz bakarrik irabazia dautsue zeruko zoriona. Nora goakez kristinauok halako burrukan, ene jaun? Ze sari gehituko dautsegu mahometen aurkako burrukan doazenei, arriskuan atzerantz egin ez dagien? Gure Jaunaren zerua Alarena baino ziurragoa dela esan? Ziurragoa eta, batez ere, Jaun Inko gure Jaunaren seme-alabentzat duinagoa? Eta guzti hori halako bedeinkazino edo indulgentzien truke? Edo *bizia gordeten dauenak galdu egingo dau, bizia nigaitik emoten dauenak oster a idoro egingo dau* harakoa esanaz? Hori ete dozu, ene jaun, Kristo gure Jaunaren alde bizia emotea? Areago dakutsut hori munduko erregeren baten izenean inori bizia kentzera joatea dozula. Orain bada, lurtar errege baten ikurrinpean doanak, ala matrailekoa hartu ondoren beste matrailea eskeintzen dakianak, dakitsu Kristoren alde bizia emoten? Erexe eta sinisgabeak armen indarrez porrokatzera doanak, ala Ebangelioa hitzez eta bizitez iragarten dakianak?... Kristoren alde bizia emon gura dauenak, ene jaun, edozetariko indarkeriari ezeze, norbere asmoei uko eginik joan behar dautsu burrukara, *abneget semetiptsum* harakoa onartu eta gurutzeta sorbaldan harturik...

Ez dinotsut, ene jaun, Matatias armatan jarki aurretiko judutalde harek lez, geuk ere geure aldetik hatzamarrik mogidu bariarik, buruak arerioen eskuetan emon behar doguzanik. Onak

gengokezan! Eta makalak izan dira gure aurretikoak barbaro guztien aurkako burrukatan! Baina hortik eta unetik unera, sinisgabeekiko bake-itunbenak hautsi eta arerioa bere zokoan axaxatzera joatera alde handia dagotzu. Eta kontu egin bei guzti honegaz ez dodala gure errege zen Don Ramiro zorigaiztokoaren (goian bego) oroitzapena ezertan itxurgatu edo gure Episkopu agurgarri Don Beneditoren arma-bedeinkazinorik salatu. Ez nator neu salatzaile. Ez dot neuk esango alperrikoa dela gudurako erregearen gudarostea edo hutsak haren zalditeriaren indarrak, Jaun Inko gure Jaunak goitik lagundu ezik. Hori Liburu Santuak berak dinotsu. Ez nozu neu epaile, epaile hoberik daukee Ebangelioan. Nik haxe gogarazoten dautset gudu-amesekin diatordazanei: *zein buruzagik, guduan sartu aurretik, ez dautsue kontu egiten, ea hamar milako gudarosteagaz diator-kon arerioari mila batekoagaz aurre egiteko ete den? Eta ezin leikela egin ikustean, bake-mezulariak bialtzen dautsoz aurkalaritari, arerioa oraindik urrun dagola...* Arerioekin bake-itunbenak egitea, hori bai dala gudalburuaren zuhurtzia eta ez pistia bere zuloan axaxatu ondoren, hatzamar odolduaz pupuak mindurikatzea eta areago herri guztia arrisku berera lerrazotea.

Ebangelioko jakinduria aipatu ondoren, ez bekidaz eurok etorri, “eta kristinau guztiok burrukan alkatuko bagintzaz” ihardokitzen, edo eta euskaldunok gure artean doguzan eztabaidak ahazteko erarik onena hori izango litzakelakoan. “Ez ba! Auzoari gudua egin beraz, etxean bakeak egin ahal izateko? Hori ete dozue zuen kristau zuhurtzia?”

Askozaz kristinagoa deritsot, ene jaun, orduan ere mahometegazko bake-itunebenei jarraitzeari, harei emon-hitzak jan eta armetan hasteari baino. Gizarte-arazoetan maiz erregeek, bedeinkazino eta guztizko erratuak herriaren narrutik ordaindu beharrekoak izaten dozuz, ene jaun, baina Zeruko Erregearen Itunben-zaindari garenok ezin geinke hari emoniko hitzik jan, ez hagandik hartuneko hitzik geure lurtar asmoetara okertu, ez

eta, Beraren alde ekiteko aitzakitan, halako gurutzadan sartu, bada, *qui non colligik mecum, spargit...*”

“OKA AUTZAGUNEA ATZEAN ITZI GENDUNEAN, HOBETO ikusi ahal izan gendun, neuri ere artean ez nabaria jatan, ikuski-zuna: oinezko edo gurdizkoentzat Zadorra ibaiak, igaduraren igaduraz, egin-lan bikaina. Ostaz da sinigarri urak bere mihin luzeaz, beste altzairurik gabe, halako aitzartea zulatu ahal izatea.

“— Arabako arresiaurrekoaren ataka Azailoriko doanez, hau Arabako harresiaren autza dok —esan neuntson Errodrigori, tokiaren garrantziaz jabetu eiten—. Lehenengo atakan gure zaindarien huts eginarren, hor jeukeen bigarren abagadunea... Zenbat bisigodo eta mahomet jausi dozaken hortxe gure jagoleen azkon eta harrikankarren pean...”

Ez nenkitsun zein baino zein goresgarriago emon, ene maisu, Zatorra ibaiaren gizaldietako lana ala Jaun Inko gure Jaunak euskaldunontzako izan dauen betiko ardurea. Ba ete dago, izan ere, geureak baino herresi handiagorik daukan herri xumerik lurrian? Eta sartun-urtenetarako barriz, halako atak daukazanik?... Bedeinkatua salmoetako... *Dominus est petra mea*, gure Jaun ona, hainbeste areroren erasotatik halan gorde gaitulako...

Artaldearen apatx astinduen hautsa Armendira bidean guskuan hanartean eta guk Belegia zaharreko bidea hartu gendun. Ez gendun aurrera egiterik, erauskin benegarriak ikusi eta asaba zaharren aztarrenak geure eskuz haztatu gaberik. Langarikako zubi makotsuari jarraituz, erraz idoro ahal izan genduzan. Euskaldunak, erromatarrek eta nor besterik bizi izan eiteken harresi hareen babesean? Ez ziur bisigodorik, erabagi geuntsun... Gure aurretiko hareek ba ekitsuen horregaitino gudu-gotortegiak ondo aukeratzen. Mendien babesa aurretik eta ostetik, ibaiaren ebatuneak, berezko “egia” egiten eutsola, horrezaz gainera, eskuz eginiko harresia alboan. Eta dena aletagirako ordeka emon-



kuz eginiko harresia alboan. Eta dena aletagirako ordeka emonkorarren erdian.

“— Hauxe zoan erromatarren Belegia zaharra —ninotson mutilari— erdi erdaldun, erdi euskaldun *ibarreko egia*. Hemen juekaan Erromako arranoak bere atanda, Okako Iruinea ere deitua, nafartarren beste Iruinea Argakoagandik bereiztearren. Biak ere enperio beraren jarraipena zoazen aldi haretan, gero eskualde berezien arduratan geldidu bazoazan ere...”

Ez zendun bardin, ene maisu, horixe bera kontu-kontari Done Milian edo Kordoban entzutea. Bertara joan, harlandu eta kolumak aztatu, hormako idazkizunak ikusi eta beste argitasun batez egizatzen zenduzan joaneko gureen ekintzak. Idazkizun hareen esankizunaz itaundu eustan Errodrigok. Guduren baten jausien oroitarriak zirela esan neuntson. Ea nortzuk apurtu eben gure Iruinea edo Belegia zaharra berak eta horreixeri ez nenkitson nik zelan erantzun.

“— Bertokoen burujabetza eta indarra gorroto ebenek izango zoazen ziur —erantzun neuntsan—. Nortzuk? Nortzuk dozak gaur bertan, geure ingurukoak-edo izan ezik, halako edo bestelako zapalckerien errudun?...”

Lar zirikatzen neuntsun, ene maisu, gure gaztearen suminkortasuna. Haginak erakutsi eta ukabilak estutzen ikusi neuntsun une baten. Urrunera jaurti izan behar neuntsun harria:

“— Bisigodoak-edo izango zoazen —esan neuntson—. Leovigildo erexeak, gure Jaun Done Miliaren egunetan hain zuzen, euskaldunon Kantauria eraso ei joan behin, baina ez diakiagu hori non izan zan be. Hauxe berau izan eitekean, bada hau be autza edo oka-aurrea dok, izatez, autza horren bestaldetik Argantxona dan lez. Erromarrak joan zirenean eta barbaroak jatxi, Iruinea hau bertoko euskaldunen, arabatarren, esku gelditu zoan

barbaroen zigorrerako... Baina, azken baten, bisigodo herexe hareek ondo aspertu zoazen...”

Ikusten dozunez, ene maisu, ahierkunderako beste, eskolabiderako lezino emon neuntsozan mutilari, bada, emonak hartunekoez oretu ezik, ez dautsazu eskoleari biderik emoten eta norbere indar eta inguruko mendien babesean ezeze, inguruko herriegazko politika onean jaso behar izaten da herrigintzako bake iraunkor eta etorkizun bete.

“— Belegia eta, gero Beleia, izenak galdu egin zoazen harezkero —luzagarria nemotson Errodrigori—, baina hanartean berton jaioneko arrano-kume batzuk, bere odolean ezeze, bere izen-abizenetan Arabarren uri zenaren jatorria eroan. Hortikoak dozak ba *Beilak, Belak, Belazak eta Belaskoak...*”

Arpegira begiraten neuntson mutilari, bere odoletikoak aitatzean, eta oraindino mirariz zutunik irauen harrizko zutabe bateri oratzen ikusi neuntsun, ene maisu, joanekoen amesak gaur bertan amesgarri bailitzazan-edo.

“— Ez egik uste, Belatar izena eroan dauen guztiak jaun konte, gudalburu, autzari, gazteluzain edo etxagizon izan zirenik, *Asari, Axuri, Asarrazin*, edo hire aurretikoetan, *Algaro* izan zirenez. Armagizonon artean ba zoan beste Algaro Beilaz bat, orain ehun urte baino gehiago dala, hain zuzen be, Beleia Episkopua izan zena, eta ezpataz barik, arimen artzain-makileaz hemengo kristaudia jaurritu ebana. Armendiko Episkopuek ere *Beilaz* edo *Beilaza* goitizena diaroek haraz gero, jatorrizko sedearen oroitzapenetan. Jaun Inko gure Jaunak gura izan joan hainbeste harlanduen erauskinetatik herrigintzarako ezeze, eleizgintzarako hazitarakoñik gordetzea. Hagaitik gaur bertan, Armendiko Apezgoaren eta Munio Beilaz Episkopuaren inguru batzuk ezpateaz eta beste batzuk gurutzeaz ekintza ezbardinetan diharduagu.”

Zer esanik ere ez, ene maisu, Errodrigo ezpatearen aldeko agertzen zela, nik haren sasoian, biak ere aukeragarri ipinten neuntsozanarren, eta beraz, eleizako artzaintzaz baino, herriko jaunen zereginaz arduratuago nenkusan baita zerhau itaundu eustanean:

“— Armendiko Espiskopuak, dinozunez, Beleiatikoak edo geroagoko Iruinatikoak badira, zergaitik ez dakarre Beleia edo Uruinea bertora Armendiko Sedea?”

Gazte batengandik urteteko, itaun bitxia ere eritsi neuntson, ene maisu. Nondik entzunak ekizan gero Kalagurrirako asmoak? Ara ba monastegiz monastegi eta herriz herri belarriak berotzen dabilzenen eineko erantzuna, esan neuntsun neure artean. Beleiako erauskinetara, Kalagurrira baino lehenago. Bai horixe. Gainera horretarako ez leukee mahometekin zertan gurutzadetan sarturik. Ala arazoa bestelakoa ete dautsue? Euren jaun konte edo erregeen ordena barrirako herri txiki eta Sede apalagoen oinarriak behingoz irauli, aginte-mugak ere errazago aldatu ahal izatekotan? Maltzurron asmotarako herri txikien izenak eta izana erauskinetan iraultzea baino zer erosoago? Halakoetan sartu bagarik, apalago eta uneak adierazoten eustanez erantzun neuntson mutilari:

“— Lehengo erauskinen gainean Jaunaren etxea berreraikitzea gure asaben fedearen aintzagarri izan daitekek, egia esan, baina ‘artalde nora, artzaina hara’ eta bestelaz, esaten denez, erromatarren estrategia galdu zanetik, euskaldunok ostera be menditarren eratarantz antolatu genduan geure bizitza eta batez ere geure defentsa apala baizen ziurra. Hau da, Jaun Inko gure Jaunak emoniko harresi eta harreziaurrekoen zaintza hartu genduan, ibarretako gurdi-bide eta kaltzadak itzi eta mendiko munda bideari jarraikitzen dautsogula hareri baino gehiago. Eleiz artzainak be, bardin egin joen: ibar-bide bazterragotuak alde batera itzi eta ibar-mendietakoak bat egiten dauen une horre-

tara, Armendira hain zuzen ere, Sedea aldatu. Artzain-estrategiak aurrea hartu jotsan gudu-estrategiari. Haraz gero, Otxerri edo Ibero aldetik autzmendiz edo autzibarrez datozenak datozela, Armenditik igaroten dozak danak.”

Behein beheineko erantzuna izan zendun, ene maisu. Gu geuk ere, Okako autza aukeratu bagendun, berari halako izen eta tokien erakusketa egitearren izan zala, esan neuntson, mendiz egingo gendula bestelan.

Harako bestea ere gaineratu neinkion: gure Apezgoa pikutara jaurtitearren, Armendiko Sedea Beleia baino urrunago eroan gurako leukenik ez dela falta eta harako belarri-berotzaile batzuk salatu, baina haren zapladarako belarri samurregiak eritxi neuntsozan.

Historia joanen saminaz eta herrigintza barriaren itxaropenaz erdiz erdi gainezka genkarren bihotzondoa, ene maisu, Beleia-Iruinea zaharreko erauskinetatik. Gero hainbeste zaldi eta zaldunek geure aurretik zapaldu eben harrizko zubi haretatik itzuli gintzazan gudari eta misiolari barri, aurrerantzean ere, bakoitza bere arloan, ekintzaile izatekotan.

Eguerdirako Armendin gengtuzan. Don Munio Episkopua eta bere abadeak Nona kantatzen aurkitu genduzan, eurekin alkartu ere otoitzean. Josepe artzainak esanda, gure etorreraren jakitun egotzun bera. Harrera amoltsua egin eta bazkaltzera gonbidatu ginduzan. Otxarritarrok eta batez ere Arandio alderdiko artzainek dautsogun jaiera aitortu neuntson. Zer esanik ez, Done Miliakoon begiramena. Atseginez entzun eustala uste dot. Ahaztu baino lehenago, zure errekkadoa emon neuntson esku-eskura, ene maisu. Suerteza izan gendun etxean aurkitzeaz. Bosturirako geure asmoa agertu neuntson. Sobera ekizan hango arrandegiarren inguru jaso gura dogun monastegiazkoak. Honetan Errodrigogan begiak josirik, Jaun Don Ander Apostolua, bere Apezgoko Patroiaren antzera, mutilari sarea jaurtiten hasi jatzun, Jesu-

kristo gure Jaunaren *neuk egingo zaituet giza arrantzale* harakoa bere unera erakarriz, neuk egingo haut artalde bikainagoren artzain” inotsola. Artzain-mutiltzak hartu eutzun berak, halatan bai-dator jantzita, eta nik nere monagotzat aurkeztu behar izan neuntzun:

“— Bai, jauna, baina Jaun Done Miliako Abatagaz konpondu beharko zenduke arazoa, harek emoneko ardurea eta oraingoz neure monagoa dot-eta...”

Ez neuntson guzurrik esan, ene maisu, ez egiarik azaldu. Bai ostera neure artean gogobildu: “ze arpegi ipiniko ete leuke gure Don Munio Espiskopuak, Don Bela berberaren seme zaharrena dana jakingo baleu?...” Bestalde, nahiko izan eutsun Jaun Done Milia entzun eta arazoa kitutzat emoteko. Armendiko Jaun Don Anderren eleizatxoari, Jaun Done Miliako gurearen ondoan, Tiberiades itxasoko potintxoa eritsi neuntson, ene maisu. Gauza gitxi benetan Apezgo baten Sederako. Bere pobretasuna dozu Gaztelako jaun konteak eta Iruineko gure erregeak berak asko ohoratzen ez dauelako seinalerik nabariena. Ondo ere ondotox dakitsue eurok zenbat eta Apezgo harroagoa Armendin, hainbat eta egosgogorra izango litzakezena arabarren buruak...”

“...GARAIPEN-OSPAKIZUNA GOZATZEN BE EZ JAUSKUEK ITZI Don Santxo eta Gaztelako bere eskutariak. Galib mahometagazko hirukotz aizuna galpenerako baino izan ez dauenez, oraingoan kristinau hutsen hirutasuna eratu joek Leongo erregeagaz batean, onerako izango dauelakotan. Ez neunkit esango oraintxe be trinidad e guztiz santua danik horixe, kristinau errege eta erreinu bien artean, arabarron galpenerako, Gaztelako ziria itxasoraino sartuta daroaino.

Jakin egin behar leukeek gainera, mahometek kristinauen Trinitadeari dautsoen gorrotoa. *Ez esan biru, idolozaleen antzera* hots egin joek Mezkitean oster a be, eta Almantzurrek

beheingoa hirukoitzkideen erronkea jasorik, zin egin jok:” Hirukoitz hori apurtu ezina dala? Ala guztiz ahaltsuaren eta bere Profetaren izenean, neuk erakutsiko dautset mahometen Batasuna kristinauen Trinitadeari baino gehiago dala”.

Beheingoa adarra joazo eta gudariak emazteen besoetatik askatu eta etxeko gozotasunetik aldendu eta otoitzera deitu jozak Mezkitean. Inondiko zero-agintzariez berotu joezak, liluraren, urien besoak ia gurago dauezela, emazteenak baino, eta areago heriotzarainoko arma-ekintzak, eguneroko lan aspertuak baino.

Gure seme Inigo eta biok be han egon gozak, ez mahometekin nastean, kristinauen ohiko hegaltxo ilunean baino. Guri euren ingurdizi eta naka gabeko otoitz isila bakarrik diagokigunez, euren algarabia baino ez genduan entzuten eta txitean pitean imanaren edo muhadinen baten berbaldiak: *Burruka egin behar danean, ez dautso ardura orazinoak laburtzeari. Sinisgabeen gudu-hotsak entzuten direnean, otoitz egiterakoan be, ez jaku zilegi armak iztea. Zer besterik gurako leukeen gure arerioak, geu otoitzean obargabeturik gagozala, osetik erasotea baino?...*

Mezkitearen alderdi barriko harginen mailu-hotsak otoitzera etorrikoen arma-zarateaz nastetan zoan, jendetzaren trinkoaz burdinezko armak alkar jotzen joen-eta. Halakoetan Mezkitea armadun etorteak Gudu Santurako borondatea ezeze, gogo-preskakizuna esan gura jok. Imana nekatzen zanean, muhadina asten zoan: *Ez ete dozuez txikitu behar gure bake-itunbenak jan eta gure zintzoak ahienatu gurarik dabiltzan herriak? Edo bildur ete dozuez? Bildugarriago dozue Ala, bai fede. Eraso beraz, Kalifagoan azpikeria gehiagorik ager ez daino, ez beste erleginorik Alarena baino...*

Entzun dok, lehengusu? Eta gu hantxe, kristinauen baztertxoan, errefuxiatuen buldatxoak euren begirunerako duin egiten

ginduzala. Ze otoitz egin geinkion geure Jaun Inko Jaunari halako istiluan, ahoa idekitzea be auzu ez jakula? Ez behenipein kristinau hirukoitz horren aldeko edo mahometen kontrakorik. Guk geure eta geuretarren Arabako eskubideak bakarrik. Jakin dagiala hori Don Munio gure Episkopuak. Hirukotx horretik at eta euren aurka gagozanarren, geure Jaun Inko Jaunari dautso-gula fedea.

Muhadinak bereak esango jozak, baina guk eurentzat esanak lez entzun: *Arerio amorratuak gure kontra jarki direla? Ez dautsegu bildurrik, Ala da gure indarra. Nekatuta gagozala? Eurak nekatuago. Gainera, zuok Alaren laguntza dozue, eurek oster, ezereen itxaropenik be ez... Eurek hori ez gintoazan gu, lehengusu. Guk gudu honetatik onik urtengo dogulakoa diaukaguk. Eurek hori hirukoitz armatua dok. Nik ez diakiat kristinauen hirukoitz horrek zer esango dauen, baino mahometok hitzez hitz sinisten eta jarraitzen joek muhadinek esana. Eta Liburuko hitzagaz bat datozela adieraztearren, unadaka ahozpeztu eta *Allaba-u-abkar! Allaba-u-abkar* errepikatzen joen, eta jendetzagaitik ezin ahozpeztu eitekezenak eskuak bularrean ipiniz aitortzen.*

Ohartxo bat oraindino etxezulo edo esku itxi direnei: *Zeuon guraso edo seme-alabak, emazte edo senideak, etxea eta ondasunak Ala baino maiteago izanak haren Gudu Santutik aldenitzera bazaroez, kontu egin etorteko dan Alaren zigorra...* Kristinauen eskutik letorken zigorraren bildurrak Gudu Santuari eustera behartzen jozak mahometak, ikusten dokanez, lehengusu, eta era berean, kristinauek mahometen Gudu Santuari dautsoen bildurrak gudu-alkarteagitera bultzatzen. Don Bildurrek irabazi jok oraingoan be. Ez diakiat beste inork irabazi dauen, irabazi. Hemen sinismena aitutzen joek: *Sinistu eta Alaren alde zain eta muin guduan ekiten dautsoenak izango dira lehenenak eta zorionsuenak Alaren ondoan...* Lekutan, lehengusu. Eta zergai-

tik ez hemen, herri edo atzerrian? Bildurra aholkulari dogunok, izan be, zelan eskatu geinkek zentzunaren hariko dan ezer?...”

“...ERREGE JAUN DON SANTXO ETA DONA URRAKA ERREGinea hemendik izan doguz, Oriolo, Benedito eta Juliano Episkopuekin batera, Jaun Done Emiliako eleiza barria sagartzera etorri-ta. Gogotik ikusiko zindukedazan, ene jaun, eleiz artzainon artean, baina gonbitea erresumako handikientzat zenez, ez zaitugu ikusi ahal izan. Jakizu, halan eta guzti, zu etxeko bezala onartuko zindukeguzela Done Milian, ene jaun. Bestalde, eleiz sagaratzearen egun horretan zu hemen ez aurkitzeak, Armen-diko Apezgoaren berezitasuna baino ez dautsu adierazten. Irui-nea, Naiara eta Xaka bai eta zergaitik ez oster, Armendi? Horra Apezgo eta Apezgokoen burujabetasunaren beste seinale bat...

Errege jaun Don Santxok ere jaialdi hau aukeratu dautsu, seme Don Ramiro zenaren aldeko promesa betetzeko eta gainean dogun zorigaitzeko gudurako bedeinkapen bat lortzeko ustetan. Izan ere, bitxia dirudianarren, gudu-arazoen bitarteko baliagarria emoten dautsue Aita Jaun Done Milia gurea aspaldietatik. Hori dela-ta, hain zuzen, monastegi honen zaindaritza handiki askoren gurari bizia izan dozu, Fernan Gontzalez, Gaztelako konte zenarena eurretan, Don Gartzia erregearen garaian. Monastegiaren zaindari izanaz gero, santuaren guda-iragarkizuna aldeko emoten eutsuen. Hagaitik Naiara-Bakirako errege zen Don Ramirok berak ere ez eutsun hemen esku-sartzerik. Bere zorigaitza gogoan hartu eta areago barriz... Eta dana bisigotarren ipuinetan Jaun Done Milia kantabriarren aurkako igarkizunetan agertzen delako. Barbaroon egunetan lez, gaur ere, gure santuak sinisgabe barrien aurkako zigorra iragartea gurako leukizue *Deus qui per profetiam Sancti Aemiliani adversus infideles...*” halako otoitzen indarrez: *“sinisgogorreko kantauriarren aurka horren argiro gudu-zigorra iragarri zendunez gero, begiratu eiguzu zerutik eta ikusi egizu Eleiza Ama Santuaren*

arerioak gure fedearen aurka antolatu dauen gudu larria eta lagundu eizuz zure zintzoak zerga laidogarrien morrontzatik askatzen...

Dagoneko herrien arteko maitasuna edo gitxienez, bakea eskatzeko unerik edo bihotzik ere ez dagotzu eta Santuren baten bitartekotasuna lortuez gero, gudua den larria bera gozatzeko ahaleginak daroatsuez edo haren bidegabekeria zurikatzen. Bake santuan Jesukristo gure Jaunaren Ebangelioa iragaritzeko diren gure santuen izenak eurak gudu-buruzagi bihurtu gura dautsuez-ta... Egokiago letorkie halako otoitzeri Balahanen harako iragarkizuna...

Hori jazoten da, ene jaun, gizabideko konponketak galdu eta gudu zigorraren bildur diren gizagaisoei. Larrialdian Jaun Inko gure Jaunagaz eta bere santuekatz gogoratzen garelara, orduan ere geure estrategiaren lagungarri nahi gendukez, geu buruzagi eta eurak morroitzakoak bailitzazan. Baten baino gehiagotan esan ere egin dautset: “embasaden diplomaziaz egin behar zendukena, monxeon otoitzaz egitea uste ete dozue?...” Eta badakizu ze erantzun emon eustan halako handiki batek, ene jaun? Bada, geure otoitzak direla zeruagazko enbasadarik onena. “Orduan zeruagaz da zuen edo gure burruka eta ez Kalifagoagaz...” Hortik hara zerutar aholkua dogun Ebangelioa aita-tu neuntson, baina sasi artean ereitea lez zendun. Bildurraren arantzak dana galazoten eutsuen.

Errege Don Santxori-eta dagokienez, Don Ramiro semearen dolu-minaz landa, Kalifa-Ordezkariaz ezkondu-barri, Kordoban daukeen Oneka alabearenaz sorgortu dagotzuz, Kalifagoan aldeko ala kontrako lana daroatsoen ez dakiela. “Zelan baina kontra, alabea emaztetzat hartu dautsue-eta?” —nik. Senartzako hori ez dela Kalifea, hiltzaile bat baino. Ze segurantzi emon leikion alabeari. “Baina ez ete dakizue oraingo Kalifa-Ordezkaria, Kalifea bera baino, gehiago dena?” Edozelan ere, Gudu Santuan

ezer gitxirako izan leikiela alabearen bitartekotasuna. Elorrioa galanta, ene jaun. Alde baleukee, txarto eta kontra baleukee, txarrago gudua egite-orduan. Eta zer egin?... Dona Toda hil zenez gero, Andre Mariaren eskuetan itzi dodaz errege senarremazteak. Bardin gomendatzen dautsot, ene jaun, Don Bela, Arabako konte-ohia eta errege eta bien artean aspalditik dakarren arazoa, hasierako oker txikiak horren galpena leroakezan arriskutik jaregin daizan. Horregaz zera ziurtatu gura neinkizu, hortik esan denaren aurka, ez dela bera izan gudu horren sortzailea, Kordoban dagoen Don Santxoren alabea bera ere izan ez denez. Benetako errudunak, lehen harria jaurti eta eskua gorde dauenak dozuz, hain zuzen...”

“...NIRE GURASOEK BESTE ETXA-ALABA BATEGAZ EZKONDU gura izan ninduen, bidaztien autzasariagaz aise bizi eta seme-alabak hazi gengizan. “Besteen autzasariez bizi, neu autzarien autzari, bidazti eta bizidun guztiei bizitzako emoiak eskatzen natorrela? —esan eustan zeruko abotsak—. Lurreko sarien bila barik, zerukoen bila hasteko ordua dok eta munduko seme-alabetan baino, areago zerukoetan ihardutekoa. Izan be, Ebangelioagandik jaiok ez dozak haragi edo odoletik jaiok, espiritu eta egiatik baino. Lurreko sendi baten orde, neuk emongo deuzat eskuetako hatzamarrez konta-ezin adinako seme-alaba...”

Hagaitik etxaguntzako alaba ezkongia itzi eta Jaun Inko gure Jaunaren Hitzan dan Ebangelioagaz ezkondu ninduzuen eta hara non, Hitz honegandik jaiok Jaun Inko Jaunaren seme-alaba izateko eskubidea eta aukerea dogun, aukera zoragarria benetan. “Zeruko eskeintza barri hau izan dot, aita —esan neuntson neure gurasoari— eta ezin daikiot ukorik egin halako agintzariari. Ba dozuz etxean seme-alaba gehiago, euren esku izten dok nire parte...”

Ama besarkatu eta etxetik urten nendun. Jaun Inko gure Jauna bera da harrezkero nire etxe eta abaro, gaztelu eta gazteluzain. Bera dot nik Aita, zuek, haren Hitzari sinistu dautsozuenok barriz, nire anai-arreba Jesukristo gure Jaunagan. Zeuok zaree gaur geroz nire familia barria, neureaz gabetu eta bereaz jabetuazo bai-nau Jaun Inko gure Jaunak.

Lurreko gure aitaren gazteluak harkaitzean daukaz oinariak, baina harrezkero nik Jaun Inko Jauna bera dok harkaitz eta babesleku eta ez nagoke gaueko ingumen izuz edo eguneko geziaren txistu larrien bildurrez. Ilunetan nahiz trokabidez ibili ez dot ezeren bildurrik. *Haren begia ta makila zain dodaino, ba dot baketan poz nabiko...* Ez naz eskutauko gizakiek egin-ormazuloan, Jaun Inko Jaunaren esku indartsua bai-daroak nahinora noan...

“Hoa eta nire alorretako baratzen emoiar arduratu hadi —esan eustan zeruko gazteluzainak—. Ohar egik zelan erne eta burutzen den nik erein-hazia. Azaroan ereina, neguan erne zoon, udabarrian hazi eta udean garatu. Uztaroa dok —eta neuri lez, *zoaze* esan euskun—. Uztaroa heltzen danean, zeuek be igitatia eskutan, eguzki-urrez jantziriko garia uztatzera joaten zareen bezala, halan natorke neu be ordu aukeratuan. Begitu zelai-ordeketara eta ikus heldu aginean dagozan galsoloak. Nik erein-hazi bakoitzari dagokion frutua eskatzen dautsot eta niretzako garatzen eta aletzen ez dana, lastoa lez, sustarretik erauzi eta sutara jaurtina izango da-ta...”

Orain bada, Jaun Inko-Hitzaren entzuleok, zeuok zaree Jaunaren lur aukeratu eta haren baratzeko zuhaitz eta landare. Ereiten eta landatzen dauenari dagokio uztatzea be. Hagaitz zuen frutuak zeru-aletegirako gura dauz goiko Jaun eta Jabeak, Jaun Inko-Hitzaren hazia hartu bai-dozue zeuon barruan. Goiko baratzainak ez zinduezan berez lur elkor egin. Burugogorkeria-

gaitik ez zaitzela, ba, gelditu antzu. Antzu gelditzen danak irain dagitso Egileari.

Zuok, zeuok be, zeuen eskuz landu eta erein dozuen baratzetik, beste lur ahorretatik baino, gehiago itxaroten dozue eta lortu be, lortzen. Eta halan be, helkor ete dozuez, zeuon eskuz ez landu, ez landatu dozuezan basoak egurretan, edo ordekek larretan?... Beraz, Jaunak bere eskuz erein-basoak eta ordekek emonkor egiten badira, areago zuen lur aukeratuak, haren izardiaz ezeze, odolerrainoko ahaleginaz landuak izan zareenez gero.

Frutu-emote hori, hartu dozuen emonkortasunagatik, esker ona erakustea da berez. Hor dogun erantzun beharra! Entzumen euki eta bakoitza halako lanera deitua izan garenez gero, erantzuna sor dautsogu, Kristo gure Jaun eta baratzainak izerdi-odolerraino landu eta urstatu bai-ginduzan Getsemaniko burrukan.

Ardura guztiaz landu dozuen soloari zeuen izerdi eta ahaleginen obaria eskatzen dakizuenez, kontu eizue Jaun Inko gure Jaunak bere Seme Jesukristo gure Jaunagan egin dauzan ahaleginak, bere Pasione Santuan, gari-alea lez, hilduratu eta ehortzia izan bai-zan, gero Bizkunde aintzatsuan ber-erne eta garatu, gure aldaretan geure opari bizi eta gogoen ogi bizigarri izan dagigun. Hor dogu emonkortasunaren eredu eta sekretua. Bera barik eta beragan izan ezik, hutsak gara. Geurez ekintza handienak eginarren, ez bai-dira zeru-duin.

Entzun bada, belarririk dozuena: hazia Jaun Inko Jaunaren Hitza da eta Jaun Inko Jaunaren Hitza haren Seme Jeuskristo gure Jauna dozue. Jaun Inkozko hazi horrez uhaltzen garelarik, gure lur hau hemen loratu eta zerurainoko frutakiz burutzen dan zuhaitza da, izan be, gure bustinaz halako harrigarriak egitea gogoko izan bai-jako Jaun Inko gure Jaunari...”

*Erabagita dago zuen ordua
eta zuek ez zaree unetxo bat
atzeratu edo aurreratzeko inor.*

(Sura XXXIV, 29)

“GURE SEME ERRODRIGORI ERREKADOA BIALTZE.KO DOK oraingo hau, lehengusu. Honez gero Bizkaian edo hara-bidean egongo dok eta gutun hau berari igorrazoteko zein heure eskua baino hoberik? Bosturin Don Atxuriogazkoa egin eta gero, doala emazteagaz Kalandioko Don Galindogana. Gure aita zanaren lagun handia izan zolan bera eta Leondarren autzari nagusia Armendi eta Belostako Apezgoen itxas-muga haretan.

Barruan dioak Don Galindorentzako beste agindu bat. Heu edo heuk bialtzen dokana egiten joat sigilu. Behin Kalandioraz gero, Don Galindoren erantzuna izango jok argibide gure semeak.

Leonen aukera barria dogula jakin behar dok, lehengusu; egunotako politika astindu honek askorentzat ez jaukak, izan be, jesarleku berean luzaro egoteko aukerabiderik. Ondo be ondo dakik bestalde, gure politikea ur bitakoa izan dala beti be: esku bata Iruinean eta bestea Leonen. Halan zolan Gaztelako lapurraren hatzaparrak gurean sartu aurretik eta halan jarraituko jok, eurek be beste horrenbeste egiten dauen artean: tantai zabalaren kerizpera egin, ahal dan bestean.

Kristinau errege edo jaun konteen enbasadoreek, bata baino bestea lehiatsuago, joten joek Kordobara, alkarregaz muturkatzeten diren bakoitzean, Kalifagandik zein baino zeinek itunbenezko mozkin hobea lortu-irrikaz. Ez gozak gitxiago izango, geure ordua argitzen doan une honetan. Leongo erreinu eta gure konterriaren artean sartu dan Gaztelako ziria atera behar joagu oraingoan, erregeak kendu eta ipini ahal dagikezanaren eskuz, hatan be. Ez egik uste betiko ameskerietan niatorrenik. Leonen egina jok dagoneko: itunbenak apurtu eta zergak ordaintzen ez ebana kendu eta men egin dautsona ipini jok-eta. Almantzurrek, jakina. Eta Leonen egin dauena Gaztelan be egin leikek eta egingo jok, zergara edo bake-itunben batera ez datozen guztiakin egin-asmoa jok-eta. Ez dok bera, behin erabagiez gero, atzera egiten dauenetariko, ez horixe.

Bestalde, Gudu Santua ez dok bera edo bere gudarostea bakarrik, Kalifago guztiaren asmo eta arazoa baino. Batzuk armaz gudian dabizen artean, besteak armagintzan edo salerosteko irabazien erdiak hatarako ipinten diharduek eta eguneroko otowitzetan Alaren laguntza izugarriak euren aldera ekarrazoten, *Ala-u-abkar* esaka eta oihuka.

Geu be hemen gagozak, lapurreri erreinua kendu eta zintzoei itzultzen dautsen epailariak, Leon eta Galiziaren artean eginna bera Gaztela eta Arabaren artean egingo dauelakotan, edo hobeto esan, bere laguntzaz, egingo dogulakoan. Leongo erregeleinu lapurra kendu eta Galiziako leinu baztertua haren tronura jaso dauenari nork eragotzi leikiok Gaztela eta Arabako jaun konteekin egitea? Ez eta Iruineako Don Santxok berak be. Jaun Inko gure Jaunak aparta nagiala, halan eta guzti, Gaztelako konte izatetik. Ez joat neuretzat azagariaren ondakinik gura, ez ta ohiko Borobia-buruko harritxilorik. Ez joat gure neuretzat inori egin-lapurretarik, okerreanean be, beste lapur bateri kentzea litzakenarren. Nahikoak joaguz geure asaben garaiko euskal mugak, ez gehiago eta ez gitxiago. Geureak direlako eta euskaldu-

noi burua erdaldunengandik aske eta eskier gordetea dagokigulako.

Politika honegaz ez neunkek Iruineako gure bigarren lehengusu dan errege Don Santxo aserrazo gura, nahiz eta berak aserrarako biderik nahiko eta lar geuri emon. Geurea dana baino ez joagu eskatzen eta, legez emon gura ez dauena, ondo deritxat indarrez lortzeari. 'Araba, arabarrentzat!' dok gure gudu-irrintzia.


Ahalik ondoen aditzen emon eikiok Don Munio gure Episkopuari gure betiko asmo eta abagadune barriaren garrantzia. Zer esanik be ez horixe dala Armendi Apezgoarentzat be biderik onena. Esaiok besteek hain gitxiesten dauena guretzat oinarrikoa dala eta, batek baino gehiagok gorroto dauena, guk ezin bestean maite eta geure nortasunaren zati berezitzat daukagula. Aldamenekoentzat ezerezaren hurrengo dala? Burueritsiak direlako eurok. Halan eta be, gorroto dauela? Euren danagurako politikaren muga-zehaztaile dagolako. Guretzat oster, aintzat euki eta alboko beste apezgoen disdiratan ikusi gura dogunontzat, ohorea baino ez eta geure, ta ez eurena, dalako seinale bikain.

Esatera noanari larregikeria eritsiko dautsat, behar bada, baina zera nahi neunkek egin Armendiko gure Apezgoaz, txikiagoan bada be: Kordobako herriarentzat Mezkitea dana bera, eta erainkintza soilagoa litzakenarren, herria bertan alkatu, eskolatu eta berotzeko adina. Hau da, zeru-lurretako indarrak danak asmo berean estuago lotu leikezan eleiza eta erakundea. Ba diakiat Araban bestelaz dana, lehengusu, eta oinarrizko aldaketa eritsiko dokana. Gurean lurreko arazoa Arriagako Batzarrean eta Eleizakoa Armendin erabagiten dana, baina zer aurreratzen dioagu halako bananketaz, alboko herrien buruzagiek daukeen indarraren aurrean, gure banantasuna bera be, geure kontra diarabilek-eta? Ikustekoa dozak oster, hemen Kalifagoko zaldunak Kordobako Mezquita barruan imanen sermoiak entzun ondoren,

ardaoak eraginda baino be suharrago, Alaren alde zinki eta minki. Eta halako araoetan, Alaren izena erabiltea debeku jake-
nez, bardin gudu-zaldiaren izenean zin dagiela: *Zin dagiati
zaldiaren apatxakaitik, goizean arerioen gainean jauzi eta,
hautsak astinduala, etsaien indarrak erdibitzen dauezan irrin-
tziagaitik*. Kontu egiok *etsaien indarrak erdibitze horri*, lehen-
gusu. Ez gagezela geu aurretiz horren banandu aurkitu, batak
hau eta besteak bestea egin behar litzakela eztabaidatzen do-
gula... Zin dagiati, bai lehengusu, guraso zanagandik jasoriko ez-
pata honen izenean... Baikoitzak bere juramentuak eta bere
asmoak generabizan gero Gormazen, eta Gaztelatik zehar Rodan
eta Simankan bazterrak erasoten genduzanean. Hantxe apurto
genduan kristau errege eta kontearen hirukoitza, arraioak ezpa-
jozak. Bakoitza bere pupuak mingatzera etxera bidaldu gendua-
zan. Azagari zaharra begien aurrean ikusteko astirik be ez eus-
taan emon. Don Santxo bera ere Iruineko harresiak jagotera
lehiatu zoen. Almantzur mendezina barriz, ezelako atzedetik
hartu gabe, zuzen Leonera, ihesi larrian joan erregeagaz bate-
ratsu uriburura heltzen zala. Errege zaharra kendu eta barria
ipinteko aste bete nahiko izan joan. Hantxe egon nintsoan neu
be, esaten dauadana bide onetik dakidala adierazteko. *Ernega-
duen* guradostea deitzen diautsoet Leonen eta Gaztelan nik
burutzen dodan gudarosteari, baina izatez, *irabasleena* gozak.

Eneko semea bertako enbasadan itzi eta neure gudamutile-
kin Kordobara itzuli nintsoan, nire sasoiarn arnasa apur bat har-
tzera. Halako troteetarako ia ez nagola jinostak gure Otxandak.
Urteek ez joek parkatzen.

Eneko gurea Galiziako errege-leinu barriaren zenbait zehaz-
tasunez jabetzen doan artean, Don Galindogazkoak argitu gura
joazak, gerokoan gure etxeak, Arabakoak esan gura dauat, no-
gaz konpondu behar dauen jakitekotan. Seme batak alde batetik
eta besteak bestetik, errege eta handikien politikazko trikimai-
luak ikastea gura joat, gulako txikiak asmoz eta jakitez bakarrik



luak ikastea gura joat, gulako txikiek asmoz eta jakitez bakarrik handiskoak bentzutu dagikezena jakinik.

Zer esanik be ez, ene lehengusu, hire laguntza ezin bestean estimagarria dodala bai Don Munio gure Episkopuaren aurrean eta bai Bosturiko jaun Don Atxuriorenean.”

“...DOMEKA GUZTIA ARMENDIN IGARO GEUNTZUN DON Munio episkopuagaz autuan eta, bera buru gendula, Abenduko Bezperak abestu genduzan. Espiskopu jaun eta beste abadeegazko autu haretan, hitzerdika bada ere, Arabako une larriaz konturatu ninduzun, ene maisu. Herria, aginte jatorrik ezean, nora ezean dagotzu, batzuk Gaztelara begira, gitxiengoa nire ustez, eta besteak Iruinera intzigiuten direla gehiago. Neuretik itaunak egin eta eztabaidean sartzeko irrikatzen nengotzun, egon, baina Errodrigoren gerizarako eta eskua blausta sartu legiken bildurrez, isilik egon eta besteena entzuteaz laket izan neuntsun.

Hurrengo goizean, Episkopuaren aurrean geure misinoa aitortu ondoren, Gazteiz aldera jo geuntzun. Hantxe banandu gintxatzuzan Murgiatik eta Okangotik zehar, Bizkaiara ginoazenek, geroago baten, ahal izanez gero, hango tokiren baten alkar ikus-teko asmotan.

Artaldeak altxubideetan bazka ona aurkitzen ebala-ta, bidea astitsu egitea erabagi eben artzainek. Ezin hobeto gure asmoetarako, ene maisu. Errodrigo eta biok Jauntzako Ahaldunen bartzartokia ikusteko aukerea gendun eta harantz zuzendu gintxazan. Arriagara ginoazela, Armendiko Apezgoaz eta Abategiaz ginardutsun eta honetan badinost Errodrigok erdeinuzko imintziotan: “Kordobako Mezkithea ikusi eta hori ikusi...” Mezkitako dorrearen gora, haren barruko arkutegiak eta ez dakitsut zein kaperatako mosaikuak-edo.

“— Zer bada? —itaundu neuntson—. Heu be hara joaten hintzan otoitz egitera ala?”

Otoitz egitera ezetz, baina bai, inoiz edo behin, kristinauen baztertxotik mahometen ohikunak ikustera, edo esaten ebena entzutera.

“— Tamalak hartuko hinduan orduan, Arabako Jaunerriaren bihotzean halako dizdirarik ez aurkitzean” —esan neuntson.

Amesetan lez gelditu jatan mutila, zer erantzun ezean eta orduan gure lurraz beste lezino bat emoteko ueña hartu neuntsun, ene maisu.

“— Jasoa eta harroa benetan izango dok Mezkitako dorrea, baina ez ziur Azailoriko-arkaitzak baino astinduagoa... Jakin egin behar dok gainera, Kordobako dorrea gizakien lana dokana, mendiek barriz, Jaun Inko gure Jaunarena. Kordobako Mezkithea ia hogeit bebarrukoa izango dok zabaleran, baina ez Arabako ordeka baizen zabala eta gordea; orma bikainak eta ederrak izango jozak, baina ez Obarene eta Kantauriako hesien besteakoak inondik, ez eta Azailoriko edo Okako autza-ateak baizen ate...”

Errodrigok entzun bai, baina ez eutsun gozaten harako erdeinu arpegia. Oharrotan sakondu behar neuntson neure alde-tik, lehen baino ere ekinago.

“— Giza-erainkintza handiak eta ondasun-pilaketak ez joek herria egiten, txotxo —esan neuntson—. Gogora egik Erromako Emperioa. Aldi batetan ordeka guztion jabe eta autza guztion atezain izan zoan. Baina haren enperioa galdu egin zoan. Ikusi dozak Iruinean gelditu diren erauskinak... Guk, ostera, hemen irauten joagu eta, mendion ikuspegia eta mendarteko autzen jabegoa zaintzen dogun artean, hemen biziko gozak, ez gero Erromako edo Kordobako Enperioen baimenez, Goiko Haren borondate eta graziaz baino.”

Arriagako hareitzaren aurrean gengoan haraz gero: guru-tzea eta harrizko jesarlekuak, aldamenean ermitatxo. “Hemen, ikusten dokanez —esan neuntson mutilari—, hareitza dok handia eta ermitea txikia. Zuhaitz hori herriaren susterra bezala dok, ermitea oster, Jaun Inko-Hitzaren gordailua. Hemen herriko bozak, han Jaunaren abotsa. Kordobako Mezkitean oster, imanek esana eta Koranetik irakurria egiten joek, herriak jesarlekurik edo eritsia emoteko unerik ez daukala. Konta eizak ezpabe, hareitzaren inguruko jesarlekuok...”

Mutilak benaz begirutzen eta zenbatzen eutsuzan, asaben herriko sustarren gerizak hartu izan baileutsun, edo gizakiek alkarregaz eta Jaun Inkogaz daroen alkarizketaren misterioa ulertu...


“— Hemen *Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean*, hau dok, Jaun Inko Hirukoitzaren izenean hasten dok batzarra, han Mezkitean barriz, Ala guztiz ahaltzuaren eta guztiz bakarraren izenean. Mahometen Jaun Inkoak, Ala horrek, ez diokalako nogaz alkarizketarik egin ez zeruan eta ez lurrian...”

“— Hemengo abadeek zer egiten daue ba?” —Burua jaso eban mutilak.

“— Hemen abadeek, mezea esan eta batzarretik alde egiten joek, herri-hautatuek euren arazoez nasai berba egin dagien... Nahi badok, eurek, Jaunaren Hitza iragarritz, batzarra girotu egiten joek, gizakiek alkarren errespetoz, eta Jaun Inko-Semeagandik dogun anaitasunez alkar onartu ahal dagien...”

Errodrigok amore egin eutsun. Berbaz niharduala, mandotik jatxi eta erdiko harrian jesarri zan.

“— Hor jesarreak ez deuk balio, herriak aukeratua izan ezik —ihardetsi neuntson—. Hire aita eta aitona Algaro be hortxe jesarri zoazen, herriak aukeratu ondoren.”



“— Hemen?” —Muzintxoalako egin eban, jesarlekuari soilgia edo gogorregia eritsiz.

“— Non bestela? Hemen ez diagok beste jesarlekurik, ez inongo urreztaturik. Kontu egikek, Don Bela zaharra, mahometen harako porrokatzaile ospetsuak ere, ez joala izan tronu horberik Arabako herriaren aurrean. Hortixek jaso einkek, jesarlekuaren bardintasunetik, besteak besteko eritsikide zana eta bardingoen buru, herriagandik jeukan, izan be, eskubidea eta aginte-makila-eta.”

Jesarlekua itzi eta hareitzaren enborra neurtzera joan zan Errodrigo. Besarkaz ezin inguratuko gerrondoa daukatsu. Lagundu egin izan behar neuntson, ene maisu eta ostaz emoten eutsun bion arteko neurria.

“— Damu dot Obeko janak emon eustan ezpatea soinean ez eukitea —esan eban mutilak—, baina ezpatearen gainean ezinik, hareitz honen gainean zin egiten dot gure aurretikoen ondorengoak hementxe jesarrazoko dodazela.”

“Hauxe Belakumea” esan neban neure artean. Balio ete eutsun, balio, Batzarreko hareitzaren gainean egineko zinak?...”

“...DON GARTZIA IRUINEAKO PRINTZEA IZAN DOGU HEMEN, Don Azenari buruzagi eta nafatar gudutalde bategaz. Arandiotik Urbiuneko mendi mugak aztertu eta gudarako zaldien bila etortzuzan. Printzeak, bide batez, anaia Don Ramiro zenaren arimaren aldeko mezak ekarzan, Dona Urraka erreginearen izenean. Halako osasun-arpegiak ikustean, poztu egin nintxatzun, bada anaia Don Ramiro hil zenetik, edozein gudu-ekintzako saiok eta areago benetako arma-burrukak dardarazinoraino larritzen eutsulakoa entzuna neban. Neuk behintzat, gudarien erdian nasai asko eta irribartsu ikusi neuntsun.

Halan eta guzti, Don Ferrutzio, bere konfessoreak, gogoaren nasaitasunerako, 143 Salmoa gomendatu dautso bere otoitzetan *Benedictus Dominus, Petra mea, qui docet manus meas ad proelium eta digitos meos ad bellum* dinona. Egia esan, ene jaun, guk monxeok beti ulertu izan doguz Espiritu Santuaren berbok, Apostoluak dinoskun, *bonum certamen certavi* harakoa, eta beste nonbaiten *burrukan darabilguzan armak ez dira haragizkoak, gure indarra Jaun Inkoagandikoa da-ta* dinoskunaren iragarpen baino. Hau da, gogo gaiztoekin bakoitzak daroagun burruka-laguntza eskatzeko. Baina nonbait, monxeontzat norbere grinagazko burrukea dena, lurreko printzeentzat gizarteko burruka edo mahometen kontrakoa esan gura dautsu. Eta bide horretik, gogo-sendabidearen orde, gaitzerako arriskua baino ez dautsut ikusten neure aldetik. Gudu-zaletasuna baino, gurago dautsut edozein kristaumentzat, nahiz Iruineako Printzea izan, guduari dardarazinorainoko iguina izatea. Ohoreagarriagoa dozu eta eurentzat esana barriz, hako *beati pacifici* agintzaria.

Don Azenari Otxa-gazturuko auzia ebastekotan neugaz gelditu zan, Printzea bera mendira egin zalarik. Otxatarregazko auzi horretan arartekoa egiteko eskatu eustan Don Azenarik, lehengo errege-bidalduekin han sortu ziren eztabaidak onean konpontzearren.

Honez gero jakin ere egingo zendun, ene jaun, hango Batzarrak artean gudu-laguntza ukatu eta errege-mezulariak nahiko zapuztuta bidaldu eutsuzana.

“— Hainbeste gudamutil eure arduran, eta ararteako egin daiaadala eskatzen daustak? —erantzun neuntson erregearen buruzagiari—. Arartekoa nik egitea gura badok, bidaldu egizak gudariok beste bide batetik beste arazo batetara eta biok bakarrik joango gozak Otxagazturura. Hi neure gonbidatua izango haz, nahi badok.”

Egoki eritsi eutson Don Azenarik nire asmoari eta, gudariak Don Gartzzi Printzeagana bidaldurik, biok bakarrik jo geuntzun mendi-zehar Otxa-gazturura. Aurretiaz igorrita neunkatson erre-kadoa Obeko jaunari. Batzarrekoak eta herria kanpae-hotsera bilduta, geuri begira egotzuzan. Harrera maitakorra egin euskuen, Otxerri-Goitiko berrogeigino gudamutilek ezpata jasoez, ohore egiten euskuela.

Herri hautatuekin bazkaldu eta gero, Don Azenarik, nafartarren halako berbakera ezagunaz, harako errege-mezularien buruntzali-sartze zalakoagaitik burua zuritu eutsun Obeko jaunaren aurrean. Hareek, Otxako eskubide eta ohituren ezjakinean egozela-ta, ez ebela auzirik argitu ahal izan. Bera, Don Azenari, errege Don Santxoren izenean etorrela, haren guraso eta erregetzan aurretiko, Don Gartzzi gogoangarri zenaren eta Otxako herriaren arteko itunbena barriztatzeraz. Hau da: Otxatarrei dago kienez, Arandiotik eta Axatik zehar Garinora arteko mendi-mugak zaintzekotan bakarrik jasoko ebela ezpatea eta zamarako ez ziren haziendak bakarrik izango zirela gudurako zerga bakarra. Mendi-muga horixe dozu, izan ere, ene jaun, Otxatarrek gaztelarrekin daukeena. Zorionean, muga hurbilean beste aldekoak ere Beloradoraino geu lez euskaldunak dozuz eta, mendien harako banaketaz gero, artzainek ondo konpontzen dozuz alkarrekin.

Otxarriko Batzarrak bertan erabagi eutsun bat etozela errege jaun Don Santxoren erabagiaz, Don Gartzzi bere aurretikoarena baieztan eta indartzen etorranez gero. Bazkal ostean errege-mezulariei ohi jaken ohorea egin euskuen eta berrogei gudamutil hareek ondo neurtuzko ezpata-dantza eskeini. Ondo ere ondo erakusten eutsuen eurok, benetako ihardunean ere, trebe jokatuko leukeela Gaztelatik erasoei aurre egitearren.

Horixe izan zendun, ene jaun, Don Azenari eta otxatarren arteko nire konpon-lana. Gauzea bake santuan ebatsi eta etxera

bihurtu gintxatzuzan Azanikotik zehar. Bake-berbaz, izan ere, arma indartsuez baino hobeto eroaten bai-dira herrien arteko auziak.

Otxatarrok, Iruineako erresuman eskubide berezikoak diren bestean, eleizaz ere harremon bereziko, Naiarako Apezgoko barrik, zeurea baino beste artzain-makilarik ezagutzen ez dautsue nez, ez eta zuereari baino beste inongo eleizari hamarrenik ordaindu, erregearen eta zeure zaintzapeko dozuzan artalde honekin jazo dena neure asmoz eta eskuz iragartea ontzat emon dautsut.

Dakusadanez, ene jaun, otxatarrok ez dagoztuz altxubidez altxubide, Arabako jaunerriagaz betidanik daroezan harremonok behingoan ahaztuteko. Egoki deritsot bestalde, lurreko artzaintza zerukoagaz bateratsu etorteari eta ez bizibideko arlotatik ate hamarrenak ordaintzeari.

Jaun Ahalguztidun eta Jesukristo bere Semearen bedainkazi-noa izan daitela guztiongan haren argibide eta osasuna bereberki zuzan, ene jaun, eta zure zaintzapeko arimengan...”

“ASTEAREN LUZEAK HATARAKO ASTIA EMOTEN EUSKULATA, Orduniarako bidea hartu geuntsun. Haxe dozu, ene maisu, nik umetandik ezagutzen dodan bidea eta Untzaga gainetik edo, ahal izanez gero, Agezia gainetik Orduniako sakana barriro ikusi eta Errodrigori erakutsi gura neuntson, ez gudu-estrategietan-edo eskolatzearren, gure lurdi edertasuna ezagutuaz, Euskal Herria maiteago izan dagian baino.

Txikitan menditiko ikuskizun horrek emoten eustan lilura berean ikusi gura neban mutila. Besoa luzatu eta zera esango neuntson: “esaistak orain, ea Kordoban edo beste inon lurralde ederragorik ikusi ete doan...” Gora begira, Otxarrin Arandioko tontorrek arrigarritu dauen beste, beheara begira, leze-deiaren


liluraz ikusi gura neuntsun Orduniako sakanaren edertasunaz, hako *si ascendan in coelum, illic es, si apud inferos me sternam, ades...* salmoetan abesten dogun bezala, ene maisu. Espazio horreen sakon eta astinduetatik ezagutu egizala Jaun Inko gure Jaunaren goi-behe-barren itzalgarriak.

Untzagako bazterrera heldu eta “hauxe dok —esango neuntson— gure artzainek neguari kuku egiteko ibili daroen altxubidea; hauxe, ezuste bateko arerioen sarradan, eraso itzuriteko azken edo azkenaurreko abagadunea. Lurdia bera Jaun Inkorako bidea danean, izan be, —azalduko neuntson—, ez joagu Mezkitealako tenplorik behar, eta lurra bera babes-toki eta gaztelu danean, soberan diagozak eskuz eginiko alkazarre handi eta porrokatu ezineko gotortegiak; edozelan be, ez dozak Goiko Harek eginak baino ziurragoak izango-eta...”

Zorionez edo zoritxarrez, eguraldiaren erabagia zela-ta, hutsesan gelditu jatzun, ene maisu, Errodrigori emon gura izan neuntson eskolea. Goromendi gainean, artzainek Andre Mariari jaso-ermitatxoan, *Agur Maria* eta *Salbea* errezatu eta mandoz ibilitako bideen nondik norakoa aztertzen gendun, eta eskerrak gure bideetako izar gidariari asmatu ere: Gorbeia gotorra eduzuriz zurutua ifarrean, eskumarantz hartu behar gendun bide barri ezezaguna eta ezkerretarantz barriz, Orduniarako ezaguna. Zenbat mendi eta mendate, zenbat trokábide eta autzarte eta arrisku bideotan itxumustuan ausartzen denarentzat. Eta zein begiratoki aparta, bide galduetako seme-alabak bideratzeko, Goromendiko Andre Mariak aukeratu dauen harkaitza...

Andre Mariari agur esan eta ordekarara jatxi gintxatzuzan. Untzagarako asmotan aurrera ginarduela, hara non geugaz batera astiro abiatu zen Erramel artzaina bere alaba eta artaldeagaz ikusten dogun bidean.

“— Edurra dator” —esan euskun, eguratsean-edo usmatu baileuan.



“— Edurra?” —Larritu gintzazan.

Egia esan, Gorbeia-buruak txapel zuria ia begietaraino sartuta eukatsun, baina ez gendun halako oker susmorik. Artaldearen ardureak nonbait niri baino hobeto idegi dautso Erramel lehengusuari eguraldien usnoa. Harek ondo ekitsun, edurragaz batera, otsoek ere, goizetik gauera, ordekaratu eta altxubidera urten leikioena, hagaitik txistuka eta deika zematzen eban artaldea, Untzagako aurbehera ahalik lasterren hartzekotan. “Agur Orduniako ikuskizuna” esan nendun neure artean, “itzuli egin behar joagu” ohar Errodrigori.

“— Zergaitik itzuli? —erantzun eustan mutilak urguri—. Erramelen artaldeak daroan bidetik be ez ete goaz ondo Bizkaira?... Hobe orduan euroi jarraitu, edurra datorrenez gero. Eta, bide batez, esan dozun ikuskizun horrez liluratu...”

Mutil azkarra bera, ene maisu. Harek ikusi gura eutsun ikuskizuna hurbilago egotzun: Maria, Erramelen alabea, hain zuzen. Ez dakitsut noizdainoko zaletasuna eukatson, ez bideko harremonetatikoa ala Otxatikoa zen. Banenkusan, ikusi, neuk gura baino gehiago hurbiltzen jakola ahal ebanero neskeari, neskeak hatarako biderik emoten ez eutsolarik ere. Oharren bat ere egin neunkatson, honetaz gaurdaino ezer esan ez badautsut ere.

“— Uste dok, txotxo, Erramelek hire nortasuna ezagutuez gero, ondo ikusiko leukela hi Mariaren bilan ibiltea? Uste dok Mariak berak, Arabako konte jaunaren oinordekoa hazela jakitean, onartu egingo hindukela?”

“— Ez dauka zertan jakinik” —erantzun eustan halako arpegiagaz.

“— Ez daukala zertan jakinik? —neuk be zorrotz—. Maitasuna umeen marro-jokua-edo dala uste ete dok, ala mahometen artean hagola?... Goromendiko Andre Mariaren izenean dinoat: errespetatuta egik heure burua eta, batez be, ez egiok holako iruzu-

rik egin halako Erreginarene izena daroan neskeari eta halako artzainaren alaba danari.”

Gogor egin neuntson harakoan, ene maisu. Sapoztuaren arpegiagaz jarraituko eustan Okoitzarako bidetik. Hara ba nondik Orduniarako bidea, Gaztela edo Leongo mugen hurtasunetatik baino ere, bi bidarrez arriskutsuago egin jakun maite-zurrumbilo lezatsuokaitik.

“— Ez ete haz konturatzen —ostera ere nik—, heure aitaren borondatez, lehenengo Euskal Herria ezagutzearren, Kordobatik Otxarrira eta hurren Otxarritik Bosturira hoala, Atxurio jaunaren alabeagaz ezkontzekotan?”

Atxurio jaunaren alabea bera ez ebala ezagutu ere egiten, bai ostera, Maria Erramelen.

“— Erramelen alabea artzain-umea dok ostera eta, Atxurio jaunarena barriz, Bizkaiko jaunetan ospatsuenetarikoa. Heure aitaren politikan ezetariko asmorik badaroak, handikien eskua dagokik eta hagoko haren esanari...”

Bestalde, niri neuri gitxi ardura eustala artzain-alaba ala nonbaiteko printzesiagaz bera ezkontzeak —esan neuntson— bera neure seme edo morroi izatekotan eta ez Arabako etorkizunaren erantzule.

“— Konte jaunaren oinordekoak, bihotzeko bere gurarien morroi barik, herriko onureari begira egon behar jok —neragoion—. Eskubide handiak izango jozak, baina bai herriaren alde ondo sakrifikatu beharra be...”

Alde bateko onurak beste hutsen ornidugarri etorkezela, berak oraindino, nork monastegiko bizitza borondatez hartu daunenaren eratan. Batak ez ebala bestea kentzen-eta.

“— Pikaro ikasiarena, halakoa! —jarkitu nintxakon lehen baino ere gordinago—. Hori dok iretargiak baino arpegi gehiago eukitea: morroiarena alde batetik, eta konte-semearena bestetik. Ikasi be non egin doan... Ea erdi kristinau eta erdi mairu hazen...”

Ez jakon bat ere atsegin izan nire irri-agirikea. Jaun-semearen harrokeria, ene maisu, guzur-monago edo artzainkoaren narruan. Halan ere, argi aditzen emon neuntson kristau herrian inortxok ere ez eukala hainbeste kapusairako eskubiderik. Kristinauen artean morroi-alabak eta jaunaren alabak gora bereko dotea eukela Jaun Inko Jaunaren aldetik, beraz batari edo besteari bizi-asmo bardina zor jakela.

“— Ala neskak arimarik ez daukeela-ta, gizonezkoi sopinduta egotekoak baino ez direla-edo holakorik entzuen ete dok Kordoban?”

Behar bada, ez da horren harritzeko, ene maisu, mutilaren ganorea. Mairu-herrian garatu denez, handikoak izan daiketsuz bizimoduaz edo ezkontzaz daukazan eritsiak. Zer esanik ez dago, eta honetan zure esaneko nazen bestean, eritsikide ere izan gura neunke, Arabako jaun konteak mahometen buruzagiekin egin leikela gura besteko itunbenik, baina ez euren Liburuko zenbait esakera eta oharrekin...

Edurragandik hurrago Okoitzabidean, gogoetok genduzan barne-otsoko, baina bideko latzak, ez pistien bildurrak ez ginduezan bide zuzenetik lerrazo...”

“...KORDOBAKO SUINAK, ARABAKO LEHEGUSUAK BAINO, hobeto hartuak izan ohi dozak Iruinean, lehengusu, eta Almanztzur ez zoan salbuespena izango. Dona Abdagazko ezteguak Al Zaharako lorategien duin eta Kordobako arrandiaren adineko izan dozakenez, suin ahaltsua erregaloekin joan dok Iruineara,

andre barriaren gurasoak jakitun eta hain zorionaren partekide egitera. Arabako bidea hartu izan bajoan, bidea erakutsi neinkioan, baina Monkaiotik ebagi jok, ezuste baten Iruinako harresi aurrean agertzeko... Ze esku-erakutsi eroan dautsola? Dona Abda, alabearen poz-agurra, urrezko kutxatilaren ezkontzaria eta gauzea legezatzeko eskabidea hurrean, “gogoko badozu, onerako, eta ezpabe, gogoangarrirako” esan ohi danez.

Don Santxok ezezkorik ez. Alabearentzat, edozelan be, gurago ‘Mendezinaren’ gerizea, ezgauza dan Kalifearen emazte izatea baino. Bide batez, ‘hirukotx aizuna’ alperrikoa izan dauela erakutsiaz, bake-itunbenak estutu, Dona Toda gogoangarriagandik eta honagino, Iruineko printzesen ezkontzak bake-politikarako erresa onenak izan dozak-eta. Eztaigiroan hobe, estekan baino, lehengusu.

Zer besterik erantzun leikion Don Abarkak Mendezinaren eskeintzari? Harresiko ateak itxi eta, ordekkako azagarria bailitzan-edo, oihal urdinetako haize freskotan euki halako suin ahaltsua? Hobe Akitaniako lehengusuari laguntzera, Behe-Nafarrera joan zala-ta, desagertuarena egin. Joan beharra, ala errege aitagiarrak eta Kalifa-Ordezko suinak txakurrarena eta katuarena egitea konbeni herriaren aurrean?... Ez ondo ikusia nonbait Kalifatik beherako suinik Iruineko gortean. Eleizgizonentzat be iguin ausaz mahometegazko eskontza. Hobe leukek oraintxe be Don Santxok, Iruineko Episkopuaren aholkua baino, Dona Todaren begiramena. Eta jakina, Dona Todarik ezean, haren loba Dona Abdak, egin behar berera Kordobagazkoa. Hasteko, Kalifeagaz ezinean, haren Ordezkarri ahaltsuagaz ezkondu, errege-izeneko ‘Santxuelo’ semea aurreratu Kalifagoaren etorkizun, bake-agiriak bidaldu aitari eta horrela sutatik gorde oraingoan gurasoen uriburua. Onetik gorde be! Kordoban baino areago txalotu beharko leukeek Iruinean Don Santxoren alabea, Dona Urraka amak gudu-aholkuz apurtuak, maite-balaguz ez jozak konpondu, ba, alabeak?

Errege Don Santxori barriz, edurtzak edo mendi malkorrak halan eskatuta, ezin hobe diatorkozak, lehengusu oinetarako abarkak. *Abarka* baino titulu gurenagorik ekar eikean Akita-niako osteratik, Kordobako zalduntasunari eskeintzekotan behe-nipehin. Edurtzan badok be, haxe laprastadea egin dauskuna Iruineko erregeak, lehengusu. Nork esango abarketaraino jausi behar ebala Dona Todaren harako diplomaziak. Kordobako andre gurena dan Dona Abda lotsaz gorritzeko be...

Sobeia, Kalifa-Ordezkarri-ohiak eta gure andreak luzaro zehatu joezak kalean koplagarri izan dozakenok. Euren mokarabetik haulakoak euskeratzeko atsegina izan joagu Otxandak eta biok:

*Abarka mantaduna
Iruinea aldekoa,
zapata punta bibur
Kordobatikoa...*

Ez gero, nafar anaikideak zehatzearren, Iruineko gure lehengusuari jazoriko barregarriagaitik baino. Ez dinoat, diplomaziaz landa, artzain-oinetakook erregearentzat ere mendirako ondo ez datozen; baina, edozelan be, altxonen aserre eta errietak herriaren koplá piperretatik gordetzekotan. Bestalde, gure Abu Amid Mohamed zaldunak, bere gudu-ekintzekaitik Almantzur *Mendezina* deitzea merezi eta Iruineako errege Don Santxo, beste hainbestegaitik *Abarka* ezizenagaz bateatzea ez dok bat be zuzena”.

“...BEHIN BAINO GEHIAGOTAN ITAUNDU IZAN DAUTSOT neure buruari ea gure Jaun Inkok, Asur neure aitaren gaztelutik aldendu, neure gudamutilen bilera zapuztuazo eta zertan bidaldu nauen mahastizainongana igitai edo aitzurrik gabe. Mahastia landu barik, mahatsa uztatzera? Ez, ez natortzue neu mahatsa uztatu edo dolaretik harako mustioa jastatzera. Morroia-

ren zeregina dozue bata eta ugazabarena bestea. Ugazaba ez nazena neure itxuratik dakusue. Morroi-antzik eukitea ba daite ostera, lanabesik ez dakardanarren. “Aitzurrik ez eta jorratzera?” esango daustazue. “Ongarririk ez eta satzetan?” eragongo. Ez dakart, izan be, Jaun Inko gure Jaunaren berbea baino beste jorraitirik, ez bere aholkua baino beste ongarririk. Ez nozue inondiko igarle be, halan deitzen daustenarren. Igarlea banintz, Jaun Inko-Hitza jorraitzak barik, aho biko ezpatatzat ekarriko neunkitsuen eta, zeuok dakizue, ezpatearen eragina jorraiarena baino erabatekoagoa dana...

Ni, uztarora hur dagola-ta, mahastirako uztatzaileak deitzera bidalduko morroia nozue. Ugazabaren errekadua dakart, eginkizun latza dodanarren. Hara: sorretan hartu zenduen mahastiaren emoitza jabeari itzultzeko epea bete-aginean dago eta uztakontua aurretiaz garbitzen hasteko ordua dozue. Ondo dakitsuet ugazabaren morroi abisaria ez dana inongo uztatzaileen begietakoa izan, baina morroia nazenez, eta ugazabaren esaneko nagoenez, agindua bete beharra baino ez dot. Ez ete da zilegi, bestalde, eta areago hatan be, urtero lurreko jabeari emoten dautsuzuen kontua jabeen Jabeari, bizitzan behin berere, emotea? Eta zelan kontu zehatzik emongo azkenean, hatarako gaur bertatik arduratan izan ezik?...

Entzun bada Jaun Inko gure Jaunak dinoskuna: *Ni benetako mahatsondoa nozue eta nire Aita mahastizaina da. Nigan fruturik ez dakarren abiena ebagi egiten dot, frutua dakarrena barriz, inausi, frutu gebiago emon dagian... Iraun egizue nigan, nik zuengan lez. Mahats-abienak berez ez dakar fruturik, mahatsondoagaz bat eginda izan ezik. Neu nozue mahatsondoa eta zuok zeuok zaree mahats-abienak. Nigan irauten dauenak frutu ubari dakar, nigandik aldenduz gero, ezertxo be ezin daikezue-eta. Nigan irauten ez dauena kanpora jaurtiten daue, abiena lez, eta ihartu egiten da, sutarako baino ez dala... Nigan*

iraun eta nire berbak zuengan irauten badaue, eskatu gura dozuena eta jaritsi egingo dozue...

Orain bada, uztatzaileok, agintzari hoberik itxaron ete zein-keen zeuon ugazabagandik? Poztu zaiteze, zuen errebindikapen ordua, zuek eskatzen zenduena baino eskuzabalago datortzue-eta. Iluntzerako sari oparoa dozue. Izan zaiteze beraz dagoneko hain sariaren duin, *zuek frutu uhari emoteak pozten eta goral-tzen dau-ta nire Aitaren bibotza...*

Jesukristo gure Jaunaren Ebangelioan irakurria baino ez dautsuet iragarri. Ebatzi daigun bada alkarrekin mahasti eta mahastizainaren arteko aspaldiko auzia, kontuak garbi gelditu daitezcan. *Ez ete zaree ba zuek nire mahasti aukeratua?* —dino Jaunak—. *Ez ete zinduedazan neure eskuz landu, ongarritu, jorratu eta inausi? Ez ete neuntsuen pistien kontrako hesiaz inguratu eta lapurren kontra erdian dorrea jaso?* Eta ardura guztiok gitxitzat joez gero, ez ete neuntsuen nik neure Semea bera bidaldu eta zeuon damurako eta salbamenerako, gaiztagi-nen oinpetan mustio odoltsu eragiteraino zapaldua, oparitan emon? Eta ez zintzazen zuok danok be haren odol bizigarriaz zi-pristinduak izan, heriotzako angeru-ezpatak ikutu ez zagiezan? Ez ete eban bere maitasun harrigarrian zuen emoitzaaren ardaoa bera zeru-mahairako duin hautatu?... *Egin abaletan zer gebiago egin neinkion neure mahastiari eta zer astandu dot egin gabe-rik? Nondik bada, mabats gozoa itxaroten neuntsuela, sortu da garraskil hau?* —dino Jaunak—. *Erabagi zeuok mahastiaren eta mahastizainaren arteko auzia.*

Zeuok zaree erantzule. Ez zenduen izaki mutu edo abere-sena hartu, Jaun Inko-seme-alaben askatasun-sena baino.

Uztaroa hur dago, dolarea gertu, eta non dago zuon gertu-tasuna? Ze ardaoz-edo mozkortu zakuset, ernai egoteko orduo-tan? Ejitoko kipula eta baratxurien ordetan saldu ete dozue, oster a be, askatasunaren erreinua? Jesukristo gure Jaunagan beti-

rako zeru-emoitza eta Jaun Inkozko frutua emotera deituak zare-ela, ondare lurkoi galkorragaz gelditu behar ete dozue? Horra bada, mahasti-Jabearen epaia —dino Jaunak—: *Nigandik alden-du zareenez gero, antzu geldituko zaree. Mabats-abien alperrak lez, inautsiak eta sutara jaurtiak izango zaree...*

Halan eta guzti, Epaiaren ordua heldu daino, konbertsino-rako azken abagadunea iragartera natortsue, hain zuzen be, ho-nexetarako bidaldu izan bai-nau gure Jaun Inko Jaunak... *Nor-baitek nire deia entzun eta atea edegiten badaust, harenean sartu eta alkarregaz afalduko dogu. Abaleginotan buruz urten dagiana nere errege-aulkian neugaz jesarrazoko dok nere mabaian —dino Jaunak— eta bizitzako sumoaz edarazoko...*

*Hilak ez dira bildur,
biziak baino.*

(esakuna)

“...MURGIATIK ITZULERAN, OKOIZTAN IGARO GENDUN gaua hantxe jakin neuntsun, ene maisu, Abade Maurok esanda, Don Munio gure Episkopuarena. Ba zenkian gure Don Muniori Belostako Apezgoa eskeini dautsoena? Bai, euren *Vallis posita* hitz konponduez erdaldundu Apezgoa. Ez dakitsut aldi baterako, hango Kabildoak Episkopu barria aukeratu arte, ala betiko den. Ez ete dautsu aholkurik-edo eskatu, baietza emon orduko? Gauzea aurreratu samar emonten dautsue batzuk, besteak ia egintzat dagoneko. Ene ba! Nork esango leuken Armendiko Espiskopua, Don Munio gainera, Belostako Episkopu... Noiztik dauka zerikusi Belostako artzaintzak Armendikoagaz? Damogun Belegiako Apezgo zaharra, mahometek Gaztelan sartu aurretik eta Aukatarrak Belosta barrenean eskutatu orduko, Arabako Apezgoa Artzena mendi-kate eta Gobeoraino heltzen zela. Baina Gaztelako etorkinek bazterrok erdaldundu euskuezenetik eta honagino... Ala gure Don Munio azkarrak, sustarrezko eskubideon jakitun, hango aginteaz jabetzekotan-edo, baietza emon ete dautso eskeintzari? Bai zorionerako horrela balitz, baina noiz berreskuratu dogu euskaldunok euskaldunontzat lehen galdu gendun lurrik? Hagaitik bestelakoak dozuz nire susmoak. Orain arte ere, Argantxonaraino egin izan dauezan sarradak aurrera

bultzatzeko amarrukeria ez ete dozu izango Don Munioren egin dautsoen eskeintza hau?

Jakinen gainean, orain konturatzen nozu, Don Munio Espiskopuak, Armenditik igarokeran eta Bizkaiko misinoaz giharduela inostanaz, *et alias oves habeo quae non sunt de hoc redile*, bekoki ixurtuxe eta sekretu-bilan bezala. Susmotan ere ez holarikorik baina. Ni Bizkaiko arimez iharduelakotan eta bera Tobalina edo Burebakoez hurrean. Gaztelako jaun kontearen agindupeko lurretakoez, hain zuzen. Ba dinotsut, ene jaun, susmogarietan azkena neretzat eta oraindino ere ezin ulertuzkoa. Bai, ba dagotzu, hasiera bateko mugez landa, gaur bertan euskaldunik Artzanikatik itxasorantz batez ere, Etxagibeletik Iberorantz erdaldunik ere ba dagonez... Ala, Apezgo biez bat eginik, gure Don Munio azkarrak opil batean oretu gura ete dautsuz euskaldun erdaldunak? Noren mahairako baina? Nere susmoak, osterera ere, ene maisu. Hori esan gura ete dautsu ba *ut unum ovile et unus pastor* harakoak? Ea latinez hasi eta erromantzean amaitzen den abentura hori... Eta susmoek naukeela, gurago dautsuz daz gaurdainoko mugak. Horrela ez letorkez bahenipehin hango erdaldunak, lehen lez, gure lurra erderaz misionatzera.

Don Muniolako artzaina ba daiteke horren artalde ezbardina gidatu eta misionatzeko gei, neure ustez. Hori esan gurako eutsun hako *et alias oves* harakoaz, behar bada, Belosta Apezgoko euskaldunetz. Nondik ornidu dagikez, izan ere, hareentzako abade eta misinoari euskaldunak, geuretik eta Armenditik-edo izan ezik? Susmo on baterako halabaina, bi oker diatordaz, osterera ere, ene maisu. Izango ete leuke gero Don Muniok, Karrandiara-edo abade euskaldunak bialtzeko Gaztelako kontearen baimenik. Orain arte ere egin ohi dutsuenaz, Kristo gure Jaunaren Ebangelioagaz etxerako euren adinako politikea egingo ete dautsuen susmo dot, ene maisu, Araban dakusadan oreka hontan. Zera, aginte jatorrik ezaz, arabarrek jasan daren une ezezagokian, Gaztelarrek eta Nafarrek Arabaz eta Bizkaiaz jabetzeko

dagien azpi-tirabira. Ba dautsue dagoneko alderdikaririk Argantxonatik behera gaztelarrek eta Armenditik eta hara Nafarrek. Eta gauzea horretan dela, ez deritsozu harrigarria Don Munioren egin dautsoen eskeintza eta harrigarriagoa, hatan ere, gure Don Muniok eskeintza onartu izatea?...

Bizkaian sartu bezperan egiten dautsuz oharrok, ene maisu. Gauzea neure begiramenetik ate izten dautsut, etxeko arazo hau neuk baino hurragotik jarraitzeko unea izango dozulakoan. Sorterik onena opa dautsot hanartean gure Don Munio Espiskopuari, *Dominus conservet eum et non tradat in manus inimicorum ejus* eta bestalde, Belostako arazo barria dela-ta, ez dagiala Arabakoa eta Bizkaikoa larregi hastandu.

Zelandiatik azken agurra, azken begiradea Arabako orde-kari, urrun Armendi barreneko mendiak, hurrago Entziakoak. Nafarrorako bidea erakusten dautsot Errodrigori, Entzia mendikate eta Urkilaren artean doan ibarraldetik zehar. "Bide idekia dok —dinotsot—, Nafarrek gura izanez gero, ateetan gendukez, baina euskaldunok alkarri zor dautsogun begiramenarren, ez diautsoguk alkarri armaz erasoten..."

"— Bake-itunbena daukagu ala?..." —itaundu eustan mutilak.

"— Bai, baina ez mahometekin-edo daukeen parekoa. Hareek jende eta fede ezbardinekoagazkoak dozak —azaldu neuntson—, gu osterera, sendi artekoak..."

Mutilak ezetz. Kordobagazko itunbenak ere sendiarteak direla-ta, Iruneak andregaia eta Kordobak senargeia ipinten ebela. Argia eritsi neuntson ateraldiari, baina nik zehatzago orduan.

"— Horrexegatik, hain zuzen, txotxo. Han ezkontza-lokarrik ezean, ostaz legokek bake-itunbenik, euskaldunon artean osterera, odolezkoak ezeze, fede eta kulturazkoak ere badozak."

“— Nondik datortuz bada hemengo eztabaidak? —berak oraindino ere—. Ala alkarregazko daukeen odolak batzuetan irakin egiten ete dautsoe edo euskalkia ez ulertu?”

Salduta itzi nindun harakoan monagoak. Zelan azaldu nein-kion Errodrigori han, Kordoban, herri-buruek egin ohi dauen alkarte eta batasuna, hemen maiz aserre eta banantasunerako izaten dela? Izan ere han errege-alabea eta kalifa-semea herri ezbardin eta aurkakoak alkarregazkoaz, baina Koranaren legean gozatzeraz dotozelarik, hemen betiko sendi-giroan bizi garenok kanpoko senargeiaren nausikeriaz aztoratzeraz diatortuz sarritan.

Artzain laguna begiztatu gendunean, politika-autuak itzi eta Leniz alderantz jo geuntsun, Landiatik zehar. Bizkaiko mendate hauxe ez neuntsun ezagutzen, gure aita zenagaz Untzaga eta Arandiotik jotzen bai gendun sakonerantz. Leniztik doan altxubidea Untzagatik doana baino berdeago dager. Neguan gagozalarik ere, bazka gozotan dagotzu. Josepe artzainak beste altxubideak baino estimaduago dautsu hagaitik.

Lenizko bizkarregitik behera goazela, gero eta sakonagotzen doaz trokarroak alde bietatik eta, ordeko eguratsa epeltzen zen ginoan, lastu egiten jakun mandoketea. Une bateraz gero, malkortsuagaitik, mandotik jatzi egin nintzan, oinezkoa jasanago egiten jatalako.

“— Ikusten dok zergaitik hemen bisigodoek eta mahometek sartzerik ez joen?” —esan neuntson.

Erantzun nasaia emoteko, larritxo eta mandoa galtzeko zorian nenkusan bera ere. Ate barritik ezeze, misionaritzan Bizkaia lehenengo bidarrez zapaltzen nebalakoa otu jatan, ene maisu, eta *beati pedes evangelizantium* harakoaren pozaz aiseago ninoztzun.

Eskumaldera begiratu eta Atxorrotz, autza haretako begiratokia, gartzelu eta guztikoa. Armadunen mogimentua bertan,

begiraleak biderantz. Josepe artzaina ezaguna eben, atea franko itzi euskuen. Gastatan edo bildotxen baten asarikoa, itzuleran ordaintzekotan.

Leniztarrak, artzaintzaz landa, gatzaren obaritik bizi dira. Ur gazia tupinetan lurrunduz lortzen daue. Astigarrabiako arrandegira ohi daroela, esan eusteen.

Errodrigo bera ere tokiaren berdeak eta mendi-ibarren gorabehera bitxi eta urtegiakaitik liluratuta etortzun. Neure itaunera, esan bai aitortu ere berak, halakoxeak direla mahometek beste bizitzan itxaron ohi dauezan lorategiak.

“— Ondo egiten joek mahometek lurrean ezina zeruan bilatzea” —adarra jo neuntson.

Mutilak ez eustan ulertu edo ez eustan amore egin gura.

“— Ezin lortu izan joela, txotxo, mahometek, eure aurretiko Don Bela zaharra eta beste gizaguren harei eskerrak eta ez gixiagi halako mendi-hesiz inguratu eta jagon ginduzan Jaun Inko gure Jaunari.”

Oraingoan bai, oraingoan, zeharka begiratu eta hitzik esan gabe ere, baiezkoa emon eustan.

Eskuriatzara heldu gintzazan. “Toki ekuria benetan —esan neuntson Errodrigori—. Ordeko zalditeriak ez joek hemen zeregin handirik..”

Mendiek babespean hartzen ginduezan. Gure aita zenak Arabako *Eskurtzari* ere *Eskuriatza* deitzen eutsola oroitu neuntsun. Horra ba *Eskuriatza* eta *Eskurtza*, milagarrenera heldu orduko, herrien izenak ere igatzen joakuz, dagoneko artzainen be-larrietan-edo gelditzen dela joaneko soinuaren oroitzapen bakarra. Eskuriatza honetan, Arabako ordekan baino gauzei edo tokiei nasaia eta osoago deitzeko unea daukeela. Ordeko zarrapa-

rrren larrialdi eta odolestuak hobeak dozuzalako zaldiketarako, hemengo bakea barriz mandoketarako.

Errekaldean behera, Arrasateraino jo gendun. Deba deritxon ibai honexeri jarraituaz, itxasora orduko, bertan ei dagotzu Astigarrabia. Hemendixek joaten ei dira gure gatzariak ere. Guk haheen bidea hautsi eta ur barrien bila, Udala aitz sugartuaren ezker aldetik Betsaide deritson mendatera igon geuntzun. Haxe ei dozu Bizkaiko atea, esateko, ate erraldoia benetan: Udala aitz eskumean eta Ambotokoa ezkerrean atabetzat daukazararik. Ate buruan barriz, Anbototik Udalara, Udalatik Anbotora oinestuan eta hodei gainean ateari makoa egiten, Mari, kobako jeinua.

“— Bizkaiko atezaina ete dok ba bera?” —itandu neuntson Joseperi.

Josepe artzainak, halako irribarrez “halako atea halako zaindaria beharko” inostan. Jeinu honen ipuin asko kontatu eustazan. Ordunian eta Aiara entzunekoan antzekoak zenduzan. Mari artzainen guzurretatik bizi zena, ardi-narruan burua etzaten ebana, eta artulea gitxietsiz, hodeiekin ere bardin ekiten eutsona goruetan eta gizakiegazko aserrea barriz, txingorra eta barealdean euria bialtzen ebazana eta horrelakoak...

Mendiek ezeze, harkaitzak ere ikotika egiten dautsuen tokian, giza irudimena ez dozu izaten gitxiagorako, ikusten dodanez, ene maisu, eta hagaitik salmoetako *montes, quod saltastis ut arietes, colles ut agnelli?* harakoa diator gogotara, lurraren azala horrela harrotzen dauen Jaun Inko gure Jaunak giza gogori ere, Kristoren Espiritu-eraginaz arnasetu orduko, ikotika eragin eutsola konturatzean...”

“...HANDIKIEK EUREN GOGOIA EGITEN DAUELA ESAN OHI dok, baina ala edo Goiko haren eskua artean sartzen danean, ez jok balio izaten, ez ta Kalifa-Ordezkaria izateak be. Beralako

buruzagiek bidegabekeria askotxo eta larregi egin ohi joek Ala bihotzberaren eta errukiorraren izenean, baina zoritxarrik handienak be euren buruen gainera jausten dozak, Ala bihotzbera eta errukior beraren izenean. Nori eta Almantzur mendezinari ez jakok ba berton aurkalaria sortu, nogan eta Abd Allah, bere seme zaharrenagan?

Abd Allah hori, Almantzurrek, Don Santxoren alabeagaz ezkondu aurretik, ehungile-alaba batengandik izaniko semea zoan. Oinordekotza Abda, errege-alabaren seme Abd al-Rahman, Santxuelok, eroatsola konturatu zanean, “hemen nago ni” esan, aitarren kontra jarki eta Zaragotzako baliarengana ihes egin joan. Hortik atera heinke Zaragotzan ezeze, Kordoban berton be, ez dauela danak begiko Iruineko kristau alabearen harrotasuna edo Kalifagoaren aurka birritan jarkineko nafar erregearen ttipi-izena daroan oinordeko ulegoria.

Abd Allah zelokortsuaren tirria uztiatu gura izan joen matxi-nozale gordeak bestalde, aholku txarra emon jeutsoen gazteari. Haren jasargoa jakin orduko, han zoan Almantzur, deabruiek eroela, semearen atzetik. Gaztelaren aurkako azeifa erolako egin eta hatarako, gudari errimeen bila bailioan, Zaragozan sartu zoan gauetz. Haraz gero, balia atxilotu eta Abd Allahren kontu zorrotza eskatu jotsan. Baliak ordurako Gaztelarantz bidalduta jeukaan Abd Allah hori eta han zoan erbinudea saguaren jasarrian. Gormaztik zehar, Gaztelako ordeka barrurantz ostera be Almantzur, semearen bila...

Abd Allah kristinauen herrian eskutatu zana jakin doguneko, Almantzurrek ia berea eginda jeukaan. Bai niri samin handia emon be. Mutil horren sasoian, neu be zulorik zulo ibilia izan nok azagari zaharraren aurretik, behin zeuenean eskutatu, handik mairu ehungileen babesean Ikariazako autza igaro eta Asorian babesa eskatu neban arte. Ikusi dozue hortik bere aita Kalifa-Ordezkarieren antzeko, susko begi, arpegi baltzeran eta zain-

dura zaleko mahomet zaldun gazterik? Ba haxe izango zoan Abd Allah, Abda Al-Rahman, Santxueloren anaiorde ta lehiakaria.

Aholkurik-edo eskatu izan baleustan, ez niotsan behenipehin Gaztelako babes a gomendatuko. "Erbinudearen zulotik azagariarena joatea litzakik" esango neuntsoan. Beste bide bat-edo, nik diakiat ba... Baina egokia eta zuzena litzakean mairuherria kristinau askoren babestokia dan bestean, kristau-herria mairuentzat izatea.

Aita-semeen arteko burruka hau azken juizioaren seinaleztat emon joek Kordoban, imanak Mezkitako otoitzaldean esanda. Zelan azaldu bestela —inoan Koranaren maisuak— semea aitararen aurka jarkitea ezeze, mutiko batek Alaren Ordez-kariaren aurka burua jasotea? Seinale hau nonbait zeruko eta lur-reko beste harrigarriekin bateratsu etorri danez, hainbat susmogarriago oraindino. Bartzelona eta Leoneko erreketak be inpernuko suaren hasikinak izan zoazen bere egunean eta orduko turuta entzun genduan: *Heldu jatxue, heldu, belarrietara zeruak dana inguratuko dauen egun haren barria? Orduantxe bai apal agertuko dirala gizakien arpegiak, suaren erresuminaz nekatu eta hirurogetamar besaerdiko kataiez loturik, oinazetu, iturri irakinetan edan eta, janaritzat barriz, arantzea eta kondenatuen zornea baino besterik izango ez dauela... Alagan sinistu ez ebelako.*

Eta halako seinaleetatik Ala bihotzbera eta errukitsuaren aserre-ordua iragarten joan: *Benetan dirautsuet hur dagoela zigorra. Orduan ezagutuko dauz bakoitzak bere egitadak, eta sinisgalduek "balinba Alak sortu izan ez banindu!" esateraino larrituko dira...*

Alan eta be, nik ez najoan izar ihesirik edo lur-ikararrik somatu. Horretan, zer esanik ez, eurak nik baino susno hobekoak dozak edo ni lo astunagokoa. Dana dala, izar ihesiek eta lurrikarrek baino sarrakio handiagoa sartuazo jotsat Kordobaren biho-

tzari Almantzurrek Hixen Kalifeari bidaldu dautson esku-erakutsiak. Zerk eta Abd Allah bere semearen buruak... Kalifeak Alkazar aurreko urkagian eskegiatzen jok, herriak ondo ikusi ahal daian eta Alaren benetako epaia hasi dala konturatu daiten. Eta kordobarrek begiezen ikusten ebena ezin sinisturik dagozela, orduan eta indartsuago imanak: "Alak bere esku-indar dan semeari parkatu ez badautso, zelan parkatuko dautse bere bideetan ez dabiltzanei?..."

Auzi honetan buru batek baino gehiagotxok jausi behar dauela jinoek imanok, ez ziur, Ala bihotzbera eta errukitsuaren izenean, bada beratasunok gogortasun bihurtzen ei jakozak sinibakoekin. Izan be, Antikristoaren barri dakien kristinauek izan ei dozak, Anti-Kalifa bihurri hori sortarazo eta sustatu dauenak eta halako amarruak halako zigorra merezi ei jok. *Oi nor lekuskezan sinigabeok* —amaitzen zoan zemaia— *dagoneko izuak bartuta eta gainera datorkien zigorra ezin itzuririk...*

Ez egik ba uste, lehengusu, Kalifa-Orde-semearen gain egundoko zartateakoa emonaz beste barik, baretuko dala Alaren aserrea..."

"JAUN INKO JAUNAREN ETA ANDRE DONA MARIAREN IZENEAN, NIK, MARTIN BELASKO, JAUN DONE MILIAKO ABATEAK, DON GARTZIA, ARMENDIKO ESPISKOPU SAGARATU BARRIARI JESUKRISTO GURE JAUNAREN BAKEA ETA GRAZIA.

Bere Ebangelioko milagarrenaren urtemugan gagozela, eta halako gertakariak askorentzat Azken Juizioaren seinaleztat hartzen direlarik, Gaztelatik etorri jakun negargarriak berak txunditu gaitu, ene jaun. Negarra eguneroko edari mingotz eta heriotza eguneroko zigor izango dozu nonbait guda-muga larri haretan, baina Belostako Espiskopu izendatu zenetik eta hona, Gaztelako gudan zaurituen nekeak eta herio-aginean diharduenen gogoak olio santuz gozatu eta indartzera, lehenengoz joan

zen Don Munio gure Espiskopua, nork uste behar eutsun, berak sendaturiko gorputz eta arimen artean, heriotza aurkitu behar ebalatzen? Bedeinkatuak bediz Jaun Inko gure Jaunaren asmo eta erabagi eskutuak, eta bedeinkatua bera, halako lazkeriagaz batera, Armendi Sederako zeure hautapen-barri pozgarria jakin izan dogunez gero.

Don Munio gogoangarriaren heriotzari buruz ez dot esateko besterik Jakituariaren *praetiosa in conspectu Domini mors sanctorum ejus* harakoa baino, sinisgabeen eskuz eraila, Kristo gure Jaunaren martiri-santzutan joan bai-jaku. *Dominus dedit, Dominus abstulit.*

Armendi baketsua itzi barik, baina Belostako Sedearen jabe-goa hartzera joan zenean, ba geuntsun gure Don Munio zenaren ardurarik eta areago, lehengo Aukako Sede baido beherago, guda-mugako eleiztarrak ikustatzera joan zenean. Baina makulua eskuetan hartu dauenari dagoko artzaintza, baita artaldea deslaitu den tokirik malkortsuenean denean ere. Eta nork eukatsun Episkopuaren laguntza-behar handiagorik, egunero hilarriskuan bizi diren guda-mugako harekek baino? Han sarritan falta ohi da gaisoen osasunerako eta hilen parkamenerako olio santua, Espiskopuak bakarrik sagaratu eta gertatu daikena. Hara ba non, olio santuaz gurutzeta eginez indartzen eta itxaropena argitzen ihardutsun Kristo gure Jaunaren gudaria, beste edozein ezpataduntzat hartu eta sinisgabeen eskuetan jausi den. Soinean ezpatarik ezean ere, sinigabe hareek gudarien ornitzaile-edo jo egiketsuen eta beraz hilgarri emon, baina burua sinistedun eta bizia Kristo gure Jaunari berebiziko eskeinia aitortzen dauetsuen hortiko monxe batzuk ez dakitsut, mesede aitzakian, bizia besteko den ohorea kendu nahi dautsoen, Don Munio Episkopua, beste barik, sinisgabeen kontrako gurutzadan hil dala esatean, armazko gurutzada-aldarrikatzaile eta eragile bailitzan. Arpegira jaurti neuntseen, ene jaun, halako bihurrikeria eta osteria ere salatu egingo dot, Don Munio martiriari baino, martirien

Martiri den Kristo gure Jaun berari eginiko iraina. Ala Kristo gure Jaunak sua edo ezpatea eskatu eutsun, ene jaun, samariar hareen aurka?

Esamesok direla-ta, gutun hau egitera lehiatu nozu, bada Apezgoz haren menpeko izan ezarren, eritsikide oso ginduzuzan Ebangelioren misinotzan eta arimen artzaintzan eta hango eta hemendiko askotxok baino hobeto ezagutzen neuntsun Jaunaren serbitzaria, azken baten *vitam pro ovibus meis do* dinon Artzain onaren antzera, berekaitik bizia emon dautsu-ta. Artzain onari dagokio ardien alde bizia emotea. Artzain ona barik, eskupeko zabarraren morroi izan balitz, otsoa etorten ikustean, alde egingo eutsun, artaldea bertanbehera itzita. Ezin egiken baina hutsik gure Don Muniok halako erronkan. Gurutzadea eroatzun, nahi badozu, baina ez asmo bihurriko mihingainak aditzen emon gura dauenalakoa, ez sinigabeen edo mahometen kontrako armazkoa, arerio zaharrago eta maltzurragoaren aurkakoa baino. Ez gorputza hil eta gainerakorik ezin dagikenaren aurka, arimea betiko sutara jaurti egiken etsipen-deabruaren aurka baino.

Bide onetik dakitsut, ene jaun, lenengo eta behin Don Munio gureak, Dorio alderako osterea gudaldian barik, neguteko bakealdian egitea erabagi eutsuna. Beraz, ezpatea barik, gurutzeta eroatzuna, aserrea barik, Kristo gure Jaunaren ihurtzi leuna. Bake-unea, gero norbaiten erruz eraso bihurtu zela? Gaztelarrekin jakingo daue zergaitik. Gaztelako jaun konteak mairuaren seme jasartuari babesa emon eutsola-ta, hain zuzen. Eta hara nondik, ene jaun, arerioen sarrada haretan Don Munio han gertatzea eta euskaldunon Artzaina gaztelarren Episkopu lez jausitea. Guda-mugan edo handik ez urrun, jausi denez, munduko eroekin batean ehortzi dautsue Okinako monastegian, Gaztelako buruzagien ondoan, Armendira, edo gitxienez Belostara ekarri beharrean.

Argi dagotzu, ene jaun, heriotzan halako ohorea emon gura izan dautsoenak eurak izan direna, Kristoren martiri-ohorea ere kendu gurako leutsoenak *abissus abissum invocat* ohi denez, munduko eroeen eta kristau martirien gogakera eta misinoak nahastaketan datozelarik. “Egoki zenduen alkarrekin heriotzaraino burrukatu ebenak alkarrekin atsedentzea” ihardetsi eus-teen, baina nik ez amorremon, ene jaun. Halako esakera politen asmatzaileari, Jaunak parkatu begio, ez dautsot opa atsedetik, erratua aitortu daino.

Arrazoirik ezarren, Don Munio gure Espikopua zenaren gorpua daukatsue gaztelarrek, ene jaun; “martiria geurea da” dintsue gainera, baina bere hitza eta urteetako artzaintza, bere go-
goa arabarrok geutar izan gendunok, ba dogu haretaz zeresanik. Bizitzan geure gidari izan zena heriotzean ere geugaz eukitea gurako gendun, hako *qui vivens sapientia fulgebat, etiam mortuus nitet* harakoa geure onerako beragan bete eiten...”

“...BIZKAIKO ELGORRIORA HELDU GARA. MENDI-IBARRETIKO bideak nora-nahi gure aurrean: Betsaide, guk ekarri doguna, Akantzar, Ergata, Iberrika eta Abadianoko bideak. Guk berau hartu gendun, Elgorrio errekeari jarraiki. Zer dela-ta erdal izen hau? Deva aldeko beste Elgoibartik bereiztearren? Etxebarrian, San Agustineko monjeek ezetz esan euskuen, *Elgorrio* euskal izena dela eta *nekebidea*-edo zela. Dena dela, Elgorrio ez zan izan guretzat besteek baino elorrioago eta eskerrak monjeek gonbidatu euskuen, alderdi honetako monastegien barri jaso izan ahal geuntsun. “Hemendik eta Arandiara, legua gitxitan, ba dagoz ia dozenerdi monastegi” esan euskun Abateak. San Agustineko hau kanonikoa dozu eta, erreka-buruan dagonaz landa, gainerako guztien espilu egiten dozu kanona jarraitzen dauenen artean. Bada, erdi-kanoniko edo erdi sekular egiten diren monastegiak ere badagotzuz. Honeek buru bikotzak dozuz: batak espirituzko gauzetan gidatzen dautzu eta besteak ekonomiazko-

etan. Ekonomiaren buru den abatea eta bereak, laborantza edo industria-lanari lotuago ekitearren, koru-lanetik aske dagotzuz. Monagadu-eredu hau ez dakitsut nondikoa den. Ohiko lur-ja-been eta oraingo jauntxoan ondo-seme abadetuen bizibideari erantzuteko asmatua dirudi. Horra ba erdi eleizako eta erdi herriko jaunen menpeko eginak, gure *ora et labora* bateratsua bitan banantzen dautsuela. Hagaitik erdizka banantzen dautsuez ondasun denak euren eta *Ofitium Divinum* daroenen artean, batzuk, latinetan zerbait ulertuak direnek, herriaren alde otoitz dagiela, besteek, letretan baino eskulanetan trebatuago direnek, laborantza eta gainerako lanetan herria eskolatzekotan.

Uruna ehioteko *bolu* deitu-errotak daukeez, ahorraldietarako antepara eta guzti, baina batez ere, totxoa lantzeko burdinolak. Eurek eginiko laia, aitzur, golde-mutur eta beste lanabes txikiagoak erabili eta saltzen dautsuez. Kontu egizu, ene maisu, hemen auzuneak berak ere abategiaren izena daroatsula: San Pedro, San Torquato edo Salvatore. Batzuk sorreraz, Armendiko ordena-edo daukenarren, urteak dira Apezgotik aske egin zirela. Ez da harritzeko bestalde, Apezgoaren lehentasunak etxean barik, auzoan, Belostan edo Gaztelan ez esatearren, dagozanez gero, euren buruen ardurea hartzea. Hagaitik eta neure ustez, latinen zurtzaduragaitik, batez ere, baztertuago dirudienarren, sormenean aberatz begitantzen jataz...

Urrengo goizean Gerediagako Salvatore gintzazan. Batza-
rren ermitara jo geuntsun. Ibarraldearen zabalune nausian bider-
dira urtetan dauen muinoan dagotzu, beheinbehinezko begirato-
kian, batzarkideek norabidea begiztatu ahal izateko eran. Hareit-
zak, gurutzeak eta jesarlekuak Arriagako ber-bera gogoratu
eusteen. Baina hau ez dozu Bizkai osorako batzartokia, ha Ara-
bakoa denez, eskualde edo ibarralde honetakoxea baino. Izan
ere, ibarralde sakona edo mendateen hesiagaitik, Bizkaiko ba-
tzargoak edo lurdiak eurak ez daukatsue Arabako ordekek egin-
ten dauen batasunik. Bideen gurutza berau ere, bata, Okize

menditik zehar Arzena-Arrutiara joala jakin geuntsun. Mendira begitu, eta Josepen artaldeak haren magalean larratzen eban artean, zangoak zaulitu eta begiradea astintzea erabagi geuntsun bertako artzain-mutil baten laguntzaz. Bide erdian, Andikonako Andre Maria, ikuspegia zabaltzen eta begiradea-nausitzen den une-unean, bidazti eta artzainek Jaun Inko eta bere Amagazkoa egiteko aukeratua. Ermitea iruditxo eta guztikoa, atea ideki barik ere, zurezko saretik ikusteko eratan. Bere aurrean belaunikaturik, eskerrak emon geuntsozan Andre Mariari, bere misionari-pausoen duin egiten ginduzalako. Behin etorri eta bertan egokitu eutsun, esateko, egoitzetariko bat. Ermitea berez, jesarleku apala den bestean, bai tronu jagia eta ama-arduretarako ikuspegi argia. Aurrez aurre urrunean Anboto eta beste harkaitz astinduen lerroa, Mari jeinuaren ohiko bizitokia, edur txano eta guzti dagoneko eta bien artean edurrak neguan ere ostaz ikutzen dauen ibarraldeko larre ziuerra. Harro dagoke Mari jeinua, inongo artzainek zapaltzen ausartuko ez litzaken koba-zuloan, harro baizen bakarti, Andikonako Andre Maria apal eta bere seme-alabez lagunduta dagon artean. Harritzekoa ere badozu, ene maisu, irudipenezko jeinuari artzainek egoitzik egin ez dautsoelarik, Jaun Inko Semearen Amari, haren begi-begien aurrean euren eskuz hainbeste ermita jasotea. Horren baztertu, euki ere, eukiko ebazan hanartean Mari jeinuaren amordetasunak. Andre Mariak ostera, berak Jaun Inko Semea besartean gordeten dakian arduraz, fedez bere sendiko eta arduren partekide egiten gaitu, harako harkaitzen eta hodeien hesia guregan gaudituz...

Beste ordu t'erdiko bidean gora jo eta Okize gainean gengozan. Haxe gure begien ikuskizuna. 'Itxasoa', itxasoa zela esaten euskun artzain-mutilak han urrunean ikusten zena, baina guk zer genkitsun itsasoaz? Ganduagaitik ez zela ondo ikusten, baina urdin bizi agertzen zela hegoaizetetan. Guk zeru arrea galitzen zen azken islada lez genkusan eta harako gogoa gordintzen jakun Errodrigo eta biori. Haxe, lurak itxasoa esteguetara gon-

bidatzen eutsun una zendun, izan ere, gure misinoaren jomugea.

Begiradea jaso eta hurrago, Okize pean non ikusten dogun Arzena Arrutiko Andre Mariaren monastegia. Ormak eta teilatua, esateko. Laiotzeko edur gogortuak harako bidea eragotzi ez baleuskun, eta geure nekea dagoneko nabaria izan, osteratxoa egingo geuntson. Gauzea hurrengo baterako itzi eta Okize itzi gendun...

Domeka goizean Amatiako Done Martinen, Igorretan, izan gintxatzuzan eta hara non, ostera ere, Andre Mariagaz topo egiten dogun. Abategitik nahiko hurbil, Amatiako Andre Mariaren ermitatxoa dago. "Hauze izena" ninon neure artean. Jaun Inkoaren Amari egozteko berebiziko izena eritsi neuntson. Mezea esan eta eskerrak emon neuntsezan han batu zen taldetxoari eta herri guztiari Andre Mariari harrera ona egin eutselako. "Eskekoa baizen behartsu eta lehorrik bako erromes ikusiko zenduen eta besoetan ekarran Umetxoa, ausaz Jaun Inko-Semea zela jakin barik, ostatua emon zeuntsoen eta ermitatxo hau eregi zeuon artean gelditu eiten. Inondiko jeinu lez, trumoiaren harroaz ekaitzetan eta oinestuaren tximistaz etorten ikusi izan bazendue, bildurrarren-edo, ez zeuntsoen ziur ermitarik jasoko, halakoa-gandik bai ihes egingo, baina edozein ama baten antzera eta zeuon seme-arpegiko umedun eta beharrizanen partekide ikustean, erruki izan zenduezan ama-semeak. Eta horra zuen errukia berak zerutiko sinismenez saritu dautsuen".


Izan ere holantxe ikusten dautsut, ene maisu, gure Andre Maria, Euskal Herriko tokirik bazterrenak bisitatzen eta Elisabeth lehengusina bisitatu ebaneko *ecce beatam me dicent omnes generationes* harakoa dagoneko hemen ere bete doana ziurtatzen dautsut.

Gure asaben irudimeneko Mari jeinu emeagan irrika eta erabat bildur izan ebenagandik lortu ez ebena, ez genduna, Jaun Inko Jaunaren Amagan lortua ikusten dogu-ta..."

"...ARMENDIN ZURE AURRETIKO IZAN GENDUN DON MUNIO episkopuaren aurka sartu izan diren ziriak bere eragina izan dautsue zoritxarrez, ene jaun, Naiaran bertan aurtengo ihaute-rian. Begiez ikusi dauenek esan dauste, Episkopu jantzitan eta Don Bildurrena egiten nor eta Don Munio gogoangariaren mo-zorroa. Ez eitekela beste inor izan jazorikoen hurtasun eta gai-nerako seinaleekatik. Gorriz jantzita, episkopu-tunturro eta guz-tiko Don Bildur, zalditik jaustear, Herioren ihesi..."

Hara bada, ene jaun, mahometar sinigabeek kendu ez eikio-ena sinistedunek kentzen lehiatu jakozan. Mahometek bizia kendu dautsoe, gaztelarrek dinoenez, baina kristinauok ospea eta ohorea kentzen dautsoe. Hareek ez eben izan errukirik, ho-neek ez dabe pietaterik. Guzurraren guraso den deabruak ere, ezer gitxi dautsu berea egiteko halakoez. Kristinauen bidez egi-ten badautsu, hainbat hobe bere asmoetarako. Eta horra guzu-rraren arpegi itxusiena: ezpataz eraila izan den Kristo gure Jau-naren martiria bera armatu eta ezpateaz korainadunaren aurka ezinak egiten, Naiarako irrigarrian agertu denez. Ondo ezagu-tzen eben arabarrek ez eben holakorik asmatuko, baina askok gitxietsi eta ezinikusia eutsoen batzuk ez daue irainerako unerik galdu geure Apezgoaren Sede-urian bertan.

Bizitzan gurutzaren indarra aldarrikatu ezeze, gurutzza bera baino beste ikurrik paparrean eroan ez ebana, mahomet zoron-godun Herio ezpataz eraso nahiez eta ezinik. Zer adierazi gura dautsue horrelan? Don Munio Beilaz armatan baldartto zela? Bar-din Dabid morroia Saulen armaduratan Goliaten aurrean. Dabid morroiari ez egokiola gudarien armarik eta are gitxiago Don Munio Jesukristoren artzain sagaratuari Gaztelako kontearen ez-



patarik. Don Munio ez zendun armatan trebatua, gaztetandik Done Miliako eskolan liburu santu eta eleizako gurasoen irakaspenetan ikasia baino. Armatan baldarra eta ezjakina zela esatea bestalde, Jesukristo gure Jaunaren edozein apostolurentzat ohoregarria baino ez dozu, ene jaun. Zertan datoz bada izekok Don Muniogan harako Boanerjes berantiarra-edo egin-asmoz izan ezik eta haren odol-heriotzaz lehendik ere nahiko minduta gagozanok bermintzera baino? Geure barrenak minduazo eta, okerrago dena, aineninoen bihurrikeriaz, eurek nahi leukeen indar-gurutzaidea bultzatzera...

Orain bada, hurretik ezagutu dogun Kristogan anaia eta artzainaren aldeko gure kristau-lekukotasuna onartzen ez badaue, gizabidezko jaku euskaldunon berbea gaineratzea, nahiz eta erromantzatu askok, burueritsi direnagaitik, ulertuko ez dauen...

Ondo dakizunez, euskaldun anaiok ondo eroan dogu alkar Done Miliako monastegi honetan, nahiz eta euskalki eta gizarte-une ezbardinetatik, otxerritar edo arabar edo napar izan. Izan ere, lurreko arazoa beste gure anaiei itzi eta Ebangelioarena hartu geuntsun geure asmotan eta horrek batzen gaitu gure arteko gorabeheren gaintik, bakoitzaren herrialdean nausi den politikatik, esate baterako. Batzuk jaun kontearen aburutik edo errege jaunaren erabagitik egina onartzen dautsuela herrigintza eta ez herritarren ahotik erabagia, Araban ohi izan denez. Hango Batzarre Txikietan edo Batzarre Nagusian egiten zena, bada, zoritxarrez ezin geinke esan une honetan egiten denik, ez dautsue batzuk sinistu ere egingo eta besteak joaneko ohitura galtzat emongo, ez hobetzat edozelan ere, erdaldunek bereberki. Euskaldunok herrigintza hoberik-edo dogula amoremoteko onak dagotzuz eurak. Don Munio Beilaz, Armendiko Episkopu zenak ostera, ondo ekitsuzan, ene jaun, Arabako herriaren ohiturok. Araba guztia lekuko, bera ez zendun behein ere sartu Arriagako Batzarretan eta inoiz batzarkideei mezea esaten joanarren, mezea amaitu baizen laster, batzarretik alde egingo eutsun, herri-

hautatuek askatasun handiagoz berera erabagi ahal egien. Horrek ez dautsu esan nahi, ene jaun, herri-batzarrekoak ez eutsuzala arduratan edo eleizako ekintzak ez eukatsula herrikoekaz zerikusirik, bakoitza bere arazoan buru eta erantzule zela baino, Apostoluak dinonez, Jaun Inko Jaunak batzuk predikari, besteak igarle, harakoak arima-zain eta haragokoak ondasunen ardura-dun izateko dohaiak banandu dauzelako, etxeko lana ondo bantzen dakian halako ugazabatasunez, egin ere. *Haec autem omnia operatur unus atque idem Spiritus, dividens singulis prout vult.* Eta horrela, episkopuek ez daukee zertan igarletzan ihardun eta areago herri-hautatuen zereginetan...

Armenditik Arriagara ez dagotzuz mila pauso baino asko gehiago, baina ze egokia deritsodan halako urruntasunari, bakoitza bere arazoan buru dela aditzen emoteko. Beste hainbeste pauso egotea nahi neunke, ene jaun, gainerako Apezgo eta jaun-en eta erregeen jauregietatik. Horrela erraz ulertuko leukeen behenipehin Don Munio Beilaz Armendiko Espikopuak, epikopuarenak egingo eutsuzala bardin Doroko guda-mugean eta ez Gaztelako kontearen gudariarenak eta maizeatzaileek ez leukien halako baldreskeriarik burutara ere ekarriko. Baina esan dautsudan euskaldun berba, ene jaun: herri bakoitzak bere adineko herrigintza eta hesikera daukatsu eta kristinau izateak bakarrik, ez eta euskaldun izateak, ez gaitu halako ezulertzetatik berez jaragiten. Besteen izakera ez ezagutu edo ez onartzetik halako epaiak sortzen dira gero.

Ba dakitsut, ene jaun, batzarre biak, bai Armedikoa eta bai Arriagakoa, kristau herri beraren adarrak dozuzana eta biak ere gurutzaren aurrean emoten direna. Kristo gure Jaunaren gurutza izan dozu azken baten zeruko eta lurreko batzarre biek bat egin dautsuna eta areago muga guztien gaintik herri bat egiten dihardutsuna.

Don Munio Beilaz gurutze horren aldekoa zendun, ene jaun; ba ekitsun gurutze horren indarra Kristo beraren Nekaldian egotzuna, bere bizi era heriotzeaz, *Aitaren kaliza ez ete dot edan behar?*, erakusten dauskunez. Ba daiteke gure Episkopu zenaren maizeatzaileek eurek gurutzearen eta ezpatearen eragina behar den beste ez bereiztea. Ausaz bisigotarren ohiko politika nastutik hurrago dagotzuz, euskaldunonetik baino, edo bardintsu dena, euren gurasoek urte larregitan mahometen menpean egonak direnez, ez dautsue osokiro lortu Jaun Inko Jaunaren seme-alaben askatasun-espirtua. Ea bereizten dakien lehenengo eta behin Bibliako eta Alkorameko espirtua, ea Biblian bertan nor den Itun Zaharreko Jaun Inko Jauna eta Ebangelioko Kristo gure Jaunaren Aita. Eskola honetan aurreratuak diren bes-tean ulertu al izango dautsuez eleiz-batzarrak Mezkitako batzarretatik.

Mezkitean kristinauen kontrako gudu santua aldarrikatu dela eta beste barik, ez dautsue, esate baterako, eleizan mahometei erantzuteko guda armatua aldarrikatuko. Holakorik egitea, Ebangelioko espirtutik barik, Alkorameko letratik ikasiak izango litzakezelako edo, goren jota, Itun Zaharreko Makabeotarren Liburutik.

Don Munio, gure Espikopua, ez zendun Liburu Santuak atzekoz aurrera irakurten eutsuenetarikoa. Euren gurutzada-asmoak zuritu beharrez dabilzenak dozuz Liburu Santuak horrela irakurten dautsuezanak eta Josuen Liburuan edo Deuteronomioan Jaunak Moiseri esanak euren jokabidearen eredutzat hartzen dautsuezanak, euren apaizgoa munduko erregeen oliaduratik barik, Kristo gure Jaunaren odoletikoa dela konturatu gabe. Eurek nonbait, Dabidek lez, gudarosteak gidatu edo oldartu gurako dautsuez arerioen zuntzitzerako, eleizgizonoi oster, episkopua aurrelari dela, eleiztarrak Ebangelioko larrera gidatzea dagokigula eta, beharrezkoa balitz, Artzain Onaren antzera, ardien

alde bizia emotea, Don Munio gure Episkopu beneragarriak egin dauan bezala...”

...*JAZOAK JAZO, ALAREN BAIMENAZ JAZO DA* JINOK IMANEK irakurten dauen liburuak. Ezbeharrak handienak be Alaren esku-tik etorriak lez hartu behar direla erakusten joek eta nik ezbai-tan ipinten joat gauzea, batez be gure Espikopu Don Muniori jasoa ikusita. Ez nok neu “zer egingo jako, ba, Jaun Inko gure Jaunaren borondatea halan bada” esanez, gure Otxanda lez, ba-retzen direnetarikoa eta gitxiago imanak dinonez, *zuek barik, Ala izan da sinigabeak ondatu dauzana; zuek barik, Ala gezia jaurtin dauena*. A bai? Eta Abd Allahri burua moztu dautsona? Eta Don Belari Arabako jaunerria eskutik kendu eutsona? Ez dot halakorik jasango, batez be gizakien asmo txarrak Jaun Inko gu-re Jaunaren borondate-aurkakoak direla argi ikustean.

Almantzurri ondo be ondo etorri jakok imanak irakurria Abd Allah bere semearen heriotz zigorra herriaren aurrean zuri-katu eta bere kontzientziaren nasaipiderako. Horrela, ezelako ezbai gabe, Kalifagoak Alaren ohorea zaintzen deuk eta Alak Kalifagoarena. Neuk be ziur jakiat Almantzurrek ez dauena Abd Allah semea amorrugarren heriotzera eroan, Kordobako jasargoa-ren azpi-sugeei beragan burua moztarren baino. Baina Gaztela-ko Gartzzi Fernadez konte kristinauak, ez dinoat bere eskuz, be-re arteziaz baino, noren izenean lerratuazo jok gure Don Munio Episkopua heriotzara?

Kordoban aita zelokortsuak, Kalifagoko batasunarren, Abd Allah sakrifikatzen dauen artean, Gartzzi Fernandezek Gaztelan arimen zeloaren aitzakian eta ustezko bake-aldia uztiatuz, gure Don Munioari arriskuaren aho-ahora deitzen jautsok eta larrie-nean bertanbehera izten... Horretarako ez joat Dabid erregearen pekatua aitatu beharrik. Azeri zahar hori Don Ramiro errege

zenduenaren heriotzean hurragotik ikusi izan ez banenduan, ez nenduan susmotan hartuko.

Orain bada, Almantzurrek agiriko asmoz eta egitez bete joan semeagazko herio-epaia, azagari horrek ostera, isil-asmoz eta inoren eskuz eroan joan azagarikeria, mahometak ezeze, neu be errudun egiten nauela arabarren aurrean. Argi diakusak, lehengusu, bere amarrua: “Zelan gura dozue zeuon jauntzat Don Belalako sinisgaldua, moroekin bat eginik, bere episkopua erail dauena?”

Belostara deitu eutsonetik eta hara, sarea ehunten ebilaan azagaria halakoa, bada, guda-mugan edozein une dok heriotz-ordu, batez ere, erailak barrutik dagozela.

Eta ez hori bakarrik. Golpe bataz txori bi jo jozak lupuak halakoak: Arabako konte Don Belaren izena dezohoratu eta erailketaren handiagaitik, kristinau herria, Araba bera artean dala, gurutzadara bultzatu. Ez nok neu errege eta jaun kristinauei horretarako eskubidea ukatzeko inor, baina amarruak ez dozak mahometek eurak be ontzat emongo leukeezenak.

Ez joat uste, lehengusu, gutarrak halako zirian jausiko direnik, batez be, gauzea Gaztelatik datorrela oharturik, baina hik ba dakik zer erantzun ez baitan legokezenei. Aurretiz ez konturatzeta halatan Arabako jaunerria neuri kendu eustanaren semeak, gaurdaino halako trabak ipiniko eustazala. Halako azagariagandik halako azagari-kumea.

Eta gauzea halan dala, lehengusu, zelan aurkestu nagikek Armendiko Episkopu barriaren goraintzira? Heuk ikusiko dok. Espikopu barria “Don Gartzia” izenetik juzgatzen hasiez gero, susmogarri be egiten jatak. Izena pontekoa ala sagaratze barrikoa den jakin gura neunkek, ea Gaztelako Don Gartzia, ala Nafarroako Don Gartzia printzeren omenetan, ala berezkoa den. Esaistak bestela zein monastegitikoa den eta nortzuk aurreratua

eta bardin izango dok. Dana dala, gurago neunkek Armendi Sedeko arazoei, Beslostakoei baino lotuago ikustea.

Arabako Konterria eskuratzeko ahaleginetan urteetan diharduen eta lorpena inoiz baino eskurago ikusten dauen, Don Belaren izena Don Gartzia Armendiko Episkopu barriari aurkezteko duin ikusten ez badok, esan eikiok gitxienez, Don Munio gure Espikopua jausi zan Gormazko azken zarraparran ez nintzala ni ez nire semetariko bata be egon. Egon izan banintsoan, ez zela halako erraturik jazoko gure gudarien artean. Esan eikiok Gaztelako etoiak baino hobeto jagongo gendula, geuri arduratzen euskunagaitik bakarrik izatekotan be. Bardin esan eikiok Almantzurrek eta haren gudariak Arabatik zehar Iruinean sartzeko, ez dauela behar nire baimenik eta sartu be ez zala egingo, Gaztelako konteak Abd Allah ihesiari babesik emon izan ez baleutso...”

“...ZERGAITIK DINOSTAZUE “ASUREN SEME, ASURI, ITZI EGI-zuz azken juiziorako iragarkizunak eta aldarrika eizu geugaz Antikristoaren aurkako gudea?” Ba dakitsuet, jakin, Azken Juizio aurretik Jesukristo gure Jaunaren arerio gaizto hori sortuko dana eta Jesukristo gure Jaunaren jarraitzaileok elorrio-bidetik eroango gaituna, gure zintzotasuna, sutan urrea lez, aztertua izan daino. Baina, egia esan, harritu egiten nau zuen burruka-ganorak, bada ezpataz, buru-oskolez eta babeskiz zakuset, Antikristoia ezpataz edo zuen besoen indarrez porrokatu leikelakotan eta ez Kristo gure Jaunaren Espirituaren aho biko ezpateaz. Norenak dozuez, izan be, babeski horrein seinu eta jabegoa? Jakizue lehengo eta behin, aitaren gaztelua itzi nebanetik eta hona, ez nagola inongo jaun edo erregeren serbitzan, Jesukristo gure Jaun eta erregeen Erregearenean baino eta haren Ebangelioa dodala nik arlo eta ahalegin bakar. Ez ete dautsozue inoiz berari entzun *goldea hartu eta atzera begiratzen dauena ez da nire duin* esaten? Bada zuetariko edozein kristinau da Jesukristo gure

Jaunaren gudari, lurreko edozein jaunena baino lehenago, eskuetan dozuezan iskiloak haren alorretako lanabesak izan ezarren. Zeuon Jaun eta Erregearen soloan bakean atxurran egiteko baino areago zakuset inorenak jorratu eta ezpataz iraultzeko amorrutan. Apostolu eta martiri deritse Jesukristo gure Jaunaren gudariei eta hona hemen gurutzea haren burrukako seinu bakarra...

Zuek aintzinako israeldarrak lez, Jaun Inko Jaunaren babesa gitxietsi eta sinigabeen antzera, herria goraltzeko buruzagia eskatzen dozue, Kristo Jaunaren Espiritukoak barik, Alarenak-edo bai-zintzazen. Kalifagoaren indar eta urre-disdirak lerrazo ete zaitue, "gure Jaun Inko Jauna ez ete da eurenaren bestekoa" dinozuela? "Alak mahometei buruzagi mendezina emon badautse, ez ete dausku gure Jaun Inko Jaunak, eskatuez gero, Almantzur baino buruzagi jaiogorik emongo, hako Goliaten kontra Dabid burutu ebanez?" Oi, bai, ene gudariok! Ez ete dakizue ausaz, Almantzur baino askozaz bikainagoa den buruzagia bidaldu euskuna Jaun Inko gure Jaunak bere Semeagan? Ala haren gurutza ezetsi eta ezpatari-mendezinen baten begira ete zagoze? Maitasunaren miraria behingoz ahaztu eta zeuon neurriko eroen baten indarrez lortuko dozuelakotan ete zagoze? Ez dakizue ze espirituko seme zareen be... Okerreko espilura begiratu orduko, Kristo gure Jaun eta Erregearen eredia ahaztu dozue, haren gurutzean barik, zeuon besoetako indarrean ustea ipinten dozuela. Zagoze erne, Kristoren gudariok. *Itzi egizuez ilunpetako ekin-tzak eta jantzi argiaren armak.*

Orain bada, arerioagazko bake-meniak apurtu eta, Antikristoaren aitzakian, herria gudura lerrazo gura dozuenok, kontu Jesukristo gure Jaunaren inpernutiko arerio hori arpegi bakarra baino gehiagokoa ez den eta itxurakeria barriz, gure Jaunaren arerio beheinena.

Kristo gure Jauna bera da mundua suaz juzgatzeraz datorren Epailera eta zuok, haren gudari etsiok, zeuon ezpataz ebatsi behar dozuela gizarteko erregeen eztabaidea? *Nire auzia ez da zuen auzia* dino Jaunak, ez nire ezpata zuen ezpata. Eta ze irabazi dozue gainera mundu guztia menperatzeaz, Jaun Inko-semeen gogoa galduez gero? Jakizue, bada, herriaren salbame-nerako ez jatsuela emon izan, ez eta emongo, Kristo gure Jauna baino beste Buruzagirik, ez eta bizien eta hilen epaikunderako, bera baino, beste Epailerik. Eta bildur zaree, oraindino ere, epaile motxen baten zemak direla-ta? Dardaka zagoze mahometen eupadak direla-ta? Almantzur hori, neuk dinotsuet, bere zaldi eta guzti, heriotzera doan gizaki ahula baino ez dana. Nor da ostera, herioa bera azpiratu eta bizirik aterako gaituen morroia, Kristo gure Jauna izan ezik? Nor da heriotzea bere heriotzaz porrokatu eta danon bizkunderako hilen artetik berbiztu den Buruzagia, bera baino...?"

*Zoriontsuak otzanak,
lurraren jabe izango dira-ta.*


(Mt. 5, 4)

“...DON SANTXOK, BERE ABARKA ETA GUZTI, BESTE KRISTAU errege eta jaunek baino diplomatiko finagoa urten jauskuk azkenean, lehengusu. Ezin geinkean gitxiagorik itxaron, izan be, hako Dona Todaren ilobeagandik. Ordezkariak alde batera itzi, eta hirurogetasak urteko halako agurea, ez jakuk ba Kordobaraino etorri? Onak diagozak Leongo erregea eta beste lurraldetako jauntxoek haren biderako. Ez diaukak, izan be, edonork alabea Kalifa-Ordekari guztiahaldunagaz ezkondata; ez horixe. Hagaitik, *Almantzur* izena entzutean, besteek bildurraren bildurraz dardar dagielarik, Don Abarkak “goazen gure suina ikustera” esan jok nasai asko eta Santxoinatik honaino zaldun etorri be.

Almantzurregaz burrukan sartu baino, beragaz itunbenak sinatu ez asko txarrago haren sasoian, hatarako Al Zaharako alfonbrak muinkatu behar izanarren. Bere okotzeko bizar zuriak hemen lurretik ikusi ei joezak eta buru galbarra Orienteko mezulariek baino be naka adeitsuagoak egiten... Non ikasi ete jok gure Abarkak halako zeremonialik edo Dona Todaren eskolea bizi ete dok, bizi, oraindino Iruinean, Dona Urrakaren mendeko gortean? Halabeharrez izango zoan, edo suinak Iruineako almeinei egin-bisita itzultzearren.

Don Abarkaren oinetakoak, gainerako janzkera lez, kristau erregearenak zoazen, baina ehuna Kordobatiko damaskoa ei zoan, gure Otxandak dinonez. Ze kutxa eta ze opari ekarri ete jautsok oraingoan Kalifa-Ordezkaritari Iruineako erregeak? Ze jostailu lobeari edo Gazkoinatiko uringi alaba kalifesiari? Suinaren aldetik harrera bikainagorik ezin itxaron leikean aitagarrebari egin dautsona baino: baltzez jantziriko gudari-lerroak hesia egiten jeutsoen alde bietatik Al Zahara-bidean, atanbore eta txirimiek festaren poza aldarrikatzen ebela. Eta hara non, jauregiko lorategira heltzean, Abd-al-Rhman, Santxuelo lobeak zaldun, bidera urteten dautson aitona beneragarriari. Uste dok, lehengusu, umea edo, dagoneko mutiko adindua, zalditik jatxi eta Iruineko aitona erregea besarkatzera-edo lehiatu zala? Bai zera! Kordobarrek zer esango be! Gauza bat dok, txo, ahaidegoa eta beste bat diplomazia. Bestela han egongo zoan Abda alabea, “zer esaten da?” umeari lotzak emoten. Baina Abda jauregiko errezel ostean, bada ezpadan. Don Abarka barriz, diplomaziari baino areago odol-mintsoari egokionez, zalditik jatxi eta bera joan zoan Santxuelogana, lobeia besarkatzeko lehiaz. Mutikoak zirkinik be ez zeremonialeko zaldian, aitona barriz, haren oinak laztandu eta belaunak muinkatzen jozan, herriak “ikusten dozue zenbat maite dauen?” esateraino. Mujaidinak ez diakiat, baina Kordobako emakumeak zoragarrituta itxi jozak Don Abarkaren bihozkadak, lehengusu.

Iruineko Don Santxo erregeak gero Al Zaharako tronu-aurrean belaunikatu egin behar izan ebela? Lurra jotera burua makurtu haren sasoiari Kalifa Ordezkaritarien aurrean? Edo bardin dana, “damu dot beste kristau errege eta handikiekin gudu-alkargoa egin izana” aitortu? Nik ez diakiat halako kalifesiaren hainbesteko gurasoak horren besterainoko garbitasunik emon behar ebanetz, baina zeremonialak eskatuz gero eta bekaina eta aserrea ez tizu beharrean egon, zergaitik ez? Gaiztaginen penitentzia beharrekoa izaten dok, ez hala?



Behar bada, gero aitagarreba-suinak banasean beste berbakera eta maite-ezaugarriak emongo eutsoezan alkarri eta, zer esanik be ez, Abda alaba eta Santxuelogazko senidetasuna ospatu ebenean. Baina zehaztasunok Otxanda gurearen burutasi-noak dozak edo serorategiko esamesak.

Dana dala, ez joat uste nire izena aitatu dauenik be. Behein behinezko itunbenak egiteko nigazkorik ez jakeek konbeni ez batari eta ez besteari, dala onerako edo txarrerako. Kalifearen babesekoa nazenez, ez dodala, Don Abarkak lez, hemen burua makurtu edo zerga-ordaindu beharrik. Ni mahometen *shariak* babesten niok, Iruineko erregea barriz behartzen. Halan eta be, ondo diakiat, ene lehengusu, neure onerako edo Arabako jaunerriaren onerako baino areago, Kalifa-Ordezkarriak bere obarien gatzetarako narabilena, neuk gurako neunken baino gehiago. Orain be, Don Abarkaren diplomazia ausarta dala-ta, euskaldu-negazko gudu orokorrean sartzea baino, bakeak, Arabarako be, hobeak direla-ta, ni urrezko kateetan... Edozelan be, Arabako gazteluak nire eskuetan baino, lehenago jausiko dozak Unkaskitilo eta Juberakoak Zaragotza eta Tutelako bailien eskuetan bake-itunbenon izenean. Aurrera pauso bi eta atzera pauso bat, horra diplomazia azkarrenaren ganorea..."

"GURE JENDEA, EDO HAIN GUREA EZ DENA, AZTORATUXE dabiltsu, ene jaun, Don Santxo, Jaun Inko gure Jaunak urte askotan gordeta errege dogunak, Kordobara egin dauskun osterea dela-ta. "Agurearen txaldankeria —dinoe gauzea azaletik baino ez dakusane—, kristau erregea izan eta horrela burua apaldu kristaudiaren etsai amorratuaren aurrean". Batzuk sakonago aztertuz, zera dinotsue:"aitona izatea zer den jakinez gero, ulertze-koa da, lobe-alabak ikusi-gurea". Nork uste behar eutsun, ene jaun, erregeak ere guraso eta aitona, eta beraz, odolaren menpeko izan eitekezenik..."

Gaitzerdi hori baino ez balitz, ene jaun, baina hortik hara doatzu eskoladun askok egiten dautsuen salapena: odolaren deia jarraitzearren, errege batek zelan saldu leiken kristaudi osoa. Nik maiz bakearren isilik entzuten dautset erdal monxeoi, baina bai erantzun ere batzutan.

"Beraz odolaren argalkeria hori ez dozue kristinauaren ganora, zuen ustez. Eta gudurako zuek agertzen dozuen odol beroa kristinauagoa ete dozue?"

Orduan zurtz eginik gelditzen jatzuz, baina ez niri edo kristautasunari arrazoirik emoten dautsoela gero. Behin norberanaz berotuez gero, ulertezinak egiten dira, izan ere, besteen erispideak.

Gure jaun erregearen zahartzaroa dela-ta, dagoneko erre-suma printzearen eskuetan itzi beharko leukela ezalakoan be, dinonik ba dagotzu, ene jaun. Eurak jakingo dautsue zergaitia. Deigun Don Santxo, daukan adinean, ez dagola gudu-zaldiketa askorako, baina halan eta ere, Kordobaraino joan dozu danon bakea lortzearren eta lortu ere egin dautsu. Zer beste mesede hoberik egin leikion erresumari eta kristaudi osoari? Edo eta beste nork egin leikion herriari berak egin dautson mesedea? Beste era batera esanda, nork besarkatu leikitsun arerioaren semea eta lastandu haren emaztea eta halatan arerioagazko bakeak egin? Orain bada, ene jaun, maizeatzaileon ustez, herriari bakea agindu eta eskeintzea, kristaudia saltzea bada, ondo goakez jakintsu edo jakintsu usteko batzuren aholkuagaz.

Ba dakitsut, ene jaun, kristaudia Iruinea eta Nafarroko erre-suma baino gehiago dena, Jaun Inko gure Jaunari eskerrak, baina Iruinea eta Nafarroako erregeak, kristau zintzo ezeze, beti ere kristaudiaren zaindari punterengo izan dozuz gaurdaino, bere odolaren gorrienean ere, zentzuna eta bihotza, zeren ukatu, ezarten jakin izan dautsuelako: hau da, guduketan gizon eta diplomazian eme jokatu izan dauelako. Harroputsok nonbait,

bestela jokatu, guduaren eme eta diplomazian gizon urten gura leukitsue. Toki onean! Bakea eta onuraren orde, gudua eta ka-teak, gosea eta negarra ekarten dautsuez gero beste erresumetan behin baino gehiagotan ikusi dogunez.

Ohorea aipatuko dautsue gero, euren kristautasunak beretik gehiagorako emoten ez dauenean: “alabak ohekidetzat, arerioari emotea, halako sinisgabe ankerrari hatan ere, bitxiak txarriai jaurtitea dala esango. Hori egin baino lehenago hil herriagaz batera.” Herria bai eroango leukeela heriotzera, euren buruak ez dakit... Zera bai ostera, *margaritak txarriei jaurtite* halakoaz Ebangelioa ez datorrela Kordobako Kalifagoa juzgatzen lehengo eta behin, eta edonogazko bake-asmoa bera dozula Ebangeliorako bitxirik ederrenetarikoa hurren. Horren arteziaz landurikoa, izan ere. Gitxik dauke horretarako eskolarik, ene jaun, eta Don Santxok baino ez alabarik eta bake-itunbenez alabea eskeintzeko beralako eskubide eta mailarik.

Bestalde, ohoreagaitik herria sakrifikatzea ez dala kristinauaren ganora, esan dautset. Kristok ez eutsula holakorik egingo, Kristok bere zeruko Aitaren ohorea bilatzen eutsulako, ez lurreko agintarientzat. Hagaitik, hain zuzen, Kristo gure Jauna bera joan zendun arerioen eskuetara, egia aitortu eta herria salbatzearen. Izan ere, gu arerioak gintzazala, Jaun Inko Jaunagazko gure bake-itunbena sinatu eutsun bere odol agurgarriaz. *Ipse est enim pax nostra, qui fecit utraque unum* Apostoluak dinonez. Orain bada, Kristo gure Jaunaren ganorea halakoa izanik, zer gitxiago egin legiken kristau errege batek arriskuan egoen herriaren alde, bere alabea arerioari ezkontzan emonaz, herri bien arteko bakeak egin baino?

Ohorearen izenean, bestelan egin izan baleu, bai izango zendula Kristo gure Jaunaren ukatzaile ezeze, erresumako diplomaziaren saltzaile.

Beste herrietako errege eta jauntxoek, beste aholkularien esanetara, bestelaz uste badaue ere, ezingo dautsue ukatu errege Don Santxoren zahartzaroko zuhurtzia. Edozelan ere, zergak astindu edo norbere aginte-mugak zabaltzearen, gudu-arriskuetan sartzen direnen jakinduria hobetzat badaukee, ez daitezela gero mindurikaz laguntza-eske etorri edo besteen bake-bideak halako bekaitzez epaitzen ihardun. Adinoneko kristinauak badira, jarrai dagiela Ebangelioko jakinduria. Nik beti aipatzen dautset harako gudalburuarena, gudu-aholku-eske eta halako ziriz jatordazenei: *Zein errege zentzudunek bamar milako gudu-taldeagaz urten leikio ebun milakoagaz aurka datorkonari? Ez ete dautso ostera, oraindino urrun dagola, beke-itunbenak egitera mandatariak bialduko?* Ba egizue beste hainbeste, Don Santxo, gure erregeak ere, horixe egin dautsu-eta. Mandatariak bialdu orde, bera joateaz, zuhurtzian eta ausardian irabasi dautsola hako errege zentzundunari.

Eleizgizonoi ez dagokigu bestalde, ene jaun, herriko batzarak erabagi beharreko estrategian sartzerik. Euren zera dozu muga eta zerga-arazoak. Guk nahiko izango dogu zuhurtzira deitu eta aurkakoak alkar maitatzea ezin denean, alkar errespetatzea lortzeaz behenipehin. Nire aholkua ez doa hortik hara. Ebangeliokoa eurentzat hartu eta kristau gudarien milakoak pilatuz, hamar milakora gehitzeaz ames egiten dauenekin ere ez nator. Ez naue holako kalkuloetan atzipetuko. Ebangelioaren araura, orduan ere bake-itunbenerako arrazoi gehiago egongo dira, beste ezertarako baino...”

“...JOSEPE GURE ARTZAINAK, ARTALDE ERDIA GOROMINO ibarrean itzi eban bere emazte eta semearen arduran, Kalandia aldean artaldea larratuala. “Gabonetan besigu erreteko alkartu gozak” esan eutsun mutilari eta gu Atxabal ibarrari jarraituz, Saratxotik Tutara jo geuntsun. Hantxe aurkitu gendun San Migeli eraikitako ermita bitxia, izenez eta egituraz ohieza bene-

tan. Harriz taiutua eta beste zurezkoak baino itxiagoa aurretik eta atarte bakoa. Barrura sartu eta absidean gudarosteen Goiangerua, aztamakilaz deabrua ezkitatzen dauela, gorrian margoztua dagertsu. *Tutako San Migel* deitzen dautsoe. Hain izen latindua- ren sustraiak bilatu gurean ingurumarira begiratzen neuntsun eta “ikusten dok —ninontson Errodrigori—. Oker ez baniagok, hire izeneko errege bisigotarren gudaroste-ondakinen bat hemendik Asturizarantz-edo igaroko zoan, mahometek itxasoraino bazertu ebezen harakoan.”

“— Honagino heldu zirela?” —zurtu jatan mutila.

“— Onenean be, igaro esan dauat, eta bertokoen baimenaz, jakina. Armagetu eta kristinau errukarri zirela ikustean, atsedena hartzeko unea emongo jeutsoen eta hareek oroigarritzat-edo, bizirik urten ebelako, Jaunaren Goiangeruari eskerrak emon edo laguntza eskatzearen, horko latinetan ikusten joadanez...”

San Migel Goiangeruaren irudiko burua uztaitzen dauen testoa ohartu neuntsun, ene maisu: *Sancte Michael, defende nos in proelio* dino otoitzak, Goiangeruak gaiztagin arerioari aztamakila ahotik sartzen dautsola. Ez daukatsu harekek Aralarko gurearen kutsurik ez izenean eta ez seinutan. Tokia, ibarraldea izanarren, benetan gordeleku egokia denik ezin uka. Atxabale ibaiak gerrikoa egiten dautso inguruan eta, horrezaz gainera, mendiak daukatsuz itxasaldetik eta itzelezko harkaitz erraldoiak hegotik, arerioen zalditeriari zirristurik ere lagatzen ez dautsola. Halako lurraldeagaitik esan eikitsuen *tuta* edo Goiangeruari ezpaere, *tutamen* eskatu, edo bitzuok batera. Gauzea erromatarren garaietaraino ez bialtzearren ninotson mutilari eta joan-gizaldietako zarraparren azalpenez. Horrela ulertzera etorri naiatzu gainera, ene maisu, Igorreta aurreko, ibai artean dagoen *Tudango* auzunearen izena ulertzera.

Atxabal ibai-bidea apurtu eta, Etxanotik zehar, eskumako mendirantza doan bideari ekinaz, Autzaganera jo gendun. *Autzagane?* —esan neuntsun neure artean.

Otxerritarrok *Otxagane* deituko geuntson...”

“— Otxatik urten eta Autzara gatozak” —esan neuntson Errodrigori mendateari begira.

Otxatik Autzaganerakoan bigarren astea betetzear generoan dagoneko, baina zaldiz egun pare baten egiteko bideak dozuz. Jende ber-bera bizi dozu han eta hemen, artean dagozan mendate eta zaldiketarako eragozpenak tokion izenak ere bardin ahozkatzetik urruntzen gaituela, adierazten neuntson mutilari.

“— Araba eta Bizkaiko jaun jatorra izan gura duenak mendion eta bideon izenak buruz jakin ezeze, bizitzan behin edo behin egin behar joazan, ez al dok?...”

“— Eta hau da Bosturiko bidea?” —Uzkurtu jatan mutila, itxaso-bideko azken aldapea gainditu gendula, artzainak esan euskunean.

“— Horren latza dirudik ala? —Barre egin neuntson—. Gogozko bideetan ez diagok aldaparik, txo...”

Neu nere misinoan, bera eztaietara baino, gogotsuago ninoala, uste dautsut, ene maisu. Atxurioren alabea aitatu eta mutilaren mandoketa-ganorea ikusi eta ezin astandu Erramelen alabea-gazkoa. Ea aurbeherako labanketak barik, bihotzeko tira-birak-edo ziren. Mandoak alde batera eta gogoak bestera egiten eutsolakoa emoten eutsola.

Autzaganetik behera, beheko autzan gengoan, eta hara non autza ‘Oka’ deitzen den dagoneko, autzari bakoitzak, berera edo nork jakin nongo jaun edo erregeren agindura edo ahozkerara, soinu aldatzeko eskubidea baileukan. Hortik leztxe, he-

men ere, ahozkerara eta muzturkera ezbardineko jendeek jau-rritu-etxak dirudie. Mendate eta trokarroari begira, ez dozu horren ikusgarria. Itxasorako ate txikia esateko, baina bakarra ei dozu legua askotan, Josepek inostanez, sarkeetoei ezusteko zapotzekoa emoteko berebizikoa. Errekastoa doa bertatik eta berak harkaitzari osturiko gurrupidea. Etxariari Errodrigoren nortasuna azaldu beharrik ez neuntsun izan, baina ikustekoa izan eitekizun haren begirunea, Don Belaren izena entzunez gero, Jaun Atxurio beraren jokerak ezagutzeko ez bide txarragoa, uga-zabak morroien izakeratik ezagutzekoak badira.

“— Auxe izango zoen jaun Atxuriok-eta zarraparretan erabilliko joen azken atrikulua hegotik edo bardin itxasotik etorkezen lapurren aurka” —eritsi neuntson tokiari.

Autzako sarrera-urteerako etxa bikoitz hareek horixe adierazten etozan. Handik nenzaguen Atxuriotarrek-eta aurreko gizaldian Arkoriaga aldean leondarren kontra lortu-garaipena eta halatan kontatzen neuntson Errodrigori. Don Atxurio ez zela edozein Bizkaiko jaunen artean, itxasoz eta lehorrez entzutetsua baino. Joaneko guda-ekintzok ez eben asko asaldatu mutila. Burrukea bihotz barreneko autzetan erabiltzun antza: zeineri atea idegi, zeineri itzi asmatu ezinik bailebilen edo eta itxasobide idegiari non gazteluak ipini.”

“...DABILENARI JAZO OHI JAKOK ETA BA EBILAN, IBILI, zuloz zulo azalaria alboko oilategien garatzetan eta bizi-esparrua zabaldu guraz, zabaldu guraz eta azkenean lakioan jausi dok, lehengusu. Lehenengo Oka mendietaraino, hantxe jeukaan harrixiloa, gero Arlantxon ibaitik Dorora, urak-edo erakarri etorran, ibai txikitik handira bezala. Harrixilo barriak Gormazen eta bere azagari-kumeak harrapakinetan trebatzeko sarrada barriak alboko oilategietan. Gormaz baina, ez zoen toki ziurra bere Don Estebe eta guzti. Ondotxo probatu genduan. Mendirik

ezean, azaltxoak etorkozan gordelekuak. Askoz trinkoagoak litzakiozan hareek Somoserra pareko hartzuloak. Don Ramiro, Naiara eta Bakirako erregea, galduazo eben Atientzako hako autzak ausaz... Eta ur handiak batera eta bestera igaroz, busti egin zoen azkenik azagari zaharra, busti edo bere mugen usnarena galdu. Bereetan ebilelakoan, lapurrak ohi legez, albokoe-tan ihardun. Non eta otsoaren barrutian. Otsoa topatzen jok, oratzen diautsek otso barrandariak eta bertan haginak zerura adi eta arimea ez diakiat norantz begira, luze itzi joan azagari zaharra. Ni gaurdaino neure lakioan jausiko zalakotan eta zera...

Entzungo hendun, lehengusu, Gaztelako kontearen heriotza. Ez niok asko poztu. Almantzurren barrandariak zehatu joek Don Bildur. Aurtengo ihauteriek ba diaukeek marroa Don Gartzzi Fernandezengan. Jai dagiela Araban eta Otxerri guztian eta itaundu daioela marroari: “Zeren bildur haz, Don Bildur? Zeren sarra-kioz, Don Herio?”

Jausi egin dok eta ez gero errege Don Ramiro eta Don Munio gure Episkopua zerura bidaldu ebazan mugatik urrun, bada mahometen eskuz eta bere erruz jausi zoazen biak be. Eta nere salapena hutsa izan badok, izango jok dagoneko goian sinistagarriagorik. Gurago neuaan hementxe bizirik ikustea. Narruaren uharragaitik-edo ez joen, antza, baitugarri preziatu hautatu, gudu idekian barik, mugako zarraparran izan dok-eta. Berak be ez jeutsaan ezaupiderako aukera handirik opa izan gure Don Munio Episkopuari...

Gaztelagazko gudu idegian izan bazoan, han egongo nintsoan ni ezbai barik, azalaria halakoa neure zaldiaren oinpetan ikusteko neunkan gogoaz. Eta etxeko atsedenean nagola, non dakarsten hainbestetan itxaron-barria. “Neure eskutik izan ez badok be, kitu gagozak oraintxe” —esan najoan neure artean.

Dabilenari jazo ohi jakok eta holakoetan ez diautsot hainbeste ardura eskua norena izateak, ordea hartuez gero. Eta or-



dea hartu jok oraingoan eta ez, sarritan ohi dan lez, errugabeak errudunarena, alajainetan...

Gaztelako konte zaharraren heriotzeaz Iruineagazko ezkonlokarri zaharra etenago gelditzen danarren, ba diakiat azagari kumeak lotura barriak bilatuko dauzana. Lokarri barrion arazoa neure belakumeen eskuetan izten joat eta, orain konturatzen nok, lehengusu, Bizkaira Errodrigo barik, Eneko bidaldu behar nebala. Izenagaitik dinoat: Eneko Nafarrora begira eta Errodrigo barriz Leonera... Baina eginak egin, izen eta ezkontza ezbardineko amarruak be ondo urten leikeelakoan niagok, Kordoban ikasi dodanez. Bestalde ze ardura jok Asturias eta Galiziako printzesa izateak Leonen edo zer Bizkaiko eta Nafarroakoa izateak Iruinean? Dana dala, ez dagiela uste izan Arabaz edo Bizkaiaz Gaztela egin daitekenik, Galiziaz eta Asturias Leon osatu dan lez. Ez gugaz Nafarroa egin, Nairaz edo Bakiraz egin dauenez. Ez daiala uste Don Abarkak gu rekonkistako lurra garenik. Burujabe izateko eskubidea dogu, geure asmoz eta eskuz burua zaintzen jakin izan dogulako eta herriaren izenean dagon eskubide hori ezin leie apurtu herriko ez diren inongo itunbenek. Ni Kordoban nago, baina nire eskubidea Araban dago, arabarren eskutan. Orain bada, armen ekintza alde batera itzi barik, Don Abarkari ezkon-itunbenen armekin erantzuteko ordua da. Honez gero, Don Bela nekatu egin da; aurrera, belakumeok..."

"...ARIATZARAZ GERO, EGURALDIA BIGUNDU ETA BIDEA lautu egin jakun. Ugarte deritxon bide-gurutzean mendiak makurtu eta hegaleratu egiten dira, ibarraldeari bide egiten dautso-ela.

"— Ez dozue itxas-kresala usnatzen?" —itaundu euskun orduan Josepe artzainak.

Guk zer zenik ere ez kresala.

“— Itxasoko arrain freskoaren usainekoa dozue —Barre egin euskun, ardiak zematzen ebazala Josepek. Eurak baino jan-galeago egotzun artzaina—. Baina ziur, itxasoko arrain freskoa be zer dan ez dakizuena.”

Ezkaraiko amorrainak aipatu genduzan. Berak ezetz, usnaz gaziago eta jastaz gozoago baino. Bildotx samurrenak ez eutsola ezer haren ahokadeari. Sardina zaharrak barriz, aitatu ere ez egiteko, Garizumatik Pazkora besteko alde a egola-ta.

“— Pazkoetan be, arraina orduan...” —Pozkariak hartu ginduzan ahoa adurretan gendula ere.

“— Ikusten dozue noraino datorren itxas-gorea?” —ohar egin euskun oster a ere Josepek, Ibaia adierazten euskula.

Ur handi eritsi neuntson, izan ere, autzan erreka ikusi-barri gendunari. Nondik, bada, haren besteko puztura? Gehigarri hareek lehorretikoak barik, itxasgorakoak zirela. Hareen kresala jastatzeko, hatzamarra uretan bustitea baino ez gendula. Josepe artzain eta menditarrak itxasokoetan ere maisu urten euskun harakoan.

Zabalune handi goaren ostean, piramide-antzeko montorrak bidera urteten dau une bat geroago, errekan edan gura bai-leuan. Haren magalean Luguno herriska eta haren oinetan Garnika auzunea, ibai puztuaren mihin luzea oinak miaskatzera diatorkon unean.

“— Arrain freskoa jan behar dogu” —esan eban Josepek, orduetan itxaron-bazkaria dagoneko begien aurrean bailekusan.

Ardiak larratzera bidaldu eta urari dautson auzunera eroan ginduzan. Arrantzurako ontzi bi bertan estekari lotuta. Galileako Pedoren ontzia eta “perge in altum” harakoa etordan burutara, baina hain misino ederra ordu hoberako itzirik, arrain errearen usainak preminatsuago batera gindarozan ez bai gabe une hare-

tan. Arrain zabalo gorriskak... Josepe artzainak bana aukeratu eta burdintzialakoan ipini euskuezan. Bisiguak, ez dakit ezagutzen dozuzan. Astigarrabiako gureak ezagutuko dautsuez hobeto, ezpabere. Haxe gozaria Jaun Inko gure Jaunak ipinten euskuna bere misinotan Done Miliako babes a itzi gendunoi! Harexek Gabon-bezperak eta ezertan bigilia apurtu gabe! *Manducate quae apponuntur vobis* harakoa ederto urten euskun honakoan, ene maisu, bideko legea batean gozoa eta bestean gosea izan ohi denarren.

Barazkari oparo haretan jakin neuntsun, Garnika auzuneko arrandegia, itxaslapurren garaietan Atxuriotarrek egin a dena, Bosturiko bere gaztelua baino toki babestuagoan. Ontziak barriz, itxasoaren gora-beherak eroan eta ekarten dauzela itxasotik haraino, arraunetan egin barik.

Gazteluaren buruan, *Antikoa* deritxon, Andre Mariaren eleizatxoa dago. Okize-bideko *Andikona* baino jasoago eta zabala goa. Arabako *Andikana* eta *Anditxana* gogarazoten dauste, biok ere, beste hareen antzera, Andre Mariaren omenez bide-aurrean jazoak direla. Guk ekarri dogun bidez landa, Azena-Arrutiatiak Lugunorantz eta handik zehar, beste bide bat dago. Eta hauxe zendun nire erabagi ezineko galdera: nondik norakoa da Andre Mariaren irudi eta izen hau? Eta itxasotikoa baino areago emoten neuntsun geuk ekarri dogun bidetikoa, lehorretik itxasorakoa, hain zuzen: artzainek edo Armendiko edo Done Miliako misionariek ekarrikoa. Baina bestetariko erromesak itsasotik ekarria ere izan eitekizun...

Jaun Inko gure Jaunaren Ama behin lurrok bisitatzera etorri zeneko, herri bakoitzak ezeze, auzo bakoitzak euren ean euki gura dautsue ostatur, bidareko begirale ezeze, auzoko zaindari izendatzen dauela.

Garnika buruko Andre Maria ondotik begiratu eta itxaso-mihin bihurriak musukatuko lurraldearen ederra ikustean, Dona

Elisabethen harakoa etordan ostera ere gogotara: *et unde hoc mihi ut Mater Altissimi veniat ad me?*...

Ez dautsut oraindino esan Garnikan, Andre Maria alboko zelaian ikusi gendun Bizkaiko hautatuen batzarlekua eta Arriaga eta Gerediakoaren ostean ikusi dodan hirugarrena. Ba dakitsut Aiara ere antzekorik ba dagona eta ziur gehiago ere egongo dozuz Araba eta Bizkaiko lurretan. Baina batzartokiaren eta erakundearen bardina adierazi gura neuntsuzan. Horra artea, gurutzea, harrizko jesarlekuak eta ermitea. Berau dozu gainera, Araban Arriagakoa lez, hemengo eskualde guztietako batzartegi orokorra, entzun dodanez. Horrela hobeto ulertzen dautsut gainera, Don Belak semearekiko daukazan asmoak.

“— Hor dok herriko eskubideen unea —esan neuntson Errodrigori—. Unean unekoa. Atxurio jauna izango dok hor buru...”

Bekarka begiratu neuntson mutilari. Arraina jan eta nasaiago emoten eutsun, baina ez eutsun erantzun modurik egin nire ziriari. Geroago jakin izan dautsut, batzartoki honek Gerediakoagaz nor gehiago eztabaidea daroela, harek Nafarrora eta honek Arabarako tira-bira artean dagolarik. Orduan eta argia-
goak egiten jatazan, ene maisu, Don Belaren politika-asmoak eta nire misinoaren bidebatezkoa ulertzea. “Handikien asmoez landa, hor dago herriaren abotsa” esaten neuntzun nere artean, “ea zeinek hobeto darraizan”. Balinba inongo errege edo kontek abots hori ez ittotzea, Araban dagoneko jazoten den lez. Bakeak ez dauka beste biderik, ez Ebangelioak beste zorion-eskeintzarik, nik sarritan esaten dodanez, *doatsuak otsanak, lurraren jabe izango dira-ta...*

“...DON GARTZI FERNANDEZ, GAZTELAKO JAUN KONTEA, hil zenetik eta hona Araban dabilen eztabaidearai berezkoa deritsot, ene jaun, bada Don Gartzi Fernandez Arabako tituloa-

ren jabe ez zenarren, mundu guztiak dakitsu, Don Algaro Sarrazin haren gerizpekoa ez bada, ordezkotzat hautatua izan zena eta ez Arriagako batzarrean gero, Iruineako errege-jauregian baino. Aspaldiko auzia dozu hori, herri-eskubideen gainetik, Iruinak eta Gaztelak Araban eskua ezarri ebenetik eta honakoa.

Orain bada, ene jaun, Gaztelak konte barria daukatsu konte zenaren seme Don Santxogan. Arabak ez dauso ezer zor, esku-bidea gurasoengandikoa barik, herriaren eskutikoa delako eta beraz, halako aginte-aldaketa, gainerako herrien eskubideak ere legezatzeko une egokia emoten dautsue. Don Algaro Sarrazin jaunak ez dautsu, halan ere, batzarra deituko, batzarretikoa ez denez gero. Ausaz deituko leuke, batzarkideek bera jaun jatorizat onartzekotan, halabaina eskualdetako bazkideetan ezezko surrumurrua dabiltsu eta Don Belaren asaldua nonbait... Eskubideen eta indarraren arteko burrukea beti ere. Eskubideen lekua ezpatak hartzen dauenean, orduan indarrak indarra eta heriotzak heriotza *abissus abissum invocat* ohi dakartsu, herri xearen kalterako. Balinba gaztaroan egineko okerrak, zahartzaroan arteztea! Txarrena orduan jazoten da, gaztetan eginiko okerren kontzientzia zahartzaroan galtzen denean, ene jaun.

Zeure gutunean Arabako konte-ohi Don Belaz dinostasunak ez nau hainbeste harritzen, zeure ustetan baino areago diharduzulako herriaren ezbaitan. Zelan bera, kristau izanik, kristau erreinuen kontra jarki den mahometekin batean. Eta, handiago dena, zergaitik Araban hainbeste kristinauk Don Belaren jauntza eskatu legiken. Kontraesanok, ene jaun, gizarteko ikuspuntu eta ardura ezbardinetatik datoz. Gauzea ez daiteke bardin ikusi Arabatik eta Iruineatik edo Gaztelatik begituta. Bakoitzak berari dagokionez ebazten dautsu auzian: batzuk Don Bela daukatsue jaun jatortzat, besteak, bakearren, Don Algarogaz konformatzen direla. Auzi horretara bultzatuko zaitue, batzuk eta besteek alderdikide gurako herriaren bakerako, beste sedetako episkopuek sarritan egin ohi dauenez. Baina zeinen alderdiko urten?

Hori dozu untzea. Indarra eskutik daukanaren alde urteteak txaloa dakarkitsu, eskubide hutsak daukazan herriaren alde bazentoz oster, elorrioa dozu. Baina Armendiko episkopuak eskua garbi dauka arazo latz honetatan, Arabako ohiturak eskatzen dautsonez eta bai Ebangelioko erakutsiak, *redite ergo quae Caesaris sunt, Caesari et quae sun Dei, Deo* dinonean. Zuzen ebaztekotan Jesukristo gure Jaunaren epaia bera hartzea baino ez dagokizu, ene jaun. Herrigintzako arazoa itzi herriaren eskuetan, Arriagako Batzarrak aspalditik erabagita daukanez. Jarraibide argi horretatik ez zoaz Ebangelioaren aurka, ez eta herriaren edo herri zati baten aurka. Herriko hautatuak aintzat hartuz gero, aintzako izango zara eleiztarren artean. Zer besterik aholkatu daiketsut herriaren kristau-xedea jarraitzeko baino? *Vox populi, vox Dei* esan ohi denez, gorde zeurea Jesukristo gure Jaunaren artzaintza onerako. Nork ezezta daike esakerea eta halako ihardun-ganora herriaz uztiatu gurako leukeen jauntxoek izan ezik?

Izan ere, Eleizak ez zaitu Armendiko Apezgora jaso, Iruinaiko erregearen edo Gaztelako kontearen aldeko politikea bultza daizun, zeure artzaintzako herriaren gora-beherak jasan eta zuzentasunean bakebideak jarraitzekotan baino. Hortik harako pauzoak herri xeearen sentikerak eta susmoak mintzeko baino ez litzakizuz izango, ene jaun. Arabako herriak bestalde, beste inongo herrik baino hobeto jakin izan dautsu bere burua gordetan. Bere exenplua jarraitu behar leukee inguruko erresuma eta jauntza askok, txalogarri diren ohiturok bekaitzarren, ezetsi edo eragotzi barik.

Ez dautsut lehenago ere alperrik esan, eurek kristau aburuetatik baino areago mahometen eredutik, hartzen dautsuena jarraibidea, bada, gudu santurako han taifa guztiak bat egiten dauela-ta, hemen ere hareen kontra ekiteko kristau guztiek alkatzea gurako leukee. Mahometek Al Koranen izenean eta Alaren osperako egiten dautsue gudu santua, baina kristinauok noren izenean eta noren ohoretan egitea gura dautsue gurutzadea?

Lau Ebangelioak alde batera itzita, Makabeotarren liburu biekin gelditzen ez badira, ez dakitsut, ene jaun, nondik garbitu leikeen euren gudu-asmoa.

Eritsiok zeuri eskribuz dinotsudazanez, hemen ahoz eta oharrez azaltzeak maizetate uhari eta kidegotza galtzea ekarri daustaz, ene jaun, "Jesukristo gure Jaunaren Espiritua hartu dogunok, zelan konformatu zaitekeze judegu eta mahometen joke-reaz" esan dautsedala-ta beste barik. Ea Liburu Santuko beste pasajeak alperrik galtzeko diren, erantzuten dauste. Ea harako esakerak horretarako eskubiderik emoten ez dauen etabar. *Littera quidem mortificat, spiritus autem est qui vivificat* erantzuten dautset nik eta hor amaitzen dogu. Eta hara zer dinotsudan gainera, ene jaun: gurago dautsut Done Miliako Abadegoa galtzea Espirituaren maisutza hori baino.

Erregegaiaren konfesore den Don Ferrutzio, nire anaiki-deak, Kristo gure Jaunaren milagarrenerako Erresuma Santua antolatu behar dela-ta, dagoneko munduan ordena barria ezarri behar dela-ta, Apokalipsiko lau zaldiei bide-edo emoteko arrazoiak eukiko dautsuz...

Ez dakitsut, bere gidaritzapeko printzea dela-ta, ze garai-pen-asmo edo indarrean ames dagian, baina azken egunetan Kristo gure Jaunaren Erreinua gogoan eukitekotan behenipehin, hobe leukitsue Apokalipsiko zaldiaren apatxetan baino, Ebanjelioko birjina zuhurren eredia onartzea eta indarkeriaren ezpata-gaz barik, fedearen argiontzi isiotuagaz Hari bidera urtetea, Eleizearen Senarra Kristo bai dozu, gero ere, epaileen Epaille-eta. Zertarako behar dauz halako Epaille eta Erregeak munduko errege eta konteen ezpatak? *Regnum meum non est hinc* eta areago dinosku berak *Nire erreinua mundu honetako balitz, nireak nire alde ekingo leukeen*. Kristo gure Jaunaren Erreinua mundu honetara ekarrazoteko nor dira beraz gurutzatuok? Ez

ete dogu sinistu behar Kristo beraren gurutzeko indarrean? Eta areago, ez ete dogu gurutzaren bidea jarraitu behar...?"

"...GUDU-MESIAK LILURATU ETE ZAITUE? JAKIZUE BADA Kristoren gudari sagaratu eta oleatu izan zareela beste inongo errege edo munduko jaunarentzat baino lehenago. Baina esku-mean ezpatea eta ezkerrean munduko jaunen babesla hartu dozuenez gero, gainerako xede eta betebeharrak ezaintzat izateraino zabartu zaree. *Izendatu eiguzu atzerritarren antzeko errege bat herriko gudarostea arerioen aurka gidatu dagian* behinolako judu-herriak Samueli eskatzen eutson bezalako deiak entzun dozuez. Ez ahaztu ba Jaun Inko gure Jaunaren serbitzariaren erantzuna:

Abaztu egin ete jatsue Jaun Inko Abalguztiduna bera dena zuen errege eta jaun bakarra? Orain bada, zuen Errege eta Jaun Inkoa gitxietsi eta atzerritarren antzeko erregea eskatu dozuenez gero, kontu egizue zuen semeak gudaritzat hartu eta gudura eroango dautsuezela, zuen alabak barriz, mirabetzat aukeratu eta batzuk ogigin eta beste batzuk bere baratzain egingo dautsuezela, ni zuen Jaun Inko babeslea ezetsi ninduzuelako...

Israeldarren harako sinisgogorkeria aitatu dautsuedala-ta, arerioei salduzkat naukazue, mahometar garbatua edo bainintzan, baina zeuok ikusten zaituet nik Jaun Inko gure Jauna mahometen jaun inko Alaren lehiakari egin gurarik eta emon izan jakun Mesia bakarra, Kristo gure Jauna, gitxiesten, beste nonbaitegan ustea ipinten dozuelarik. Edo mahometen porrokatzaile egin gura ete dozue, jentileria argitu eta mundua salbatzera, bere Semea bialdu eban Jaun Inko Jauna? Mahometek Alaren izenean gudu santua aldarrikatu dauela-ta, beste hainbeste egin daidala eskatzen zatorkidaze eta ezin dautsuet beste erantzunik emon, Kristo gure Jaunarena baino: *haec est voluntas Dei, santi-*

ficatio vestra... Gure Jaun Inko Jaunak gudu santuak barik, zeuok santutzea gura dau. Horra zertan dan zuen burrukea...

Halan eta guzti, mahometen aurkako gudua nahi dozuela? Ba aukeratu egizue zuen buruzagiak, eratu egizue zuen gudarosteak eta, zuzen baderitxazue, ekiozue zuen lur, emazte eta umeak gordeteko burrukan, eskatu egiozue hatarako argitasuna eta laguntza Jaun Inko gure Jaunari, baina itzi egizue alde batera, mesedez, Jaun Inko gure Jaunaren ohorea eta haren Seme Jesukristo gure Jaunaren Erreinua, bada, Semeak ohortzen dau Aita, guri jarraibidea emoten daskula, eta Aitak emoten dautso Semeari Erreinua eta ez beste inongo errege edo gudarostek. Edo ez ete dakizue herrien arteko liskarrak eta burrukak eurak litzakezela gure Egile eta Salbatzaileari guk, haren jarraitzaileok, egin geinkion desohorerik handiena?...

Zuek Almantzurren zigorretik jaregiteko buruzagia gura dozue. Non da heriotzea baino arerio handiagorik eta nork askatu zaitue haren kateetatik, ezpada Kristo gure Jaunaren gurutzek *qui morten moriendo destruxit?* Kristo gure Jaunaren gurutzean sinisten dauena aske da heriotzatik, baina gudu-mesiegan ustea daukenak ostera, ezpatearen morroi dira eta ezpataren eraso baino ezin daike itxaron...

Apurtu zenduezan bake-itunbenak heriotzea bera baino laidogarriagoak direla dinozue. Zoaze eta gizonki ekiozue guduan, baina ez etorri gero Jaun Inko gure Jaunari zeuon pupuak konantzera eta *gure Junak arerioen eskuetan itzi gaitu* esaten. Jaunaren Erreinua bilatuko bazendue, ez zindukeez arerioen eskuetan itziko, bereen bizia zaintzen bera dan arduratsuz. *Quaerite, ergo, primum regnum Dei...* lehenengo Jaun Inko gure Jaunaren erreinua bila egizue, eta gehigarritz izango dozue gainerakoa: zer janik edo zer jantzirik ez jatzue faltako, ez guduak berez ekarri ez daiken Jaunaren bakerik.

Jaunaren Erreinua bilatzekotan barriz, neurez barik, Aposto-
luaren ahotik esango dautsuet zetariko armaz eta zelako guduan
ekin behar dautsozuen, *ez bai-da gure ekintza burdinezko ar-
metan, fede-alorreko gogozkoetan baino, gure gaztelu eta indar
Jauna bera dogula jakinik...* Halatan bakarrik itxaron geinke
halako burrukan lortu-saria, *zatoze nire Aitaren maiteok* —dinos-
kun Harengandik—, *bada bilosik nengon eta jantzi egin nindu-
zuen, goserik eta jaten emon zeunsten, egarri nintzan eta eda-
ten, gaisorik eta kartzelan eta ni ikustera etorri zintxatazen...*

Jaunaren bakea eskeini, bere eskutiko saria agindu eta
oraindino ere deabrua daukadala dinozue? Zer esango zeunste
Almantzurren zigorra aginduko baneuntsue? Edo zer esan nein-
ke nik Jaun Inko gure Jaunaren izenak uzkurto edo haren Seme
Jesukristo gure Jaunaren gurutzeaz lotzatu egiten direnez?"

Bakoitza bere ekintzak juzgatuko dau, baina ez dautsat en-
tzun oraindino epaileen Epaileari "guduan nengon eta ezpataz
laguntzera etorri zintxatatzen" edo holakorik esaten.

Neuk be Jaunaren aldeko burrukea daroadalakotan dihar-
dut, nahiz eta erraturik ezagutu neure bideetan. Ardi galduen
bila dabilenari jazo ohi jako, bestalde, noizbait otsoekin topo
egitea et ardien eta otsoen arteko burrukan narrua itzi beha-
rra..."

*Izu-dardarak nago
eta bildur naz
judizioaren aurrean.*

(Hileta-kanta)

"GEHIEN BEHAR GENDUNEAN JOAN JAKU ZORIONEKO
errege Don Santxo. Bego Jaunaren bakean. Bere aholku eta
bizi-esperientzia barik, nork aterako gaitu orain gorakadan,
ekaitz zakarrena lez, diatorkun mahometen aserretik? Gaztelatiko
monxeen aholkuak edo bertoko buruarin eta odolberoen ausar-
diak? Balinba lehengoaren tentu bereaz jaurritzea errege barriak
ahierkorren erresuminetik ate.

Naiarako Andre Marian, Don Santxo zenaren gorpurari arre-
ra egitean, ezin burutik kendu orain hamairu urte hantxe bertan
zorigaitzeko haren seme eta Naiara-Bakirako errege, Don Rami-
rori abestu geuntson errespontsoa: *Tremens factus sum ego et
timeo...* haren ondorengoagandik zer etorrikoagaitik, behar ba-
da...

Naiara Nafarroko errege-hilobi bihurtu dozu, errege aita-
semeon gorpuak herri eta kapera ber-berak hartu dauzenetik. Bi-
zitzak haren goizik banandu ebazanak heriotzak betirako alkartu
dagizala lurrean eta zeruan eta bekartse batasun bera Nafarroako
erresumari aita-semeon oroitzapenak, bada, esan ohi denez, Irui-
nea bizien gortea baldin bada, Naiara da zeru-ataurrekoa.

Errege eta halako errege baten hileta abesteak arduraz nindaukatsun, ene jaun *et timeo, dum discussio venerik atque ventura ira* errepikatzean. Ba dakigu, Kristo gure Jauna, Epaille Zintzoa, aldeko izango doguna bere izenaren jarraipena aukeratu genduanontzat bereberki, hiletariak *tremens factus sum ego* dinonarren. Kristo gure Salbatzailea bera bai-dogu Ararteko Aitararen aurrean. Ez dot kezkarik alde honetatik, bestetik baino: giza-kiok bertan, azkenaren aurrean, antolatu gura dauen epaialakotik baino, harako Epaille Zuzenari aurretiz, nor zintzo eta nor gaizto den goraintsi egin gura baileutsoen, ez erokiago.

Goiko haren epaiatz baino hurrengo ihauteriko Don Bilduren arautzeaz arduratuago begitandu jatan Don Benedito, Naiarako episkopua bera ere, *si Deus eta Sanctus Apostolus pro nobis, quis contra nos* eta holako erronkaz Don Santxo errege baketsu zenaren oroipena ohoratu gurarik. Bakezko itunbenik aitatu ere ez, sinisgabeen kontrako arma-ekintzak bakarrik, bake-bide hareek odolaren grinatik edo fedearen saldukeriatik edo bailetzan. Eta nabarmenagoa dena, Jesukristoren Apostolua, guk Arabako bideetan beti ere erromes apal eta makiladun ikusi izan doguna, zaldun eta ezpatadun aurkezten Naiaratiko bide barrietan. Leondarren harako ipuina sinistea baino ez dogu, ene jaun, gero datorken zigorrean *atque ventura ira* horren partekide egin gagiezan.

Don Santxo errege zenaren gorpua Iruineatik Naiarara erakarteak ere ez daustu beste zentzurik. Iruineako harresien gordelekuan barik, Done Jakuerako bidean ehortzi eta atsedena bilatu behar eutsun, bizitzan amaitu bako misinoa heriotz ostean edo osotu behar bai-leutsun. Iruineako episkopua bera ere ez dozu alperrik Iruineatik hona etorri errege zenaren gorpuari laguntzen. Arazoa halako ganora barriaz bide barriotan abiatzea dozu. Ahaztu honez gero Bizkaiko itxasbidetatik eta Arabako ordekatik datozen bideak. Arriskutsuegiak ei dozuz, mendiko lapurrekaitik batez ere. “Handia da horregaitino —erantzun dau-

tset nik— bada Arabako bideotan armatura beharrik izan ez dautsuen Jaun Done Jakue Iberoz bestaldera erakarri dozue-neko, zuek armatu egin dozue badaezpadan...” Hori euskal anaien eta zeuk jaurritzen dozun Sedearen ohoretan esan neuntzen, ene jaun, eta areago Jaunaren Apostoluaren fedetan: “zuek nonbait konbertidu aurreko apostolugaiatz diharduzue... eta hori, erromes-bideak aldatzea ezeze, Eleizaren ereduak trukatzeta ere ba dozue.”

Aserretu egin jatazan esanagaitik, baina nik aurrera neragoion neurean: “Bai, zuek Jaun Done Jakueri burua moztu eutsen erromatar ezpatea lurretik jaso eta Martiri Santuaren eskue-tan ipini dozue. Agindu dautsozuen zaldia ere zeuona izango da hurrean... Zeuok martiri santuaren exenplua jarraitu beharrez, martiri santuak zeuon jarraibideak santutu eta sagaratzea gurako zendue-ta”.

Ez eusten entzun gura izan eta argi dakust erratua: kristinauen ganora aldatzekotan, ereduak aldatzea baino ez dozu, ene jaun: ezpatatz erasoak izan orduko, ezpatatz eraso; martiri izan baino lehenago martiriak egin. Horra kristinauon ganora barria.

Okinako abateagatz hitz egiteko abagadunerik ez neban izan, baina, ez neuntsun asko usnatu beharrik izan zein eritsiko den jakiteko. Neuri baino zehaztasun gehiago emon eutsen behenipehin gure anaikide Don Ferrutziok. “Zertara bultzatu nahi dozue denon artean?”— Don Gartzia erregeatz ohar egin neuntson Don Ferrutziori. Ez ulertuarena egin eustan. Nik argi-ago orduan:

“— Ez zintzazen ausartu Don Santxo zenarengan ezetsigarri-rik salatzen eta zergaitik alden- du gura dozue semea haren bakezko politika-bideetatik?”

Purrustadea egin eustan: ea konfesinoko gauzetan sartzeko nor nintzen ni. Konfesinokoez barik, herriaren aurrean aldarrikatuez eta kalostroan arpegiz arpegi maizetuez eta neure belarriekin entzunez nihardutsola, erantzun neuntson. Eta besterik ez, horren funtzezko arazoetan ere, bakoitzak bere lepotik daukagula burua baino, ene jaun, Jaun Inko gure Jaunak gorde gaitzala.

Hiletari buruzko beste esan beharreko bat, ene jaun: Han izan zendula Arabako batzuren konte den Don Algaro Sarrazin. Bera ikusi eta arabatarren arteko tirabirea hurretik sentitzea bat izan jatan. Zeu falta izan zintzazan, ene jaun, eta eskerrak damotsodaz oraindino Jaun Inko gure Jaunari haren bileran ikusi ez zindudazalako. Edo ez zinduezan gonbidatu, edo ez zendun zeuretzako batzar egokia hauteman. Baina bata edo bestea dela, ez dozu, ene jaun, han ez egonaren damurik zertan izan. Pozez bete nozu neu ostera, eta goresgarri deritsot zure jokabideari, besteenak ikusiz gero, herriko auzi-mauzietatik ate bai-darozazu zeuri gomendaturiko artzaintza...”

“...ZORITXARREAN USTE IZAN JOEK LEONDARREK ALMATZURREGAZKO itunbenak apurtu eta, beste barik, burua askatu eike-ela. Arintxoegi ahaztu dozak dohakabeok orain hamar urtekoaz eta oraintsuagokoaz. Hirugarren golpe hau ez joat uste behingoan haztuko dauenik. Itzela izan ei dok hango sutea eta, orma bat zutunik ez gelditzerainokoa barriz, erreketaren ondamendia.

Leondarrek, antza, ziur jeukeen nafartarren laguntza. Don Gartzari errege barriaren asmo edo promesaren bat... Baina iruinearrek Don Abarkaren seme urten jautsek. Zer dala ta? Ez ziur *Don Bildur* edo euren erdieran *El Tembloroso* ezizena entzun bildurrez, bestela baino: “Deitu daistela halan eta iraun dagidala holan” bere artean esan baileuan, ez patxaratsuago. Izan be, zutunik dagoen lertxuna dardaratzen dok, lehengusu, hemen esan

ohi dauenez, eta ez dagoneko aizkoreaz eratsia izan dana. Itandu dagitsela ezpabe leondarrei.

Leondarren iriburua bai izan dala eratsia eta, zuhaitz iharrak lez, kiskalduak hango monastegiak. *Neuk erakutsiko dautsuet zuoi, islamaren erleginoa buskeriatzat daukazuenoi, zer dan Alaren zuzenbidea* esan ei jok Mendezinak Sahagun ospetsua sutan ikustean. Monastegiok, izan be, Kordobatik ihes eginiko monxeek jasoak eta gehien bat beteak ei dozak, izatez, eta hortik alkarren kontra daroen jasargoa, hemen hartunekoaren ordean han emon gura baileuen. Doroz harantz aske zirela uste izan joek, baina Alaren aserretik ez ei dok inor libratzen, epai-ordua danean.

Bermudo erregea eta bere galegoen mardoa sutatik ihes, Galiziako mendien babesean eskutatu zolan, halakoetan harako azagari zaharrak Okina eta Arabako harrtxiloetan egin ohi eban lez. Hagaitik zolan, izan be, azagari zaharra. Bermudotarrak Konpostelan batu zozan Done Jakueri laguntza eskatzekotan. Mendi-trokarroen ostean eskiertzat emoten joen euren bizia, bere Patroi santuaren lurrean ausartzeko areriorik ez egola-ta. Baina Jesukristoren Apostoluak bizirik eta zaldun, kristinauak gidatzen ebazalako entzunik, Almantzur lehen baino be sutsuago, euren jararrian joan zolan, “benetako zalduna bada, datorrela neure aurrera eta zein zaldunago egingo dogu, zalditan barriz, zein zuriago” erronka baten. Bide guztian ez ei joan aurkitu igarro ezineko auzarrik ez eta berari aurre egiteko zaldunik. Konpostelarraino heldu eta hantxe ei egozan galegoak zeruko laguntzari begira. Sartu ei zolan Mendezina eta “ea nor dozuen neure eskuetatik jaregiteko zaindaria hori” esanaz, jo ta eraso hasi ei zolan eta bizirik harrapatuak katean bidaldu joazan Kordobara, “neuk erakutsiko dautsuet zuei zein dan santutegirik ederrena munduan” esanez. Eta santutegiko kanpaeak dorreetatik jatxiazoz, katepeko kristinauen sorbaldetan ekarri jozak Mezkitara

“datorrela orain euron bila zuek bizirik dagoela eta mendezina dala dinosuen, zaldun hori” erronkea bota jok gainera.

Mezkitearen alminarrean kabidu ezineko kanpae handi bi dozak. Mihina moztu eta ahozgora ipini joazak Almantzurrek Mezkita erdian. Horrela behenipehin, hareen durundi sagaratua entzunik, kristinauak ez ei dozak gehiago suhartuko eta, lehen sinigabeen alde egien araoa, orain olioer betetik, Alaren omenean argi egiten joek. Han diagozak esan dauadanaren lekuko. Nik neuk be ez niotsazan erdiak be sinistuko gure Enekorri, kanpae erraldoiok eta eurek sorbaldetan ekarri ebezenen nekea ikusi izan ez baneu.

Garaiaren ospakizunetan Mezkitearen hemeretsi arkute-giak sarreratik sakoneraino betekadan egon dozak. Almantzurrek agindu-arkuek kolumen gainean haren zaldi zuriaren ijutialakoa egiten dauela jinoek Alaren debotoek. Izan be, beste arkuek baino karabillakatsukoak dozak eta, imanak suraren bat irakurten daueneko, arku gingilduok sartu-urten, sartu-urten, Alaren tronuraino ei joazak: *Entzun, oi zuek gizajook! Argi dago neurez ubarra baino ez nazena. Sinistu eta on dagianarentzat parkamena eta sari oparoak, baina etsaigoa zimikatu eta nire seinaleak itxurgatzen dauzanarentzat inpernuko sua. Alak Satanen indar-jasargo guztiak zanpatzen ditu. Ala gurea den zubur eta jakintsuaz, behingoan baiesten ditu bere seinaleak eta bara non dakusguzan...*

Zigorren partea argi diagoz norentzak izan dan, lehengusu. Arku-hageak sostengantzen dauzan kristau jopuentzat, ez dok? Maite-seinaleak barriz, hage gaineko gingileriak gorai patu daroan eragile mendezina. Ala pozik diagoz lurrean bere Ordez-kariaren ordekotza daroanagaz eta ez gitxiago Kordobako herria Galiziatik etorri-barri jakozan maite-seinaleak dirala-ta.

Ikusten dokanez, honeek sinisten dauena egiten joek eta egiten dauena sinisten. Biribilago urtetan diautset horrelan. Hor-

ko kristinauek ostera, ezbaitsuago zabiltze sinismenean eta, zer esanik be ez, bananduago gero ekintzan. Neurez zer esatea nahi dok? Erruki izan naiakola kristinauen haren jopu-kateari. Hareen gose-arpegiak, ume eta emakume. Gure Otxandak be kupidaberbak jaso jozak Serorategian, umeei dagokienez batez be. So-beia Kalifa-ohiaren ustez, ez ei dok hori Alaren bidea. Joputari-kook gainera, galego eta leondarrak izan dozak gehienak. Eta nik zelan lortzeko orain handik neunkazan itxaropenak? Enekorri deitu egin behar izan jautsoat. Ez diaukak dagoneko han zereginik. Zer aholkatzen daustak? Zezenari adarretatik oratzeko ordua dok ezbaigabe, Otxarrin eta Araban bertan golpea emotekoa. Edozelan be, Almantzurren pausoen zain gagozak. Bere inguruan doan haizea uztiaztea baino ez diaukaguk. Gurea bidebatezkoa izan behar jok. Kontuik Konpostelan ahiendua izan dan zaldun miragarri hori Naiaran edo Iruinean bertan agertzen dala, erromesen bide hegale batetik bestera lez, eta gure Mendezina barriz, Alaren zeloak erreta, bere zaldi zuriaren apatxen izenean zin egiten duela... Neurez ez joat uste, halan eta be, Ala minduaren suak horraino helduko direnik. Iruineko gurdia gogara bideratzeko bestetariko bideak euki jozak Kordobak gaurdaino. Nafarroako basurdeari belarri bietatik oska egin eta haren arnasak itto-zorian jarteko nahiko jok harek Zaragotza edo Oskako txakurrak axatzea. Hori bai, esan behar dauat, ene lehengusu, ezer jazotekotan, oraingoan monastegiak izango dozuela partetik txarrena, Leonen dagoneko jazo izan danez. Mezkitako sermolariek ostera be zuen kontra zorrotzu diaroekak euren mihinak eta jaurtiten gezirik amorratuenak: *Kristinauek Mesias dala dinoe Jaun Inkoren Semea. Euren monxeak eta jakintsuak hartu dautsuez gidaritzat, baina ez daue Jaun Inko Jaun bakarria adoratzeko eta gitxiago sinistu harek bidalduriko Profetagan. Guzurtiak baino ez dira. Alak porroka daizala...*

Gauzak horrela, Mendezina eurak baino zentzun hobekoa ez badok, hitzetik ortzerakoa baino ez dok izango gauzea...”

“...URDA IBAIA ZIRKUN ZARKUN DOA GARNIKATIK ITXASORA. Urari baino basoari atxikiago doan bidetik ginoazen, ezkerretik xara trinkodun harkaitz-bizkarregia eta eskuma-behetik arteka ibarraldeko ihitzak genduzala. Gora-beherako ixurrak daukaz bideak eta unadaka gero eta hurrago agertzen jakun, inguruan bat baino gehiago dagozan, kono-antzeko mendi-txuntxurra aurrean.

“— Ikusten dozue? —esaten euskun agertzen zen bakoitzen Josepek. Haxe dozue Bosturiko aitzia. Laster ikusiko dozue haren oinetan Atxurioren gaztelua be.”

Bosturiko aitzia harkaitz denarren, goraino artez eta gurbitzez jantzirik dago. Aitz txuntxurrorantz hurreratzen gintzazan ginoan, Errodrigo bere mandoan uzkartuago ikusten neuntsun eta ez aitzaren edo itxasoren bildurrez.

“— Zer, txo? Artzain-mutilaren jantzia barik, zaldun-tanke-ran aurkestu gurako henduke ala andregaiaren aurrean? —itaundu neuntson—. Ez hadi larritu. Moldatuko dauagu jantziren bat, ezpatea ere zuzenduko...”

Baietz inoskun Josepek, ondo ezagutzen ebala Atxurio jauna eta amor emongo eutsola. Artzain eta artaldeari agur egiten hurreratu jakuzan umeak. Josepe gaztelurantz aurreratu zan. Etxa-torreen antzekoa dozu, laukitua eta eguzkitarako lehioak argitarako baino areago geziatarako emoten dauenak. Beste hiru-lauko etxadia jaurritzen dago eta danak ere aizpearen babesera egiten direla. Umeei mahaspasak emon eta pozarren joan ziran artzainen barri emotera.

Gure arlote-taxuaren ondoan, atsegina zendun benetan itxasora idegi eta aldamenetatik mendiek babesten dauen lurraldea. Itxas-ahoa zendun; nahiz eta itxasoa ondo ikusteko, mendira igon beharko gendula Josepek esanda euki, hurretik sentitzen zendun haren zurrumurruen misterio erakargarria.

“— Hik Kordoban-edo ikusita ete daukak itxasoa?” —itaundu neuntson Errodrigori.

Ezezko muzina egin eustan buru liluratualakoaz.

“— Ez al deuk zoragarritzen itxasoa laster ikutu-zoriak?” —nerautson pozarren.

Harridura antzekoa aditzen emon eustan, itxasoa eta ez beste ezer bere baitatik aterateko ez bailitzan. Ez eutsun arlote-janzkereak horrela uzkartzen mutila, ene maisu. Eguno ikusi ez eban edo aipamen txikerrenetik ere ezezagun jakon andregaiaren aurrean aurkitu-beharrak larritzen ebala uste dautsut, edozein gizaki misterioaren aurrean lez. Otoz-otoan zer esan edo zelan erantzungoak arduratzen eutsun mutila. Holakoetan askok ihes egiten ei daue, edo aurrez-aurre ezin dauenean, zeharka hurbildu misterio bildurgarri eta erabat erakargarriari. Izan ere, nork aukeratzen dautsu horren itxumustuan betiko bizilaguna, Jaun Inko Jaunari gorputz eta arimaz sagaratu izan garenok-edo izan ezik? Eta, halan eta ere, nork pentsatu dau eguno zer esan Jaun Inko gure Jaunari, aurrez-aur ikusi dagianeko? Ez ba. Hori ugerian jakin gabe, itxasoan dzanga egitea lez izango dozu eta guk Pedro uretatik jaso eban Harengan dogu ustea...

Hortik antzemoten neuntsun, ene maisu, Jaun Inko Jaunari sagaratu izan garenok, munduko edozein bizi-lagunagaz ezkontzen direnak baino zori hobekoak garena dagoneko, bada, ni itxasoa eta haren Egilea ikusi gureak nindagoan eta Errodrigo barriz, andregai ikusteko bildurrez. Niri inguruko lurdiak eta hantxe susmo neban itxasoak aurretiaz inosten Jaun Inko Jaunaren edertasunaz, baina mutila Jakobean zurubi haretatik andregaiaren edertasuna susmatzeko ere ez zendun.

“— Ez hadi kikildu, mutil —esan neuntson, esku biak sor-baldan ezarriaz—; autzez-autz hainbeste egunetako ibilketa egin ondoren, hire gurasoek aukeratu dauaena dok hiretzat eta hire

herriarentzat neskarik onena-eta. Begitu egiok aitzaren orlegiari edo zeruko urdinari. Ohar egik itxasurreko are urreztatu hori edo haragoko olatuen apar zuriaren zurrumurrua. Ez ete dok ulertzen barbaro hau?...”

Esanak esan, ez eustan ulertzen erretolikea. Pekatariari bere hobenak Jaun Inkoaren ederra ikustea eragosten dautson lez, nik ez dakitsut Erramelen alabeaganako lerak-edo, izan bihozkadak, aldentzen eutsun mutila halako barrien liluratik... Barruko leihoak itxiez gero, alperrik dozu —ohartzten neuntsun— eguzki amandrearen begiradarik argiena...”

“ERREGE DON GARTZIK HILDAKOENTZAT MEZA-AGINDUAK eta bizientzat ondasun barrien eskeintza ekarri dasku Done Miliara bere lehenengo errege-bisitan. Ondo etorriko jakuz lur barriok, Jaunaren morrontzara eten gabe datorkuzan hainbesteren bizibide eta eskulangintzarako. Hemen ere ezin hobeto diatorku, ene jaun, Apostoluaren *qui non laborat non manducet* harakoa, bada, asko, euren jaraunsigoko alorrak lantzar itzi, eta monastegian salmoez bakarrik biziko direlakotan diatortsuz, Azken Juizioa bihar-edo delakotan. Baina bihar ere jan egin beharko dauenez, Jaunaren mahastaira bidalduko doguz, azken orduan etorriok. Batzuk, izan ere, euren ogasun eta guzti diatorkuz mundutik ihestearren, beste batzuk oster, halatan lanik egin gura ez dauelako. “Zergaitik lurrik landu, bihar edo etsi Azken Juizioa etortekotan? —erantzuten dauste batzuk—. Zergaitik erein semendian gero, uztaroan, mahometek eskutik kendu edo erreko dautsuena?” —besteak.

Gaztela beheko barrenean ba daukatsue halako esperientziarik dagoneko, eta Almantzurren zigorra Azken Juizioaren seinaletzat daukatsue gero eta gehiagok.

Zer esanik ez, errege jauna bera ere, bizi doguzan aldi larrien ebasteko argi bila etorri dana funtsean: zigorra zelan eki-

din, mahometei zelan erantzun, batera eta besterako eritsiak gorbizteraino aurkatzen gaituen une honetan. Bada Gaztelako konte gaztea, Konpostelan jazoak jazo, mahometen erasori begira egon barik, hari biderdi egin guraz dabilzu eta, Iruinea eta Leonegaz bat eginez gero, bardin Toledo erasoteko gertu. Horretaz Don Ferrutsiok argi esan dautso errege jaunari: “Jauna, Gaztelako horrek barik, zedorrek burutu behar duzu gurutzada hori, kristaudiari ohore ezezen, erresumari lehentasuna emango bait-dio.”

Askotxo dira, izan ere, konte gazte horrengan harako Dabiden eskua ikusten dauenek eta, aitatzea bera errege jaunari irain egitea ezbalitz, argitan esango leukizue gogotan daukeena. Ni aurreratu ere egin natxake, “zuen Dabid hori Goliaten aurka ausartuko balitz eta herriagazko beste kalte barik, auzia euren artean ebazteko badira, jantzi daitezela euren adineko armaz eta eraso dagiela alkar...” Irri zuriaz erantzun eusten; ez daukatsue nonbait horren federik hain Dabidengan. Saulen morroi zintzo dela dinoe gaztelarra eta nafartarren gudarostea gidaritzeko ere gei. Don Gartzi erregea hatarako gauza ez bailitzan. Haren arreba Abda “Goliaten” emazte izategaitik, Gudarosteen Jaunak haren ekintza bikainetik dagoneko baztertu-edo egin baileutsun. Izan ere, zelan aukeratu leike Jaunak herri salbatzaile —dintsue, Apokalipsia aitatu— Antikristoaren ahaidea? Hagaitik ez ei dautsu burutu nahi kristinauen gurutzadea, Antikristoari salduta dagolako. Hori dela-ta, ez ei zendun leondarrei laguntzera ere joan. Areago oraindino, erregearen mahometegazko ohekidetasun hori ei dozu kristau herriaren gain jausi den zigorraren iturburua. “Hori ere entzun egin behar —erantzun dautset—: hemen errua eta han zigorra. Jaun Inko gure Jaunaren zuzenbidea horren bihurria delakotan ete zagoze, hutsa Iruinean dela, ordaina Leonen ipinteko? Ea oster, bakoitzak bere eginen emoitza lortzen dauen, han gudu-erabakien galpena eta hemen bake-itunbenen obaria...”

Bekaitzak erre eta itxutu egiten dautsuz, ene jaun, Iruineak eskutik kentzen dautsezelako Kalifagazko ezkon-itunbenak. Ze erru dauka bestalde, Don Santxo Gartzik arreba Abdaren ezkontzan? Nori otu leikio, hori dela-ta, Jaun Inko-zigorak halako gudu-bildur-dardaraz, *El Tremulo* deitzeraino jo dauela esatea, euren bihurrikeriari izan ezik?

Laster ahaztu dautsue gaztelarrok euren gudu-aholkua jarraitzeagaitik, haren anaia Don Ramirori jazoriko negargarria. *Veloces pedes eorum ad effundendum sanguinem* Apostoluarenaz itxurgatuko neuskie.

Don Ferrutizio herriko esameson jakitun, gure errege jauna gaiso edo madarikazino guztietatik libratzen ahalegintzen dozu, erregearen konfessore izateak Samuel profetearen harako eskubi-deak beragaz baileukazan. “Zeu zara, errege, Jaunak aukeratu zaituena eta ez dago beste Dabidik” —esan ei dautso—, *nam rex confidit in Domino et propter gratiam Altissimi non commovebitur* hogeigarren salmoaren arauera. Latinak ulertu bai, ulertzen dautsuz gure erregeak, baina harek esanak beragazko zerikusirik daukeen ez hainbeste. “Nola eraso diezaket hegotik, sorkaldetik bi ziri sartzen dizkidaten artean?” —erantzun ei dautso. Oska eta Zaragoztako baliak dozuz ziri biok; hareen eskutik hartzen ei dautsuz Kalifagoak Nafarroagazko mendekuak. Txistu egitea baino ez ei dauka hatarako. Beraz, alperrik dabilko konfessorea salmo-araotan: *Superveniatur manus tua omnibus inimicis tuis* otoizka, bada salmoaren jarraipeneko *Prolem eorum perde* unera heltzean, ezpainak oskatu eta ez direnak murduskatu izan behar ei dautsuz. Zelan eskatu legiken, salmuaren aitzakitan izanik ere, arreba Abda eta Santxuelo lobearen heriotza? Horra nondik, ene jaun, arerioen aurkako araoa errege-sendiaren aurka etor leiteken, errege-konfessoreari berari ere zeru-lurren oreka lortzea ezina jakola. Erraza dozu bestalde, ene jaun, errazegia, askoren dardarizua errege beraren gainera jaurtitea...”

“...GIZONEZKOAK GUDU SANTURA DOAZENEAN, KORDOBA emakumeen pentsutan gelditzen dok, ifarra gizonezkoentzat eta hegoa emaztekieentzat, esan ohi danean lez. Imanek eurak be nori predikau gitxi izaten joek orduan Mezkitara barruan. Emakume asko Mezkitara baino, Donadegira joan-zaleago dozak, hango alargunei limosnak egin-aitzakian, baina bide batez, han beneratzen dauen Bakearen Ikonoari arrenak egitearren. Gure Otxandak debozino handia diaukatsot Andre Mariaren ikono horrerri. Ni lehen eta orain gure semeak gudura doazenetan, bera Bakearen Ikonoari sarritxoago erregutzero joaten dok. Eta ez hemengo kristinauek bakarrik, mahomet emakumeek be *Agur Maria* erresatzen ei diautsek, beste edozein kristinauk lez. Emakumeek hagaitik esan ohi joek, bakea ezpata gaberik be irabazi daitekela, Bakearen Ikonoari eskatuez gero.

Gauzea, gizonezko eta andraskoen arteko tirabirea ezeze, Al Korana bera osatzearen ei dok. Hau da, Mezkitan gizonezkoek agintzen dauela? Ba, Donadegian andraskoek. Han Alaren Gudu Santu aldarrikatzen dala? Hemen Bake Santua eskatzen. Han *quibla* arku-zulora begira edo buruak makur otoitz dagiela? Hemen Andre Mariaren Ikonoari begira. Bakoitzaren gogakera edo emakumeen erantzun-modua izan daikek, baina Al Zaharako andrandiek, eta Sobeiagandik baino lehenago, ba diaukek horretan zerikusirik. Gitxi ardura bestalde, Mezkitako bizardunei, emakumeek isilean zer sinistu edo zer eginak. Itxura baten ondo estaldu eta lotu diabilzak, ibili, bai barrutik aske Kordobako emakumeok. “Hegoaizeari ormak-edo ipini?” esango dauek bertako zaharrek ere.

Kordobako emakumeek lehen Iruineko printzesen moda-jarraitzaile izan zoazen, baina Gudu Santuko laztura honetan, Sobeia ohiko Ordezkararen eta oraingo Ordezkarri-emaztearen arteko tirabiraren jorratzaile dozak. Euren esakera batzuk altzairu fina diaukeek, “amak ezina zelan lortu leike amordeak?” honakoak esate baterako. Kalifa umea zana, dagoneko umea ez dok

urteen adinera begiratu ez gero, baina umetzako edo erdi-gizonezko iraunazoten joek Mendezinak eta haren emazteak. Mutillakoa eskontzerik-edo pentsatu be ez. Ba dakik ze iraultza izango litzaketen Hixen Kalifearen eskontza? Lehengo eta behin nafar gorteko beste printzesaren bat ekarri beharko leukeek bake-itunbenen arauera. Printzesa horrek Mendezinaren emazte Abda Al Zaharatik baztertu beharko leukek eta orduan, orain arteko bi barik, hiru emakume izango litzakezak alkarren kontra. Iruineak ez leukek onartuko bestalde holako irainik. Egokiago joek daren artean Kalifea bera irentzea. Beste barik ere, nahiko hari diaukeek Kordobako emakumeek orratz-lanerako: “Amak gura ez ebana zelan gurako amordeak?”...

Oraingoan gainera, Mezkitako imanen zaratak barik, Donadegiko orazino isilak irabasi joek, maizetzen danez. Iruinan ez ei dok Bartzelona edo Leongoa jazoko, ez odolik errekarra helduko ez sutegei galgarririk biztuko. Almantzurrek, egia esan, gutalderik bizkorrena eroan jok Doroz gorantz, baina batek ba diakik Iruinea zigortzeko ala Don Gartziren belarriak eupadaz izutzeko ete diren. Nik Don Santxo, haren aita zanak Kordobara egin-bisitaren ordea ikusten joat Mendezinaren guduketa honetan. Ziur diakiat berak Iruineako alfonbrarik muinkatuko ez dauena, lehenengo eta behin, Iruineako alfonbrak Kordobatikoaak direlako eta hurren, Kalifagoko korte-legean, gizonezkoaren alderdikoa barik, emaztearen alderdikoa dagokiolako belaukatzea. Beste era batera esanda: Iruineari alabak eta konfidantza diagokiozak, Kordobari indarra eta arrandia. Suinarenean aitagarrebak behea muinkatu ebela-ta, beste barik, suinak ez jok muinkatuko ezkon-anaiarenean. Iruineako ohiturak ez jautsot bestalde, halako ohikunarik eskatzen, ez eta Mendezinari harrera ospaturik egiteko eta gitxiago barriz haren jarraipeneko gudariei harresi-aterik idegiteko. Erregeagazko ahaidetasunak ez jok hainbesteraino behartzen erresuma.

Mendezina bera emazte Abdaren eta seme Santxueloren erregaliak Iruineako errege-tronuraino errotan ausartu bada, ez zoan ziur ahidetasunari horren itzala dautsolako soilik izango. Beste auziren bat be izango joan, Unkastillo eta Aragoeko mugetan oratu-barri dauzan berrogeitamar nafar zaldunena baitikibat, Don Gartzia eta emazte Abda beraren lehengusu bi eurretan. “Zer dala-ta?” —esan leikion dardara baten Don Gatzik—. “Ene ezkon-anaia, —erantzungo Mendezinak— geure sendien onerako egin dautsut guzti hori, ahaidegoa horren gitxiesten dan aldiotan. Zure zintzotasuna Abda zure arreba eta Santxuelo zure lobearen pentzudan solik balego, ez neunke kontutan hartu ere egin gura hareen gain legoken arriskua. Orain ostera, berrogeitamar zaldun bikainok pisuan egiten dautsen aldeaz, erabat nasaitu egin nozu. Abda eta Santxueloren buru gainetatik ezpatea kendu dautsut beheinpehin...”

“...BIDEBATEZKO ZURE ERREKADOA NEUK USTE BAINO errazagoa izango zelakotan nengotzun, ene maisu, baina handikien ezkontzak edo ezkon-agintzak gazteluko gelara orduko maila asko igon beharrekoak dozuz. Erramel alabeagaz-edo izan balitz, bestelakoa litzaketen eginkizuna. Gazteak alkar maite izanez gero, —eta harakoan ez egotzun ez bairik— ez gendun ardi edo mando batzuren trukea baino besterik izango eta, niri egokidana barriz, Eleizearen bedeinkazioa emon eta Jaun Inko gure Jaunaren sakramentua egiztatzea. Baina Errodrigo edozein artzain-seme ez dozunez, Don Belaskoren aldetiko akatzak Don Atxuriogandikoak gehitzen eta konponketa nahastatzen baino ez jatzuz etorri. Han mailak eta hemen maila ta erdi, mailak bata bestearen gainean jauregirako bidean. Eta horrela, zoritxarrez, Eleiz-mandataria baino, areago urten dautsut Don Bela jaunaren ordezkari eta Errodrigoren aitorde, bada halan ezagutu nau Don Atxuriok, Don Belaren eskribua irakurri orduko. Ene bada! Hobe izango nendun Done Miliako misiolari soiltzat hartu nindien. Hatarako neuntsuzan, izan ere, eskubide eta erantzun

guztiak, bai ta ere alaba ezkongaiaren aitari erantzutekoak. “Ezkondu, baina nora?” izan zendun Don Atxurioren lehenengo bekaina. Zurtz itzi nindun. Ames gozotik urten eta egun ilunean itxartea lez niretzat. “Ez da Kordoban biziteko izango —ninin neure artean, argia berez-edo egin artean—. Ez al da ba Arabako konte jauna mutilaren aita? Baina halan eta ere, errefuxiatu baten aitak zelan eskeini leikio agintzarik-edo ezpada, Arabako andrandiaren maila?”

Lehenengo itaunari erantzun orduko, Don Atxurio ostera ere azterlari:

“— Noren alde dago Don Bela?”

“— Arabaren alde eta Gaztelaren kontra” —erantzun neinkena erantzun neuntson.

“— Ez, Nafarroaren alde dagoen, jakin gura dot” —zehatz Don Atxuriok.

“— Alde egongo da, Nafarroako erregearen lehengusua be ba da-eta —nik ezbaitsuago— eta erregea barriz, Kalifagazko harremon onetan...”

“— Harremon onetan dinostazu?” —Begiak betagainera igon eutsuzan Don Atxuriok une baten.

“— Ezezkoan balego, uste dozu Almantzurrek ez leukela bertan zapuztuko emaztetzat daukan Iruineko erregearen arrebea?”

“— Alde bateko bake-meniak zapuzteak ez dakartsu berez besteak emaztea zapuztea. Sendiko arduraz landa, erreinukoak egon daitezke eta bestelaz...”

Lehenengo itaunketa erdizka ere erantzun barik neunkala, zuhur ostera ere Don Atxurio, ea ezkontza-agindua isilekoa ala agirikoa izan behar eban. Beste buruauste bat niretzat. Isilean

datorren ezkongai isileko agintzetan dator berez eta halan etortzun Don Belaren seme Errodrigo. Gauzeak agirikoaren indarra euki egian, ez ete geuntsun inguruko handikiren baten lekukotasuna beharko? Don Lope Eneko Tudangokoarena, esate baterako? Hor egotsun ba untzea, ene maisu. Nork ziurtatuko euskun Don Lope Eneko, Nafarroari eutson fedegaitik, Don Belaren aurkako ez zena?

Hara ba ni, Don Belaren ordezkaria nozula, ez dakitsut Don Belaren erantzun zehatzik eta ostaz Araba eta Bizkaiko politika-uneaz Don Atxuriok berak beste. Hemen bertan ere, Araban jazo ohi dena, Belatarren hutsa sentitzen dela, jendea nora ezik edo alde bietara begira dagotsu, noiz noren alderdia aukeratu. Araban Nafarroara edo Gaztelera dagozela eta hemen Arabara edo Nafarroara, Don Lope Eneko eurretan. Gerediagako batzarrak onartua dela-ta, beste barik, ‘Bizkaiko jauna’ deitzen hasia dozu, nahiz eta Garnikako batzarrak onartzen ez dauen. Batzarkideok gurago ei dautsue Don Atxurio bera Bizkaiko jauntzat, jakin izan dodanez, baina eztabaidea armen indarrez barik, Batzarraren eskubideaz ebastekotan, jaun bata edo bestearen nausitasuna barik, hango edo hemengo Batzarraren nausitasuna ebazten delako. Hortik bada, ene maisu, Don Atxurioren begiramen eta begirakunak. Mendebalera begitu eta Don Belaren itunbeneko leondarrak inoiz baino apalago, muga-mugako Don Galindo bera begi bat Gaztelan daukala, Gaztela barriz, Nafarroaren morroi, dakigun bestean. Zelan egokitu Don Belaren Jauntza erreinu bion erdian, Gaztela, Araba bera baino, morroiago den artean?

Don Atxuriok artean bere gaztelua erakutsi daust. Etxa-gaztelu hau itxasotiko lapurrak uxatzeko eraiki ei eutsuen euren asabek, Otzarri, edo itxas-ahoa harako adardunen pentzudan ez iztekotan. Harrigarri izan jat, ene maisu, itxas-aho edo Itzaro deituko aitzetik lehorrera dagoen ueztigari *Otzarri* deitzea. Otxarritik Otzarrira etorri nozu beraz. Urez edo lehorrez dela,

bietan ere gauza bera esaten datorrelakoa dautsut, hemen itxas-atea eta hor mendatea adierazten dauela.

Hemengo itxas-atea lapurrengandik zaindu behar zen garrietatik ei dator Bizkai-buru honetako Atxuriotarren jauntza. Hagaitik, ifarreko itxas-lapurak behingoz aihenatu zireneko, mendebaletik leondarrek eraso ebenean, uretakoei lez, lehorretikoei erantzuteko eta burujabetasuna edozeinen kontra zaintzeko gertu ei egotzuzan Atxuriotarrak. Halako baten behin Mungian eta beste behin Arkoriagan estikatu ei ebazan leondarrok gaurdaino gordeten diren mugetaraino. Ordutikoak beraz Kalandio eta Gerandio arteko ugaltadar-mugea ere. *Kalandio* deitzen dautso berak, Don Belak gutunean *Galindo* dinonarren eta erdaldunek, inoren zerik topatzen dauen bakoitzeko, beti ere birbateatu eta eskuragotzearren, erdaltzeko dauken ohitureaz. Ordutikoak ei dozuz oraindino hemengo herriak abesten dautsuzan koplak:

*Asturia eme,
Atxurio arra,
Atxuriok bentzu dau
asturiarra.*

Erasook ifarretikoak eta mendebaletikoak ei ziran, edozelan ere. Inoiz ere ez sortzaldetikoak, eta ez sortzaldea mendiz hobeto ornidu dagoelako, handik euskaldun anaiak baino ez dagozelako baino.

Bosturia, Bizkai-buru honetara etorri behar da, ene maisu, Don Atxurioren ikuspuntua ulertu ahal izatekotan eta neu ere bertotik begiratzen ahalegindu nozu, gauzak erabagitzeko barik, auzia zeuri azaltzekoz...”

...NON DA ZUEN JAUN INKO HORI? —ESATEN DAUKUTE gaizkile fedegabeok egunero zapladak emanala. Masaila bata hautsi egin daukute jadanik eta bertzea erakusten diegu eta

berak harroago orduan: Ea zuen Jinko Jaun hori diatorkizuen sendatzeraz... Zer egingo diegu bertze masaila lokatu diezaigutenean? Buru-buruan jo gaitzaten itxaron? Ez dinot geure bizitza edo geure ohorerako, gure Jinko Jaunaren ohorearren baizik. Nola adieraziko diegu fede gaiztokooi gure Jinko Jauna bizi dela eta beren eskuetatik gu ateratzeko ba dela? Geure Jinko Jauna dela *Deus Sebaoth* harakoa eta ez dela bertzerik? Gudarosteen Jaunari etsaiegandik atera gaitzan deika eta arrenka hasiko ote gara, geurok geurez beatzik ere mugitzen ez duguno? Ez holarikorik! Masaila ezezen, arpegia erakutsiko diegu, *harrizko arpegia* hatan ere, profetak dinon bezala. Non dela gure Jinko Jauna? Orduan ikusiko dute argiro non den eta nor den, guk, bere izenean, ikuspegi bananduetatik ate, aurpegi bakarra, harrizko aurpegi bakarra, erakus diezaigunean. Areago, harrisko aurpegi bakarra eta burdinezko beso bakarra beren kontra osa dezagunean...

Edo gu gure Jinko Jaunak otsoaren ortzetarako bitina egin ote gaitu? Edo gure alaben eskean datoztenean, bakearren, eskura emango ote dizkiogu lupu iguingarri halakoari, konponbide ona egin dugulakotan? Alajainkoa! Neu nindukezue orduan *nor da zuen Jinko Jauna* barik, ‘non da zuen gizatasuna’ salatuko nizukeena. Edo noren bizia edo ohorea zaintzekoz hartu zenituen armak eskuetan? Ala, mahometek bezala, Jinko Jauna irabasleen alde dagola uste duzue? Edo geuron eskuz egin genezakena zeruko mirakuiluz-edo ukainiko dugulakotan zagoze? *Izan ezazute bihotz eta ez izan beldurrik, bestela neronek —dino Jaunak— sartuko dizuet bezurretaraino berenganako beldurra...*

Bizi da gure Jinko Jauna eta burrukarako gertu dauzka angeru-taldeak. Erakutsi diezaiegun sinisgabe erailoi nor den gure Jinko Jauna, baina erakutsi diezaiegun beren hizkuntzan, Mikael Goiangeruaren harako irrintzia nahiago ez izatekotan: *Quis ut Deus?* Nor gure Jinko Jauna adina? *Eta zeruan gudua sortu zan,*

Mikael eta bereek gogor ekin ziotelarik eta harrezkero ez zan doilorrentzako tokirik zeruan. Zerua beraz, angeru-ezpataz eta zuok esku hutsean eraso nahi ote duzue? Mahometek Alaren izenean bat egin dutela, zuek noren izenean zatikatzen zarete? Berak Gudu Santuan, zuek ordea doilorren burrukatan? Makurtu zuek, Jauna, erasotzailea, sakabana etsaia. Izan ere, nor ausartuko da orduan 'zer egin duzu' esatera? Suaren garrak eraso eta mendeka ditzala ihesi doazenak eta 'nor gu baino gehiagoka' ari den buruzagiari zapal iezaiozu burua...

Baina zuok, Jinko Jaunaren ohorea beharrez, zeuon onura bilatzen duzue eta halatan ongi egiten digu gure Jaun Inkok etsaien zigorrera behartzean. Bilatu ezazue berriz ere Jaun Inkoaren ohorea eta gainontzekoa gehigarri emango zaizue.

Pakea, pakea! —hots egingo dute—, baina ez da pakerik izango. Pakea iragartzen zuten profetek ere ezpataren zorbatzean erori baiziran. Ezagutu al zenuen Asur, Asurioren semea? Pakea aldarrikatzera joan omen zitzairen bere aitaren gaztelua erasotera zetozen mahometei. Deabrutua zagoz —esan omen zioten herexe haiek. "Deabrututa banengo, Antikristoaren sailetan nenbilken eta ez Kristo gure Jaunaren pakea aldarrikatzen" berak erantzuki. Entzun duzue biraoa? —karraxi egin zuten batera etsaiek— .Zer merezi du? Heriotza! —oihu egin zuten eta behin-behinezko judiziora behartuz, ezpataz jo zuten Azken Judizioaren aurre-egunotan.

Pakea aldarrikatu eta biraolaritzat hartu zizuten, barkamena aipatu eta indarrez eraso, Kristo gure Jaunaren gurutzak erakutsi harek eta bertan josi gaizkile haiek.

Orain bada, Kristo gure Jauna maite ez duena *anathema* da, eta Kristoren aurka dagoena, *Antikristoa*. Zer beste frogaririk nahi duzue? Eta oraindino ere, erantzun bila egongo ote zarete, pakea baino beste itenbiderik ezbailegon? *Ez nauzue pakea ekartzera etorri, ezpata baizik* diosku Kristo gure

Jaun berberak eta haxe bai dela aho biko ezpata, Kristo gure Jaunaren hitza.

Antikristoa, leoia bezala, ordekan gora dela, nor ez beldur? Jinko Jaunaren Semeak hitz egin eta nor ez profeta? Gaizakeriaren gizakia Jinko Jaun gurtzaileen kontra jaiki eta haren etxea jasarrizera dator eta zuok mendi-ziloetan eskutatatu behar ote dituzue zeuron buruak? Inpernuaren erronka zantarrena *nor duzue nire eskutik jaregiteko den Jinko Jaun hori* entzun eta, zeruan sinesten ez dutenek bezala, kikil atzerantz egingo? Hona gure Jinko Jaunaren erantzuna: *"Hona hemen Ni hire aurka Gog, Menek eta Tubal-ko buruzagi horren aurka: irauli eta masail bezurretan burdin-kakoak josiko dizkiat. Ezkerreko gezi-uztaia zartada batez kenduko diat eta eskumatik erori egingo zaizkik geziak. Egazti eta harrapakin guztien eta basapistien janaritzat emango haut. Landa zabalean jausiko haiz..."*

*Gudarosteen Jaunak
epaian agertuko dau
bere banditasuna.*

(Isaias prof.)

“...URIOLAK AIHENATURIKO ARRATOIAK BEZALA, MAHOME-
ten erasotik ihes, toki eskierragoen bila, diatortzuz Kukulua
honetara eta Arandio guztira. Artzain izan gura ez dauenak
monxe izan gura dautsu eta batzuk, profesatu gabeak direna-
ren, monxe-burua egiten dautsue dagoneko.

Okina eta Borobia-buruan ia ez dago tokirik eta Otxarriko
babesetara jo dautsue. “Done Milia Josaphateko zelaia-edo dela
uste dozue ala?” esaten dautset nik Antikristoaren jasarpina eta
Azken Juizioaren hurtasuna aitutzen dausteenei. “Hori ibarral-
dean edo ordeka zabalago baten izango dozue, ez hemen men-
dian”, osteria ere nik.

Eurak ere ez dakitsue Azken Juiziotik ala Almantzurren zi-
gorretik ihes datozen. Hainbeste urte monastegiko bakean eroan
ondoren, ia milagarrena burutzen doala, ez dautsue ulertzen
monastegien kontra mahometei sartu jaken deabrua, *¿qué demo-
nio les ha entrado?* Halan inostan Aukako autzetan oinetakoak
galdu ebazan monxe adindu batek. *¿Qué habemos fecho?* —antzi
egian agureak—. *Nunca tiramos de la espada, ni cabalgamos en
mesnada...* Kordoban gudu santua aldarrikatzen dauen imanek

ere ez ebela ezpatarik janzen edo zaldiketarik egiten, baina halan eta ere, ezin eitekezela bake-zaletzat-edo emon, esan neun-ton, Almantzurren gudarien besteko gudu-egile baino. Monxe kristinauen zeregina ez zela egiaz Mezkitako imanena, baina euretariko batzuk hareen lehian jausi zirela, eta holakoetan, nahiko izaten dela batzuren erratua denak ere zaku batean sartzeko. Euren susmoak, bestalde, euren izakeratik datozkela, "guk holan eta zuek halantsu". Holako aldi larrietan itxura baten ezeze, ekintzetan agertu behar zela benetasuna eta beraz, hemen bakea aldarrikatzen ez ebana gurutzada-zalea zela, beste barik.

Bateri baino gehiagori bake-igarlearen eredia ipini dauset.

"Hako monxe edo erromesak, esanak ekintzaz egiztatuaz, igarlearen maila lortu dautsue. Gudu-kurutzadea barik, Kristoren gurutza aldarrikatu eta eroatsuen soinean..."

Izan ere, Bake-igarle deituriko harek arerio amorratuen bidera urten ei eutsun, ene jaun, eskuetan gurutzeta baino beste armarik ez eroala. Eta halantxe agertu ere egin ei dautsue Naia-rako azken ihauterian. "Zergaitik ez hoa mahometen artera heure bake-misino horregaz?" —esan ei eutsoen, ez dakitsut Otxanduriko mugetan ala Nafarraten—. Guk nahiko entzun dauagu. Eurak dozak burrukea eta heriotzea dakarskuenak, eurak konbertidu beharrekoak..." Hareek —herriko seme edo erregearen gudariak ez dakitsut— esan eta Bake-igarleak egin; mahometen muga beroraino joan ei jatzun Don Asur, bada hori zendun eta horrela deitzen eutsun bere buruari, "Asur, Asuriren semea" herriak "Bake-preofeta" deitzen eutsunarren. Horrenlakoengaitik esana bai-dago "*Quam speciosi pedes avengelizantium pacem*" goralpena. Inork ez ekitsun ziur nor edo nondikoa zen, nahiz eta Kristo gure Jaunaren Erreinua aldarrikatzearen, aitaren gatzelua itzi ebala esaten eutsun. Monxe-janzkera eta artazitu gabeko bizarrak soinean, Jaun Done Joanesen antzeko bitzita gartxua eta konpondu bako Ebangelioa eroatsun ahotan,

gure Jaunaz bizi eta Haren bakea opa eutsela guztiei, *Pacem meam do vobis* harakoa berea egiten ebalarik.

Balinba halango igarleei jara gehiago egitea, ene jaun, aldi larriotan! Erosoago loretuko litzake bakea gure artean, baina zintzoen heriotza ihauteriko irrigarri edo, txarrago dena, zentzagarri erabili dautsuenek, mesede egin dautse mahometen esku-tiko mendekuari.

Bizitzan Bake-profetearen mezua ezetsi ebenek, mahometek baino lehenago aukeratu eutsuen heriotzarako Jaunaren morroia. *Oi profetak erailten dozuzan, Jerusalem!* Eta nor da hemen eraile? Sinagogak ala Erromako Gobernariak heriotz epaitu eutsun lehen ere profeten Profeta, Kristo gure Jauna? Bada hemen ere, Mezkitaraino joan barik, berton, Eleizaren adinera hel-tzen ez diren, sinagogar espirituko hamaikaxo dagoz. Halakoek Kristo gure Jaunaren artaldea batu eta zaindu beharrean, banandu eta heriotzera daroatsue. Gurutzaren jakinduria albora eginik, Ben Sirak eberraren salmoak errepikatzen dautsuez: *bildurrazo egizuz, Jauna, atzerri guztiak, zure ahala ezagutu dagien... Gu zigortuz, zure santutasuna eurei erakutsi dautse-zunez, erakutsi eiguzu guri zure handitasuna eurak zigortuz... Et fac mecum signum in bonum, ut videant qui oderunt me eta confundantur*" beste harakoaz oldartzen.

Eta hara, ene jaun, judegu eberraren baten ahotan eskari zu-zena dirudiena, biraoa deritsot kristinau baten ahoan. Izan ere, zelan konpon daitekez halango araoak Kristo gure Jaunaren maite egizuez zuen arerioak eta otoitz egin kalte dagitsuenen alde aginduagaz? Zer dauka zerikusirik Ben Siraken *bizkortu, Jauna, zure aserrea, isuri zure sumina, makurtu erasotzailea, sakabanatu arerioa ainenak gure Maisuaren parkatu egiezu, Jauna, quia nesciunt quid faciunt* eskariagaz?

Eta otoitz-asmoa asmo, Jaunaren epaiari itxaron gaberik, harago joatzuz eurok, esanak ekintzara eroan gura dautsuezala a

Dios rogando e con el maço dando arauera, gure laborantzako ganora eta lanabes baketsuak eurak gudurako arma erasotzaile bihurtzen dauezela.

Zer egingo ez leukeen halakoek Bake-profetagaz ezeze, Kristo gure Jaun berberagaz, kristau erresuman barik, erromata-
rren garaietan-edo bizitekotan...

Guk oster, ene jaun, hareek ezetsi eben harria oinarrizat hartu dogunok, Asur, Asuriren semea eta, inoiz baino sakonago gogoan sartuta daukadan, gure Don Munio zenaren ereduak daukaguz geure aurretik eta geure artean. Bizitzan Kristo gure Jauna aitortu eta bizi izan ebenok heriotzean ere Kristoren zori-
kide izan bai-dira. Eurak dozuz niretzat gaurko Kristo gure Jaunaren martiriak, palma-adarrez goitik deiadar egiten dauskue-
nak. Baina, esan dautsudanez, zentzun gabeko ihauteriaz onen-
txoon eredia kalean dandarrez erabili eta gero, uste dozu Don Bedito gure Episkopuak santuen izendegian hartu edo ohora-
tuko dauzela?...

Kristo gure Jaunaren jarraileak baztertu eta geure gustoko ereduak aukeratu behar ete doguz? Edo beste era batera esanda, heldu ete jakuz azken batean, Apostoluak salatutako *bide zuze-
na bautsi eta belarrien gozagarri diren maisuek aukeratuko dautsuez* harakoaren garaiak?... Nora joan gaitেকেz gu, ene jaun, halako ereduekin, betiko heriotzara baino? Guk bizira daroan geure Maisu bakarraren gurutzabidetik joan gura dogu, *nora joango gara, zeuk bakarrik bai-dozuz bizitzako Berbak... Et nos credidimus eta cognovimus quia tu es Christus Filius Dei*, Pedro Apostoluaren arabera.

Hanartean Done Milian ezin-kabidu ahala monxe eta orain-
goan erdaldunez oka egiteraino kontuizu, hizkuntzaz eta batez ere eritsi ezbardinez ostaz argitzen garela. Argi dinozu zuk, ene jaun, "oraintxe Bizkaian fundazino barriak egiteko aukerea", bai-
na kontuz, halan ere, bestela Done Miliako euskaldungo urritua

etorkinon eskuetan ittotzear geldituko litzakizu... Nork emongo dautse gero Bizkairako hautatuei behar dauen eskolea?..."

"...NEURE BITARTEKOTASUNAREN ELORRIOAK ETORRI ZIREN lez joan dira azkenean, ene maisu. Itxas-ahoa bertan, lehorretik salto batera dagoen Atxaramendi ondoan, arrain-untziak lurra jotzen dauen unetik ez urruneko itxas-beheran gengoan Erro-
drigo eta biok. Arrainen gatzerritea, gatzunasken piloa eta Gari-
zuma-sunda harek eraginda lez, ezin laket kresaletan bustialdia hartu barik. Ura otza egotzunarren, aldi honetako erreka-uren ondoan epelagoa zendun. Izbeherako aretza bigunean zehar, Izaro ur sakonetako aitzari biderdi egiten geuntson. Halakoetan itxasoak agirian izten dauzan maskurio handi eta txikitari eta bestetarikoetan ikusi eta aztertzen genduzala, uraren gazitasuna jastatu, olatu apartsuak ekidin eta bateo barrialako *maria et flumina, bendicite Domino* harakoa berezko dauen kantu-otsean usmatu, uretan sartu eta oskirriak astitzen genduzala, geure oste-
rearen helmuga hantxe bertan jo izan baigendun, ez zehatzago, arrandegitik dei-hotsak entzun genduzan. Arabatiko gatzariak etorri zirela eta Errodrigorentzat anaiaren erreka-
doa ekarrela.

Erdi-jantzirik, arin baten itzuli gintzazan lehorrera. "Eneko anaiaren partetik, Araban harako tokira eta ahalbait arinen joa-
teko" esan euskuen banasean. Gatzarietako batek berak lagun-
duko eutsola eta, zaldiz joanez gero, egun erdian anaiagazko harremonetan jarriko ebala. Ze asmo edo zertarakorik bat ere ez. Zukiako bidea aipatu eutson gatzariak. Garandioko autziba-
rretik ordekarra ebaiten dauenetarikoa dozu, gure aita zenak-eta ezagun eben altxubidea.

Arabako gatzarien erreka-
do hark Errodrigo nigazko loka-
rrietatik behingo baten askatu izan baileuan, uretatik harako arrankaria lez, eskuetatik laban egin eta "gero arte" esan ordu-
ko, zaldira egin zan mutila beste barik, hurrengo egunean Don

Atxurioren alabeari aurkezteko zuzendu geuntson zaldun jantzia. Gonbite bata besteagaz ahaztu edo trukatu izan baileuan, ez arinago, gatzariak prestatu-zaldian, trakata baten ahienatu zan, egunetan eta artzain-ganora apalez egin-bideak zaldun harroskoaren lasterketan apurtzen ebazala.

Ez eutsun harek andregaiagazko gonbite-eguna kontuan izan, ez une bat bereberki urruntearen aitzakia emoteko itxaron. Arrazoi bikainagoak izango eutsuzan, behar bada, halako ihesirako, baina ez nenkizanez, ez eusteen balio izan Atxurioren aurrean eta areago haren emazte eta alaba eskongaiaren zehaztasunei erantzuteko. Ea Errodrigoren “gero arte” harakoak zer esan gura eutsun, “bihar arte” ala “etsira arte” esan gurako eutsun. Don Atxuriok baietz: zaldun ikasiak nahiko ebala egun erdi Arabarako osterean, bideak aukeratzeko jakinez gero. Halan ere troka batzuk egunez eta kontura handiz egitekoak zirela elorrioaren latzagaitik. Ea nork eta zertarako deitu eutsun. Ama-alabek behin behinezko erantzuna gurako eutsuen nire ahotik eta barregarri nenkusan benetan neure burua, lehen Don Belarenak egiten asmatu ezinik eta areago orain haren seme Errodrigorenak. Don Atxurioren galdeketa zorrotza izan bazan, ez samurragoa ama-alabena. Gudu deia izatekotan, zer jazoko Errodrigori. Ea mairuak dagoneko Arabaraino sartu ziren. “Mairuak Araban?” —neue ere asaldatu. Batzarre-deia izango zala, Arabak urteetan itxaroten eban batzarre nausirakoa. Gudua arbuia eta bake-bideen ederraz berba egin neuntsen: “Herri hautatuak gitxi eta arma gabeak izanarren, mila gudari armatuk baino hobeto ebasten dautsuez herriko arazoak eta mesedegarriagoak izaten dozuez beraz...”

Zehaztasunetan labur, baina orokorretan nasai neragon eta ama-alabak baretuago gelditu ziran. Ez dakitsut noiz edo zelan, baina ezkongaiok alkar ikusita egozalakoa emoten eustan, legez alkarri aurkezteko dagozalarik ere. Susmogarriak egiten jatazan geroago bai mutilaren “gero arte” harakoa eta bai neskearen

halako ardurak, dagoneko maitemindurik bailegon ez kezkatuago, edo eta mila leguatan beralako mutilik jaiotze izan ez bailitza.

Hainbestez eta Errodrigoren ihesia dela-ta, haregazko nire bitartekotasuna hementxe eten dela uste dautsut, ene maisu, bada, antza denez, Arabatiko dei horrek ordezkartzatik lekutu egiten nau. Hainbat hobeto niretzat, ez ete deritsozu? Neure benetako misinoari ekiteko askeago gelditzen naitzu horrelan. Munduko errege eta jaunek euren indar eta zaldunak guduratzeko dauezenez, halan gure Belengo Errege apalak Bake-Errege-nurako gonbidatzen gaitu bereok. Orain bada, Berak, handikien etxean barik, artzainen etzeluan atanda hartu dautsunez, poztu egiten nozu bere etorreraren ospakizun-aurregunotan Don Atxuriogazkoa kitutzat emoteaz, neure artaldeaz arduratu aha! nadin. *O Emmanuel, expectatio gentium et Salvator earum* gaurko antifonak emon daust Kristo gure Jaunaren misiolariari dagokion gogakerea. Beraren etorrera aldarrikatzea dagokit: “Ene jendeok, zuon errege edo jaun nortzu diren eztabaidetan aztoratu eta maiz alkarri armaz erasoten dautsazuen artean, hara non datorkun Bake-Erregea, Kristo gure Jauna, apal eta ahul, Belengo esalpean...”

Ulertuko ete dauste misterio hau, ez dinot Arriagako hareitzairen eta gurutzearen kerizpean jesarten edo jesarteko diren hautatuek, euren gora-beherak burdin-zigorrez ebasten ohi dauzenek baino? Ulertuko ete daue *Jaun Inko gugaz, Oi Emmanuel* hori dela euren Errege eta Jaun jatorra arerio guztien eskutik salba daikezena? Ze prisak hartu edo nongo izarrak deitu doatuz bada euren zaldietan, Belenerako garaia den orduotan?...

Holako oharkizunetan gogobildu, Don Atxurioren etxatik Joseperen etzelurantz ninoatzun, ene maisu, Zoilube mendian gora, behean itxaso eta goian zerua zabalagotzen jatazala. Lurkoietatik aldenduago eta Jaun Inko gure Jauna hainbat bikai-

nago agertzen dela ohartzen neuntsun alde batetik eta itxasoa bera ere zeru-espilua zendula bestetik, “zelan zeru-begia halan itxasoko ontzia”, Josepe artzainak esan eustanez. Halan abesten ei dautse Bermioko arrantzaleek Albonikako Andre Mariari. Handixek ikusten genduzan apal eta ur-ertzean arrantzaleen egoitzak eta mendi jasoan beilari Andre Mariaren ermitea.

Jaun Inko gure Jaunak gizakiok bere irudi eta antzera egin izan gaitunez, halan egin ei dautsu itsasoa ere ortziaren antzera, eguraldi onetan urdin aintzagarria uretaraino murgiltzen dela, eguraldi txarretan barriz, hodeietako ekaitzak uretakoekin nas-tatzeraino. Josepe artzainaren itxasaldeko bizikizunak jaso ondo-ren, geuri, oinezkooi ere Jaun Inko Jaunagazkoetan, ortzia eta itxasoarena apur bat jazoten ete jakun nagotzu, ene maisu. Zer besterik egiten dautsu gugaz Jaun Inko gure Jaunak, izan ere, Kalbarioko nekalditik Pazko-pozetaraino lagun egiten dauskula, eta itxasoa lez, zeruko argi-ilunen partekide gu egitean?...”

“...ZELAN LABANDU DAN ERREGE DON BILDUR EDO BERE jantziez marro egin dauen eraila Axaloneko ibaian, Kalataiude-rako bidean, ene lehengusu, eta zelan jausi diran Nafarroako zaldun leinargiak Gualkibirreko ur-ertzean, goitik behera erreka beraren uharrak baileroazan! Han, Axalonen, berrogeitamar mahomet zaldun atxilotu gurako joazan Don Bildurrek, ez berrogeitamar nafar atxilotu hareek baino gitxiago, truke-balantzan gora bardina-edo emon egien. Baina labankadeaz jokuak txarto urtenik, Guadalkibirreko urak gorritu jozak Axaloneko erailketak. Edo guduari goitik behetik sua emotearren, hatarakoxe norbaitek. Nafar gudariak ei zoazen Kalataiud eraso eta Abdal-Aziz, hango gobernaria, erail ebenak. Nafarrak edo batek ba diakik... Ez deritxak erronka larregia nafartarrei egosteko? Kordobako xake-jokuari eutsirik, tira-birea mantentzeari bai, baina erregela guztien kontra, dameroa horrela odoleztatzeari ez. Eskuaren dorpea holako jokuetarako. Zer beste ondorerik ekarken halako

erasoak Kordobako baituen herio-epaia eta errege Don Gartziren etsipena baino? Eta hori nor egin leikean, lehengusu, erre-suma guztia gudura lerrazo gurako leuken azagari-kumeak baino? Iberoz handikoa barik, Doro burutikoa izan dok golpe hori. Don Bildur ez baitan egola, mokau debekatua eroan jok osterabe, Gaztelako azagari-kume ezeze, gudu-ilinti dan horrek.

Almantzur ez zoan txikikerietan hasiko, ea erruduna Iruine-ako erregea ala Gaztelako kontea dan galdezka. Nafartarren erregeak berak jakin behar jozak bere mendekoen nondik norakoak. Itau dagiala ezpabe, norainoko morroi edo etxekalte dauen Gaztelako lehengusu hori. Almantzurrek zehatz erantzun diautsat Don Gartziri: “Bake-itunbena apurtu dok osterabe. Heuk etenazo dok eure zaldun baituen buru gainean dindilik egon dan ezpatearen haria...”

Hara ba nondik, lehengusu, Kalataiuden hots eta hemen jausi diren napar zaldunena. Don Bildurren tentelkeriari esker, beste garaipen-seinale bat emon jautsat Kordobako herriari Almantzurrek, Al Zaharatik mogidu be egin barik.

Gure Otxandak eta Donadikoez ez joek ikusi be egin gura izan holako sarraskirik, baina Mendezinari ondo be ondo etorri jakok Mezkiteari eta Kordobako herriari sor eutson mendekuseinalea. Guduaren burdin-hots eta ifarraren txisturik entzuten ez dauenek be, entzun dagiela heriotz-agineko handikien alauria eta ezpatearen txastadea eta ikusi errekaraino doan odol-borborra...

Nik neuk be gogotik alde egingo najoan Al Zahara osteko mendietara, halakorik ez ikustearren, baina Mendezinaren justizia-lekuko izan behar najoan, ondo damurik bada be.

Mendekuaren lehen partea gizonezkoa nagusi ohi dan, Mezkita barruan izan zoan. Asperkunde-berbak hantxe imanen

ahotan, Alari eginiko iraina garbitu behar bai-zoan: *Hartu egizue, sinisgabeok, itxaron zenduen zigorra...*

Ala bere zintzoentzat mila bider errukitsua danarren, jakin egin behar dok, lehengusu, kristinau sinisgabeek burutik behera kaka egiten dautsoenetan ezin bestean apenkor bihurtzen dana. Eta halako irainak, halako asperkundera... Izan be, zer balio diautsok Mendezinari Iruineko erregearen ahaidegoak edo legezko berbea emoteak, gero bata saldu eta bestea ukatzekotan?

Mezkitatik kalera doazen esamesak kontatzen dauadaz, lehengusu, ez neure burutikoak. Mendezinak argi erantzun diautset oraingoan herriko marmarrei: "Iruineko errege-alabeagaz ezkondata nago!a? Bai, baina Iruineko errege-alabeagaz ezkondata egoteak ez nau fitsik ere aldentzen Alaren bidetik; zatoze ezpabe Alkazar Barriko plazara eta argiago erakutsiko dautsuet..."

Abda, bere emaztea ez dok egon urkagian. Estaduko arazoak ez jok halakoetara behartzen, Kordobako andrandia izanarren. Bai oster, bere seme Abd-al-Rhman, Santxuelo. Aita-semeak zaldi banatan bidera urten jeutsoen Alkazar Zaharretik esku-lotu etozen nafar zaldun epaitu eta euren borreroei. Urkamendia erreka ondoan, zubiaurreko atean, zubitiko eta plazatiko jende gehiagok ikusi ahal egian. Txirimien, atanboren eta turuten erdi-jai, erdi-gudu-deiak jendea kale guztietatik batzen. Almantzurrek ezpatea jaso ebaneko, epaituak ondo zenbatuta egoazan. Berrogeitamar zaldun, nafar kristau eta leinargi neuretzako, fedebako gudari eta gudalburu bat, bi, hiru gitxiago haren buruak lurrera eratsiala, eurentzat. Lau, bost, sei Alaren ukatzaile gitxiago, errosarioa eskuetan, otoitzean *Ala-u-abkar* errepikatzen ebenentzat.

Ezpata makurraren txastadea Alaren asperkundera zoan, eta Kalifagoko indarra barriz, zaldun erorien odola. Zaldun bakoitzak borrero berezia eukanarren, lana bateratsua barik, ohikune

ospagarriagoetan lez, txandan egitekoa zoan, danen azkena banaka ikusi ahal izanaz, otoitzak ere zenbatu eta asperkundera alauriz ospatzen ebenei astia emotearren... Berrogetazazpi, berrogetazortzi, berrogetemeretzi arerio gitxiago. Bat gelditzen zoan, Abda, Kordobako andrandiaren eta Iruineko erregearen, jaun Azenariz, lehengusua, hain zuzen. Atanborak eta txirimiak nagiago markatzen hasi zoazen, berantesten zan borreroari astia emotearren-edo. Edo azken haxe amnistiatzera ete joian Almanztzur? Andrandiak Mendezina mendetzerainoko negarrak egin ete dauz? Odolaren deiak gehiago egin ete dautso azkenean? Eta herriko batzuk "non da azken horren borreroa" itauntzen ebal, hara non Abd-al-Rhman, hamabost urteko mutila, izengoitiz *Santxuelo* deritsona bera, zalditik jatxi, urkagira hurreratu, bere ezpatea jaso eta nafar handikiari lepoa moztuten dautson. Burua zapetatik oratu eta herriari astiro erakusten. Zantzoak, gorakak...

Arrandia ala ankerkeria, ez diakiat zer zan handiagoa, ohikunea ala asperkundera beteagoa. Emakumeen alauriak, gizonezkoen irrintziak eta santuen otoitzak... Almantzurrek zirkinik be ez hanartean zaldi zuriaren gainean, Kordobako herria Iruineko Don Gartziren baimenaz asaskatu ebalako kontzientzia ausnarketan-edo bailegon.

Hemen apentza, gizakien grina ezeze, Alaren erleginoa dok, Ala aserretzen danetan.

Halakoetan, inspirazioaren handiz, koplariagino joak hemen bihotzen lera lurriz zeruginen:

*Oi Alaren atsegin-eguna,
zure zintzoen izena apentzeko argitua,
zure martiriak ohoratu eta sinisbakoien buruzagiek
ezpataz epaituak izan direneko eguna...!
Halantxe jausi beitez
zure izenari men egiteko ez diren*

*buru gogor, sinigabe guztiak.
Onean gura izan ez dauenez gero,
ondo damuturik ordaindu daue
bidegabekeriaren errua,
eta itzuli dautsue Zuri, oi Ala Guztiz-Albaltzu horri,
zor jatzun oborea...*

Zerua lurraz larregi nastau daroala; lurra jaso beharrez, zerua makurrazo, esan gura dauat.

Horrelan Kordobako odol-ospakizun hau gero datorkenaren bezperatzat hartzen joat. Ez dok alperrik entzuten kaleotan Mezkitako bizar zuridunen eraginetiko marmarra: “Batzelonan eta Leonen egin dana zergaitik ez behingoz Iruinean?” Eta, zoritxarrez, oraingoan Donadiko isil otoitzen gainetik joten joek Mezkitako ziri-geziok. Ez diakiat odola Argaraino helduko daretz edo Don Gartzik burua zuritzeko beste aitzaki izango dauen. Ikusi egin behar, lehengusu, Don Bildurrek ala Don Astartok gordeko dauen, ostera be, Nafarroako mahastia...”

“...HEGOAK NOIZ EZ DAKIGULA JOTEN, EZ LAPURRAK gaueko zein ordutan atzeko ormea zulatzen dauen, halan gagoztuz, ene jaun, Done Milian bertan mahometen zaldiak geureraino etorriko diren bildurrez, oraindino monastegian gelditzen garenok, bada, Don Ferrutzio Abatea bera ere, erregearen konfessore delako aitzakiaz, ez dakitsut berari aholku egiteko ala beragan babesa bilatzeko, Iberoz harantz joan bai-dozu dagoneko, zaintzape ardurak gure eskuetan itziaz.

Alba, Arlantza eta Rodilako monastegiak eta hareen inguruko bizibidea zeharo txikitu dauela eta Ziuri eta Zironiako gureek mahometen zorongoak, erbindureak antzo, lurretik burua noiz jasoko dagozela, batean hau erre eta bestean han jo dauela entzungo dogu. Haraino heltzen direneko gure ormak ere dar dar egingo dautsue eta orduan Txilizari mendi-babesean-edo


eskutatu beharko dogu. Balinba arerioa mezulariaren aurretik ez etortea...

Jazoak jazo eta ikusiak ikusi, nork ziurtatuko dausku guri heriotzerako bila etorriko ez jakuzanik? Eta ze ihesbiderik gelditzen jaku honez gero, geure Zaindari Jaun Done Milia bera, Jaun Done Jakue eta Michael Goiangeruaren lehkide eta kristau gudaritzaren buruzagi armatu bai-dautsuez herriaren irudimeanean? Oi gure Zaindariaren kristau-jarraipena, Apostoluaren erromes-ganorea eta zeruko gudarosteen garaipen-seinua ahozpepe jaurtinak! Non da nafarren *signifer*, *Sanctus Michael*, Kristoren gurutzea soilik buruan, herriaren buruzagitza egin daroana, erdaldunon asmotan bata ezpateaz eta bestea astamakilez jantzi daiskuezan? Ze burdin armarik behar eutsuen Kristo gure Jaunaren gurutzeaz ondo armatu egozanok?..

Eztalakoaan ere, mahometen amorragarri egin gaitue etxean karidadez onartu doguzanok. Errege Don Gartzik begiko gauzela-ta, ez gaitula bertan behera itziko? Beste zereginik ez bailéuan! Esan ezpaere Don Ferrutziori. Don Gartzik begiko gauzelarik, begi bat aterako dautsoe geugan errege jaunari. Nork ez dakitsu, hemendik Kordobaraino, Don Ferrutzio, gure Abata, erregearen konfessore ta aholkulari dena? Eta Kordoban nafar zaldun baituen bizia errespetatzen ez denez gero, nork erantzun dagike errege-aholkulariaren biziaz? Ondo egin dautsu Don Ferrutzio ihesteaz, aholkatu eta aldarrikatu dauen ordena bariak dagoneko halako tripalak erakarri dautsozalarik. Etxean gelditu garenoi ostera, kontzientziaren garbitasunak gitxi balioko deusku ezpata makurren aurrean. Kristau-legea dozu, izan ere, Kristo gure Jaunarenaz gero, errugabeak errudunen orde jastea eta hori izan daiteke hemen ere askoren gurutzea hako *quia et Christus, justus pro injustis, mortuus est* Pedro Apostoluak esana gaurkotu daiten.

Datorrena datorrela, ea euskaldunok erdal belarri berotzaile-
engandik askeago biziten eta errege-aholkulariak Ebangelioari
hurragotik jarraitzen ikasten dogun. Izan ere, Jaunaren Berbea
aho biko ezpata dozu eta, sua jolaserako darabilenentzat ere
erregarri gerta daitekenez, halan narrutik ikasiko dautsue hain-
beste-monxe eta monastegik Jaunko Inko-Berbea alperrik aho-
tan hartzea zer den. Balinba gurutze hau eroatea danon eskola-
biderako izatea. Ez dogu alperrik esan ere egiten hileta bakoi-
tzeko *dum veneris judicare saeculum per ignem* Jainko-zigorra
suaren pareko egiten dogula. Mahometek ere ondo dakitsue hori,
ene jaun, eta irudiaz beneta eginik, bardin orniduko dautsue
Al Korana Ebangelioko ondakinekin bat baino gehiagoren zent-
zabiderako. Bidezko deritxot bestalde, ene jaun, suzko edo
ezpata-zigor honeri aurre egitea, batzuk zigorra erakarteko dau-
keen zeloaz eta besteek barriz zigorra ezarteko dakarren
lehiaz...

“Artizarra bera baino isilago gauean eta argi-txinta baino
aintzinago goizean eta geuk ez genkiala hurreratu jakuzan.
Monastegiari lau aldetatik sua emon eta Azken Juizioalakoan
argi egin euskuen, atetik edo leihoetatik itxumustuan urteten
eben guztiak geziz zulatzen ebezela... —Holantxe kontatzen
euskun bere erderan Albako monastegi sugartutik ihes eginiko
monxeak—. *¡Judicio final!* —oihu egin ei eban anaikidetariko
batek sugarrak ikustean eta haren karraxietara monxeak, itxartu-
barrien itxumustuan, sutatik iheska eta nora ezean. Berak une
haretan Ebangelioko *Judean dagonak mendira ihes egin dagiala*
harakoa gogoratu ei eutsun eta mendira dautson lehiotiko jauzi
baten Arandiorantz jo ei eutsun. Mendi-bizkarregi guztia ingu-
ratu eta ez zendun arnasea hartzeko ere gelditu Done Miliara
arte. Hila irudian bizia baino gehiago gure ateetara heldu ze-
nean eta bere arpegiunea zendun gero kontau euskunaren le-
kuko. “Ebangelioaren oharrari jara egin barik —inoskun berak—
nor liburutegiko bildumak edo biderako zerbait jasotzera asmoa
luzatu ebenetariko bat bera ere ez zan bizirik urten...” Bizirik



urteneko zoria aipatu geuntson eta berak ere ez ekian halakoe-tan hiltea ala bizirik urtetea zein den hobea. Edozelan ere, aitortzen euskun, gitxi ardura eutsola bizi aldakor hau kendu le-giken suak, betiko bizia galazo eta betieran erregarri izango den harakoaren ondoan...

Gauzea ez da isil eukitekoa, ene jaun, eta neuri dagokida-nez, goitik salatuko dot gure arteko gudu-zaleei zor dautseguen ondamendia. Izan bedi, edozelan ere, danon zendabiderako. Nork ez dautsu bere adin gabezia hatzamarrak erretzerainoko suaz jolasik egin? Bada amorrua eta apentza, gudua bera den besteko su galgarriak dozuz, ene jaun, harekin ardura gabe jolas dagien guztiak adindu bakoak dozuz.

Denon erruak Bat Harek gurutzean ordaindu ebazanez, egoki izango al da hemen ere, batzuk danen ordetan, eta ez he-rri guztiak jasatea. Epaia izan da askorentzat eta sua ez da ama-tau oraindino, ez ezpatea jatxi, Azken Juizio zuzenaren aurretik holakoak ikusi edo entzun bai-doguz. Apokalipsia dinoe dago-neko, baina nik ez dakust halakorik. Apokalipsia balitz, gure mendiak eurak ere ikaraz dardara egingo eutsuen eta gure ibaiak, bide erratuz, uhiolka etorriko jakuzan gainera. Gure mendiak oinarrietan sendo diraue ostera eta ibaiak betiko bide-ari darraitsoe. Bardin gure misino-asmoak, ene jaun, aurrera da-rraikee, Bizkaiaren barrena ezeze, munduaren azkeneraino za-baldu behar bai-da Jaunaren Erreinua, guzti hori jazo aurretik..."

"BEDEINKATUA JESUKRISTO GURE JAUNAREN AITA, ESKE-rrak Bixente gure anaikidearen esku-arteziari, apur bat geure begiekin egiztatu ahal izan bai-dogu gure Jaunaren Agerkun-deko *et viderunt puerum cum Matre ejus* harakoa. Geure aldetik ezin geinken itxaro ere egin erregalu hoberik eta zer nahi eta haxe lortu dogu Urte Barriko aginaldoz. Halantxe esan ere egin neuntson erreka doa igorri euskun Arsilo artzainari. Gainerako

gudu-asalduen barriak ez dau ikara handirik sortu hemen eta zeuok ere, Jaunaren laguntzaz, halako arriskuetatik onik urtengo dozulakotan gagoz.

Eskerrak emon zeinkioz beraz, nire eta bosturitarron parte-tik Anaia Bixenteri, gure Jaunaren Berbea ulergarriago egin dauelako jende xumearen begi-belarrietan. Ziur nago nire ahotan baino hobeto ulertuko dauela bere artegintzan batek bai-no gehiagok.

"Aizpeko Andre Maria" deituko dautsogu, dagoneko herriak berari jasota daukatsen ermitan bertan *ut quicumque coram illa Unigenitum Filium tuum et Santissimam Virginem Mariam collere eta onorare studuerint...* zurezko irudiak eta latinak adie-rastzen dauena euskal belarriotara eginik, misterioa argiago uler-gengian eta irudiaren aurrean egin-otoitzak, Jaun Inko gure Jaunaren oneritsiz, zeruan ere entzunak izan daitezcan.

Nik irudia bedeinkatuala, Jesus Umeak iruditik bedeinkatzen ginduzan eta herriari irakurri eta azaltzen neuntson Ebangelioa, Umeak berak eskuetan daukatsun bildumatxoaz autoridatea emostan, han esanak eta nik azalduak bardinak egiten ebazala-rik. Eta zer esan Anaia Bixentik Andre Mariaren buruko mende-lean hain egoki antzestu-izarraz, bera bai-da urrutiko aztiek deitu, eta Umearen ganean gelditurik, Beleneraino erakarri ebazana? Eta geu ginduzuzan, txiki eta handi, euren lehiko prozezinoan ginoazenok gurtzaile eta opari-emoile barriak. Han etortzun Don Atxurio eta sendia, gaztelu-zainak ere ezpata-dan-tzarien ganoraz, arrantzale eta artzainekin batean. *Surge, ilumina-re, Jerusalem* profetearen poz-oihua bertakotzen ahalegindu ninduzun. Pozez dantza egizue, bosturitarrak, eta argitu begiok, Jaun Inko Jaunaren aintza zuen baitan agertu da-eta..." Hiruro-getamaikagarren salmoa abestu neban: *Et adorabunt eum omnes reges terrae:*

*Auspeztu zaiteze, errege guztiak
baren aurrean,
serbitu hari, herriak.
Dei egiten dauan
behartsua onik atera dau-ta
ta ezinduari erruki dautsa.*

Elizatzxoan sartzean andatik irudia jatxi eta absideko ormara jaso gendun, meza-buru jatorra bera, Amaren besoetako Jaun Inko-Semea bailitzan, ta ni haren serbitzari. Horrelan, Ebangelio-ko azalpenean Jaun Inko-Berba gogoen bizigarri egiten jakunez, herriak oparitan ekarririko ogi eta ardoa ere, salbabideko janari bihurtzen jakun Eukaristian.

Ite missa est esan, eta mezea amaitu zelakoa azalduarren, Bosturiko amek ez eukeen eleiza barrutik urteteko iradurik. Bartzuk urtenala, besteak Andre Maria hurragotik ikusi eta umeak euren eskutxoez ikutzera ekarrezan.

Harrezkero, Bosturiko umeek ez daroe Andre Mariari ikutu gabeko kutunik idunean. Azkonarraren haginak ere sorgin-be-gizkoen kontrako indarra galdu dautsue, Andre Mariaren irudiari ikutunekoak-edo izan ezik. Magiazko gutunok baztertzekotan eta Jaun Inko gure Jaunaren Berba askatzailearengan uste osoa euki izan dagien, Otzerriko umeengan ohitura den lez, hemen ere Jaun Done Joanesen Ebangelio-hasierako *In principio erat Verbum* hizkiez egin-narrukiak ipini beharko jakez iduneko.

Andre Mariaren babespera datozen gaisoei ere zera dinotset: “Dagoneko ez dozue zertan joan edo zeuon gaisok Laitako kobarera eroan, zuen osasunaren bitartekorik baliotsuena bertan dozuenez gero.” Errekearen bestaldean, izbeherako ondartza barrenean agertzen den aho biko kobatxoa dozu. Itxas beheratan alde batetik sartu eta bestetik urtetekoa egiten dautsue, itxasgoran uhin barriak gaitza eroango dauelakoan, “uhin barriak beroe gaitz zaharra” eta beste araoak murduskatuaz. Osasunerako zein

Aita gurea bera baino otoitz hoberik? Azaletik ezeze, barrenetik osatzen bai-gaitu. “Ez dozue zertan santutegiko (horixe bai-dozu dagoneko, euren debozionari esker, Aizpeko Andre Mariaren eleizatxo hau) ate batetik sartu eta bestetik urten, zeuon gaitzak soineko edo gogoko direla, Jaun Inko Jaunaren indarrak zeuon baitan garbitzen dauz-ta. Nahiko dozue hatarako Jaun Inkoaren ararteko bikainak dozuezan, Andre Maria eta haren Semeari esatea eta zeuon gogoak hareen sentikerakin bat egitea...”

Eskerrak Aizpeako Andre Mariaren laguntasunari, ene maisu, herriak ulertu ezeze, gogotsu baten entzuten daust Jaunaren Berba. Eskerrak Andre Mariari eta haren taiugile Anaia Bixentari. Zelan adierazi hutsean bestela, Jaun Inko gure Jaun ikusezina, gutzaz errukiturik, bere Semea, amagandik ume egina bidaldu euskula mundura? Bai ostera, berbaz dinodana iruditan ikusiaz gero, eta sinisten dozuna belauniko gurtu eta mun eginaz adoratzan dozularik, bai eta salbamenaren-poza kantuz eta jai eginaz ospatzeraino ere...”

“...ESKERRAK JAUN INKO GURE JAUNARI JEREMIAS PROFETAren negar malkoak txukatu eta leoien zulotik harako Danielen zoria aldatu baidigu! *Bada erori da Babilonia haundia eta deabru-zulo eta zikin guztien bizitokia eta irauldua izan da iguingarrien habia!* Amildua izan da lurreko erregeak bere haragikeriaz kutsatu eta merkatarien luxuriak aberastu zuena, iraulia izan bai-da Kalifagoaren uriburuko poza eta itzalia ustez *garaitu ezina* zenaren izarra. *Oi ortzi-gingaraino burua jasotzen huan, Luzifer, nolatan amildu baizen infernu-lezeraino!...*”

“Gudu santua egin dezagun” hots egin eta ahaltuaren pareko burua eginik, Jinko Jauna-adoratzaileen eta haren Kristoaren aurka armatan jarki haizena, nolako auzi-abartza hartu dukan oraingoan. Haundiaren haundiz, gaiztakeria zerua ukitzeraio metatu huan eta Jinko gure Jaunak hire bidegabekeria ikusi

eta herriaren samin-alauria entzunik, ondo merezitako ordea eman bai-dik. Itzul iezaiozu berari, Jauna, berriz ere zure ahaltsutasunari eta zure santuei egindako iraina eta kaliza beretik ondarretaraino edarazi guri edaten eman digun minkatza...

“Nor ni bezalako” erronka eginaz, zeru-aulkirako duin zeritsana, nola datzan orain samin-etzangoan, guri urteetan opa izan digun zigorra egunaren buruan erori bai-zaio bete-betean bizkarrrera...

Atzerriak aserretu egin ziren, baina heldu da, Jauna, zure aserrea, bai eta zure santu eta profeten odola ixuriaz eta zure santutegiak erre zituztenak su-labera aurtikitzeke eguna...

Kalatainasoran jazotakoa eta gudarosteen Jaun Inko Jaunak bere adoratzaleei garaipena eman ziena jakinik, hako Antioko bezala, sarrakioak hartu, eta Kordoba deritzaion, Babiloniara ihesi bai-doa Bere harrokeriazko usteak denak ustel erten zaizkiola, eta gure Jaun Ahaltsuaren kontra haurtiki-birauak, okerreko geziak bezala, buru gainera erori zaizkiolarik, hilbeherako iretargiaren tristeziak jota, senda ezineko gaitzak hartu bai-du Almantzur... Zer dinok orain, Antioko, heure ezintasunean? *Kontuan ete dituk Jerusalemeko tenploan egin-lapurretak?* Damu ete duk orain egiazko Jinko Jaunaren adoratzaleak ezpataz hila? Ez ahal dituk harako buruzagi gaiztoaren *bau bai larrialdia nirea!* zinkurinak entzuten? Zergaitik oratu hau zoritxarrak Jinko Jaunaren herriari eta haren Kristoaren serbitzariei egin-kalteak baizik? “Kristauen monastegiak hilobi bihurtuko ditut” esan eta su ta gar sartu hintzan gure ordeka eta ibarretan, baina guztien asmoak ezagutzen dituen Jinko Jaunak, erreka urek ezin-itzali adineko su miragarria isioki dik erraietan. Horra bada, armaz garaitu ezina, sukarrak jota ohean. Atzo ordekek itaitu eta mendiak zapaltzeko gei hintzana, gaur lur-jota eta garbaiak haukala. Ezpataz eta suaz zigortzen bikaina hi; ezpata eta su gaberik ere ba zekik zigortzen Ahaltsu denak. Hagatik, udazkeneko mende-

balak basoak soiltzen dituen antzera, hala mehastuko dizkik hire gudu-lerroak haren sudurretako haizeak eta hilbeherak gauari argia urritzen dion einean, hala akituko dizkik indarrak haren besoak. *Jinko gure Jauna gure alde badago, nor gure aurka?...*

Eta zuek, aberearen aurrean kikildu zinetenok, zer diostazue orain Jinko gure Jaunaren beso indartsua ikusiaz gero? *Nor da aberea bezelakorik?* esaten jarraitu behar ote duzue zuen kikildura eta sinesgabekeria zuritzearren? *Nork egin dezake burruka aberearen aurka?* mingatzen jarraiko, Jinko Jauna gure alde dagola? Oraindino ere Antikristoarekin pake-itunbenak egin behar ote dituzute? Zeuron alabak eta senitartekoak berari eskeini eta Jinko Jaunaren adoratzaleak lilura-zorian utziko agian irensugearen aurrean?...

Esan bihotz kikilduok *nor Jinko Jauna aina* eta jaso begiak. *Hara non datorren salbamera eta gure Jinko Jaunaren indarra eta erregetza eta bere Kristoaren abalmena, amildua izan bada gure senideen salatzailea eta Jinko gure Jaunaren aurrean gau eta egun salatzen gintuena...*

ERASKINA

Guek ez dugu ajutu

(Done Miliako *glosa* (X. giz.))

DONE MILIAKO GLOSARIOAREN MILAGARRENA OSPATZEN zelarik eta Euskaltzaindiak harako euskarakaden oroitarría Done Milia Beheko kalostroan ezarten zuen une berean, ospakizunera euren burua gonbidatu zuenetariko hiru bazkide Done Milia Goikora zuzendu ziran.

— Ezpata eta kaparik ezean be, gazkoindar hareek beste ba gozak, izatez, baina nork aitzurtuko jauskuk mila urtetako tunela? —Burua eskumarantz itzuli zuen txofertzakoa egiten zuenak.

— Mila urtetako tunela! Asmatu egin dok, txo! —Poz-jauz-kadaz aurpegia argitu zuen bizi aldameneko jesarlekuan zijoen euskaltzain baino mendigoizale-antz gehiago zuenak—. *Denporaren tunela* esaten jakok horri.

— Baina ez diaustak balioko hainbesteko ekintzan *birurok batean eta bat hirukotxan* mosketeroen harako argudioak...

— Ezetz? Eta zer *idegi*, *Sesamo* esaten badauat? Ausaz tunela eginda diagok eta gurea sarrerako atea asmatzea baino ez dok izango.

Berebila monastegi izenekoaren aurrean gelditu zen eta berehala hiru bazkideak jatxi eta elizperantz abiatu ziren. Mendigoizale itxuradunak ahapetik ohar egin zion hirugarrenari:

— Hik San Millanen bizitza eta gainerako historiak erosi eta agureagazko autugaia amaitzen jakanean, *isioki dugu* harakoaren esanahiaz itaundu eikiok. Oso ulertua dok agurea hemengo arazoetan eta dagoneko, hizkuntzaz behenipehin, euskalduna ez dananarren, norik diakik bere garaunetako zurrunbilan gorderik dagoken hementxe bertan esan eta idatziriko euskerakada horren oihartzuna? Aztertu egik, ea hitz galduen akordura erakarten doan... Dana dala, ez egiok bakerik emon, harik eta guk geurea burutu arte.

Buruz baiezkoa agindu zion hirugarrenak. Mendigoizale-itxuraduna eta txofertzakoa, sarrerako txartela hartu, eta eliza barrura sartu ziren. Mendigoizale-tipoak linterna isiotu zuen eta eskumako orman, mendiari datxikon aldetik dagoen San Milanen koba aurrean gelditu zen.

— Eutsiok honeri —Argia lagunari luzatzen ziola, esku-pikotxa atera zuen anorak petik eta koba adierazi zion—. Nahiko tunel deritsok? Hortxe barruan bizi ei zoan aldi batean hako santu penitentzi-zalea. Beti izan joat bertan aitzurkada batzuk emon-gurea. Argi egistak, ea hik argi eginala eta kantore hintzanekeo *et incarnatus*-edo abesten daustaan, txo, gauzeak ondo urten daiskun.

Esku-pikotxaz orma eta aitzulo arteko harria jotzen hasi zen. Orma aldetik zuen zirrikituan erroa sartu eta indar egin zueneko, harria, bitxitegi baten zipotza bailitzan, mugitzen hasi zen. Kantoreak *et homo factus est* amaitu orduko, harria eskuetan zeukan pikotxlariak eta 'denporaren tunela' bezalakoa begien aurrean.

— Aiko! Ikusten dok? Hauxe izan behar jok.

Kantorea, magiaren indarrak eraginda bezala, mutu gelditu zen. Pikoxlariak besoa sartu zuen zuloatik eta zuloaren betekoa eltzeki luzenga bat atera zuen bertatik. Eltzekiaren estalkia jaso eta eskua sartu ezin ahalako ahoa erakutsi zuen. Eltzea ahozpeztizulirik, astindu egin zuan.

— Hementxe egon behar jok, ba... —esan zuen pikoxlariak.

Zerbait mugitzen zen eltzekiaren barruan, baina ez zuen ertetzen. Pikotx-golpe batera argitan gelditu ziren heltzekiaren erraiak. Larruki-bilduma agertu zan eltze-kaskoen artean. Esku biek zabaldu eta zirriborro nahiko igatu-idazkiak zirela ikusi zuen pikotxlariak.

— Esan nioan nik! Esan nioan nik! —Larrukiak besarkatu eta kolkoan sartu zituen.

Berehala eltzeki-zatiak zuloan gorde, harriaz zuloa estali eta, anoraka bitxien gordailu bailitzan, harrotu zitzaion barrutik.


Kantoreak eta harginak *isioki dugu* erdi-soinutzen urten zuten elizatik, agure-zain eta liburu-eroslearen harrigarrikako.

— Ikusi dozue? —galdetu zien liburu-erosleak.

— Bai, isioki dugu —erantzun beste biek.

ABENTURA BATEK BESTEA DAKARRENEZ, HIRU AMESLARI eta azterlari haiek, eskuetan urrea bai-leramaten ez pozago, larrukiak zabaldu zituzten. Tamaina, findura eta argitasun ezberdinekoak ziren, eta zoritxarrez, ezin irakurriak, tintaren igadura-gaitik.

— Ez uste —esan zuan azterlariak—, idazkiak izan behar joek, bestela ez joezan kobako sekretuan gordeko. Hasiera ba-



ten kobeak gorde joana, orain larrukiak eurak eskutatzen dauskuela begien aurretik...

— Balorea barrutik daukeela esan gura dok —Begiak argitu zituen ameslarienak.

Infrarrojos-gelan sartu ziren hirurak. Azterlariaren aurpegiak suaren bila infernura jatxi zen jeinuaren antzeko diztira gorriska urtikatzen zuela ohartu zuen ameslariak. Izu-ikarak ukitu zion soinaren azaldura guztia.

Fotografiatu, kimia-uretan sartu, astindu, ur batetik bestera aldatu.

— Ikusten dozue? —Txingarralakoxeak ziren azterlariaren begiak—. Esan neuntsuen nik. Idatzita dagoz.

— Zer dinoe? —Sudurrak urreratu zituen ameslariak.

— Zelan gura dok jakitea, negatiboak dozak-eta?

— Ea *glosa* barriak diren...

— Ez jirudiek.

— Euskerazkoak izan daitezela, jo!

— Marjenetan ez diagerk idazkizunik —iharduki zuen azterlariak—. Larruki bakoitza idazkera bardinduan dagertsue. Ez dozuez luma batekoak danak.

Foto-positibatu, argiak isiotu eta idazkeraren moldea eratarira irakurten hasi zen azterlaria: *kor-du-a... na-ras...*

— Zer jinok? —Ameslaria erretan.

— Hik, Jokin, ba al dakik paleografia irakurten? —Azterlariak San Milanen bizitza eskuetan zeukanari begiratu zion.

— Ea zelakoa den...

Jokin argazkitik letreiatzen ahalegindu zen: *Al-man-zur... or-dez...*

— Euskera izan behar jok horrek —Kokotza ferekatzen zuen liburuzaleak—. Ba diakiat hau nork argitu leiken.

— Konfiantzakoa dok? —galdetu zion azterlariak.

— Bai, konfiantza osokoa.

— Kontuz! Ez genduan esan ba hiru mosketeroon artean egin beharreko lana zenduela? —asaldatu zen ameslaria.

— Ze ardura jok 'hirurak bat' ala 'laurak bat' izan? Gauzea arazoa argitzea dok, Alex!

Alexek beheko ezpainia oskatu zuan, azterlaria laugarrenaren bila abiatu zenean, "Ikerrek koba aztertu eta larrukiak idoro —zioan bere kautan—, Jokinek barriz, paleografo lagunaren bitartez, larrukion edukia azalduko dausku, eta nik zer egiteko? Danon artean *isioki dugu* esango, baina nik neuretik zer berezi erakutsiko?..."

— Hauxe be ba dok, tunel batetik urten eta bestean sartzea... —Buruari eragiten zion Ikerrek bera eta hirurak paleografoaren etxean sartu zirenean.

PALEOGRAFOA ITZALGARRIRO POZTU ZEN, JOKIN ADIZKI-deak aztertzeo ekarri zizkion larrukiak ikustean. Halako bokaurik aspaldian ez zuela ikusi, esan zuen. "Erdi Haro Behekoak dozuez...; esku bat baino gehiago dagoz bertan... Ikusi, ikusi..."

Kaligrafia-antzeko 'dokumentu' zaharrak erakutsi zizkien bababesgandiko antzak eta aldeak ikus zituzten.

— Ikusi itxura bardineko hau... Hara hemen besteak baino hizki makurragoduna... Minuskula honeek ostera, eratuagoak dozuez. Monxeren batenak ziur. Halan saiatzen zenduezan Biblia kopiaketan: *errege Don Sancho, Done Emiliako bazter honetara...* Jo! Ba dakizue hau euskeraz dagona? Gauza arraroa benetan, —betaurrekoak kendu eta aztoratuxe begitu zien ingurukoiei—, bada, gaurdaino, nik dakidanik, ez da agertu izan euskerazko honen dokumetu zaharrik. Non aurkitu dozuez?

Hiru mosketeroek arnasarik ere ez. Jokinek eta besteak Ikerri begiratzen zioten. Haren zehaztasuna jakiteko goitzo zela adierazi zion Ikerrek paleografoari. "Jo, hiru-lau glosa barik, euskerazko liburu osoa aurkitu dogula jakitean, zer esango daue?" —Eskuak ferekatzen zituan Alexek eta haraz gero, larrukiei buruz lan berezia egin behar zuela ziotsan bere buruari.

— Eta originalak? —galdetu zuen paleografoak.

— Neuk daukadaz —aitortu zion Ikerrek—, baina ez dira irakurten infrarrojoetan izan ezik.

— Ez, narrukien antxinatasuna probatzearren zenduen —Betaurrekoak ezarri zituen ostera ere paleografoak—. Ea idazkerasusmoak materiagazkoaz bat datozen...

— Probatu zeinke gero haren antxinatasuna? —arduratu zen Iker.

— Ez al dozue aintzako *karbono 14* artesia? —Txandaka begiratu zien paleografoak hiru mosketeroei—. Adizkide bat oso trebea dot horretan.

— Konfiantzakoa da? —Beheko ezpainia oskatu zuen ameslariak berriki.

— *Konpetentea* esan nahi dozu?

— Zera... Euskeragaitik ninotsun.

— Euskerarik ez daki, baina hatarako ez daukatsue zertan jakinik, bada karbono 14ak, idazkizunen antxinasuna barik, narrukiena aztertzea dozue.

HIRU LARRUKI-TXATAL EMAN ZIZKIOTEN “KARBONO 14” azterle jaunari. Aztertu eta berehala azaldu zituen harek agertu ziren zantzuak: *Este parece del siglo XV*, esan zuen txatal zuriska, denetan finena eskuetan harturik.

— *¿Cómo que parece..?* —asaldu zen Alex.

— *Este, en cambio, del siglo XV...* —jarraitu zuen karbono-azterleak, txatal beltzerana adieraziz—. *Este sería probablemente el más antiguo...*

— *Como ¿qué siglo?* —Arnaseari eusten zion Ikerrek.

Azterlaria ez baitan zegoen. Alexek kokotza ferekatzen zuen eskumaz “konfiantzakoa, bai zera” —hagin artean ziola—. Esan nioan nik maketo honek inbentoa izorratuko euskula...”

Susmoak eta zantzuak bestelakoak izanarren, gauzea ez zela ziurra, azaldu zuen karbono-azterleak. Bada larrukiak, idazlearen mahaira orduko, astindu eta triminduak ezeze, belarkien azidoz karbono-zantzutik hainbatean hilduratuak izan ohi direnez, ez zutela gero antxinasuna ziur ematen eta, beraz, hiru txatal haietan landuena eta finena bera izan zeitekela auskalo hiruretan zaharrena.

Karbono-azterlearen azken azalpenoz aurpegi muzinduak piska bat gozatu egin ziren eta itxaropena zutik gelditzen zen, karbono 14-azterlearen begietatik alde egin zutenean.

Paleografo jaunak bularra jo zuan: “arazo honetan inork galtzekotan, neu izan nozue galtzaile —iragarri zien hirukoitzari—. Nik estiloz X. eta XII. gizaldiko emoten nebazala, (eta halan

diraue karbono 14-ak esanak esan) azterkizunak ustel emon daustalako. Baina estiloak ez dau engainatzen, karbonoak bezala... —hirukotxari banan banan begiratu zien—, zuetariko batek neuri, edo beste norbaitek zeueri ziria sartu ez badaustue...

— Hemen ez dago ziririk! —Ikerrek bularra aztatu zuen, bera eta beste biak lekukotzat jartzen zituela—. Geu gara *denporaren tunela* zulatu eta narrukiak aurkitu doguzanak. Ez dago hemen inoren ziririk ez inongo kinkailerorik!

— Parkatu, ez neban esan nahi holakorik —Estulak gozatu zituen paleografo jaunak—, baina egon ba dagoz oraindino estilo guztien asmatzaileak, nahiz eta holako lorpen aizunik nik ez ezagutu.

— Eta zer dozu azaleko estilo hori barruko bere edukinen ondoan? —begietara adikatu zion Ikerrek paleografo jaunari—. Hori ere nonbaiten asmakisuna izan daitekela dinozu?

— Inolaz ere ez, adizkide. Neuretzat nahiko eta sobera dot zuen lekukotasuna, nahiz eta narrukiak neuk ikusi ez dodazen.

PALEOGRAFOAREN SEKRETARIA ERDALDUNA ZENEZ, ALEXEK beretzat eskatu zuen zorzainarena bezain ardurazko zeritson lana: “Ezin geinke edozein baten eta areago erdaldun baten eskuetan itzi jaioteko den sorkaria. Etxekoren bat lekuko izan ezik, batek ba daki erbi ordekatua sartuko leuskiguen.”

Ikerrek eta Jokinek ontzat eman zuten Alexen eskabidea. Paleografo jaunak zirriborroak irakurrialda, Alexek mekanografiatzen zituen. Belarriez entzuna, molde berrietan edatua ikustean, kontakizun bikoitz eta hirukoitza alkarren gainean gurutzatzen zirelako susmoak zeukan. Lanaren erdiraz gero, behin baino gehiagotan larrukien ordenaz ohar egin zion paleografo jaunari.

— Deigun bakoitzean estilo bardinekoak, baina horren kronologia ez da horrela, hasierakoa datorrelako orain daroaguna azaltzen.

— Bai, baina zelan ordenatu, edukina jakin orduko?

Txuak irentsi, paleografoagandiko euskerakadak makinaz jo eta aintzina bateko kontakizunen, iragarrien eta eskutitzalakoen munduan murgiltzen zen Alex, “Alex, amets” esango deuek ostera be, gure antxinekoen barri jakin dagianean” bere kautan ziola.

Estilo edo gai berezikoak banandu, hango kontakizunen kronologia ordenatu, edukinen batasuna susmatu, “ba dakust orain tunelaren azkena, mendiaren beste aldea ikustekotan, argiari jarraitzea baino ez dot” mingatu eta folio numeratuen dantzan zekion gogotik, paleografoak atsedinari ematen zizkion uneetan.

Estiloak edo autoreak nastatu, kontakizunen ari etenak elkartu kuadro bateko argi-ilunen trazu sendoak bezala, lotzen zi-rela, “Ikerrek tunela zulatu, Jokinek infrarrojoetan edukinen materiala argazkitu, baina nik paleografoaren nahasmenak argitu... Zeuok esango daustazue hirurotatik zeineri egokitu jakon lanik bikainena... *nam quidquid recipitur...*, izan ere, bakoitzak bere asmo eta amesetako lana berera hartzen eta egokitzen bai-dakitsue...

Aste bete geroago, Iker agertu zenean, oraindion burua paper artean zeukan Alexek. Ikerrek folioak eskatu zizkion.

— Itxaron eistak apur bat, mendiaren beste aldea ikusteko gitxi falta jatak-eta —erantzun zion Alexek, paper artetik burua jaso ere egin gabe.

— Ze mendiaren bestaldea dinostak?

— Haztu egin ete jak mendi barik ez dagola tunelik?

— Eta heuri, Euskaltzaindiaren bilera hiru egun barru denez, euskaltzainari aurretiaz eroan behar dautsodala?

— Eta kontakizuna, txotxo? Mendiaren beste aldean zer dagoen ez badakik, zer ardura deuk ia tunelaren beste aho ahoan egoteak?

— Kontenidoez diharduk? Horretarako astia daukak gero ere. Ezingo dautsek bestalde, euskaltzanein bakoitzak bere ikuspuntutik begiratu eta asmatzeko aukerea kendu.

Larrukien argazkiak eta folioen fotokopiak hartu eta euskaltzainagana zuzendu ziren Iker eta Jokin, ez hala ere, Alexen agirika entzun gabe: “kontu egizue ez deusuela balio izango, *hirurok batean* esakunea aintzat hartzen ez dozuen artean...”

Folio mekanografiatuak eta larrukien fotografiak hartu bezain laster, originalak eskatu zituen euskaltzainak, “ikasketa serio batek gauza bere sorgutik hastea eskatzen bai-du”, azaldu zien.

Larrukiak ekarri, ikuskatu, alde batetik ez bestetik begi begira ez zela ezer irakurten ohartu, infrarrojoetan ber-aztertu eta, harriztekoa, hutsa ematen zutela konturatu... Susmo-begiradak eta besoez azta egin beharrak. Iker larri.

— Baina zelan, guri positiboa emon dausku-eta? —Ikerrek Jokini begiratzen zion—. Hire teknikaz begiratuko joagu...

Sorginen jokua zela-ta, Jokinen estudioan kabitu ahala euskaltzain eta argazkilari sartu ziren. Jokinek argi bereak eta azido berdinak erabili zituen, baina, zoritxarrez, ez zen gertatu hasiera bateko miraria, Ikerrek Alexen “kontu egizue ez dausuela balio izango...” harakoa gogoratzeraino.

Larruki eta tinta zaharrak izan ohi duten argi-sindromea aipatu zuen argazkietan ulertu-batek, eguratsaren igadura hara-

koak, kobako ezetasunetik giro lehorrera kolpean aldatu izanaren kaltea, alegia. Jokinek hirukoaren lekukotasuna gogoratu zien, euskaltzainak ez zela konfiantzaren arazoa, teknikoak baizik. Halatan ere, larrukien hutsa sentitzen zuelarik, ustezko barne-edukinak aintzat harturik, haien azterpenerako auzitegia proposatzen ziela hurrengo batzarrean.

HISTORIGILE, HIZKUNTZALARI ETA PALEOGRAFO JAUNEK osotzen zuten auzitegia. Euskaltzain jauna mahaiburuko zelarik, mahaiaren alde batean epailari teknikoaren hirukotxa eseri zen, Iker eta Jokin bakarrik beste aldean. Alex bera ere une batetik bestera agertuko zela esan zuten.

Mahaiburuaren gonbitea onartuz, paleografo jaunak hartu zuen eskua. Bere azter-lana lehendik ere mahailagunek ondo ezagutzen zutela-ta, labur izango zela adierazi zuen. “Paleografoa naizenez —esaten jarraitu zuen— ez naiz sartuko karbono 14 horren gorabeheratan. Hori ez da matematikan bezala, halako idazkera halako gizaldian e.a. Ez da harritzekoa beraz, estiloen eta karbonoaren zantzuetan adostasunik ez egotea. Ardurazkoagoa deritsot osterara, estiloen eta edukinen batasunari, esate baterako. Hona, bada, egituraz eta edukinez X. gizaldiko idazkiak. Harrigarria da benetan hainbeste gizaldiaren buruan ordutiko mezuaren hegal gerta ahal izatea, eurretari batek baino gehiagok daukaten maskaldura-mailan. Hagatik eta originalen idazkera erdi ezabatua dela-ta, irakur-sailak egin izan zaizkit pasarte batzuk. Halaz eta guzti, ahal bezain argi irakurri eta transkribatzera eman ditut...

Eskerrak zuoi, Ikerren taldekooi, larrukiok idoro bezain laster, fotografiazera eramanezen, bestela, momia askori gertatua jazoko zen: eguratsak ikutu orduko, antza dena galdu. Deigun kobatik harako argiak jota, jadanik jatorrizko antza desagertu, fotopositibootan gordetzen dela. Eskerrak zuen ardurari,

harako mezulariak, azken arnasa eman aurretik, testigua igorri ahal izan bai-digu.

Idazkera edo, bere zentzu jatorrenean esanda, estilo ezberdinen deskribapenean ez naiz luzatuko. Nahiko dugu argazkioi gainbegirada egitea, maiuskulen zirriborroak, lerroen luzera ezberdin eta hizkien trinkotasuna bereizteko. Orduko ortografiari jara egin gabe, haseratik eman gendun Alex nire transkribatzaile lagunak eta biok, nire ahotik harakoa makinaratuko zuela, ez halabaina mekanismo hutsaz, nire hotsetara berak antzematen zuenez baizik. Nonbait hori ez daite, izatez, argitaratze kritikoa, baina astia dagoke geroan, nahi diren estudioak egitekotan.

Beste gabe, eta horren ardurazko mezuaren nolabaiteko sorzaintza egokitu zaitalakoaz pozik, zorionak eman nahi dizkiek arkeologo eta aztarna-zaleoi. Besterik gabe, eskua uzten diot hurrengoari.”

Mahaiburuak historigile jauna aurkeztu zien mahaikoei. Erdi Haro Beheko arazoetan maisua zen nonbait. “Bitxia da benetan, bitxiegia ere esango nuke, —Betagainak jaso zituen historigile jaunak— ez Don Vigilaren latinetan eta areago Al-Makkariren arabieran, Done Miliako euskararen baizik, ordukoen berri jakitea. Eta, egia esan, euskara hau ez dabil arabiera edo latin haren alorretik urrun hemen azaltzen diren ekintza nabarietan, baina historiako ekintzok euskal ikuspegitik, eta bereziki Arabako euskaldunen begiez ikustea bera dugu idazkion aportazioa. Hala ere idazle edo idazleon jokera eta asmoa alde batera utzirik, nahiago izan dut orduko gertakari historiko batzuek idazkiotakoe-kin konparatzea. Eta haundi maundi jota, hala ikusten dut, hemen agertzen diren pertsonai eta gertakari beheinenak X. gizaldikoak direla, gizaldiaren azken hogeitakoa, hurrago emanda. Hala, esate baterako, Don Ramiro, Naiara eta Bigerako errege eta Iruinako Don Santxoren semea, Almantzurrikoko bu-

rrukan 981an hil zena. Beste hainbeste esan beharko Abu-Amid-Mohamed, Almantzur deituko zenaz esaten diren zenbait zehaztasun. Susmogarriak egin zaizkik hasiera baten Armentiaiko Don Munio gotzainaz esaten direnak, baina, bazterrak aztertu eta ezin ukagarriak ematen ditut, bere heriotza berere, 991 gertatu bai-zen, Duero aldeko zarraparra batetan.

Ezagunak dira orobat Gartziz Fernandez, Gaztelako kunti eta Arabako Don Bela jaun-ohi eta Kordoban errefuxiatu zegoenaren arteko etzaigoa, Don Belaren matxinoak e.a. Hor agertzen da *Don Bildur* pertsonaia ere, XII. gizaldian oraindio Bertzeoko Don Gontzaloren gogoetan ikusten duguna. Pertsonai hau, kontesto orokorrago baten agertzen denarren, Abarkaren seme Don Gartzia, Nafarroko errege *El Tremulo* deltuari egotsia ere ba dager.

Frogagarriak dira bestalde, Done Miliako monastegiak, Errioxan ezeze, Araba osoan eta Bizkaian bertan izan zuen eragina, orduko zenbait 'fundazione' eta 'donazionetan' agertzen denez. Armentia eta inguruko beste gotzaitegiaren arteko tira-birak ere gainerako politikaren eraginetik ondo egiztatuak datozke, bada Kalagurriko gotzaitegiak ez zuan amore eman, arik eta Armentiakoa bere ondakin egin arte. XII. gizaldian berekotu zuelarik ere, Bizkaiko Jauntzak ez zuan ezagutu nahi izan Kalagurriko gotzaintza XVI. gizaldira arte.

Iskribuon etena milagarrenen Done Miliako monastegiaren erreketaz sortzen da. Autore edo autoreek ez zuten erreketaren berri emateko betarik izan, baina bai ausaz arteko dokumentuok arkeologoen eskuetara iritxiazteko lain. Gero isila, baina ez historiari utzi dizkigun zehaztasun batzuek gabe. Zer izan zen bizi-rik gelditu ziren beste pertsonaiez, Almantzurrez, esate baterako? Milagarren eta biaz hil zela, Kordoba aginte eztabaidatuaren mende eta Kalifagoa beharakadan uzten zuela. Don Belak ez zuen bete ahal izan Arabara itzultzeko amesa, bere seme biak

ahalegindu zirenarren. Eta ahalegindu zirelako, hain zuzen, Leongo mendietan erori ziren nafartar errege-barandarien eskuetan.

Historiak maiz galtzaileei ez die arrazoirik ematen, baina iskribuotan ahalegintxoak ikusten ditut. Galtzaileak ez ziran ba, alperrik Arabako herrigintza demokratikoaren jarraileak eta idazleok Done Miliako arabarrak. Izan ere, historiak eta gaurdainoko toponimiak arraz frogatzen duenez, Beloradotik eta Done Miliara, arabar artzainen kolonia sendoa bizi zen orduetik eta XIII. gizaldira behenipehin, euren euskara eta guzti. Euskara bera ere, zoritxarrez, galtzaile izan zela harrezkero Errioxa goienean. Euskalki hori bizkaiera bera edo bere barianteetariko bat zenuen. Baina orduko eta gaurko galpenen berri zehatzagorik filologo jaunak esango digu. Orain arte esanekoez aski da nere aldetik”.

Historigile jaunak txanda amaitu zueneko, hizkuntzalari jaunak folioak urduri mugitzen hasi zen eta mahaiburuak buru-naka bat egin zioneko, estarria gozatu zuen. “Hizkuntzen *agravio* edo euskalkien galerak aipatzea ez dagokio ni bezalako filologoen ‘espezialidadeari’ —esan zuen—, ez eta Done Miliako monxeen euskara bizkaiera ala nafartera zen egiztatzea. Nafar euskalkietatik hubilago dago beheinipehin hango glosarioetako euskara apurra: *guk ez dugu ajutu*, eta *isioki dugu* perpausok, hain zuzen.

Iskribuotan agertzen den euskara ordea, bizkaiera hutsa da, ez noski X. gizaldian egiten zena, hitz testimonialen batzuek aparte, orain egiten den bizkaiera baizik... Bueno, orain egiten den bizkaiera esatea larregi da. Oraindio autore batzuk egiten duten bizkaiera esango nuke nik. Honetan ez dakit paleografo jaunaren ahozkeratik ala bizkaitar baten interpretatzeetik eriten digun halako euskarak. Ez naiz hortan sartzen, baina interpretaria

nafarra-edo izan balitz, agian, goi-nafarreraz-edo legoken. Ez dakit.

Egia da, zuetariko batek hona sartu aurretik ohartzen zidanez, ez dakigula zer nolakoa zen orduko bizkaiera, baina ba ditugu XVI. eta XVII. gizaldietako bizkaiera moduko arkaikoak eta, beraz, bizkaieraren eboluzioa nahiko argi egizta diezaikegunak. Horrela, erratze-arrisku haundirik gabe, euskera hau X. gizaldikoa ez dela esan genezake, *Jaun Inko*, *meniak* eta beste hitz testimonial batzuk izan ezik. Hori bai, ziur X.ean ere zaharkitu gelditu ziren toponimia uhari, nik uharitxoegi ere esango nuke, agertzen dira eta batzuetan irakurleak ez daki nongo lurraldetik zehar dabilen Don Bildur edo Done Miliako misionaria.

Oraingo *Lete* toponimia aldi batetan *Lebete* eta *Legete* izan zela bai, egizta genezake, baina hortik *Oina* euskerazko *oin* izenetik barik, *Okina* forma ezagunetik bezala edo eta, zailagoa dena, *stabulu* latinetik datorren *Estabillo*, *Etxagibel* formatik sortarazteari larregia deritsat. Bestalde, gurean etimologietan kopuruz uhari baizen kritikaz maskal aritu izan denez, ez deritsot gomendagarria lehengo altxorrari beste hau gehitzeari, ez eta edizio kritikoa egin aurretik, halakoei bide emateari. Esan dut.”

Hainbestez hiru epaileen eritsi-ematea amaitu zen. Eritsietan adostasunik ezean, mahaiburuak ez zuen ez aldeko ez kontrako epairik eman nahi izan. Batez ere, hizkuntzalari jaunaren *edizio kritikoa* aintzat hartu zuelakoz edo, gauza geroago baterako atzendu zuen. Hanartean biziki ohar egin zien arkeologoei, euren eskuetan gelditzen ziren larrukiak lehengo ezetasun eta giroan kontura-haundiz gorde zitzatela, ordu hobea heldu zeino.

— Ostera ere, Done Miliako orma-zuloan gordetea gura do-
zue? —Haginak erakutsi zituen Ikerrek—. Ez nik behintzat. Hor
dozuez narruok eta gorde eizuez zeuok dakizuen eratan.

Ikerrek mahai gainean utzi zituen larrukiak, mahaiburua ahalik gozoen azalpenak ematera hurbildu zitzaion.

— Esanak ez oker ulertu, mesedez, adizkide. Etorbizuneko zientziak, orain ez dauzkagun medioekin ber-frogak eginaz, larrukion antzintasuna ber-azter ditzan diotsut eta, norik jakin, era berean, barne edukinen sekretura ere horrela iritsiko garen...

Mahaikideak jagi eta auzia halatan zegoela, asnasoska baten heldu zen Alex, falta zen lekukoa. *Isioki dugu* baino beste agurrik ez zuen esan eta filosofoaren harako *eureka* esan nahi zuen, mapa antzeko papera erakutsi zuenean.

— Jaunak, asmatu dot azkenez Don Estebanek Ezkaraitik Bosturira ibili eban bidearen arrastoa. Hona hemen ikusi daizuen.

Mahaiburua paperari baino, areago filologo jaunari begira gelditu zen une batez, “horra falta zitzaigun azken-aurreko etimologoa” esan nahi bailion.

EGUNAK IGARO DIRA ORDUTIK HONA. HIRU MOSKETEROEK, larrukiak orma-zuloan sartzen gehiago arduratzeke, edo euskaltzainak aginduriko ‘edizio kritikoari’ begira egon gabe, bigarren milagarrena bete orduko, iskribuok, eurak idoro eta interpretatu zituzten eratan, argitaratzea erabagi zuten. “Zeren bildur, Don Bildur?” esanaz eta hirukoitzean eskuak txortatuz, elkar oldatu ziren. Alexek berriz, etimologiez esan zenaren jakitun, “besterik ezean, —esan zuen— etimologaritzat ezagutuko gaituek...”. “Teup... !” oihu egin zuten besteek, artean, ekintza berritan lehiatzen zirelarik.

Autorearen beste lanak:

a) Umeentzako ipuinak:

Pinto 1 (1979) (1982)

Pinto 2 (1980)

Kirru eta aldapeko sagarra (1982)

b) Gazteentzako ipuinak:

Karramarroen aurrekua (1983)

Kuku pasota (1984)

Halabebarrez mediku (1986) etab.

c) Eleberriak:

Babilandia (1977)

Agora-saria-63 Donostian

Rb-Odolestuak (1982)

Espedientea (1987)

Kalean andre (1988)

Bizkai-Foru-Ald. Saria

*Lukuan lekuan malo*a (1990)

Bizkai-Foru-Ald. Saria

Don Bildur (1994) Eusko Jaurlaritzako
beka-laguntza (1993)

d) Olerkiak:

Kurtzemendi (1981)

Zure argi kliskak (1986)

Arrese ta B.- Saria

Uraren obikuna (1989)

Harri eta oihartzun (1990)

Deslilurapen parabolak (1990)

Oi Emmanuel! (1992)

Lizardi Saria (1991)



9 788479 925635

